Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lasarte-Oria



Aurkibidea

Udalerria: Lasarte-Oria

Sarrera



Donostialdea edo Buruntzaldea eskualdeko udalerria da. Iparraldean Donostia, hegoaldean Andoain, ekialdean Hernani eta Urnieta eta mendebaldean Usurbil eta berriro Donostia mugakide ditu. Industria sektoreak eta zerbitzuek garrantzia dute eta industria garrantzitsuena Michelin lantegia da. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

Herrian oso ezaguna eta maitatua den Patxi Etxeberria bertsolaria ere elkarrizketatuta dago (Lasarte-Orian bizi arren Orioko orrian dator). Oriarte Institutuko sei gazte ere elkarrizketatu genituen Udalarentzat, hitanoarekin lotuta (usurbildarrak direnez, Usurbilgo orrian datoz): Eneka Muñoz, Ixone Santxez, Lander Iribar, Aimar Vázquez, Irati Alduntzin eta Enara Villafafila.

- **Biztanleak**: 18.047
- **Euskaldunak**: %45,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **54**
- Zintak: **74**
- Pasarteak: **1.307**
- Transkribatutakoak: **10**
- Audioak: **76**
- Bideoak: **1.226**

Proiektuak

- 101L - DSS2016 Donostialdea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Lasarte-Oriako Ahotsak
- Lasarte-Oriako euskararen historia soziala
- Lasarte-Oriako historia
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Maria Luisa Aginaga Zabaleta (1939)



Aita Usurbilgoa zuen eta ama Leitzakoa; Usurbilera ezkondu ziren, baina gero Lasartera joan ziren bizitzera: zazpi seme-alabetako sei bertan jaio ziren; Maria Luisa hirugarrena zen. Aita eta izeba Michelin lantegian zebiltzan lanean, eta Michelingo etxean bizi ziren. Maria Luisa herri eskolan ibili zen lehenengo, eta gero Michelingo eskolan. 13 urtera bitarte: ahizpa gazteena jaio zenean, eskola utzi behar izan zuen, amari laguntzeko. Josten ikasi zuen, lau urtean Donostiako Subijana tailerrean, eta jostuna izan da: etxetik egin du lana. Lapuebla de Labarcako (Araba) gizon batekin ezkondu zen, Michelinen lan egiten zuena, eta lau seme-alaba izan zituzten. Lasarte-Oriako udaletxean elkarrizketatu genuen.

Trini Agirre Kortazar

Mertxe Altuna Iruretagoiena (1945)



Lasarte-Oriako erdigunean jaio zen Mertxe, elizaren ondoko etxean (garai hartan Hernaniri zegokion eremuan). Federico Galardiren etxebizitza zen izatez, baina familia errentan bizi zen bertan. Izeba Malenek eraikinaren azpian denda bat zuen, eta sarritan egon izan zen Mertxe han izebari laguntzen. Lau anai-arrebetan gazteena da bera. Bosgarren ahizpa bat ere jaio zen, baina meningitisak jota zendu zen jaio eta gutxira. Ama Aiakoa zuen, aita,"etxetxo", Albizturkoa. 7 urte zituenetik 14 urte bete arte joan zen Michelinek eliza atzean jarritako eskolara. Bai aitak eta bai bi anaiek Michelinen bertan egiten zuten lan. Mertxe, ordea, 14 urtez ATC (Aplicaciones Técnicas del Caucho) fabrikako langile izan zen, goma mozten hasieran, bulegoko lanetan ondoren. Errekaldera ezkondu eta hiru seme-alaba izan zituen. Hamar urtez garbiketa-enpresa batean aritu zen, eta handik hartu zuen erretiroa.

Batista Amas Ugalde (1947)



Zubietako Goiaran baserrikoa. Ama Hernanikoa zuen eta aita Zubietakoa (Michelinen egiten zuen lana). Hiru senide ziren: anaia zaharrena 19 urterekin hil zen, itota. Juan Bautista (Batista deitzen diote) Lasarten ibili zen eskolan 8 urtera arte eta ondoren Usurbilen. Lasarten esnea partitzen zuten egunero; arrebak gehienetan. Hernanin tornero ikasketak egin zituen, eskola profesionalean, eta Guca sartagin lantegian hasi zen lanean, Lasarten. Michelinen ibili zen gero, erretiroa hartu arte, mekaniko moduan. 1971tik Lasarte-Orian bizi da. Aiako emakume batekin ezkondu zen. Lasarte-Oriako udaletxean egin genion elkarrizketa.

Kontxa Arraztio Saralegi

Inaxi Arregi Egiguren

Bittori Arruti Aburuza (1937)



Usurbilen jaioa, Ibarrola baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama gertuko beste baserri batekoa: Usaskua. Sei senidetan laugarrena, baserriko lanetan ohitua umetatik. Usurbilen ibili zen eskolan 6 urtetik 14 urte bitarte, baina Lasarterako joera handia izan du gaztetatik: 14 urte zituela, Lasartera joaten zen dantza egitera, ahizpa zaharragoekin. Gazterik hasi zen Michelin lantegian lanean ere. Zazpi urte eman zituen han, ezkondu zen arte. Lasarteko Sausta (Sasoeta) baserrira ezkondu zen: 14 urtean esnea partitzen ibili zen, ondoren. Lau seme-alaba izan zituzten. Ikastolaren sorreran parte hartu zuten. Sausta baserrikoak txalapartariak ziren. Lasarte-Oriako udaletxean egin genion elkarrizketa.

Maria Luisa Arsuaga Tapia (1938)



Maria Luisa Donostian jaio bazen ere, Lasarte-Oriako Goiegi baserriko da, sei senidetan zaharrena. Aita Goiegikoa bertakoa zuen; ama, berriz, Asteasuko Mintegia baserrikoa. Eskolara zazpi urterekin hasi zen joaten, baina ordurako bazekien irakurtzen Maria Luisak, haren izebak irakatsi baitzion. Hamar urterekin amari Donostiara laguntzen zion esnea saltzera. 14 urterekin josten ikastera joaten hasi zen. Enkargu txikiak egitetik Goiegin bere josteko akademia sortzera iritsi zen. Ondo ezagutzen zituen Maria Luisak Goiegiko eta izebaren pentsioko sukaldeak, eta Goiegi erretegia ireki zenean sukaldari-lanetan aritu zen bertan.

Juantxo Arteaga Yeregi (1937)



Lasarteko kaleko etxe batean jaio zen Juantxo. Bost senidetan bigarrena da bera. Guraso biak lasartearrak eta baserritarrak zituen, aita Indianoenea baserrikoa, ama Larrekoetxekoa. Azpian perrategia zuen etxe batean bizi ziren. Aitak Michelinen egiten zuen lan. Haurtzaro osoa amaren Larrekoetxe baserrian pasa zuen, 15 urte bete arte. Ondoren, arotz-lanetan ibili zen hiru urtez. Azkenean, aseguru etxe batean lana topatu zuen eta han egin zuen lan erretiratu arte. Ezaguna da Juantxo herrian, politika-munduan izan duen parte-hartzeagatik. Ikastolaren eta herriaren sorreran asko lagundu zuen, elkarrizketan ederki asko azaldu zigun bezalaxe. Maria Luisa Muguruza emaztea eta Rafael Ollokiegi lehengusua ere elkarrizketatuta daude.

Pepi Astigarraga Urkola (1932)



Herrian Joxepa deitu izan diote, baina berak nahiago du Pepi. Ama Alkizakoa zuen eta aita Oikiakoa. Amak arropa garbitzen zuen, kanporako; aita arotza zen eta Michelin lantegian egin zuen lana. Lau senidetan hirugarrena zen Pepi: bi mutil eta bi neska ziren. Umea zela, Michelin lantegiaren ondoko etxean bizi izan ziren. Gerra sasoian lau urte pasatu zituzten aitarik gabe, hura kartzelan eta Langile Batailoietan eduki zutelako. Pepi hainbat lanetan ibili izan da, ume-umetatik hasita: arropa garbitzen (amari laguntzen), neskame Donostian, arrandegi batean, dendari... Michelin lantegian ere ibili zen, ezkontzean lana uztera derrigortu zuten arte. Leongo gizon batekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ikastolaren sorreran parte hartu zuen. 60 urterekin, alargundu ostean, Donostiara joan zen bizitzera (Donostian egin genion elkarrizketa, Mariasun alaba bertan zela).

Maria Concepcion Beraetxe Aranburu *Maritxu* (1925-2022)



Usurbilen jaio zen Maritxu. Txikierdi auzoko Asteasuainberri baserrian eman zituen bere lehen urteak, amaren baserrian. Ondoren, kalera jaitsi ziren bizitzera. Hamabi senidetan gazteena da bera. Moja-eskolan egin zituen lehen ikasketak, eta hamabost urterekin Asteasura joan zen umezain. Donostian ere aritu zen neskame lanetan. Ergobiko Erbitegi Etxeberri baserrira ezkondu zen, baina 32 urterekin, hirugarren umearen zain zegoela, Lasartera joan zen bizitzera. Lasarten eman ditu bere bizitzako urte gehienak. Usurbilgo eta Lasarteko hamaika kontuz aritu zen Maritxu, baita kantuan eta bertsotan ere.

Harkaitz Cano Jauregi (1975)



Lasarte-Orian jaioa. Ama irakaslea zen, eta aitak banketxe batean egiten zuen lana, ikasketaz abokatua eta afizioz idazlea izan arren. Irakurzalea eta musikazalea umetatik, etxeko giroa halakoxea baitzen, Harkaitz gaztetxotatik hasi zen istorioak kontatzen eta idazten. Landaberri ikastolan ibili ziren arreba eta biak. 14 urte zituenean, familia Donostiara joan zen bizitzera: Santo Tomas Lizeoan jarraitu zituen ikasketak. Zuzenbidea ikasi zuen ondoren, baina ordurako argi zeukan idazle izan nahi zuela. 1993an, 18 urterekin, Lubaki literatur bandako partaideetako bat izan zen (14 gazte ziren orotara): Susa literatur aldizkaria beraien esku utzi zuten, eta irakurraldiak ere egin zituzten, herriz herri. 1994an argitaratu zuen bere lehen liburua: "Kea behe-lainopean bezala". Beste asko etorriko ziren segidan (informazio gehiago), eta gaur egun idazle preziatua da Harkaitz Cano. Ipuina, poesia, eleberria, saiakera, kronika, itzulpena, gidoia... bide asko jorratu ditu, eta sari dezente jaso (Euskadi Literatura saria, besteak beste). Idaztetik bizi den bakarretakoa da. Literaturaz jardun genuen berarekin, haurtzarotik orainaldira doan ibilbidea eginez.

Beatriz Egizabal Ollokiegi (1971)



Lasarte-Orian jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Umetatik izan da ipuinzalea, baina 1998an hasi zen ipuin-kontalari moduan lanean, laborategiko lana utzita. Oihulari Klown taldean ibili zen. Ahozko narrazioen lanketa eta umorezko bakarrizketak ere egiten ditu. Kontukantoi taldekoa da. Feminismoari eta antzerkigintzari buruzko elkarrizketa egin genion.

Mari Jose Eizmendi Tapia

Tomas Eleizegi Lasarte

Zaltzate baserrian jaioa, zortzi senidetan nagusiena. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Urnietakoa, Aierdi baserrikoa. Garai bateko bizimoduaren inguruko kontu ugari kontatu zituen. Elkarrizketetan bere emazte Frantziska Villabonak, Sebastian Kerejetak eta Matias Urruzolak ere parte hartu zuten.

Domingo Erauskin Arsuaga (1908)



Zabaleta auzoko Zabaleta baserrian jaioa 1908an. Gurasoak ere lasartearrak zituen, aita Zabaletakoa bertakoa eta ama Etxetxon jaioa. Bederatzi anai-arreba izan ziren, baina bi oso umetan hil ziren. Michelin lantegian lan egin zuen. Emaztea asteasuarra zuen.

Txomin Erauskin Garmendia (1943)



Lasarte-Oriako Zabaleta baserrian jaio zen Txomin, garai batean Hernaniri zegozkion lursailetan. Baserriak berak ematen zion auzoari Zabaleta izena, eta bertan bizi ziren guraso biak, arreba gazteagoa eta Txomin. Aita bertakoa zuen, ama, ordea, Asteasukoa. Baserritik bizi zen familia; aita, gainera, txerri-hiltzailea zen. Herriko eskolan ikasi zuen lehenengo, eta Donostiako Nuestra Señora del Pilar eskola pribatuan ondoren. Azken honetan bulego lanetarako prestatzen zituzten ikasleak, eta horri esker, baserritik kanporako lanetan aritu da, hala nola, Banco San Sebastianen, eta Kutxan gerora. Azken honetatik hartu zuen erretiroa. Kutxan lanean ari zela gertatutako hamaika anekdota kontatu dizkigu, baita sagardogintzari eta Zabaleta auzoari buruzkoak ere.

Modesto Erauskin Gurrutxaga (1923-2018)



Lasarteko Largoenea kale-etxean jaioa. Aita lasartearra zuen, Zabaleta auzokoa, eta ama Albizturkoa. Hamahiru urterekin Oriako Brunet tela-lantegian hasi zen lanean, eta han jarraitu zuen hemezortzi urte bete arte. Ondoren tailer mekaniko batean aritu zen, eta, azkenik, Michelinen. Gaztetan dantza-taldean ere aritu zen.

Martina Iturrioz Lazkano (1933)



Lasarteko Zabaleta auzoko Etxetxo baserrian jaio zen eta gero Pepenean bizi. Etxe berezia zen hura, bi bizitza zituena, eta haiek etxe nagusiaren atzeko aldean bizi izan ziren. Bost senidetan bigarrena zen bera. Ganadua zaintzera bidaltzen zutenean, jostorratza eta haria hartuta joaten zen bera. Josten ikasten ibili zen, eta eskola batean irakasten ere aritu zen ezkondu eta gerora. Arrandegi bat ere izan zuten.

Maria Izagirre Lopetegi (1911)



Zubietan jaioa, Iruin (Irigoien) baserrian. Hamar anai-arrebatan bigarrena. Aita Zubietakoa zuen eta ama Igeldokoa. Zubietan ibili zen lehenbizi eskolan, maisuarekin, eta, ondoren, Usurbilen, mojetan. Umetan amaren jaiotetxean egon zen Igeldon zenbait urtez. Gero Portugaletera joan zen neskame; udaran Donostiara joaten ziren, etxeko nagusien gurasoenera. Senarra ere Zubietakoa zuen.

Xebastian Kerejeta Irazustabarrena (1934)



Oriako (garai hartan Urnietaren parte) Bitoriaenea baserrian jaioa, Goikoetxe bezala ere ezaguna. Aita Zumarragan jaioa zen, baina 5 urterekin familia Oriara joan zen bizitzera (okindegia jarri zuten bertan, osaba batek Ameriketan egindako diruarekin). Ama, berriz, Hernanikoa zen, baserritarra. Hiru senide ziren, baina bi lehengusu umezurtz beraiekin joan ziren bizitzera eta bostak anai-arreba bezala hazi zituzten. Oriako eskolan ibili zen Xebastian, 13 urtera arte. Baserriko lanetan gero. Donostiara joaten zen esnea partitzera, tranbian, goizero. Soldaduska egin ondoren Michelin lantegian hasi zen lanean, eta handik hartu zuen erretiroa. Hainbat elkartetako kide da Xebastian, eta herrigintzan jardun du; besteak beste Ttakun elkartean eta Lasarte-Oria aldizkarian. Lasarte-Oria herriaren sorreran parte hartu zuen, eta elkarbizitzarako hainbat ekintza bultzatu zituen.

Nekane Larzabal Oronoz

Joxe Martikorena Sagardia (1936)



Zubietako Petritza Txiki baserrikoa. Bi anaietan gazteena, Joxe (ala Joxetxo) deitu izan diote beti, baina jaiotza-agirian Joxe Manuel bezala dator. Usurbilera joan zen eskolara, baina gutxi, bi anaiek baserriko lanetan lagundu behar izaten zutelako. Aita Igeldokoa zuten eta ama usurbildarra. Igeltsero lanetan ibili zen eta baita kobratzaile bezala ere, Zubieta-Lasarte-Donostia autobus linean. Ondoren Michelinen hasi zen lanean eta handik erretiratu zen. Astigarragako emakume batekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten. Lasarten bizi da aspalditik. Joxe Antonio anaiarekin batera elkarrizketatu genuen.

Joxe Antonio Martikorena Sagardia (1934)



Zubietako Petritza Txiki baserrikoa. Usurbilera joan zen eskolara, baina gutxi, bi anaiek baserriko lanetan lagundu behar izaten zutelako. Aita Igeldokoa zuten eta ama usurbildarra. 15 urterekin Abrasivas del Norten hasi zen lanean, eta 16rekin kobratzaile bezala Zubieta-Lasarte-Donostia autobus linean; soldaduskatik bueltan autobus-gidari ere ibili zen. 29-30 urterekin Michelinen hasi zen lanean eta handik erretiratu zen. Donamariako (Nafarroa) emakume batekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten. Lasarten bizi da azken 60 urteetan. Joxe anaiarekin batera elkarrizketatu genuen.

Jazinto Martin Garcia (1912)

Avilako La Villa de Mombeltrán herrian jaio zen 1912an, hamabi senidetan gazteena. 1913an, haimaika hilabete zituela, familia Lasartera joan zen bizitzera. Emaztea Azpeitikoa.

Maria Luisa Muguruza Tellaetxe (1947)



Lasarten jaioa, Kale Nagusian (General Mola kalea, sasoi hartan). Aita Hernanikoa zuen eta ama Deustun jaioa (amaren aita muntatzailea zen, eta familia Lasartera joan zen bizitzera). Bost senidetan zaharrena da Maria Luisa. Herri eskolan ibili zen lehenengo eta Michelingo eskolan gero; Donostian ikastaro batzuk egin ostean, Intxausti aroztegian administrari hasi zen lanean. Lasarteko giroa oso erdalduna zen frankismo garaian, eta kaletarrak erdaraz bizi ziren. Maria Luisa 16 urterekin euskara ikasten hasi zen. Juantxo Arteagarekin ezkondu zen, eta bi seme izan zituzten. Gerra garaiko hainbat kontu ere kontatu dizkigu.

Sebastian Muxika Treku

Urnietako Otsategi baserrian jaioa. 11 anai-arreba izan ziren.

Gabriel Nogues Martikorena (1920-2022)



Lasarteko "Traperia" esaten zitzaion etxean jaioa. Bere aitona Kataluniatik etorri zen nonbait, eta trapero-lanetan jardun zuen Lasarten. Gabrielen gurasoak lasartearrak ziren. Arrebak jostunak zituen, eta bera sastre-ofizioa ikastera bidali zuten Iruñera. Han zela, ordea, gerra hasi zen. Bere familia sakabanatu egin zen, eta bera 17 urterekin bakarrik gelditu zen, senide batzuk Frantzian zituela eta beste batzuk berriz frontean gudari. Bera ere, lubakiak egiten lanean jardun ondoren, anaiei batu zitzaien, nazionalek preso hartu zituzten arte. Bera gaztea zen oraindik, eta etsaiek aske utzi zuten. Orduan, berriz, errekete bezala borrokatzera deitu zuten. Gerra bukatu zenean, Lasartera itzuli zen eta sastre gisa lan egin zuen, etxe azpian, jubilatu zen arte. Elkarrizketatu genuenean bere jaiotetxean bizi zen.

Juan Nogues Martikorena (1915)

Lasarteko "Traperia" esaten zitzaion etxean jaioa. Aitaren aldeko aitona Kataluniatik etorri zen nonbait, eta trapero-lanetan jardun zuen Lasarten. Aita lasartearra; ama Oriotik etorria. Zortzi senide izan ziren eta lehengusu bat ere beraiekin batera hazi zen. Kontzejuko eskolan ibili zen umetan. Umetatik denek ahalegina egin behar izaten zuten, etxera diru apur bat eramateko. Amak denda zuen.

Mari Kruz Nogues Martikorena (1907)

Mari Jose Olaziregi Alustiza (1963)



Donostian jaioa, Lasarte-Orian bizi izan zen 21 urte ingururarte. Aita errementaria zuen, eta ama bordatzen lan ugari egindako ergobiarra. Landaberri ikastolan ibili zen Marijo, eta bertan izan zituen irakasleek eta giroak literaturzaletu egin zuten. Euskal Filologia ikasi zuen Donostian (EUTG) eta Gasteizen (EHU), eta ondoren ikasten eta ikertzen jarraitu zuen, besteak beste Nevadan eta Alemanian. Literatur kritikaria da eta hainbat ikerketa-lan plazaratu ditu (informazio gehiago). Euskaltzain urgazlea da 2003tik, Center for Basque Studies-eko Basque Literature Series-eko zuzendari, eta MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan) ikerketa taldeko zuzendari. Etxepare Euskal Institutuko Euskara Zuzendaria ere izan zen. Euskal literaturako irakaslea da EHUn. Literaturari buruz egin diogu elkarrizketa.

Eulalia Ollokiegi Sarobe (1937)



Hernanin jaio zen. Kaletarra da bera, herriko plazan kokatzen den Olaetxea etxekoa. Bertan eman du bizitza, aitak senide bakoitzari pisu bat eman baitzion. Bi ahizpatan zaharrena. Familiakoen Larrekoetxe baserrian eman zituen ordu asko, bai aitak eta bai amak industrian egiten baitzuten lan, Bruneten aitak eta Michelinen amak. Gerora, Eulaliak ere Michelinen egin zuen lan, kubiertak egiten. Añorgako gizonarekin ezkondu, eta bi seme-alaba izan zituzten. Aitonak Oriatik sorgindantza eraman zuen Lasartera.

Rafael Ollokiegi Yeregi (1937)



Toursen jaio zen Rafael, aita errepublikarra izateagatik ihes egin baitzuten gurasoek Frantziara. Ama, Valentina Yeregi, Lasartekoa zuen, Larrekoetxe baserrikoa. Aita hernaniarra zuen. Frantzian jaio, baina 3 urterekin Lasartera ekarri zuen amak, Larrekoetxera. Bertan hiru urte eman, eta Buenos Aires auzora joan ziren bizitzera, baserritik hurbil. Aita besamotz gelditu zen gerran, eta bai amak eta bai Rafaelek Michelin lantegian egin zuten lan. 43 urterekin kalera jaitsi zen bizitzera.

Manuel Ormazabal Sasiain (1942-2011)



Lasarte oraindik Urnietaren eta Hernaniren esku zegoela jaio zen Telleriberri baserrian. Baserri hau "Segaienea", "Goikoetxe" edo "Kaxkarronea" bezalako izenekin ere ezagutzen du jendeak, izan ere, Manuelen ezizena "Kaxkarro" da. 7 senide ziren familian, baina bat txikitan hil zen. Lau anaia eta bi arreba ziren; bera laugarrena. Osaba eta aitona ere beraiekin bizi zirenez, 10 lagun bizi ziren baserrian, "baserri kaxkar hartan", berak dioen moduan. Soldadu joan behar izan zuen arte baserrian aritu zen lanean eta Michelin enpresan ere 9 urte egin zituen. Soldaduskatik etorrita, kamioi bat erosi zuen eta harekin lan egin zuen 34 urtez. Ganadua garraiatzen egiten zuen lan, eta inguruko baserri guztiak ongi ezagutzen zituen.

Iñaki Orotegi Gorostegi

Inaxio Otaegi Otaegi (1937)



Arrillaga baserrian jaio zen Inaxio, Urnietako Oztaran auzoan. Garai hartan Urnietari zegokion baserria, baina Lasarte-Oriarena izatera igaro zen udalerria sortu zenean. Hamar senidetan gazteena. Aita Beizamakoa zuen, ama Beasaingoa. La Sallen egin zituen ikasketak, Andoainen. Baserritik bizi zen familia. Hamalau urterekin Laborde lantegian hasi zen lanean, ondoren Michelinen. Anaiak sortutako Intxausti-Otaegi (Adarra) etxegintzako enpresan lanean hasi zen, eta handik hartu zuen erretiroa. Lasarte-Oriako ikastolaren sorreran lagundu zuen. Ttakun Kultur Elkarteko kide izan zen hasieratik.

Joan Otaegi Otaegi

Arrillaga baserrian jaioa. 10 senide, 7 Azpeitiko Matxinbenta auzoan jaioak eta 3 Arrillagan. Familia 1931n etorri zen Matxinbentatik Lasarteko Arrillagara. Erlijiosoa.



Marian Razkin Aginaga (1940)

Bi senidetan gazteena. Ama Zarautzeko baserri batekoa zuen eta etxeko zereginak egiten zituen. Aita Lizarrakoa zen eta Michelinen egiten zuen lan. Bi seme-alaben ama.

Micaela Sasiain Ormazabal (1929)



Urnietako (gaur egun Lasarte-Oria) Oztaran auzoko Elkezabalaundi baserrian jaio zen, 'Lauterdi' bezala ezaguna zena. Hamar senidetan gazteena da Micaela. Haren iloba Bixente Sasiain ere elkarrizketatuta dago. Hiru urte zituela aita hil zitzaion, eta bederatzi urterekin ama, tifusaz gaixotuta. Ahizpa zaharrena arduratu zen Micaela zaintzeaz. Eskola amaitutakoan josten ikastera joan zen. Hogeita sei urterekin ezkondu, eta alaba bat izan zuen. Senarrak Rezolan egiten zuen lan. Anaia Michelingo lehenengo langileetako bat izan zen.

Bixente Sasiain Sarobe (1942)



Elkezabalzarra edota Elkezabalaundi deitu izan zaion baserrian jaio zen Lasarte-Oriako Oztaran bailaran. Baina bere baserriari ingurukoek "Lauterdi" deitu izan diote. Baserriak mende asko ditu, eta haren arkitekturaz aritu zen elkarrizketan. Lasarte-Oria herri bezala agertu zenean, Oztaran bailara inoren eskuetan ez balego bezala sentitu zutela dio. 25 urtez bizitu zen Lasarte-Orian, eta gero, ikasketak eta lana zirela-eta, Elgoibarren bizitu zen beste 36 urtez. Elkarrizketaren garaian, Donostian bizi zen.

Patxi Sorarrain Kortadi

Pako Sorrondegi Urruzola (1936)



Lasarte-Oriako Oztaran bailarako Buenavista baserrian jaio zen. Sei senidetan bera da zaharrena. Lasarten ikasi zuen 14 urte arte eta gau-eskolan ere ibili zen gero beste bi urtez Urnietan eta Lasarten, bietan. Inguruan izaten ziren dantza egiteko aukerak, baina oroitzapen goxoenak bizilagun batek zuen gramofono batekin egiten zituzten dantza-saioenak dira. Michelin fabrikan pasatu ditu lanean bere bizitzako 34 urte. Horretaz gainera, sagardoa egin izan dute betidanik Buenavistan.

Andoni Unanue Lekuona (1932-2016)



Lasarten, Urretatarren etxean jaio zen. Bere aitak eta amak bertan lan egiten zuten, batak txofer eta besteak neskame modura. Bertan ezagutu zuten elkar eta etxe handiaren ondoan jarri ziren bizitzen. Bost senide izan ziren eta gerra-garaian Zarautzen pasatu zituzten bizpahiru hilabete. Opor modukoak izan ziren haientzat, baina berehala itzuli ziren Lasartera. Bederatzi urterekin Oriara joan ziren bizitzera eta hamahiru urte zituela Bruneten fabrikan hasi zen lanean bulegoan. Hogeita bi urte eman zituen bertan eta gero komertzial ibili zen, Espainian zehar batez ere. Hamazortzi urterekin abesbatza batean kantatzen hasi zen, bere aitak egiten zuen bezala. Ezkondu zenean joan zen Hernanira bizitzera eta geroztik han bizi izan da.

Maria Jesus Urkiola Soraluze (1930)



Lasarten jaio zen, Geltoki kalean. Aita Matxinbentakoa zuen eta ama Azpeitikoa. Bost senidetan hirugarrena zen. Hamabi urte zituela, Galarditarrek zuten dendan hasi zen lanean. Josten ikasten ibili zen. Paderak egiten zituzten Guca fabrikan lan egin zuen aurrena, eta gero Michelinen ere aritu zen, harik eta ezkondu zen arte. Ezkondu eta gerora ere etxe batzuetan ibili izan zen haurrak zaintzen eta etxeko lanetan. Gizona Aietekoa zuen eta, ezkonduz geroztik, bolada batez Donostian bizi izan baziren ere, Lasarten bizi izan ziren denbora gehiena. Azken urteetan Hernanira joan ziren bizitzera.

None Urretatarrak

Gabriel Urruzola Aristimuño (1933)



Lasarteko Oztaran bailarako Zatarain baserrian jaio zen. Zazpi senide ziren eta bera hirugarrena. Hamabost urte zituenerako aroztegi batean lanean hasi zen aitari laguntzen. Idiekin garraiatzen omen zuten egurra Plazaolako trenaren geltokiraino. Tren makala zela du gogoan eta, noizbait, haren tximiniak eragindako suterik itzali beharrean tokatu zirela ere bai. Hala ere, urte gehienak (hogeita hamalau, hain zuzen ere) Michelin fabrikan pasatu zituen. Etxean bera gelditu zen gurasoekin eta etxeko lanetan ere zuzen aritu behar izan du beti.

Matias Urruzola Sarasola

Iñaki Urruzola Vitoria (1943)



Lasarte-Oriako Geltoki kalean jaio zen Iñaki, nahiz jaio zenean lursaila Hernanirena izan. Lau senidetan hirugarrena da bera. Aita Urnietako Etxeberri baserrikoa zuen; ama Lasartekoa, kaletarra. Aita morroi joan zen Garin enpresara, eta bertan arotzeria ikasi zuen. Aitak tailerra ireki, eta Iñakik lekukoari heldu zion, bere anaiarekin batera. Arotzeriaren inguruan ibili da beti, baita soldaduska egin zuenean ere, Candanchun aritu baitzen eski-estazioko teleaulkiak eraikitzen. Euskal literaturarekin ere zaletu da. Ttakun kultur elkarteko kide. Lasartearra elkartearen sorreran parte hartu zuen.

Joxe Usabiaga Beloki (1943)



Lasarten jaioa, guraso biak Zaldibiakoak zituen. Aita Luzuriagan hasi zen lanean, eta gero Michelin lantegian ibili zen. Ama ere Michelingo langilea izan zen. Bi senide ziren: arreba eta bera. Joxek hainbat tokitan egin zituen oinarrizko ikasketak: Michelingo eskolan eta Añorgako eskolan, besteak beste. Ondoren Mekanika ikasi zuen, Hernanin. Lasarteko Gaztañaga metalurgian egin zuen lana, itxi zuten arte, eta gero Mitran; bertatik hartu zuen erretiroa. Donostiara neskame joandako emakume nafar batekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten. Joxe saltsa askotan ibili da gaztetatik: lehenengo JOC-en, gero PC alderdi komunistan, ondoren ikastolaren sorreran, guraso elkartean, Lasarte-Oriaren sorreran, anbulatorioaren sorreran, odol emaileen elkartean... auzolana izan du bizitzan filosofia, elkarri laguntzea.

Valentina Yeregi Inza (1915-2016)



Aita Villabonakoa zuen eta ama, berriz, Urnietakoa. Lasarten jaio zen bera eta eskola nazionalean ibili zen hamar urte bete eta jaunartzea egin zuen arte. Orduan, Errekaldera joan zen bere ahizparen etxera, haren haurrei kontu egitera eta laguntzera. Hamasei urte egin zituen arte egon zen haiekin eta Donostiako San Martinen zegoen etxe batean sartu zen gero neskame. Hogei urterekin noizbait ezkontzeko asmoa bazuela-eta, josten ikasi nahi izan zuen eta Lasartera itzuli zen. Ordurako bazebilen gero senar izango zuen gizonarekin eta, Gerrak ezkondu aurretik harrapatu bazituen ere, aitak berarekin alde egiten utzi zion. Aurrena Loiolara, gero Bilbora, handik Ortuellara, gero Santanderrera, Santanderretik Frantziara eta handik Biarritzera; hiruzpalau urtez alde batetik bestera ihesi ibili ziren. Ortuellan zibilez ezkontzea erabaki zuten eta gizona miliziano zebilela eskua moztuta utzi zuten berehala. Ospitaletik ospitalera mugitu zen gizona, eta beren lehen semea Frantzian jaio zen. Itzultzea erabaki zutenean, Lasarten atera zuten bizimodua nola edo hala. Itzultzean bigarren aldiz ezkondu ziren, elizaz eta "behar zen bezala".

Fortunata Zuaznabar Arrieta (1912-2013)



Lasarten jaio zen, Sasoetaundi izeneko baserrian, zazpi senideko familia batean. Soroan eta baratzean egiten zutena herriko bi dendatara saltzen zuen Fortunatak. Ama, berriz, Donostiara joaten zen esnea saltzera eta, bide batez, Brunet lantegiarentzat (eta beste batzuentzat) enkarguak egiten zituen. Lasarteko komentuko apaizei ere jai-arratsaldero eramaten zien litro bat esne Fortunatak. Esnea eraman eta, abarketa zuriak jantzita, plazan dantza-saio ederra egin ohi zuela kontatzen du. Ezkondu eta bere jaiotetxetik oso hurbil jarri zen bizitzen. 98 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.

Ixabel Zuaznabar Irulegi (1938)



Sasoeta auzoko Sasoetaundi baserrian jaio zen Ixabel. Hiru senidetan gazteena da bera. Aita baserrikoa bertakoa zuen, txalaparta-jolea eta Zeruko Argiako idazlea. Ama Andoaingo Anastegi baserrikoa zuen, jostuna. Maizter moduan bizi ziren baserrian, beste bi familiarekin batera: Otegitarrak eta Rekondotarrak. Hamabost urterekin eskola bukatu, eta 22 urte bete zituen arte Luzuriagako langile izan zen: bulegoko emakume bakarra zen Ixabel. 22 urterekin, ezkondu baino lehen, Misiones Diocesanaseko kide gisa Venezuelara joan zen, etorkizunean haren senarra izango zenarekin batera. Zazpi urtez ibili zen Venezuelan barrena, eta bere bi seme-alabak han izan zituen.

Joseba Zuaznabar Irulegi (1936-2018)

Txalapartaria, aitaren antzera. Grabazio honetan aitaren, Sasuetaaundi baserriko Migel Zuaznabarren, inguruko kontuak aipatzen ditu, besteak beste: aitak idatzitako pasadizoak, hark bildutako bertso-zaharrak...



Miren Zumeta Egia (1936)

Usurbilen jaioa, 7-8 urte zituenean familia Lasartera joan zen bizitzera, eliza ondora. Ama Asteasukoa zuen, baina umetatik Lasarten bizi izan zena, Axteasu baserrian; aita, berriz, Usurbilgoa. Miren eskola publikoan ibili zen lehenengo eta gero Michelingo eskolan; izan ere, guraso biak Michelin lantegian ibili ziren lanean (amak laugarren umea jaio zenean utzi zuen; sei izan zituen guztira). Mirenek 14 urte zituenean, bizkiak jaio ziren, eta haiek zaintzea ere egokitu zitzaion. 17 urterekin Bartzelonara joan zen neskame, izeba bati laguntzera, eta zazpi urte egin zituen han. Bueltan Michelin lantegian hasi zen lanean. Lasarten bizi zen andaluziar batekin ezkondu zen, eta lana utzi behar izan zuen. Bi alaba izan zituzten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Euskara eta gaztelaniaren elkarbizitza Lasarten

- **Hizlaria(k)**: Nogues Martikorena, Gabriel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LAS-001/005
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:10:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
  Euskara » Euskararen egoera
  Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Eskolan dena gaztelaniaz egiten zieten. Lasarten euskara egiten zen gehienbat kalean, baina baita gaztelania ere. Euskara asko atzeratu zitzaion Gabrieli: izan ere, 14 urte zituela lanbidea ikastera joan zen Iruñera, orduan gerra hasi zen, eta gerora kanpoko jende asko etorri zen Lasartera.

Transkripzioa
- Baiño ez zizuen euskeraz iten ordun, erderaz iten zizuen?
- Bai bai, dana erderaz.
- Ta zuek eunero moldatzen al ziñaten?
- Bai, zeatikan erderaz, erderaz oso errexa da ikasten.
- Baiño Lasarten aitzen zan erdera kalian?
- Bai, bai, bai.
- Bai e?
- Bai, bai. Baiño ia general euskeraz. Baiño geo nahi euskera asko atzeatu zait, zeatikan ni hamalau urtekin joan nitzan ofiziyua ikastea Pamplona. Ya erderaz. Geo gerra atea zan. Iya dana erderaz. Geo gerra bukatu, honea

etorri giñan. Hemen, lana leheno lana euskeraz zan ta geo hasi zan kanpoko jendia etortzen, total dana erderaz. Hemen urte asko izandu dia euskeraz ia ez zan aitzen. [...]. Usurbilen “por ejemplo” ta Zubitan kanpoko jendeik ez zeon ta euskeraz hitz eiten zan. Baiño hemen, hainbeste jende etorri zan kanpokoa, nahi ta nahi ez, dana erderaz. Eta oain ostea, hasi gea euskeraz. Eta euskera nei in zait asko atzeatu.
- Ez du ba ematen.
- Bai baiño, ez det ondo letzen ta zeatzen, euskeratik erdera pasatzen ta, asko kostatu; ezin det, ezin det.
- Hoi zailla da, bestela're?
- Ezin det, “o sea que” hasten naiz letzen, geo ze esan nahi dun erderaz ta nahastu iten zaizkit.
- Hoi nei’re bai e. Horreatik behintzat lasai eon.

2. Politika

2.1. Gerra aurreko giro nahasia

- **Hizlaria(k)**: Nogues Martikorena, Gabriel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LAS-001/009
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:15:22. **Bukatu**: 00:18:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Gerra hasi zenean, Gabrielek 16 urte zituen. Gerra aurretik giro nahasia zegoen: ika-mika handia zegoen nazionalisten eta komunista eta sozialisten artean. Orduko sozialistak eta komunistak oso estremistak ziren, eta Orian nagusi ziren; Lasarten, ordea, nazionalistak ziren gehienak. Lasarten gurutze-bidea egiten ari zirela iskanbilak egon ziren.

Transkripzioa
- Ta zuk gerra hasi zanian zenezkan hamasei urte?
- Hamasei urte, hamasei.
- Ya nahiko koskortuta ya?
- Bai.
- Nola goatzen zea zu? Hasi zala, adibidez, nola jakin zenduen? Eo nola, sumatzen al zan ya bazetorrela?
- Bazetorrela, bazetorrela ez, baiño gauza oso nahastuba zeon. "O sea que" nazionalistan, ordun, ordun PNV ez zan esaten, esaten zan "nacionalistas", “Partido Nacionalista Vasco”, PNV ez zan esaten; eta bestiak zian "socialistas" ta "comunistas" eta zeon pike ikearriya; baiño borrokan e?
- Lasarten sumatzen zan hoi?
- Joe, haundiya, "o sea que" zeon pike haundiya, diferentzi haundik baiño borrokako zeak eta. Ordungo sozialistak eta komunistak zian zian oso extremistak. Oaingo sozialistak dia ba “nada, nada”. Baiño ordun zian oso extremistak eta komunistak "ni te digo". Honea etortzen zian Oriyako jendia zian "socialistas” ta “comunistas", eta Lasartekuak iya danak zian "nacionalistas"; ta zeon Lasarte ta Oriyan artian pike haundiya zeon. Eta

goatzen naiz, Elizako kontuik eta ez zuen ezer jakin nahi, elizak erre in behar ziala ta kanpanak bota behar ziala molestatzen zuen... Ta Lasarten zeon, "el vía crucis", hoi ezautuko zendun?
- Ez, hoi ez.
- Ez, e? Zean dao, zeren "a ver" "Vía crucis"an, Lasarteko elizatikan Kalbariyotaiño. Kalbariyuak dia Fortunatan ta Tellerian ta etxian hola, han badao, zea, plaza txikia, zeakin. Han zauden hiru gurutze eta zan "el, la vía crucis" iten zan; eta Oriyako komunistek etortzian ta bidiyan zauden gurutze, gurutziak, zauden "los pasos" esaten zan: "cuando lloró y cuando Cristo no sé que hizo".
- [...] zanekuak?
- Hoi da. Eta bota iten zittuen zeak, Oriyako komunistek bota iten zittuen, ta elizak erre behar ziala ta kriston [...] zeon. Nazionalistak juten zian guardiya itea zea monjaidi; eliza ez erretzeko ta, pike handiya ta. Geo hortikan sortu zan gerra.

2.2. Biziraupena helburu

- **Hizlaria(k)**: Nogues Martikorena, Gabriel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LAS-001/030
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:59:32. **Bukatu**: 01:01:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Trintxeran zeudela, bizirik irautea zuten helburu. Katalunian, Manresara sartu zirenean, hotz izugarria egiten zuen, baina pasa egin zuten.

Transkripzioa
- Ze pentsatzen zenduen han? Euritan zeundetela trintxeran sartuta, botak bustita. Zuen ilusiyok zer zian, e?
- Ba, nola esaten da erderaz "la supervivencia, supervivencia".
- Atera behar diat hemendik?
- Zeozer ein behar diau, zeozer in behar diyau hau zeatzeko, nolabaitte. Estalpia billatu, tapatu, nola, ze. Lo nola itten gendun? Zuri esan, “bueno, mendin gu gora jun giñan” ta nola bizi leike hola? Ba, bizi leike hau inda, "supervivencia". Gu Kataluñan Manresa, Manresa herri haundia da. Manresa aittuko zendun, Manresa. Hara sartu giñan "víspera de reyes" eta gabian eondu giñan, gabian hurrengo egunian herriya okupatzeko eta haize hotza; "mekauen la puta", lo in eziñik haize hotzakin. Geo, herria sartzeko pasa behar gendun "el río Llobregat, río Llobregat" ta pasa gendun hua jantzita, fusillakin, honeaiñoko urian. Egun guztiya erropa harrekin eta gabian hotzakin, erreketan zan pentsatu. Hoi danak pasa itten dia. Baiño hoi pasatzen dia, hogei urtekin, hogeita bost, hogeita hamar.

2.3. Ezkondu eta berehala, senarrak besoa galdu

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Inza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa

- **Erref**: LAS-007/018
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:37:39. **Bukatu**: 00:41:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Ortuellan hilabete batzuk pasatu zituzten. Lau eguneko baimena eman zioten ezkontzeko, eta besoa galdu zuen handik egun gutxira, Urkiolan. Durangora joan ziren trenez, hura ikustera ospitalera.

Transkripzioa

- Ortuellan zenbat denbora pasa zenuen?
- Zenbat denboa? Ez dakit zenbat denboa pasa gendun. Hillebetiak, askoik ez. Hillabeten batzuk, askoik ez, han pasa genun. Ta geo etorri giñan ta geo mutilla jun zan, ezkondu, baiña ezkondutzeko eman zizkioten lau egun permiso ezkontzeko. Lau eguneko permisoa, orduako juna zeon ba kuartelea eo jun biher zan tokira. Ta lau eguneko permisoa eman zioten. Ta lau egun pasa, autobusan jun zan, gu han utzita. Handik laugarren eguneako, zortzigarren eguneako, herittuta, besua kenduta zeon geo. Bai, eta koiñata ta biyok jun giñan egun pasa Bilbaua, bi mutil koxkorrekin. Eguna pasatzea ta jun giñan hara ta han Hernaniko batzuk topatu [...] "Gran Vía"n. Ta esan zixkien hari esan zion: "Ba al dakizu anaiya herittuta daola?" "Ez, ez du ezer asko e? Jardiñian ta dabil ta!". Gezurra. "A bai? Bueno, bueno, jungo gaittuk hua ikustea ta" esan Hernanikuak ta "a ver" zer genun ba, etxea jun biharrian trenea jungo gea. Atxuria jun, trena hartu gendun ordubata ez dakit zer zan, eguardin, ta "a Portugalete". Ixo, "a Durango". Durangon, zeatik herittu zan, Urkiola aldeko mendi haundi hoitan. Ez dakit ze mendi dian hoitan. Hor, hor herittu zan. Ta hortikan jetsi zuen Durangoa. Bai, esaten du majiña bat bider idi-karruan han jetsi zuela behera.
- A bai e?
-[...] Besua moztua zintzilikan ta zaiñak ta denak lotuta ta geo esaten du txarren-txarrena geo behera jetsi zianian eo zea "Cruz Roja"ko anbulantziya, jo, hua zerua emen zan [...] hua. Handik Durangoa anbulantzin, hua zeruba. Bai, ta sartu zan ta berriz in zien. Belaxe sendatu zitzaiyon e? Jun giñan Durangoa trena hartuta, ya mutil koxkorrekin koiñata ta biyok, ta galdetu genun ospital holako nun zeon ta, pues, [...] jun giñan ta ez zigun utzi sartzen: "No se puede entrar, no se puede...", "Somos de familia", "pues, no, no", "Ésta es la mujer, yo soy su hermana", "Bueno, bueno, esperan, ya les hablaré" ta jun zan ofizina "o lo que sea" galdetzea, ta esan zun, etorri zan "Bueno, si sois su mujer y la hermana que pasen". Bai ta jun giñan, eskailletan hola iyo giñan, planta baja o zer zan etxe haundi bat, ta saloi haundi bat sartu, ta bi errenka inbaliduak, bi errenka han ta hemen hola aiii! ta oi!! Danak danak miñez, eta gu eskubita kuarto txiki bat, atia iriki zen eta lau ohi, bi hutsak zeuden. Bat Oriyakua zan, Fernando zan erroskilleruan semia, ezautu nun. Hura batian, guria bestian, ta bestia ez dakit zein zan. Ta guria tapatuta zeon, ta aurpegiya dana, begi bat bistan. Hau're galduta zun ba pixkat, baiño ez zun ikusten, baiño ez zin ezautzen e? Dana lotuba, ta besua ezin sartuta zakan. Ez zan ikusten. Ta jun ta arrebak musu eman ziyon. Ta nik ez niyon musik eman egiya esan e? Ez, ta bakizu ze esan zian? "Hobe gendun ez bagiñan ezkondu. Oain ze in biher degu? O ze in biher dezu?". Ta nik esan niyon, ez apuratu, nik lan ingo det. Esan niyon holaxe, esan niyon. [...] Ta nei're geroztikan, egiya

esan, majiña bat [...] pasa ditut lanian, baiña atera gera aurrea behintzat. Baiño hoi esan niyon.

2.4. Abadiñotik Bilbora; sirenak eta bonbak

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Inza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: LAS-007/021
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:44:05. **Bukatu**: 00:46:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Abadiñotik Bilbora joan ziren. Jende asko zegoen batera, eta handik beste etxe batera eraman zituzten. Bitartean, senarra ospitalean. Bonbardaketak. Sirenak jotzen zuenean, etxe azpira korrika.

Transkripzioa
- Bai “claro” [...] esan genun ba, hemen ez dakau ezer. Zea jungo gea, gu're Bilbao aldea jungo gea hemendikan. Bai, hoi in zuenian hurrena hemen hasiko dia ta gu han biyok bakarrik giñen ta geo Bilboa jungo giñan handikan. Ta koiñatak bere anai-arreba ta aitta ta geo koiñatak eta... Famili haundiya zan ta danak han zittun, ama ta aitta ta neskak, arrebak. Ta anaiyak mutil koxkorrak asko zian, beatzi-hamar bai ta haik errefujiatu zituzten etxe batian, danak batian. Ta gu're hara jun giñan, koiñata ta ni're bai haikin batian. Ta utzi gindun, abadian utzi gindun. Ta hara [...] giñan aita, ta egun batzuk eman giñuzen han ta esan genun ba denak hemen ez gea eongo, jende asko dao ta. Esan zun nobiyo, esan zian harek "hitz eingo det nik", aiuntamentua eo holako itten zuen. "Lo único" Axala zamakin, Axala Hernanikua ez dakit zuek ez dezue aitzea izango baiño, Axala Hernanikua hango zea itten zuna, mahatsa itten zuna ta be aittona gure nobiyuak bazakin [...] zan, "harena jungo gea, aber nunbaitten ematen digun zerbait". Ta jun giñan ta "joño, ze habil zea'". Harek ezaguna [...], ezagunak zian ta, familiyakin zeon. "Familiyan asko dittuk eta hari nunbaitte [...]". "Bai, baita, senar-emaztiak neska txiki batekin. Oso famili ona dek eta mataderuan lana itten dik gizonak, eta eramango dit, harexe eamango det", andria. Primeran. Ta halaxe, jesukristo haundiya badao nunbaitte han zean Gran Vian goiyen, "calle Iparraguirre, calle Aguirre" eo ez dakit zer zan. Hara, nei eaman zian.
- Ez dakit ze kale dan baiño, bai, ondo akordatzen zea e?
- Bai. Ta han ez zun denboa askoik in. Ni han bakar-bakarrik, beste senar-emaztiakin ta neska koxkorrakin ta, umekin ta ni haikin. Bea ospitalian. Haik beti ospitalian eoten zian. Bai, haik beti ospitalian eoten zian. Bai, ta han gendela, geo, zea pasa zan bonba, geo bonbardeatzea etortzen zian, noiznahi bonbardatzea, Bilbao bonbardeatzea. Ta bonbardeotan sirena jotzen zuen ta sirena jotzen zuenian etxe guztitakuak korrika behera, beheko pixua, "entresuelo" eo ez dakit zer zan. Danak behera, ta bukatzen zanian, "Dang dang dang!", "Botatzen ai dia", pentsatzen zan, ""a ver" hemen hiltzen gean, "a ver" hemen hiltzen gean". Bertakuak eta danak e? Etxe guztikuak eta bertakuak eta danak bildurrez, bonbak botatzen aitzen

zianian. Ta bukatu ta, "bueno, etxea", gora, pixu bat gora. Ailletu orduko errezatuuuu, "Jo!", berriz'e behera, sirena horrekin. Zenbat gora ta behera ibiltzen giñuzen.

3. Herria, azpiegitura

3.1. Lasarteko baserritarren bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Nogues Martikorena, Gabriel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LAS-001/039
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 01:30:42. **Bukatu**: 01:32:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- **Laburpena**: Lasarteko baserritarrek lurrak eta ganadua zeuzkaten. Elizaren atzeko pozaderara joaten ziren baserrietako behiak ura edatera.

Transkripzioa
- Ta baserritar hoiek, hoixe, baserritik bizi zian ta sorok eta dana beaienak?
- Bai, bai, bai.
- Bastante terreno eukiko zuen ordun?
- Bai, bai, bai. Eta hoi ganau hoi danak etortzen zian, hor zeon, zea, gosabera zeon. Gosabera ba al dakizu zer dan? Gosabera da behiyak eta edaten dittuen zea.
- Askan bat hola.
- Aska. Aska baiño aska, bueno, gosabera deitzen giñun; aska da, bai, aska.
- Baiño haundigoa bezela?
- Haundigoa bai. Eta basarri hoitako behiyak danak horrea etortzen zian ura edatea.
- Nun zeon hoi? Gosabera?
- Gosabera zeon, elizan atzian, nola dazkeu oain zeak, hor material batzuk utzita zean...
- Almazena.
- Almazena bezela, aiuntamientoko gauzak eta uzten dittuenak. Hor zeon. Ta Sastrautxetik eta handik horrea jexten zian ura edatea.
- Hor zuen itturriya? Gorago ez zeon iturrik, ordun?
- Ez, horrea etortzen zian edatea.
- Ta beste baserritakok?
- Beste baserritakuak eukiko zuen, ba erreka're bazeon ta.
- Ya.

3.2. Lasarte vs Oria

- **Hizlaria(k)**: Nogues Martikorena, Gabriel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LAS-001/041
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 01:34:42. **Bukatu**: 01:36:14

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- **Laburpena**: Lasarte eta Oria artean okindegi bat zegoen, baserri bakan batzuk... Lasarte eta Oria bi herri bereizi ziren. Lasarte eta Oriaren artean beti egon izan da ika-mika.

Transkripzioa
- Ta hemendik Oriya bitarten, zer zan hutsunia, ez zeon?
- Bai, zeon "la panadería", ezautuko zenun, panaderia ez dezu ezautu? Eta zeon panaderia, zeon Basaundi basarriye, Estutxo basarriye.
- Ordun biden-biden zian baserri batzuk?
- Bai.
- Baiño bakanka?
- Bakarka batzuk, bai. Eta Lasarte ta Oria bi herri diferentia zian. "Oria y Lasarte". Futbolian ta aritzen giñan "los de Oria contra los de Lasarte".
- Pikia eongo zan gaiñea?
- Joe, ikeragarriya. "Lasarte contra Oria contra Lasarte".
- Kopuruz zer ziñaten antzeko xamarrak? Horrela Lasartekok eta Oriakok?
- Zertan?
- E jende kopurun, ia gehio ziñaten, gehiago izango zian Lasartekok?
- Bai, bai, bai. Lasarte beti izan da Oriya baiño pixkat gehixeo. Eta "como de más categoría", horrela Lasarteko jendia. Bai, baiño bai eondu da beti "un poco de pique". Haik bere, bere eskola, ta eskola're aparte. Baiño eliza ez, komuniyua itten gendun batian.
- Ta dotriña ta ikasi batea?
- Batea, bai.
- Hemen, parrokiyan izaten zan dotriña ikasteko...?
- Bai, parrokin ematen gendun dotriña. Eta ordun juntatu itten giñan Lasartekuak eta Oriyakuak juntatu itten giñan, batian itten gendun komuniyua.

3.3. Lau janari denda Lasarten

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Inza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: LAS-007/053
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 01:36:31. **Bukatu**: 01:37:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
  Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- **Laburpena**: Lasarteko medikuak; botikarik ez zen. Janari dendak aipatzen ditu, lau.

Transkripzioa

- Ta ospitalik eta izaten al zan hemen Lasarten?

- Hemen, Lasarten?
- O medikun kontsultaik eo?
- Gerra denboan ez dakit. Gu etorri ezkerotik bai, baiño lehen-leheno ez dakit. Gu bizitzen hasi ezkeotik bai, [...] juten giñen hara, ta hoi bai. Bai.
- Ta botikak edo farmazik edo?
- Farmazia ez dakit. Ez naiz akordatzen farmazi kontuik hemen, Lasarten.
- Behartu're ez igual, zuek?
- Hemen "comestible" dendak zian. [...], Malen eta Telesforonia ta bestia zer zan ba, zeik Joxe Ramon ta aitta, ez, Mercedes, Laxaro... Zer zan? Lau denda hoixek zian hemen. Gaiñekuan, basarrik etxe onduan ta bestaldian'e bai, ta hemen ez zan botikik ordun, farmazik.
- Eta sasi-medikuikan, esate bateko belarrakin eta hola zeatzen zanikan, edo "curandero" edo norbait ibiltzen zanik?
- Ez, guk ez gendun ebilli, behin'e ez.

4. Aisia

4.1. Kaleko saltzaileak

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Inza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: LAS-007/059
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 01:44:38. **Bukatu**: 01:45:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Irakurtzea
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- **Laburpena**: Fernando erroskila saltzailea. San Pedro jaietan gozokiak. Bertsopaperak.

Transkripzioa
- Ta saltzailleikan, bestelako ba helatuk saltzen edo goxokik saltzen edo?
- Bai, erroskillak.
- Txurreron bat eo?
- Nola zan? "Este", Oriyakua zan, Fernando. Bai, karruakin etortzen zan ta erroskillak saltzen zizkien. Haren semia eon zan gukin ospitalian esan dizutena. Bai erroskillak saltzen zittun. Bai, ta geo San Pedro jaitan karameluk eta jartzen zittuen mahaiyak eta hoik, eta bakizu.
- Xoxa izan ezkeo...
- Bai.
- Hara jun bai, baiño...
- Bai, baiño hamar urte bitarten guk ez gendun karameluik erosten, diruik ez gendun ematen, ez ziguen ematen.
- Zu akordatzen al zea bertso-paperikan saltzen zun jendeik edo [...]?
- Bertso-paperak? Bai, majiña bat bazian gure etxian, gure mutillak erosita. Harek solterua zanen asko zittun, harek asko erosten zittun, ta ikasi're seittun itten zun gaiñea, bersuak.
- Zuk zeorrek bai?
- Ez, ez dakit nik bertsoik bat bakarrik ere. Leheno letu izan dittut baiño ez det ezertako zeaik, harek bai; harek gaiñea ikasi egitten zun seittun. Letu ta beak kantatzen zittunak zian bezela. Baiño ez. Asko zittun solterotan, ta oain'e gure etxian izan dia baten batzuk, lehengo zaharrak.

5. Lanbideak

5.1. Zaldi-karroak eta asto-karroak

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Inza, Valentina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: LAS-007/060
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:45:56. **Bukatu**: 01:47:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Alkorta Agirrezabala, Jon
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
  Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- **Laburpena**: Errekadistak egiten zituen komentuko enkarguak, zaldi-karroarekin. Ama asto karroarekin joaten zen Donostiara, eta bera ere halaxe joan zen Jaunartzeko soinekoa probatzera. Automobilik ez zebilen bidean.

Transkripzioa
- Ta errekadistaik izaten al zen, hola enkarguk itten ta ibiltzen zan...?
- Bai, hemen Sausteko Maria Andres gendun, Joxe Saustan andria, lengo batian. Gu eskolan ibiltzen giñanean ta geruo're bai.
- Bai?
- Bai. Komentuko enkarguk eta itten zittun harek. Brigidas hemengua, bai. Asto... zaldi-karruakin ibiltzen zan Donostia. Esne partittu ta geo enkarguk ekartzen zittun ta gu eskolatik ateatzeko, sartzeko ordubitako zea hortan bea zaldi-karrokin juten zan komentua. Ta geo etxea Zautza, bai.
- Ze gauza zaldi-karruakin Lasarten.
- Bai, zaldi-karruakin ibiltzen zan hua. Gure ama're astuakin juten zan Donostia, asto-karruakin. Ta ni komuniyoko soiñekua probatzea asto-karruakin jun nintzan. Conchan barrun han, jolin, ze elegante! Pavo realak ikusten nittun han eskubitan erregiña bizi zala, ez takit zer ta. Akordatzen naiz hori.
- Oain baiño kotxe gutxio ibiliko zan?
- O bate ez. Kotxeik bate ez.
- Dilijentziyik ta hola ezautu al zenun, hola, zaldi-karro...?
- Ez, ez.
- Baiño asko ibiliko zian baserritarrak eta?
- Bai, danak astua ta karruakin juten zian, barrundaiño.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Nor da Radi? (101-040/002)

Radi Bulgariako Sofia hirikoa da, eta bulgarieraz hitz egiten du.

2. Bulgarierari buruz datu batzuk I (101-040/003)

Bulgariako hizkuntza ofiziala bulgariera da. Hizkuntza eslaviarra da.

3. Bulgarierari buruz datu batzuk II (101-040/005)

Bulgarierari buruz hitz egiten du, bulgarieraz.

4. Aitaren lanagatik Euskal Herrira (101-040/006)

4 urte daramatza Euskal Herrian bizitzen. Bere familiarekin etorri zen Lasartera, aitaren lanagatik. Etxean bulgarieraz hitz egiten du.

5. Bulgariatik Lasartera (101-040/008)

Udaran iritsi zen Lasartera. Ikastetxean egin zituen lagunak, hasi eta berehala. Bulgariako eta Euskal Herriko ohiturak alderatuz gero, ez dira oso desberdinak Radiren esanetan.

6. Antzeko ohiturak Bulgarian eta Euskal Herrian (101-040/010)

Bulgaria eta Euskal Herria alderatzen ditu, bulgarieraz hitz egiten. Bere esanetan, ohitura oso antzekoak daude bietan.

7. Atzerritarrei buruz gaizkiesanak (101-040/012)

Atzerritarrei buruzko komentario txarrak entzun izan ditu, mingarriak. Bere esanetan, hori ez da errealitatea.

8. Gaztelania ikasten (101-040/013)

Asko ahalegindu zen gaztelania ikasteko, lehenengo Bulgarian eta gero Euskal Herrian.

9. Atzerritarrek osatzen dute bere 'kuadrila' (101-040/014)

Euskal Herrian, beste atzerritar batzuekin ere erlazionatzen da. Euskal Herrian bizi diren Bulgariakoekin badauka erlazioa, aitaren lanaren bidez.

10. Antzeko bizimodua gazteek Bulgarian eta Euskal Herrian (101-040/015)

Bulgariako gazteen bizimoduaren eta Euskal Herrikoaren arteko alde bakarra "lokal" edo "gazteleku"-ak egotea da. Bulgarian ez dago horrelakorik.

11. Etorkizunari begira, Euskal Herrian hobeto (101-040/016)

Euskal Herritik gehien gustatzen zaiona etorkizunari begira izan ditzaken aukerak dira.

12. Gutxien gustatzen zaiona: eguraldia (101-040/017)

Eguraldia da gutxien gustatzen zaiona Euskal Herritik.

13. Lagunak Euskal Herrian (101-040/018)

Era guztietako lagunak ditu Euskal Herrian, bertakoak zein kanpotik etorritakoak.

14. Familia eta lagunak Bulgarian (101-040/019)

Eguraldiaz gain, bere familia eta lagunak faltan ematen ditu Bulgariatik.

15. 35 hizkuntza Donostian? (101-040/020)

35 hizkuntza inguru hitz egingo direla Donostian uste du Radik. Lasarten 18 hizkuntza inguru hitz egiten omen dira.

16. Euskara ulertu bai, baina erabili gutxi (101-040/021)

Euskara ikasten saiatu den arren, ez du erabiltzeko erraztasunik. Elkarrizketa batean euskara ulertzen du, baina erantzuna gaztelaniaz ematen du. Buruz dakizki esaldi batzuk, adibidez: "komunera joan naiteke?", "ez dut ulertzen", "kaixo", "zer moduz?"...

17. Oinarrizko hitzak bulgarieraz (101-040/023)

Oinarrizko hitz batzuk bulgarieraz esaten ditu.

18. "Nagore" bulgarieraz, euskaraz "gorantza" (101-040/024)

Bulgarieraz bere hitzik gustukoena: "Nagore" da. Bere esanahia euskaraz " gorantza" da, eta grazia egiten dio, euskaraz izen bat delako.

19. Bulgariako poema bat (101-040/026)

Bulgarian poemak ikastera behartzen zuten Radi haurra zelarik. Horietako bat errezitatzen du, bulgarieraz.

20. Familiaren historia aitonarengandik hasita (LAS-001/002)

Aitona karabineroa zuen eta Zelatunen egiten zuen guardia; katalana zen eta Errezilgo emakume alargun batekin ezkondu zen. Aitonari "Trapero" deitzen zioten, baserrietan trukeak egiten aritzen baitzen. Orduan semea izan zuten (Gabrielen aita) Legazpin, eta Lasartera joan ziren bizitzera geroago. Aita Orioko emakume batekin ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituzten, haietako bat Gabriel.

21. Aita teilerian eta ama dendan (LAS-001/003)

Kale-etxean jaio ziren 8 senideak: babarrunak, porru-patatak eta bakailaoa jaten zuten gehienbat. Aitak teileria batean egiten zuen lan; teileria hura non zegoen azaltzen du. Ama Lasartera ezkondu zenean, neskame egon zen, eta gerora denda jarri zuen bere kontura: denda hartan denetik saltzen zuen. Dendara sartzen ziren bezeroen ahotsa ondo ezagutzen zuen.

22. Lasarteko eskolan ikasitakoa (LAS-001/004)

Udaletxea dagoen lekuan zegoen lehen eskola: neskek eta mutilek aparte ikasten zuten. Gaztelaniaz ikasten zuten eskolan, eta maisua Villabonakoa zen.

23. Eskolan ikasitakoak oraindik gogoan (LAS-001/006)

Eskolan kartila eta katona erabiltzen zituzten: geografia eta matematika ematen zuten, eta oraindik gogoan ditu orduan ikasitakoak. Lasarte eta Oria bi herri bezalakoak ziren, bakoitzak bere eskola zuen.

24. Kanpotik etorritako langileek euskara ikasi zuten (LAS-001/007)

Eskolan euskaldunak eta erdaldunak ibiltzen ziren. Izan ere, jende asko etorri zen kanpotik lanera. Orduan etorri ziren denek ikasi zuten euskaraz. Umeen artean euskaraz egiten zuten.

25. Soldadutzan euskaraz egiteagatik zigorra (LAS-001/008)

Eskolan ez zieten zigorrik jartzen euskaraz egiteagatik. 18 urte zituela, soldadutzara deitu zuten Gabriel, eta Lizarrara joan zen. Bere kintako batzuek ez zekiten gaztelaniaz eta euskaraz egiteagatik ilea moztu zieten.

26. Orduko ondasunak altxorrak balira bezala (LAS-001/010)

Lasarten nazionalistek bazuten lokal bat eta non zegoen azaltzen du. Inguru hartan pilotan jokatzen aritzen ziren beraiek umetan. Pilota bat izaten zuten 10-12 lagunentzat, eta hura puskatzean, denen artean biltzen zuten berria erosteko dirua. Etxean ez zieten uzten futbolean jokatzen, zapatak puskatuko zituzten beldur baitziren. Astean zehar alpargatak erabiltzen zituzten eta igandean zapatak. Euria egiten zuenean, baziren alpargatak eranzten zituztenak, puska ez zitezen. Etxean ez zuten galdetzen janaria ona ala txarra zegoen, nahikoa jan al zuten baizik. Gaurko umeek ez dute estimatzen daukatena.

27. Umetan jolas batzuk mutilentzat eta besteak neskentzat (LAS-001/011)

Umetan panpinak beraiek egiten zituzten. Orduan zer jolasetan aritzen ziren azaltzen du: kinkinetan, kaniketan, tabatan, sokasaltoan... Neskak eta mutilak bereizita aritzen ziren jolasean. Mutilek hika egiten zuten beraien artean, baina neskek ez, finagoak, femeninoagoak baitziren.

28. Iruñera jostun izateko ikastera (LAS-001/012)

Eskola bukatutakoan, Iruñera joan zen jostun-lanbidea ikastera. Arreba zaharrenak jostunak ziren, eta haiek bultzatu zuten Gabriel jostun izatera. Iruñean urte eta erdi eman zuen, eta bi urteko mailak egin zituen denbora hartan.

29. Gerra hasi eta Bizkaia aldera ihesi (LAS-001/013)

Iruñean aritu zen ikasten jostun izateko, eta oporretarako etxera etorri zenean hasi zen gerra. Gerra hasi zeneko oroitzapenak gogoan ditu: altxamenduak, erreketeak, moroak, haiei buruzko esamesak... Hemengo jendea prestatzen hasi zen moro eta erreketeen aurka egiteko, psikosia egon zen. Azkenean, jende askok alde egin zuen herritik Bizkaia aldera: Gabrielen familia Eibarko familiarteko batzuen etxera joan zen hasieran; gerora, Gorozikako baserri batera joan ziren denak batera; handik Bilbora; baina, Bilbo ebakuatu zutenean, familia guztia Frantziara joan zen eta Gabrielek Bilbon geratu behar izan zuen 17 urte zituelako. Bilbon bera bakarrik geratu zen eta nola-hala moldatu behar izan zuen aurrera egiteko. Nahita ere ezin zuen Lasartera itzuli orduan, frontea baitzegoen tartean.

30. Familiari Frantzian oso harrera ona egin zioten (LAS-001/014)

Gabrielen familia Bilbotik barkuz joan zen Frantziara gerra garaian. Bretainian egon ziren, etxe bat eman zien bizitzeko, diru-laguntzak... herri hartakoek elkartasun handia izan zuten Gabrielen familiarekin.

31. Bilbon bakarrik egotetik, anaiekin batailoian egotera (LAS-001/015)

Gerra garaian, Bilbon geratu behar izan zuenean, trintxerak egiten hasi zen lanean, janariaren trukean. Hala zebilela, anaiekin egin zuen topo eta sukaldari eraman zuten beraien batailoira. Frontearen bi aldeetan, zer alderditako gizonak zeuden azaltzen du. Santanderren preso hartu zituzten; baina Gabriel adin txikikoa zenez, etxera bidali zuten.

32. 'La Quinta del Biberón' (LAS-001/016)

18 urte bete zituenean, soldadutzarako deitu zituzten: La Quinta del Biberón ziren beraiek. Ebroko bataila oso gogorra izan zen; haren ondorioz, Gabriel errekete sartu zuten. Mendian ibiltzen zirenean, hotzaren aurka egiteko nola moldatzen ziren kontatzen du. Zorri asko zegoen han, eta arrunta zen sarna izatea.

33. Euskaldun gazteak eta cacerestar txikiak (LAS-001/017)

Erreketeen batailoian egotera behartu zituztenean, euskaldun gazteak eta cacerestar txikiak bildu zituzten. Batailoikoen artean ez zuten politikari buruz hitz egiten, han ez zegoen desobedientziarik, bestela hil egiten zituzten eta.

34. Espainiako armadaren lurrak okupatzen (LAS-001/018)

Erreketeen batailoian zeudela, ez zitzaien tokatu inongo borrokatan parte hartzea. Ordurako, Espainiako armadak gorriek baino askoz indar handiagoa zeukan. Gabrielen batailoiaren eginkizuna aurretik borrokan irabazitako lurrak okupatzea zen. Preso eramaten zituzten gorriekiko pena sentitzen zuten beraiek, baina isilik egon behar izaten zuten.

35. Soldadu 18-24 urte izan zituen bitartean (LAS-001/019)

Anaia preso hartu zuten kontzentrazio-esparruan. Gabrielek urte eta erdi eman zuen frontean erreketeekin. Gerra bukatu zenean, ordea, soldadutzara deitu zuten berriro. 18-24 urte izan zituen bitartean, soldadu egon zen Gabriel.

36. Gerra amaiera eta soldadutzaren hasiera (LAS-001/020)

Ebroko frontea bukatu zenean, Katalunia aldera eraman zuten Gabrielen batailoia; hura bukatu zenean, Toledoko frontera eraman zituzten. Han bukatu zen gerra, baina beste lau urte eraman zituzten soldadutzara, erreserban egoteko.

37. Sarna sendatzeko lekurik ez (LAS-001/021)

Gerra bukatu eta kuartelera joan zirenean, zorriz eta sarnaz beteta zeuden denak. Gizon haiek denak sendatzeko, ospitale berezi bat sortu zuten, baina hainbeste zirenez sarna zeukatenak, okerren zeudenak bakarrik aukeratu zituzten hara eramateko; Gabriel kanpoan geratu zen. Nola-hala sendatu ziren azkenean.

38. Gerra bukatutakoan etorri zen okerrena: gosea (LAS-001/022)

Gerra ostean etorri zen okerrena: gosea, bereziki 40. hamarkada hasieran. Dilistak eta babak jaten zituzten gehienbat, baina janari hura zer egoeratan egoten zen azaltzen du. Baserrietan hobeto moldatzen ziren, eta Gabrielek baserri batean laguntzearen truke janaria lortzen zuen.

39. Gerra osteko beldurra: tuberkulosia (LAS-001/024)

Gerra ostean, ez zen jende gizenik ikusten. Garai hartan, tuberkulosi asko zegoen. Gabrielen soldadutzako lagun handi bat tuberkulosiak jota hil zen.

40. Neurri gutxi, baina osasun ona (LAS-001/026)

40. hamarkadan, soldadutzan jende askok zuen tuberkulosia. Garai hartan ez zioten arreta handirik jartzen tuberkulosia ez kutsatzeko neurriak hartzeari, baina Gabriel ez zen behin ere gaixotu soldadutzan pasa zituen zortzi urteetan.

41. Tuberkulosiak jende asko eraman zuen (LAS-001/028)

Lehen tuberkulosiari izaten zitzaion beldur handia; jende gazte asko hil zen horrela.

42. Soldadutzan lanbidea ikasi eta gaztetan bizitzen ikasi (LAS-001/029)

Soldadutza bukatutakoan, Lasartera itzuli zen, etxera. Soldadutzan egon zen bitartean, ordea, arratsaldez lan egiten zuen jostundegi batean; horregatik, Lasartera itzuli zenerako, lanbidea ikasia zuen. Gazte-garaian bizitzen ikasi zuten. Gazteek sufritu arren, bizitzeko poza dute, eta horrek aurrera egiteko indarra ematen die.

43. Jostun izanda lan asko lehen (LAS-001/032)

Soldadutzatik itzulitakoan, jostundegia ireki zuen Lasarten arreben babesean. Orduan lan asko zegoen, eta oso ondo joan zitzaion. Dendan zer lan egiten zuen azaltzen du. Lasarten hiru jostun zeuden, eta hirurek zuten lana.

44. Etorkinen eragina herrian eta euskaran (LAS-001/033)

Michelin fabrika gerra baino lehenago ere bazegoen Lasarten. 50. hamarkadatik aurrera etorkin asko etorri ziren Lasartera, eta izugarri hazi zen herria; orduan erdaldundu zen Lasarte. Urte askotan, gainera, euskara galarazita egon zen.

45. Jakin egin behar da bizitzen (LAS-001/036)

Jakin egin behar da bizitzen: lehen pobre bizi ziren, baina pozik. Gaur egun ez da hobeto bizi, beste era batera baizik.

46. Lasarteko baserriak eta basoak (LAS-001/038)

Lasarten lehen zeuden baserrien izenak eta historia aipatzen ditu. Lasarteko "baso txikira" perretxiko bila joaten ziren.

47. Lasarteko bideak: gurdibideak eta errepidea (LAS-001/040)

Lasartetik Hernanira zihoan gurdibidea konpontzeko, bidean zeuden baserrietako jendea auzolanean aritzen zen. Lasarte zeharkatzen duen errepidea beti ezagutu izan du Gabrielek. Duela gutxira arte, bi plaka zeuden errepide ondoan gurdien eta zamariei jartzen zitzaien isuna zein zen azalduz.

48. Lasarten izandako krimenak (LAS-001/044)

Lasarten hiru krimen egon ziren: batean, zaldi-aditu batek emakume alargun bat hil zuen; beste batean, gizon bat hil zuten, baina ez zen jakin nor izan zen hiltzailea; eta hirugarrenean, gizon batek bere koinatua hil zuen.

49. Emakumearen aurkako erasoak lehen (LAS-001/045)

Lehen bortxaketak izaten ziren, orain baino gehiago, baina ez ziren salatzen, neskari egozten baitzitzaion errua. Lehen tratu txarrak baziren, jendeak gehiago edaten baitzuen; baina lehen isildu egiten ziren gauza horiek. Jendea hartara ohituta zegoen.

50. San Pedroetako ilusioa (LAS-001/052)

Lasarten beti ospatu izan dira San Pedro jaiak. Lehen askoz ilusio gehiago izaten zen San Pedroetako banketerako. Lehen jendeak gehiago laguntzen zuen festak prestatzen: jazbana, bertsolariak eta kirolak, dantza eta taberna izaten ziren orduan. Zinta-karrerak izaten ziren festetan.

51. Telleriberri baserria Urnietatik Lasartera (LAS-002/002)

Telleriberri baserria, bere jaiotetxea, Urnietako azkenengotako baserria zen. Duela zenbait urte Lasartera pasa zuten. Beraz, bera Urnietan jaio zen. Lasarte eta Urnietaren arteko muga etxetik gertu dute.

52. Lo gutxi eginda egun osoa lanean (LAS-002/005)

Soldadutzatik itzuli zenean Michelin lantegian hasi zen lanean, aitarekin batera. Bederatzi urte egin zituen han. Gero, kamioia erosi eta lan hura baserriko lanekin uztartzen zuen. Oso goiz jaikitzen zen eta beti logale. Amak laguntzen zion baserriko lanekin.

53. Kamioiarekin abereak garraiatzen (LAS-002/006)

Abereak garraiatzen zituen kamioiarekin, bai hiltegira eramateko edo batetik bestera. Inguruetan beti egoten zen lana, baserrietan animalia asko zen eta. Etxera itzulitakoan, baserriko lanak egin behar. 34 urte egin zituen kamioiarekin.

54. Gauez ibilita, pisu-kontrolak saihesten zituen (LAS-002/008)

Gauez ibiltzen zen kamioiarekin abereak garraiatzen, guardia zibilak edo polizia saihesteko. Beti pisu handiegiarekin ibiltzen zen eta gauez kontrolak saihesten zituen.

55. Abere-hiltegietako kontrolaren bilakaera (LAS-002/009)

Garai batean abereak hiltegira eramateko gaur egun baino oztopo gutxiago zegoen. Hasieran inongo agiririk gabe eramaten ziren; gerora hasi ziren

paperak (gidak) eskatzen. Albaitari batekin izan zuen eztabaida. Gaur egun, berriz, dena kontrolatuta izan arren, agiri ugari aurkeztu behar. Gainera, ordaindu egin behar!

56. Abereak garraiatzeko beharrezko paperak (LAS-002/010)

Abereak kamioian batetik bestera eramateko, gida behar izaten zen; abereak nori eta noiz erosiak ziren eta nora eraman behar ziren jartzen zuen bertan. Torrelavegako ferian bi gida ematen zituzten: bata zirkulaziorakoa eta bestea osasun-gida (aberearen datuekin). Hemengo poliziek ez zekiten horren berri. Bidaia asko egiten zituzten Torrelavegara eta Burgosera. Gauez ibiltzeko, kafe asko edan behar! Jakiten zuten bidean tabernak non zeuden.

57. Urteroko feriak; lanbidea gustuko (LAS-002/011)

Ferietan ibiltzen zen abere garraioan. Zumarraga, Lizarra, Tafalla... urteroko feriak izaten ziren. Bere lanbidea gustuko zuen. Iruñera ere egin izan zituen bidaia batzuk San Ferminetan.

58. Urnietarrak izan arren, bizimodu guztia Lasarten (LAS-002/013)

Izatez urnietarrak izan arren, beti lasartear sentitu dela dio, harako joera zuten eta. Urnietara jaunartzea egitera joan zen eta, gerora, udaletxera, ordainketak egitera. Urnietarako bidea oso eskasa zuten. Bestela, distantziaz, bi herriak antzera geratzen zaizkie.

59. Produkziorik ezin hartu eta udaletxean entregatu behar! (LAS-002/015)

Garai batean zelaiak gorri egoten ziren eta udazkenera arte ganaduarentzat janik ez. Ganadu gutxi zuten eta zeukaten simaur apurra sororako erabiltzen zen. Artoa eta babarruna udaletxean entregatu behar izaten ziren eta haiek hartzeko ere nahikoa lan! Baliabide gutxi zuten eta hamar lagun bizi ziren etxean. Orduko bizimodu gogorra.

60. Baserri txikia; egitura (LAS-002/017)

Euren baserria txikia zen egituraz eta lurrez. Ganbarako oholak arriskutsuak ziren eta gogoan du gainetik ohol berriak nola josi zituzten. Garai batean nolakoa zen baserria: sukaldea, sotoa... Osaba igeltseroaren laguntzaz etxea berritzen jardun zuteneko kontuak. Dena bizkarka eraman behar.

61. Behorraren laguntza gauzak garraiatzeko (LAS-002/018)

Garai batean dena bizkarka garraiatzen zen. Aitak moxal bat ekarri zuen Zumarragatik eta ordutik aurrera haren laguntzaz garraiatzen zituen gauzak.

62. Traktorea erostea, aurrerapen handia (LAS-002/020)

Garai batean dena bizkarka garraiatu eta eskuz egin behar. Gerora, egoera hobetzen joan zen. Hasieran behorraren laguntza. Geroago, soldadutzatik etorri zenean, traktorea erosi zuen. Aurrerapen handia izan zen. Euren etxean aitak etxetik kanpo lan egiten zuen eta, baserri txikia izan arren, diru pixka bat bazuten.

63. Ama behorra eta karroarekin esnea saltzera (LAS-002/021)

Ama esnea saltzera joaten zen oinez astoarekin. Gerora, behorrari karroa erantsi eta hantxe joaten zen. Kotxea ekarri zutenean baino aldaketa handiagoa izan ei zen. Kaletik zerbait ekarri behar izanez gero ere, karroarekin ederki.

64. Aitonak Ermandadeko kontuak idatziz jasotzen zituen (LAS-002/023)

Aitona igeltsero lanetan ibiltzen zen. Idazten ondo omen zekien. Ermandadeko kontu guztiak idatziz jasotzen zituen. Etxea berritu zutenean galdu ei ziren hark idatzitako "liburuak". Erdaraz ere ongi zekien. Frantzian ibilia zen.

65. Birraitonaren fama; oinez Iruneko feriara (LAS-002/024)

Aitonak gizon onaren fama zuen eta haren aitak, berriz, gaizto fama. Irunera joaten zen feriara, oinez, ogitartekoa patrikan hartuta. Eguna han pasa eta ilunabarrean etxeratzen zen. Gizon gogorra omen zen. Izebak esaten zuen, okurrituz gero, etxeko ganadurik onena eramaten zuela ferian saltzera eta ostikalariena ekarri bueltan.

66. Eguberri eta Urteberri egunetan behiak jeztetik libre (LAS-002/027)

Aitak behin ere ez zion errieta egin parranda egiteagatik. Hori bai, hurrengo goizean behiak jeztera joan behar. Urtean bi egunetan libratzen zen lan horretatik: Eguberri eta Urteberri egunetan. Egun horietan parranda egiten zuten etxean eta konturatzerako goiza etorri!

67. Igandetan kalean meriendatzea gustuko (LAS-002/028)

Jaietan (igandeetan) amari dirua eskatzen zion, baina ez omen zion berak nahi beste ematen. Oialumera joaten ziren; askotan Hernaniraino oinez. Kalean meriendatzea gustatzen zitzaion: Lasarteko taberna batera joan, soberakinak jan (tripakiak eta bestelako kazolatxoak),19 pezeta ordaindu eta etxera.

68. Amari kalean esan ziotena berari buruz (LAS-002/029)

Behin norbaitek amari esan zion berak esnea partitzen irabazitako diruak semeak gastatuko zituela tabernan. Baina amak bazekien ongi berak zenbat diru eta non gastatzen zuen. Ez zuen inoiz jakin nork esan zion hori amari. Orduan ez zen dirurik izaten; batzuek meriendatu gabe joan behar etxera.

69. Garai bateko Lasarte; jende asko trenez hipodromora (LAS-002/030)

Lasarte txiki-txikia zen. Zatirik handiena Hernanirena zen eta puska txiki bat Urnietakoa. Mugak non zeuden. Lurrez dezentea zen Hernani aldeko zatia, baina oso etxe gutxi zegoen. Noiz hasi ziren etxeak egiten. Ingurua nolakoa zen. Tren-geltokia kale erdian zegoen kale-baserrian. Jende asko joaten zen trenez, hipodromora, zaldi-lasterketetara.

70. Mojentzat lanak egiten (LAS-002/031)

Tren-geltoki ondoko kale-baserria bi bizitzakoa zen eta alde batean aitaren osaba bizi zen. Mojen maizterra zen eta mojek lanen bat zutenean hari esaten zioten, nork eginik ez zutela eta. Osabak enkargua aitari pasatu eta azkenean

Manuel joan behar ganaduarekin egurretara! Bi apaizekin eta sakristauarekin bazkaldu eta berriz lanera. Moja batek eskapularioa jartzen zion lepotik, bihurria zelako. Zerua aspaldi irabazi zuela dio.

71. Ganaduen azpigarriari "inaurkina" esaten zaio Lasarten (LAS-002/033)

Lexikoa. "Inaurkina" esaten dio Manuelek ganaduaren azpigarriari. Beste zenbaitek "zakarra" esaten du. Manuelek garoa esaten du (beste leku batzuetan iratzea).

72. Lasarte erdigunea: eliza eta ondoko baserriak (LAS-002/035)

Lasarten ez ei zegoen ezer. Eliza eta mojak. Lur-sail handiak zituzten. Elizaren ondo-ondoan bi baserri. Atzealdean Etxeberriatar ijitoak. Euskaldunak ziren, baina Bizkaia aldetik etorriak. Gainontzean, bi harategi, hiru-lau taberna... Eta gehienak senideak ziren, gainera.

73. Michelin lantegiak langileei etxea erosten laguntzen zien (LAS-002/036)

Michelin beti izan zen lantegi indartsua eta hari esker hazi zen Lasarte. Bertako langileei etxea erosten laguntzen zien: dirua aurreratzen zien eta gero pixkanaka soldatatik kentzen joan.

74. Michelin lantegiaren eskolan ibilia (LAS-002/037)

Michelin lantegiak jarritako eskola eliza atzean zegoen. Bera hara bidali zuten, gaiztoa omen zelako. Behean neskak eta mutilak goian. Irakaslea gaiztoa omen zen, kaskarrekoak ematen zituena. Hala ere, ez zuela ezer ikasi dio. Maisua erdalduna zen eta berak ez zekien tutik ere gaztelaniaz. Eskola nazionala ere bazegoen eliza aurrean; hiru-lau irakasle zeuden han.

75. Euskaraz hitz egiteko beldurrez (LAS-002/038)

Euskaraz egiteko beldurrez ibiltzen zen jendea, edozeinek "habla en cristiano" esan zezakeelako. Beraiek kontra egitea pentsatu zuten eta euskaraz hitz egiten zuten. Behin Hernanin emakume bati aurre egin zioten. Antiguako mutil-kuadrilla batzuk Lasartera etortzen ziren, beraiekin euskaraz hitz egitearren. Hika hitz egiten zuten.

76. Gurasoei zuka; aitonari berorika; orain apaizarekin hika (LAS-002/039)

Beti hika hitz egin izan du. Apaizari ere hika hitz egiten omen dio, hark lehenengo hitza hika egin ziolako. Garai batean oso gaizki ikusia zegoen hori. Zaharragoei hika egitea ere bai. Beraiek zuka hitz egiten zieten gurasoei , baina inguruan baziren berorika egiten zietenak. Aitonari berorika. Garai batean apaizei berorika egiten zieten, baina apaiz gazteagoak sartzean aldatuz joan zen ohitura hori.

77. Apaizek eta fraideek beldurra sartzen zuten (LAS-002/042)

Garai batean apaizei errespetua zor zitzaien, baina apaiz asko ba omen ziren errespeturik merezi ez zutenak. Beldurra hezurretaraino sartzen zuten, jendea mendean hartzearren. Misioetan fraideak etorri eta pulpitutik izugarriak esaten zituzten, jendea negarrez jartzeraino.

78. Arantzazuko fraideak baserrietara jateko bila (LAS-002/044)

Arantzazuko fraideak baserrietara joaten ziren, txerria hiltzen zenean, hanka eta belarrien bila. Beraiek Arantzazun baserria izanda, ez du ulertzen nola joaten ziren baserri txikietara zeukaten apurra kentzera. Manuelen baserrira ere joan izan ziren babarrun eske.

79. Apaizari oilasko parea, soroak bedeinkatzearren (LAS-002/045)

Garai batean apaizari oilasko parea eramaten zitzaion, urtean behin soroa bedeinkatzera etortzen zelako. Apaizaren oilategia oilaskoz beteta ikusi izan zuen Manuelek. Fraideak, berriz, eskean etortzen ziren, trukean ezer eman gabe. Erlijioaren izenean egiten zen gauza okerrenetako bat iruditzen zaio, mendekoa zapaltzen zutelako.

80. Apaizaren aurrean belaunikatu ez (LAS-002/047)

Garai batean apaiza, meza-laguntzailea txilinarekin ondoan zuela, etxez etxe joaten zen, Pazkoakoa edo elizakoak ematera. Parean tokatuz gero, belauniko jarri behar izaten zen. Egun euritsu batean parean tokatu zitzaizkion Manueli eta bazterrean geldik geratu zen, ez belaunikatzearren.

81. Etxeari zergatik deitzen dioten "Lauterdi" (LAS-003/002)

Elgezabalzarra edo Elgezabalaundi deitu izan zaio euren baserriari. Bertan jaio zen Bixente. Aitaren aitona Amasatik etorria zen eta behatz bat motza zuen. Behin norbaitek "eman bostekoa" esan zion eta bere erantzuna "ez, nik lau eta erdi". Ordutik etxeari "lau ta erdi" deitu izan diote.

82. Garai batean teilak egingo ote ziren? (LAS-003/006)

Ingurua beti antzera ezagutu du. Bixentek uste du garai batean teilak egingo zirela euren etxe inguruetan. Horren adibidetzat jartzen ditu Telleri izeneko baserriak. Inguruko baserrien izenak.

83. Hamar senideko familiatik seme bakarretara (LAS-003/007)

Aitaren aitona Amasatik etorria zen. Emaztea zen bertakoa, Larburu abizenekoa. Bai aitona eta bai aita bertan jaio ziren eta hamar anai-arreba izan ziren. Bera seme bakarra da. Baserrian Urteberri egunean egiten zuten bazkarira lau lehengusu joan omen ziren elkarrekin, denak seme bakarrak. Zergatik ote?

84. Baserrietan lagun asko bizi ahal izateko modua (LAS-003/009)

Garai batean espezializaziorik ez zelako egon bizi ahal izan ziren hamar senide baserrian, Bixenteren ustez. Denetik pixka bat zuten: barazkiak, oiloak, txerria, behiak... eta alde horretatik ez zuten inoren mendekotasunik.

85. Baserriaren egitura berezia (LAS-003/013)

Baserriak egurrezko estruktura dauka. Lapurdiko estiloa dela iruditzen zaio, antzeko egiturak han bakarrik aurkitu dituelako. XVII. mende hasierakoa izango dela dio, sasoi horretatik atzera etxe aberatsagoak (gogorragoak) egiten ziren eta.

86. Karlistadan erre ez zuten baserri bakarrenetakoa (LAS-003/014)

Urnietako agiritegian ez dago euren baserriaren inguruko agiririk. Karlistada sasoian borrokaren erdian egon zen Urnieta eta herriari su eman izan zion. Oztaran bailara Urnietatik aparte dagoenez, euren baserria ez zutela erre pentsatzen du. Euren baila bi herrien erdian geratzen zen, ez bateko eta ez besteko.

87. Urnieta eta Lasarte artean gelditzen ziren baserriak (LAS-003/015)

Urnieta eta Lasarte arteko eremua (Oztaran bailara) sarritan ahaztuta bezala gelditzen zen. Bertako baserriak zeintzuk ziren.

88. Donostiako bezeroen etxeetan hondakin organikoa jasotzen zuten (LAS-003/018)

Ama Donostiara joaten zen esnea saltzera. Marmitan eramaten zuen esnea. Horrekin batera baldea ere eramaten zuen, txerri-jana ekartzeko, izan ere, Donostian bezeroek hondakin organikoak bereizi egiten zituzten, baserritarrei emateko. Zaborra kalera jaitsi beharrean, baserritarrek jasotzen zieten etxean bertan. Egunero egiten zuten bilketa, gainera.

89. Donostiara autobusean, esnea saltzera (LAS-003/019)

Inguruko baserrietatik batzuk Donostiara joaten ziren esnea saltzera eta beste batzuk Lasartera; bakoitzak bere hartzaileak zituen. Ama astoarekin Lasartera jaisten zen. Han zesto batean esneak hartu eta autobusean Donostiara. Amarako denda batean uzten zuen zestoa eta esneak handik partitu. Gizon batzuk karroarekin ibiltzen ziren, esneak garraiatzen laguntzeko.

90. Batzuetan bezeroentzat esnea falta (LAS-003/020)

30-40 litro-esne eramaten zituzten Donostiara saltzeko. Batzuetan esnea sobera izaten zuten eta beste batzuetan falta. Halakoetan, beste baserritarren bati erosi behar, bezeroa gabe gelditu ez zedin.

91. Lantegiek sortutako eskola Añorgan (LAS-003/022)

Michelin-go eskola esaten zitzaionean ibili zen lehenbizi, Lasarten. 1955 inguruan lau lantegiren artean "Patronato escolar" sortu zuten Añorgan bertako langileen semeentzat eta hara joan zen. Garai hartan 14 urterekin bukatzen ziren ikasketak. Berak beste urtebete gehiago eskatu zuen, Batxilerra egiteko eta handik hasi zen ikasketak zabaltzen, ingeniaritza egin arte.

92. Ingeniaritza ikasketak egin zituen (LAS-003/024)

Batxilerra egin ostean, "unibertsitate-aurrekoa" esaten zitzaiona egin behar izaten zen eta orduan joan zen Valladolidera lehen aldiz. Nafarroa ingurukoak Zaragozara joan behar izaten ziren. Bi urte egin zituen Valladoliden eta gero

EUTG (Estudios Universitarios Técnicos de Gipuzkoa) ikasten hasi zen jesuitekin.

93. Lasarteren lur-sailak bost Udalenak (LAS-003/028)

Lasarteren lur-sailak bost Udalenak ziren: hipodromo ingurua Donostiarena, Michelin ingurua Usurbilena, erdigunea Hernanirena, Goenkale ingurua Urnietarena eta Andoain aldekoa Andoainena. Bost lur-sail horietatik biztanle gehien Hernani eta Urnietako sailetan bizi ziren. Beraz, herri horien lur-sailekin sortu zen Lasarte. Urnieta asko hazi zen denbora gutxian eta ez zitzaion axola lur-sail horietako biztanleak Lasarteri ematea. Gero, Lasarte bera ere asko hazi zen denbora gutxian.

94. Oztaran bailararen dilema (LAS-003/030)

Oztaran bailarakoek ez zuten nahi Urnietara pasatzerik eta kexak ere egon omen ziren. Pixka bat baztertuta geratu zirela dio Bixentek, Urnietak baztertu egin zituelako eta Lasartekoek ere ez dituztelako nahi. Hala ere, Lasarte gertuago dute eta harako joera izaten zuten.

95. Gurelesa sortzean, ezin esnerik saldu (LAS-003/032)

Gurelesa enpresa sortu zenean, Donostiara kanpotik joaten ziren baserritarrei galarazi egin zieten esnea saltzea (hasieran bertakoak bazuten baimena). Zubietako baserri batekin gertatzen zen kontu bitxia. Gerora, denei ipini zieten debekua.

96. Elgoibarko Etxetar lantegian 36 urtez (LAS-003/036)

Ingeniaritza ikasketak bukatu zituenean Elgoibarko Etxetar lantegian hasi zen lanean eta 36 urte egin zituen bertan. Produkzio handietarako makina bereziak egiten dituzte lantegi horretan. Adibide batzuk jartzen ditu.

97. Pilota astunekin pilotan (LAS-003/039)

Mutikotan pilotan aritzen zen, baina gazterik utzi zuen. Gaur egungoen aldean pilota handiak eta astunak erabiltzen zituzten (120 gramokoak). Kategoriak ere orain baino gutxiago zeuden. PIilotak nola

98. Gomarekin eta artilearekin egindako pilotak (LAS-003/040)

Pilotak egin ere egiten zituzten. Barruan goma pusketaren bat ipini eta bueltan-bueltan artilearekin batu. Gero artilea josi, ez askatzeko. Larrurik ez zieten josten, ez zekitelako. Trapuzko pilotak motelak izaten ziren. Trapuarekin baloiak egiten ziren.

99. Kilkerrak harrapatzeko trikimailua (LAS-003/041)

Mutikotako entretenimenduetako bat txoriak edo kilkerrak harrapatzea. Kilkerrak harrapatzeko trikimailua azaltzen du.

100. Barruan kandela zuen kalabaza ikusi zuen umetan (LAS-003/046)

Ameriketako Halloween-en egiten den antzera, hemen ere kalabazak hustu eta kandelak jartzeko ohitura bazegoela dio. Gogoan du, bera umea zela, belaze batean kalabaza nola ikusi zuen.

101. Garai bateko gauak askoz beltzagoak (LAS-003/047)

Festetatik bueltan gauez ibiltzen ziren bideetan. Garai bateko gauak beltz-beltzak ziren, ez zegoen gaur egungo argi-kutsadurarik. Gaur egun, egun lainotsuetan argitasun handiagoa egoten omen da ilargi betearekin baino, Donostiako argitasuna islatzen delako lainoetan.

102. Neska-laguntzera joandakoan, harrikada jasotzeko arriskua (LAS-003/049)

Inguruko herrietara joaten ziren festetara, oinez. Handiagoak zirenean, bizikletaz. Inguruan ez omen zegoen neska asko eta beste herrietara joan behar! Neska-laguntzera joandakoan, harrikada jasotzeko arriskua.

103. Oztaran auzokoen nortasuna (LAS-003/052)

Garbi utzi nahi du euren auzoa ez dela ez Lasarte eta ez Urnieta. Beraiek urnietarrak dira, baina Lasarte ere Urnietako auzo bat zelako. Lasarterako joera zuten, besteak beste, harako bidea hobeto zainduta egoten zelako eta garai batean hori oso garrantzitsua zen.

104. Baserriaren egitura (LAS-003/055)

Etxearen egitura. Sukaldea beti leku berean egon da. Sotoa esaten dioten lekuan sartzen zituzten belarrak eta hor bertatik ematen zieten jana ganaduari. Ukuiluko txoko batean txerritokia. Ganadua ez zuten sekula "barrutian" (larrean) izaten, jana etxera ekartzen zitzaien. Lur-sailak txikiak ziren eta lurra biguna. Etxearen bigarren solairuan logelak eta gainean ganbara.

105. Etxe bakoitzak bere sagardoa (LAS-003/056)

Garai batean etxe bakoitzak bere sagardoa egiten zuen. Etxean oraindik ba omen daude dolarearen arrastoak. Sagarra ganbarara igotzen zen. Sagardoa egiteko makinak. Dolarea kanpoan egoten zen. Oiloak ere kanpoan ibiltzen ziren eta gauean txabolan sartzen ziren.

106. Baserrietako idi parea (LAS-004/004)

Baserria lau teilatutakoa zen, berritu aurretik. Zortzi behi eta idi parea izaten zituzten. Inguruko baserri ia guztietan izaten zen idi parea. Menditik egurra ekartzeko erabiltzen zituzten.

107. Lurra nola lantzen zen idiekin (LAS-004/007)

Lurra idiekin eta goldearekin lantzen zuten. Lehenengo txarrantxa edo karramarroa pasatzen zen, azala harrotzeko; gero simaurrak atera eta zabaltzen zen; goldea pasatu eta azkenik, harriarekin pasatzen zen.

108. Soldadutzarako bidaia (LAS-004/010)

Soldadutzan zela, treneko maletategian lo egin zuen Madriletik Algeciraserako bidaian. Ilea moztu zietenean, elkar ezagutu ezinda geratu ziren.

109. Alferezen laguntzaile eta sukaldari soldadutzan (LAS-004/011)

Gazteleraz ez zekiten ezer soldadutzara joan zirenean. Arropak neurrira ekartzeko egun osoa eman zuten josten. Oheak egin eta zapatak garbitzen

aritzen zen alferezei. Oso ondo egon zela dio. Ceutan sukaldari laguntzaile lanetan jarri zuten.

110. Izozte handia eta lehenengo lanak (LAS-004/012)

1956an izozte handia egin omen zuen, pinuak ihartzeraino. Zerrategian lanean aritu zen soldadutzatik bueltan. Michelinetik deitu zioten gero.

111. Basoko egurra trenera (LAS-004/013)

Eskola handirik ez zuen izan. Aitarekin zortzi urte ingururekin hasi zen lanean. Basotik egurra ekartzen aritzen zen aitari laguntzen, hiru idi parerekin. Egurra treneko bagoietara kargatzen zuten eta Andoaingo geltokian kamioiak hartzen zuen karga. Trenaren joan-etorriak aipatzen ditu.

112. Mendia sutan trenaren txinpartengatik (LAS-004/014)

Trenaren txinpartengatik, mendiak su hartzen zuen sarritan eta Gabrielek familiarekin sua itzaltzera joan behar izaten zuen.

113. Baporezko trenaren ibilbidea (LAS-004/015)

Ikatzarekin eta urarekin ibiltzen zen trena garai hartan. Jende asko ibiltzen zen Iruñera joan etorrian. Donostiatik Iruñerako ibilbidea egiten zuen trenak, lau bat orduan.

114. Harrikatza eta egur-ikatza (LAS-004/016)

Trenak harrikatza erabiltzen zuen, ez egur-ikatza. Desberdintasuna azaltzen du.

115. Idi-demetako lanak eta harria (LAS-004/019)

Idi-dematan atzetik zein aurretik egin behar izaten zuen norberak tira. Pisu desberdineko harriak erabiltzen ziren apustuetan, mila eta bostehun kilo ingurukoak.

116. Auzolanean bidea konpontzen (LAS-004/021)

Urnietarainoko bidea auzolanean konpontzen zuten, urtean bizpahiru aldiz. Andoaingo harrobitik harria ekartzen zuten eta idiekin bidean gora igotzen zuten.

117. Lasarteko dantzaldiak (LAS-004/023)

Lasarten San Pedro festak izaten ziren. "Jainkua" esaten zioten bat ibiltzen zen musikari. Hirubiden igandero izaten zen dantzaldia eta bikote asko sortzen ziren, baita borrokaldi ugari ere. Etxerakoan, nahi ez zuenarekin joatera behartzen zuten neska batzuetan.

118. Uztarriaren zatiak eta nola jarri (LAS-004/025)

Uztarriaren zatiak izendatzen ditu eta nola jartzen zen azaltzen du.

119. Idiak ongi ferratu beharra (LAS-004/026)

Idiak ferratu egin behar izaten ziren; bestela, errenka ibiltzen ziren. Gaizki ferratuz gero, "odol-jaitsia" sortzen zitzaion idiari oinean.

120. Idien eta behien gaixotasunak (LAS-004/027)

Nafarmina izaten zen idien gaixotasun ohikoena. Frantses-minarekin behiak eta idiak hil zitzaizkiola kontatzen du.

121. Esnea nola banatzen zen (LAS-004/028)

Herrira esnea banatzen zuen. Bere amak Donostiara eramaten zuen esnea garai batean, autobusa hartuta, etxez etxe banatzeko. Asto gainean jaisten zen ama herriraino, farola eskuan hartuta. Marmitak zestoetan sartu eta kobratzaileak eta gidariak jasotzen zituzten autobusaren gainera.

122. Esnea etxez etxe banatzea galarazi zutenekoa (LAS-004/029)

Inspektoreak ibiltzen ziren esne-banatzaileak kontrolatzen. Gurelesa etorritakoan, galarazi egin zuten etxez etxe saltzea. Baserriarentzat ez dagoela etorkizunik uste du.

123. Sagardoa egiteko prozesua (LAS-004/032)

Sagardoa nola egiten zen azaltzen du. Dolarearen piezen izenak esaten ditu. Patsari erabat lehortu arte arte ateratzen zitzaion zukua; ondoren, abereek jaten zuten patsa belarrarekin batean. Sagardotegian astebete pasatzen zuenik izaten omen zen garai batean.

124. Txerritik dena aprobetxatzen da (LAS-005/003)

Txerrikia gazitu egiten zuten eta zintzilik jartzen zuten. Aitona zerri-hiltzailea zeukaten. Garoarekin erretzen zuten zerria. Gibela jaten zuten lehenbizi, tipularekin. Azazkala eta hezurrak ez beste guztia jaten dira. Odolkiak nola egiten zituzten kontatzen du.

125. Txerrikiak nola gatzitzen ziren (LAS-005/004)

Txerrikiari gatz asko botatzen zitzaion. Tarteka zaindu egin behar izaten ziren. Azkenik, harria edo karga jarri behar izaten zitzaion gainean. Emakumeen zeregina izaten zen gehien bat.

126. Ardiya eta ordotsa (LAS-005/006)

Txerri emeari "ardiya" esaten zaio eta "ordotsa" arrari. Txerriari barrabilak nola kentzen zizkioten azaltzen du. Izan ere, bestela, txerriak zapore txarra izaten omen zuen.

127. Lasarteko eskola (LAS-005/010)

Orduko eskola nazionalak non zeuden zehazten du. Neskak eta mutilak bereizita egoten ziren eskolan, baita jolas orduan ere. Orduan Lasarten jende gutxi bizi zen. Michelingo lantegiak jarritako eskolan aritu zen gero. Eskolan ikasitakoak azaltzen ditu.

128. Umetako jolasak eta ehiza (LAS-005/011)

Kanikekin eta baloi zaharren batekin aritzen ziren jolasean, baita pilotan ere. Pilotak itxurazkoak izaten zituztela dauka gogoan baina lehertu ere egiten zituztela. Ehizan aritzen ziren tiragomarekin eta harri koxkorrekin.

129. Animalitxoak harrapatzen (LAS-005/013)

Sugeak hil egiten zituzten. Kilkerrak harrapatzen aritzen ziren. Habi bila ere ibiltzen ziren.

130. Goitibeherak eta bestelako jolasak (LAS-005/014)

Trikuak harrapatu eta etxera eramaten zituen, baina ez zien ezer egiten. Gordeketan ere jolasten zuten. Osabaren bizikletarekin ere ibiltzen ziren. Goitibeherekin ibiltzen ziren eta izaten zituzten gorabeherak kontatzen ditu.

131. Gramofonoarekin dantzan (LAS-005/015)

Txabolarik eta ez omen zuten egiten. Hamasei urte ingururekin gramofonoa hartu eta dantzan aritzen ziren. Musika dantza soltekoa eta pasodoblekoa jartzen zuten.

132. Hirubideko musikariak (LAS-005/016)

Hirubiden dantzaldia izaten zen igandero. Orkestina bat hasi zen Lasarten ere eta hara joaten hasi ziren. Hirubideko soinujolea Xatur Ereñotzukoa zen, eta haren ordezkoa Benantxio Añorgakoa. Jazbana zeinek eta nola jotzen zuen ere azaltzen du.

133. Sagardotegietako bola jokoa (LAS-005/021)

Bola jokoan nola aritzen den azaltzen du. Bolatokiak non zeuden kontatzen du. Sagardotegia etxean urte batez bakarrik izan zuten, baina dolarea beti izan dute.

134. Sagardoa egiteko prozesua (LAS-005/022)

Sagardoa nola egiten zuten kontatzen du. Dolarea deskribatzen du. Sagarra makinarekin jotzen zuten; eskuz eraginda lehenengo, motorrarekin gero. Etxeko sagarrarekin egin izan dute beti.

135. Sagar-mota asko (LAS-005/023)

Sagardotarako erabiltzen dituzten sagar motak izendatzen ditu: urtebila, errezil sagarra, txalaka, patxulua, mozolua, potrokilua, bizkai-sagarra, sagar gorria, pelestrina, libre sagarra, aitona sagarra... Sagar gaziak eta gezak zein diren esaten du eta nahastu egin behar direla sagardotarako.

136. Sagarrondoen kimatze lanak (LAS-005/025)

Otsailean kimatzen da sagarrondoa, baita mihura kendu ere. Simaurra zabaltzen diete inguruan. Mihura saldu ez baina eman egin izan dute, Gabonetako apaingarri modura.

137. Sagarraren bilketa (LAS-005/026)

Kizkia eta sarearekin batzen dira sagarrak. Lauzpabost lagun aritzen dira bilketan. Arbola gainera igo eta adarrak astintzen dituzte. Hurritz edo kanabera makilekin jotzen dituzte sagarrak, botatzeko. Zozoak jaten du lurrean dagoen sagarra.

138. Soldadutzan kantinari (LAS-005/027)

Soldadutzan Viescasen egon zen, hotz handia pasatzen. Kantinari aritu omen zen, soldaduei jaten eta edaten ematen, diru truke. Etxera behin etorri zen. Erdaraz ondo zekien ordurako.

139. Michelinen motorrentzat gurpilak egiten (LAS-005/028)

Soldadutzatik etorrita, Michelin lantegian hasi zen. Aita hargina zuen. Michelinen hasieran eskuz eta ondoren automatikoki lan egiten zuten. Hamar urtez Vespa motorrentzat ehunka gurpil egiten zituen egunean. Berak Lambretta markako motorra zeukan.

140. Urnietan zinegotzi (LAS-005/029)

Urnietara baino, Lasartera gehiago joaten zen. Hala ere, Urnietari zegokion beraien baserria. Zinegotzi izan zen Urnietan lauzpabost urtez, Patxi Izagirre alkate zela.

141. Bideak eta ubideak konpontzeko auzolana (LAS-005/030)

Harrobitik harria ekarrita, baserritarrek auzolanean konpontzen zituzten bideak lehen. Ubideak ere garbitzen zituzten. Udaletxeak ardoa ematen zien.

142. Lasarte-Oriaren sorrera (LAS-005/031)

Lasarte Hernanitik, Usurbildik eta Urnietatik bereizi zenean, salduta sentitu zirela dio Pakok. Muga udaletxeak erabaki zuela dio. Urnietari eta Hernaniri zegozkien auzoak aipatzen ditu, hurrenez hurren.

143. Genovevaren bertsoak (LAS-005/036)

Bere amak bertso asko zekizkien buruz eta lo eragiteko kantatzen zizkien. Genovevaren bertsoak (Brabanteko Genovevaren bizitz arrigarri miragarria bertsoak, J. K. Zapirainenak (1899)) ziren, liburu batean jasoak.

144. Sorginak eta sakamantekas (LAS-005/037)

Beraien amak kontatzen zizkien sorginen kontuak, baina esaten zien, eskopetarekin bukatu zirela sorgin guztiak. Sakamantekas askotan aipatzen zieten.

145. Kalabaza eta kandelekin zirika (LAS-005/038)

Kalabazarekin kandelak jarri zizkioten emakume bati, bezperan errieta egitearren. Hura uxatzea lortu zuten baina hurrengo egunean, errieta egin zien.

146. Kaxiano astoaren komeriak (LAS-005/040)

Astoa beti izan dute. Kaxiano izeneko asto bat zeukaten, bizkar okerrarekin. (Antonio) Merceroren pelikula bat grabatu zuten Lasarte-Orian. Hark esandakoak kontatzen ditu, baita astoarekin nola grabatu zuten ere.

147. Landareak sartzerakoan, Jesusen laguntza (LAS-006/003)

Baserrian makina bat lan egin izan zuen. Landareak sartzerakoan, Jesusek laguntzen ziola dio, hari galdetzen omen zion landarea non sartu eta nola. Lurrean ilarak egin eta landareak nola sartzen zituzten. Zertzuk landatzen zituzten: patata, azalorea, babarruna... Gero, lekak batu, ihartzen zirenean aletu, lapikoan egosi eta jan.

148. Lehenbizi goldea eta gero harria, lurra harrotzeko (LAS-006/004)

Lurra nola prestatzen zuten. Lehenbizi goldea pasatzen zen ganaduaren laguntzaz, lurrari buelta emateko. Gero, harria pasatzen zen. Nolakoa izaten zen; burdinazko hortzak. Katearekin idi edo behi pareari lotzen zitzaion. Hori eginda, lurra harrotuta geratzen zen. Hala ere, lur klasearen arabera, aldea egoten zen. Buztin-lurrarekin gehiago kostatzen zen.

149. Hazia erein aurretik, lurra prestatu (LAS-006/005)

Hazia ereiteko, lurra nola prestatzen zuten: lehenbizi goldearekin lurrari buelta eman eta gero harriarekin txikitu, harrotu. Ondoren hazia ereiten zen: artoa, babarruna, arbia... Erabiltzen zituzten tresnak (izen batzuk ez ditu gogoan).

150. Barazkiak dendara eraman eta trukean elikagaiak jaso (LAS-006/006)

Etxean hartzen zituen barazkiak Lasarteko bi dendatara eramaten zituen zuzenean. Trukean etxerako gauzak ematen zizkioten: irina, azukrea, olioa...

151. Etxeko gaiak; artoa eta babarruna (LAS-006/008)

Etxean hartzen zutenarekin nahikoa izaten zuten etxerako: babarruna, patata... Ganaduarentzat arbia, erremolatxa... Artoa ere hartzen zuten. Artoaren eta babarrunaren inguruko azalpenak. Beraiek beti babarruna arto artean hartzen zuten.

152. Eguraldi txarra zenean, artoak zuritu (LAS-006/012)

Artoa "kanabelian" ihartzen zen. Ihartuta zegoela ikusitakoan, burua bildu eta ganbaran gordetzen zen. Gerora, eguraldi txarra zenean, zuritu. Hostoak ganaduarentzat. Etxekoek egiten zuten arto-zuriketa, normalean.

153. Taloak nola egiten zituzten (LAS-006/013)

Artoa errotara eramaten zen, taloak jateko. Artoa ona bazen, irina ere bai. Taloak nola egin eta erretzen zituzten. Talo zatiak esnetara botata jaten zituzten. Taloak edozer gauzarekin jaten zituzten, bai meriendatan edo bai bestela. Hutsik ere bai. Baita gaztarekin ere.

154. Baba txikia prestatu bai, baina jan ez (LAS-006/015)

Babarruna jaten zuten normalean bazkaltzeko. Batzuetan baba txikia ere bai eta oso noizean behin dilistak. Berak ezin izaten zuen baba txikia jan, nahiz eta eltzekada handiak prestatu.

155. Beheko sutan eltzeak nola jartzen zituzten (LAS-006/017)

Sukaldean beheko sua izan zuten garai batean. "Neskamia" edukitzen zuten zintzilik eta han jartzen ziren eltzeak. Edo bestela baita behean ere, suaren inguruan, burdinazko sare bat tarteko zela. Lurrezko eltzeak. Sua aldatu zenean, eltzeak ere aldatu egin ziren.

156. Kuelan garbitzen zituzten arropak (LAS-006/020)

Errekara joaten ziren arropa garbitzera. Etxean garbitzekotan, kuela erabiltzen zuten, hiru zulo zituen barrika handi bat. Nolakoa izaten zen. Arropak han jartzen zituzten xaboiarekin eta egosi bezala egiten ziren. Ateratakoan, errekara astintzera. Arropak zuri-zuri ateratzen ziren. Chimbo eta Lagarto xaboiak. Sutako hautsa ere erabiltzen zuten.

157. Arropa zuria garbitzeari "gobara" esaten zioten (LAS-006/021)

Arropa zuria garbitzen zutenean, "gobara" esaten zioten; bestela "galtzak". Koloreko arropak zirenea, "galtzak garbitzera jun bihar diñau" esaten zuten; zuria zenean, berriz, "gobara ein bihar diñau". Eta kuela erabiltzen zuten gobada egiteko.

158. Errekan arropak garbitzen (LAS-006/022)

Errekan harri lauak izaten zituzten arropak astintzeko eta harri handiak erreka pasa ahal izateko. Gero, arropa etxera eraman eta zintzilikatu. Batzuetan zortzi maindire errenkadan. Astean behin edo hamabostean behin garbitzen zituzten, etxean zeuden bestelako lanen arabera. Batzuetan elkartzen ziren beste auzokide batzuekin errekan, baina ez beti. Euren etxeko gizonik ez zen ibiltzen garbiketan.

159. Astean zehar kanpoko lanak eta larunbatean etxea garbitu (LAS-006/023)

Astelehenetik ostiralera bitartean kanpoko lanak egiten zituzten baserrian. Larunbatean, goizetik hasita, etxea garbitu. Lixibarekin garbitzen zuten zorua.

160. Igandeetan meza, bezperak eta dantza (LAS-006/024)

Igandeetan aita meza nagusira joaten zen. Bera goizeko seietako mezara. Arratsaldean, hiruretan, bezperetara. Eguraldi ona bazen, abarketa zuriak jantzi eta dantzara. Seiak aldean etxeratzen zen. Ganadu-lanak egin eta esnea bildutakoan, litro bat esne eramaten zion komentuko apaizari. Plazatik pasatzean, Malenea dendan botila hutsa utzi eta beste dantza-saio bat egiteko aprobetxatzen zuen. Igandero egoten zen dultzaineroa; batzuetan larunbat ilunabarrean ere bai. San Pedro egunean dultzaina izaten zen normalean, baina baita ttun-ttuna ere.

161. Igandeetan dultzaineroa; Fortunatak dantza loturik ez (LAS-006/025)

Igandeetan, bezperak eta gero, dantzara joaten zen. Eguraldi ona bazen, abarketa zuriekin; bestela, zapatekin. Dantza soltean egokia zen. Lotuan ez zuen sekula egin. Etxera joan eta ganadu-lanak egindakoan, komentuko apaizari esnea eramatera irteten zen. Plazan artean dultzaineroa aritzen zen eta dantza gehiago egiteko aprobetxatzen zuen. Neguan goizago amaitzen

zen. Jende asko biltzen zen. Mutilak dantza-eske joaten zitzaizkien. Iluntzeko ganadu-lanak gizonen kontua izaten ziren.

162. Harrapaketan eta gordeketan (LAS-006/029)

Harrapaketan eta gordeketan asko ibiltzen ziren auzokoak. Nola jolasten zuten. Jostailuak ere izaten zituzten, gurasoek erosita. Guraso jatorrak zituzten.

163. Amak Donostian esnea saldu eta enkarguak egin (LAS-006/030)

Ama makina bat lan egina zen. Goizeko bost eta erdietan jaiki eta esne-marmitak karroan hartuta Donostiaraino joaten zen. Hasiera batean bezero bat zeukan eta sobratzen zena plazan saltzen zuen. Gerora, bezero hari eta ingurukoei saltzen zien esne guztia. Horrez gain, Oriako Brunet lantegirako enkarguak egiten zituen eta baita bestelako enkarguak ere.

164. Sagarrak kizkiarekin bildu, gero sagardoa egiteko (LAS-006/033)

Fortunataren jaiotetxea sagardotegia ere izan zen garai batean. Sagardo ona egiten zutela dio. Sagarrak nola biltzen zituen, sarea eta kizkiarekin. Zakua betetakoan, dolarera eraman. Han zakuak hustu eta sagardoa egin.

165. Etxeko sagardotegia (LAS-006/034)

Etxean egiten zuten sagardoa. Kupela handi bat eta lau barrika zituzten errenkadan. Gero, egunerorako, barrika txikiak. Handik botila betetzen zuten, eskatzen zuenari eramateko. Lagunak bertara joaten zitzaizkien, sagardoa edatera. Gerora, sagardoa saltzen jarri zuten eta orduan jende asko joaten zen euren sagardotegira. Amak bakailaoa prestatzen zuen (enkarguz).

166. Sagardoa prest dagoenean, zipotza kendu eta kanila jarri (LAS-006/035)

Sagardoak berak esaten du sagardotegia noiz dagoen irekitzeko prest. Sagardoa botilaratzeko prest dagoen ala ez begiratzen zuten, noizean behin ziria ireki eta sagardoa probatuta. Prest zegoenean, zipotza kendu eta kanila jarri behar izaten zen. Urte guztirako sagardo ona izaten zuten etxerako.

167. Migel eta Peio anaiak, txalapartari apartak (LAS-006/036)

Fortunataren bi anaiak, Migelek eta Peiok, txalaparta jotzen zuten. Oso onak ziren. Euren kasa ikasi zuten mutil koskorretan. Edozein garaitan jotzen zuten etxean. Etxetik kanpora ere askotan ibiltzen ziren, asteburuetan edo festetan. Sagardotegian zerbait zenean ere jotzen zuten.

168. Anaiek egur berezia zerabilten txalapartarentzat (LAS-006/037)

Ez daki zehazki zer egur erabiltzen zuten anaiek txalaparta egiteko, baina badaki egur berezia izan behar zela, bai oholarena eta bai makilena. Doinu berezi bat atera behar izaten zen. Berak ez zuen ikasi, baina anaiena gustura entzuten zuen. Onak zirela esaten zuten denek eta leku askotatik deitzen zieten.

169. Baserrian musika bai, baina lana ere bai (LAS-006/038)

Musika zaleak ziren etxean; haserrea baino nahiago zuten. Aita oso jatorra zen eta gustuko zituen musika eta txalaparta. Hala ere, baserrian bizi ziren eta ganadua zuten. Lanak aurrera ateratzeko, musika ez, beste zerbait behar! Ilunabarretan ere ez zuten astirik izaten, ganadu-lanak egin behar izaten zituzten eta.

170. Euskal kantak kantatzea gustuko (LAS-006/041)

Asko gustatu izan zaio kantatzea. Euskal kantak kantatzen zituen. `Maritxu nora zoaz` kantatzen du.

171. "Haurtxo txikia negarrez dago... " haur-kanta (LAS-006/044)

"Haurtxo txikia negarrez dago... " haur-kanta. Gogoan du amari kantatzen ziotela hori lagunek, aita tabernan dagoela esanez.

172. "Eragiozu eskutxo horri..." kanta (LAS-006/046)

"Eragiozu eskutxo horri..." eskuari eraginez umeei abesten zaien kanta.

173. `Maritxu nora zoaz´ kanta (LAS-006/047)

`Maritxu nora zoaz´ kanta.

174. Soroan aitzurrean eta kantari (LAS-006/049)

Soroan aitzurrean eta kantari ibiltzen ziren askotan. Etxekoekin giro ona sortzen zen horrela.

175. Etxean giro goxoa (LAS-006/051)

Irrati txiki bat bazutela etxean gogoratzen du. Bertsolariak entzuten zituzten han. Gerora, telebista. Etxean giro goxoa ezagutu du beti.

176. "Txilin, txilin, bon ba, seroria nun da..." kanta (LAS-006/054)

"Txilin, txilin, bonba, seroria nun da? Asto txiki batekin errotara jun da" kantatzen du.

177. `Arre, arre mandako´ kanta (LAS-006/056)

`Arre, arre mandako´ kanta.

178. "Txalo, txalo pin, hator etxera Martin..." kanta (LAS-006/058)

"Txalo, txalo pin, hator etxera Martin..." kanta.

179. "Zapata ta gerriko, zenentzako?" (LAS-006/060)

`Arre, arre mandako´ kanta. Bukaeran, "hua zenentzako?" esaten du. Ume gaiztoarentzat ez; semetxoarentzat edo alabatxoarentzat. Elkarrizketatzaileak kantaren beste bertsio bat aipatzen du.

180. Umeen jaiotza, ospakizun handia (LAS-006/070)

Ume bat jaiotzen zenean, familia guztia elkartzen zen ospatzeko. Ama, osasun onez bazen, haurraren bataiora joaten zen. "Elizan sartzea" nola egiten zen.

181. Ume txikiei jartzen zitzaien paxaren zeregina (LAS-006/072)

Familian haur bat jaio behar zenean, arropa txikiak eta pixoihalak prestatu behar aurrez. Aurrena zatar zuria eta gero pixoihala. Gero gerriko antzeko bat jartzen zitzaien, sabela eta gorputza babesteko. Bestela erraza izaten zen umeak gaixotzea.

182. Lan asko egina; haurren heziketa (LAS-006/075)

Bizimodua ondo pasa duela dio, baina lan asko eginda. Baserriari eusteko eta haurrak hazteko, lan asko egin behar. Haurren heziketa.

183. Euskara oso maitea (LAS-006/077)

Euskara zer den berarentzat. Oso maitea du euskara, etxeko hizkuntza horixe du eta. Gaztelania ez dakiela ondo dio. Otoitzak ere euskaraz egin izan ditu.

184. Bere euskara eta ondorengoena antzekoa (LAS-006/081)

Euren etxean beragandik ondorengoetara ez du nabaritzen alderik euskaran. Baina Goierri aldeko euskara desberdina dela dio.

185. Larrekoetxea baserrian jaioa (LAS-007/002)

Larrekoetxea baserrian jaioa, Buenos Aireseko gainean. Bi bizitzakoa zen. Lur asko zituen. Mandioa, sukaldea eta bi logela. Ganbara. Ukuilua. Txerriak. Artoa eta babarruna. Aita Villabonakoa eta aita Urnietakoa ziren.

186. Anaien zain eskolan, eta haiek etxean (LAS-007/003)

Eskolara anai-arrebekin joaten zen; behin ahaztu egin zitzaien berari itxarotea. Udaltzainak jostundegira eraman zuen. Ahizpa hantxe ari zen josten. Halako batean, eraman zuten etxera.

187. Lasarte. Inguruko baserriak (LAS-007/004)

Lasarte asko aldatu da. Lehen baserri asko eta herritar denak ezagunak. Inguruko baserriak aipatzen ditu. Elkarri laguntzeko ohitura: itaurrean ibiltzen zen, eskolara joan beharrean.

188. Eskola eta Jaunartzea (LAS-007/006)

Lasarteko tela lantegiak. Michelin ez zegoen artean. Kalean baserri asko zeuden, baita eliza ondoan ere. Eskola publikoan ibili zen. Neskak eta mutilak aparte. Hamar urte arte. Aingeru, maiatzean Ama Birjinari loreak eskaintzen. Jaunartzeko soinekoa eta gosaria. Erretratua ateratzera Donostiara. Erregetako opariak.

189. Hamar urterekin umezain, ahizparen etxera (LAS-007/007)

Urtebetetzeak ez ziren ospatzen. Sanpedroak ospatzen zituzten. Filarmonika. Ahizparengana joan zen umezain, Errekaldera, hamar urterekin. Mantal

zuriarekin ibiliko zela uste zuen. Tranbia. Hernanira joan ziren bizitzera. 16 urte arte. Gero, neskame Donostiara.

190. Donostian neskame (LAS-007/008)

Donostiara neskame, San Martin kalera. Aranzabal dendako jabeen etxera. Bi ume zituzten eta eskolara eramaten zituen. Jangela eta logelak garbitzea zen bere lana. Hilean zazpi duro irabazten zituen. Beste bi ahizpa ere han egon ziren zerbitzen.

191. Txomineneara dantzara; umeekin parkera (LAS-007/010)

Donostian lau urte egin zituen. Hamabostean behin joaten zen Lasartera. Txomineneara dantzara joaten ziren neskameak, uda eta negu, hamabostean behin. Umeekin parkera beti, hondartzara ez. Puntua egiten. Parkea nolakoa zen. Umeekin erdaraz egin beharra.

192. Donostiatik Lasartera bueltatu, eta gerra hasi zen (LAS-007/012)

Gerra hasi aurretik neskame zegoen. Josten ikasi nahi zuen, eta etxera bueltatu zen. Josten jakitea inportantea zen. Traperian hasi zen gero josten ikasten, Lasarten. 18 urterekin hasi zen mutilarekin. Gerra hasi zeneko kontuak. Astebetean mutila ikusi gabe, beldurrez. Borrokak. Aitak esan ziona. Loiolara joan zen.

193. Donostiatik Bilbora, itsasontziz (LAS-007/014)

Loiolara joan zen, eta gero ez zegoen pasatzerik. Lubakiak zeuden Hernani gainean. Salbokonduktoa. Lau urte egin zituen etxetik kanpo. Gaua kaian pasatu, eta itsasontzian Bilbora, mutil-lagunarekin. Bilbotik Ortuellara, trenez.

194. Bilbotik Ortuellara; hantxe ezkondu zen (LAS-007/015)

Ortuellan udaletxera joan ziren. Beste errefuxiatuekin elkartu ziren han, koinatarekin eta. Udaletxean ematen zieten jaten. Errietan egin zieten mezetara joan zirelako, eta ez ziren joan berriro. Loiolako andre baten kontuak. Hantxe ezkondu ziren. Ezkontza zibila, arratsaldez.

195. Ezkontzako erretratua (LAS-007/016)

Ezkontzako erretratuari buruzko komentarioak. Eskua galdu zuen gerran. Txapel eta guzti dago senarra. Jantziak. Ortuellako epaitegian ezkondu ziren. Afaria prestatu zieten tabernan.

196. Durangoko bonbardaketa; pinudian ezkutatuta (LAS-007/020)

Abadiñon zegoen kuartela, eta hara joan ziren. Dragoien batailoia. Bilboko ospitalera eraman zuten. Durangora joaten ziren astelehenetan feriara; eta, bonbardatu zutenean, gizona kezkatuta. Pinudi batean ezkutatu ziren.

197. Santurtzira; Portugaleteko zubia bota zuten (LAS-007/022)

Santurtzi aldera joan zen gero senarrarekin. Portugaleteko zubia bota zutenekoa. Tankea pasatu eta senarrak kolpea hartu zuen. Ospitalera. Santander aldera oinez, gauez zakua hartuta isil-isilik. Bengalak bota zituzten,

eta lurrean etzanda. Gero automobil batek hartu zituen. Senarrarekin jarraitzea nola lortu zuten.

198. Santanderren, itsasontzirako izena eman (LAS-007/024)

Santanderrera iristean, laranjak jaten. Udaletxeko ilaran. Kale-garbitzaile baten etxera joan ziren; oso behartsuak ziren, armairurik ere ez zuten. Gerrako mutilatuek ez zuten ilaran zain egon beharrik jana lortzeko. Itsasontziz kanpora joateko apuntatu zuen senarrak. Pinton London itsasontzian joan ziren Frantziara; ikatza zeraman.

199. Itsasontzian ezagunak topatu, eta taldea osatu zuten (LAS-007/026)

Itsasontzian sartu zenekoa. Ezagunak topatu zituen han, alkaindarrak, eta gustura. Bidean botaka, haurdun zegoen eta. Frantziara nola iritsi ziren. Ogi zuria pastela iruditu zitzaien. Bidean Cervera itsasontzia agertu zen, eta ilunpetan egon ziren. 30 laguneko kuadrilla egin zuten.

200. Frantzian ondo; haurra bertan izan zuen (LAS-007/027)

Oso ondo egon ziren Frantzian. Errefuxiatuetako batek frantsesez zekien eta arduradun jarri zuten hura. Janarekin nola moldatzen ziren. Hiru zeuden haurdun eta oheak jarri zizkieten. Ama-etxea. Zaurituak, senarra barne, handik hiru hilabetera joan ziren Frantziara. Nola elkartu ziren.

201. Umearen jaiotza; erizainaren oparia (LAS-007/028)

Gizona bertan zela jaio zen umea. Ospitalean oso ondo. Erizaina madrildarra zen, eta arropak eman zizkion umearentzat. Aurretik umea izan zuenari ez zioten ezer eman, emakume dotorea zelako, beharbada.

202. Miarritzen I: lehengusuaren etxean (LAS-007/029)

Miarritzera, lehengusuaren etxera; zaldi-karroan joan zitzaien bila. Lau hilabete egin zituzten han. Hotza.

203. Miarritzen II: etxez etxe, gero eta hobeto (LAS-007/030)

Alargun baten etxera joan ziren. Saiatu zen neskame joaten ere, baina ez zuen lortu. Toki bakoitzeko esperientzia kontatzen du. Etxeetako bat nolakoa zen. Oiloak mutikoari txupetea kendu zionekoa. Venezuelara joan ziren batzuk. Interina hasi zen.

204. Miarritzen III: senarra ospitalerako lanean (LAS-007/031)

Gizona ospitalean zegoen lanean. Hark umea zaintzen zuen, bera lanean zen bitartean. Alpargatak egiten zituzten ospitalean, Baionara bidaltzeko. Bueltatu beharra izan zuten gero.

205. Semearekin Lasartera; senarra kartzelara (LAS-007/032)

Lasartera joan zen umearekin, baserrira. Paperak egiten, senarrarentzat. Mugara joan ziren bila; semea granoz beteta zegoen. Kontrolak. Senarra

Miranda de Ebrora eraman zuten eta gero Madrilera kartzelara. Koinatuaren laguntzaz atera zen.

206. Bigarren ezkontza, elizaz (LAS-007/033)

Senarra etxera etorri zenekoa. Ahizpak galdetu ziona. Elizaz ezkondu ziren handik hiru urtera. Ortuellara joan ziren paper bila. Aldatuta zegoen herria; bonbardatutako eskola, taberna itxita...

207. Etxea egin zuten, lursaila erosita (LAS-007/035)

Jaiotetxean bi urte eta erdi egin zituen, eta Buenos Aires etxera joan ziren. Lursaila erosi zuten, eta etxea egin zuten, aita hil zenean. Gure Ametsa. 1951.

208. Michelin lantegian lanean (LAS-007/037)

Hiru urte Miarritzen. Bueltan, senarra zaindari ibili zen obra batean. Michelin lantegian hasi zen lanean bera, 27 urterekin. Baserritarrak ez ziren lantegira joaten normalean, beti neskame.

209. Bueltan senarrak lanik ezin bilatu (LAS-007/043)

Goserik ez zuten pasatu gerran; baina, bueltan, senarrak lanik ezin aurkitu, gorrietakoa eta maingua zelako. Estraperloko patata, bizikletan.

210. Senarraren ibilerak: arrantzan (LAS-007/046)

Senarra arrantzan ibiltzen zen aitarekin, gerra aurretik eta ostean. Kiloko bost pezeta ematen zizkioten, Bretxan. Arrebak eramaten zuen arraina. Senarra gorrarena eginda libratu zen behin.

211. Jaioberrien janzkera (LAS-007/051)

Ahizparenean umezain egon zeneko kontuak. Urik ez zegoen etxean, eta arropa garbitzera labaderora. Jaioberrien janzkera. Faja, pixa-oihalak... Pardelik ez zegoen lehen. Umeei ez zieten orain beste mimo egiten. Neskato bati gertatu zitzaiona. Bi ahizpa hil ziren txitxareekin. Orduko medikua, Don Prudencio.

212. Hilerokoa etorri zitzaionekoa (LAS-007/055)

Hilerokoa jaitsi zitzaionean ahizparenean zegoen, eta ez zion ezer asko esan. Maindire puskak jarrita ibiltzen ziren. Painuak erosten zituen gero, Donostian. Haiek erakusleihoan ikusteak lotsa ematen zion.

213. Lasarteko serenoa, pregoilaria (LAS-007/057)

Lasarteko gauzaina, Peña, eta udaltzaina. Pregoilaria. Faroleroak. Kale garbitzaileak. Zorroztaileak.

214. Alpargatak josten, Miarritzen (LAS-007/062)

Alpargatak josten ibili zen Miarritzen, ospitalerako. Ez ei da zaila. Hiru puntako orratza. Interina.

215. Umetako jolasak eta bazkalordua (LAS-007/064)

Hortza erortzean, sutara botatzen zuten. Panpina asko zituen lagun batek, eta bera haientzat arropatxoak egiten ibiltzen zen. Loreekin koroak egiten eta paseatzen. Urtebetetzeetan oparirik ez. Denek eltze batetik jaten zuten.

216. Eskolan ere euskaraz (LAS-007/067)

Euskaraz egiten zuten dena, baita eskolan ere. Neskame zegoela ikasi zuen erdaraz. Herrian denek zekiten euskaraz. Gerrak dena aldatu zuen.

217. Lasarteko euskara (LAS-007/068)

Lasarteko euskara eta euskara batua antzekoak ei dira. Euskara non hasten den aldatzen. Eibarko euskara. Miarritzen, euskaraz, frantsesez... denetik egin beharra.

218. Senideei zuka, gurasoei berorika (LAS-007/069)

Zuka hitz egiten zuten senideen artean, hika ez zitzaion gustatzen. Berorika gurasoekin eta apaizarekin. Apaizari eskuan musu emateko ohitura.

219. Amonaren etxean jaio; Pepenea baserrian bizi (LAS-008/003)

Ama amonaren etxera joan zen bera izateko. Jaiotetxeko oroitzapen onak ditu. Amona emakume atsegina zen. Amonaren etxetik Errekaldera joan ziren bizitzera eta handik Lasarteko Pepenea baserrira. Han bizi izan zen ezkondu arte.

220. Pepenea baserri dotorera maizter (LAS-008/005)

Pepenea baserria oso dotorea zen. Komunak ere bazeuzkan. Amilibiatarrak ziren jabeak. Gerra sasoian kanpora alde egin zuten eta etxea hutsik geratu zen. Beraiek maizter moduan joan ziren hara eta errenta Hernaniko Udalari ordaindu behar izaten zioten, hura egin zen etxearen kargu eta. Errenta dirutan ordaintzen zuten.

221. Pepenea, bi bizitzako baserri dotorea (LAS-008/006)

Bi bizitzako etxea zen Pepenea. Oso-oso dotorea. Baserri osoa deskribatzen du. Komun bat baino gehiago zeuzkan. Beraiek etxearen atzeko aldean jarri ziren bizitzen, euren ganaduarekin. Hasieran etxe osoa erabiltzen zuten, baina gero Goiaztik etorri ziren batzuk jarri ziren etxearen aurrealdean bizitzen. Garai batean animalientzat prestatua zegoen Pepenea eta, hain zuzen ere, horretxen bila zebiltzan.

222. Pepenea baserrira, aitak ganadua izan nahi zuelako (LAS-008/009)

Hiru senide gazteenak Pepenea baserrian jaio ziren, bera Etxetxon eta anaia zaharrena Lasarten, kalean. Ama batetik bestera ibili zen. Berak lau urte zituela joan ziren Pepeneara. Gurasoek Michelin lantegian lan egiten zuten eta Lasarten kalean ondo bizi zitezkeen, baina aitak baserrira joan nahi zuen, ganaduak izateko, eta horregatik joan ziren Pepeneara.

223. Eskolari baliorik ez (LAS-008/010)

Eskolara gutxi joan zen, baserrian beti zegoelako lanen bat. Orduan ez zitzaion baliorik ematen eskolari. Aitak ez zuen eskolarik, baina kontuak ateratzeko oso buru ona zuen.

224. Astoak erakutsi zion errotarako bidea (LAS-008/011)

Lan asko egitea tokatu zitzaion. Hamaika urte zituenerako taloak egiten zituen. Astoa hartu eta Hernanira joaten zen errotara. Astoak erakutsi zion harako bidea. Hernanin tranbia-bidea pasa behar izaten zuten. Errotak itxita egon ziren sasoian, tranbian Andoainera. Astoa ezin eraman tranbian eta artoa bizkarrean hartu behar.

225. Taloak nola egiten zituen (LAS-008/012)

Taloak su-txapan erretzen zituen. Amorrazio handiak pasatzen zituen, batzuetan suari sartzeko egurrik ere ez zuen izaten eta. Taloak nola egiten zituen. Zapian zabaltzen zuen taloa. Goizean eta gauean taloa esnearekin. Urdaiarekin ere jaten zen batzuetan.

226. Beraiek etxeko elikagaiak; kaleko jendea goseak (LAS-008/013)

Aitak egin izan zuen garia, baina ez asko. Ez omen da gariarentzat leku aproposa. Artoa eta babarruna izaten zituzten soroan. Goizean goiz artajorrara joan behar ihintzetan. Baratze koskor bat ere bazuten: patata, tomatea eta barazki gutxi batzuk. Dena etxerako izaten zen. Babarruna urte guztian jaten zuten. Kaleko etxe askotan ez zuten jatekorik izaten eta mendi aldera joaten ziren sagarrak lapurtzera. Euren etxera Errekaldetik eta Lasartetik etortzen ziren kuadrillak.

227. Gerraostean babarruna ezkutatzen, ez entregatzearren (LAS-008/014)

Gerraostean baserritarrek jasotako elikagaietatik zati bat entregatu egin behar izaten zuten. Guardia zibilak joaten ziren baserrietara. Aitak babarruna zulo batean ezkutatzen zuen. Hala ere, ezarritako kupoa eman egin behar izaten zen.

228. Pepenea baserriko euren etxebizitza nolakoa zen (LAS-008/016)

Artoa eta babarruna ganbaran gordetzen zituzten. Beraien alderdian ganbararainoko pasabidea zuten. Ganbara oso zabala zuen Pepenea baserriak. Aldamenean logelak. Beheko solairuan beste hiru logela handi eta komuna.

229. Umetan lan ugari: zorua garbitu, anaia zaindu... (LAS-008/017)

Eskaileretako eta logeletako zorua ondo garbitu behar izaten zuen: alanbrea pasa, argizaria eman eta gero eskuilarekin igurtzi. Anaia txikiena berak hazi zuen, ama Donostiara joaten zen eta. Eskolara gutxi joan zen. Lanak, ordea, ugari egin behar. Senideen arteko harremana.

230. Etxearen garbiketa; argizaria eta eskuila (LAS-008/018)

Etxeko garbiketa kontuak. Ama oso zorrotza zen. Negar asko egina da, ez zelako iristen lan guztiak egitera. Zorua garbitzeko, argizari-makila pasa behar egur guztian eta gero eskuila, hanketan ipinita. Eskuila nolakoa izaten zen.

231. Pepenea baserrian etxe osorako ura gerra aurretik (LAS-008/020)

Pepenea baserrian bazegoen ura, Amilibiatarrak bizi ziren sasoitik. Horregatik zeukan komuna bainuontzi, bidet eta guzti. Behean txabola bat zegoen motorrarekin eta handik jasotzen zen ura goiko depositura. Gero handik etxe osora banatu. Haiek alde egin zutenean ur gabe geratu ziren, beraiek motorrik ez zutelako. Ura suarekin berotu behar zen eta horretarako su handia behar.

232. Antxota kalearen izena berak proposatutakoa (LAS-008/022)

Etxerako ura nondik garraiatzen zuten. Goiegi. Antxota deitzen zitzaion ura jaiotzen zen zuloari. Berak proposatuta, marrazketa-taldeari izen hori jarri zioten eta geroago baita Lasarteko kale bati ere.

233. Garbitokira arropak garbitzera joan eta sugearekin topo (LAS-008/024)

Antxotako zuloa baino goraxeago arropa garbitzeko aska zegoen eta hara joaten zen arropak eta xaboi puskak hartuta. Udara batean suge handi batekin topo egin zuen. Gauza guztiak hantxe botata utzi eta etxera alde egin zuen. Pintto izeneko txakur bat zeukan eta, belar artetik pasa behar zenean, hura bidaltzen zuen aurretik, sugeak harrapatzen trebea zen eta.

234. Gerra sasoian etxeetan sartzen ziren; jendea herritik ihesi (LAS-008/027)

Gerra sasoian Lasarten bizi ziren, kalean. Jendea etxeetara sartzen zela eta, beldurrez, Etxetxo baserrira joan ziren. Jende askok alde egin zuen herritik. Bere adineko batzuk, garai hartan ume zirenak, Errusiara edo kanpoko beste herrialde batzuetara bidali zituzten. Etxe guztietako ateak irekitzen zituzten, baina justu eurena eta maistrarena ez zituzten ireki.

235. Etxetxo baserri ondoan soldaduak tiroka (LAS-008/028)

Gerra sasoian Etxetxo baserrian egon ziren. Gogoan du senide ugari bildu zirela. Izebak sukaldeko leiho handiaren parean koltxoia ipini zuen, balak gelditzeko. Tiroketak Santa Barbaratik Oria mendira. Etxetxo aurrean zegoen petrilaren atzealdean egoten ziren soldaduak makurtuta, tiroka.

236. Fusilatzera zeramatzaten bi gizonek kamioitik ihes (LAS-008/030)

Gerra sasoian txarto pasatu zuen jende asko egon zen. Motibo gutxi behar izaten zen jendea hiltzeko. Galarretan fusilatzen zuten jendea. Entzuna du bi gizonek, fusilatzera zeramatzatela jakinda, kamioitik salto egin eta ihes egin zutela. Gauza gogorrak egin zituzten gerratean.

237. Michelin lantegiko langileak ez zituzten gerrara eraman (LAS-008/031)

Gerra sasoian Michelin lantegiak jende asko salbatu zuen. Bertan lanean zebiltzanak ez zituzten gerrara eraman, auto eta kamioentzat gurpilak behar zirelako. Horrela libratu zen bere aita. Bestela, kinta askotako mutilak eraman zituzten, 17 urtetik hasi eta gora.

238. Umeak Paristik zetozelakoan (LAS-008/035)

Etxean ez zieten esaten ama haurdun zegoenik eta tapatzen jarduten zuten, gainera. Oso ezjakinak ziren. Umeak Paristik zetozela esaten zieten eta koskortu eta gero ere horixe sinesten zuten. Anaia gazteena jaio zenean, 13 urte beteta zituen. Gogoan du anai-arrebak hartu eta beste baserri batera joan zirela, txikia jaiotzen zen bitartean.

239. Hilerokoa, tabua (LAS-008/036)

Garai haietan ez zituzten prestatzen emakume izateko. Hilekoa zer zen ez zieten esaten eta aurreneko aldiz etortzen zenean, ez zuten jakiten nola jokatu. Garai gogorrak ziren.

240. Gurasoei berorika (LAS-008/037)

Amak ahizpa asko zituen. Lehengusuek euren gurasoei zuka hitz egiten zieten, baina beraiek gurasoei berorika hitz egin behar. Ama oso gogorra zen.

241. Donostian, marmitaz betetako zestoa buru gainean hartuta (LAS-008/040)

15-16 urterekin Donostiara joaten zen, esnea partitzera. Zesto handi batean lau marmita sartu eta buru gainean eramaten zuen, San Martin kaletik Amarako geltokiraino. Etxez etxe joaten zen eta batzuetan solairu asko igo behar. Bezeroek emandako txerri-janarekin bueltatzen zen etxera. Autobusean itzultzen zen. Trolebusak eta tranbia ere baziren. Gogoan du soineko horiarekin suhiltzaileen aurrean pasatzean "aupa Orio!" esaten ziotela. Pisu handia erabiltzen zuen buru gainean.

242. Panpinarentzat arropa josten, ganaduak zaindu bitartean (LAS-008/041)

Donostian esnea partitzetik etxera itzuli, prestatu eta berriz Donostiara joaten zen, josten ikastera. Asko gustatu izan zitzaion umetatik. Ganadua zaintzen zegoen bitartean ere panpinarentzat arropa josten zuen. Garai hartan kartoizko panpinak egoten ziren.

243. Behiak besoa puskatu zionekoa (LAS-008/042)

Ostegun santu egun batez aitak ganaduak zaintzera bidali zuen. Ganaduak zaindu bitartean josten aritzen zen. Aitak arreta jartzeko esan zion, ganaduak ailorbea ez zezan jan. Despistatu zen batean, behi bat ailorbea jaten ari zela ikusi zuen. Tripa ondoan jo zuen behia; hark buelta hartu eta bi ostikada eman zizkion. Arnasa gabe geratu zen hasieran. Berak arratsaldean traje berria estreinatzeko gogoa zuen, baina Donostiara joan behar izan ziren medikuarengana. Besoa zeukan apurtuta eta igeltsua jarri zioten. Orduko "errehabilitazioa".

244. Jaunartze handian, dotore (LAS-008/043)

Hamabi urtrekin jaunartzean erabili zuen soinekoa lehengusu batena zen, organdizkoa eta zuria. Ama dotorea zen horretarako eta beloa eta zapata zuriak ere eraman zituen. Ilea ere ile-apaindegian orraztuta. Ordurako jada emakume gorputza zuten, baina maleziarik ez. Etxean egin zuten bazkaria.

245. Senargaiak tela oparitu eta berak soinekoa egin (LAS-008/046)

Lehenbizi brodatzen ikasi zuen eta gero josten. Berak egiten zituen bere arropak. Nobiotan, senargaiak tela oparitu zion eta berak harekin soinekoa egin. Donostiara josten ikastera joan aurretik ere josten aritzen zen, etxeko gizonen prakei adabakiak josten. Maindireei ere pusketa berria jartzen zitzaien, puskatzen zirenean.

246. Familiaren argazkian, denak oso dotore (LAS-008/048)

Familiaren argazkia erakusten du. Oso dotore zeuden jantzita. Arropen inguruko azalpenak. Dotore janzten ziren, baina normalean ez hain dotore.

247. Zabalegiko eskolan, josten irakasten (LAS-008/050)

38 urte ingururekin josten irakasten hasi zen, Lasarten "Centro de la mujer" sortu zenean. Ordurako bazuen titulua. Gero, hango zuzendariak Zabalegiko eskolara bidali zuen. Pare bat urte egin zituen bertan. Han Baztango neskak egoten ziren, barneko ikasle gisa, eta baita Goierri aldekoak ere. Mutilak ere egoten ziren.

248. Ezkondu zenean, Michelin lantegiko lana utzi behar (LAS-008/051)

Ezkondu aurretik, 18 urterekin, Michelin lantegian hasi zen lanean. 21 urterekin ezkondu zen eta orduan lana utzi behar izan zuen, ez zietelako jarraitzen uzten.

249. Senarrak eta biek janari-denda jarri zuten (LAS-008/053)

Garai bateko Michelin lantegiko soldatarekin ez ziren iristen 1000 pezetara (hilean). Hilabetea pasatzeko lanak izan arren, sekula ez duela zorrik egin dio. Senarrak eta biek janari-denda jarri zuten. Dena zakuetan etortzen zen orduan eta jendeak justukoa erosten zuen. Gustatu egiten zitzaion jendearekin tratua.

250. Eskolan euskaraz egiteagatik zigortu (LAS-008/054)

Sei urterekin hasi zen eskolan. Maistra nazionalista zuten: Maria Etxarri. Euskalduna zen, baina, pena eman arren, zigorra jartzen zien euskaraz egiten bazuten. Pasilloan `Cara al sol´ abestu behar.

251. Berak euskarari eutsi dio, baina beste askok ez (LAS-008/055)

Lasarten euskaldun asko zen garai batean, baina, euskara debekatuta egon zenez, jendeak ez zuen ikasi eta askok pena du orain. Adibide moduan, Donostiako lagun bat aipatzen du, euskaraz ulertu bai, baina hitz egiten ez dakiena. Haren aita kartzelan egona zen gerra sasoian. Franco etortzen zenean, kartzelan sartzen zuten, egonaldiak irauten zuen bitartean.

252. Lasarteko euskaratik aldentzen diren hizkerak (LAS-008/059)

Tolosatik gora euskara desberdina hitz egiten da. Kostaldean, berriz, Orion eta baita Zarautz aldean ere Lasarteko euskararen antzekoa hitz egiten da, baina Zumaia-Azpeitia inguruan aldatu egiten da. Beretzat berea da euskararik onena. Hitz batzuk aldatu egin direla aipatzen du.

253. Urretatarren etxean jaioa; anaia "garrotillo"arekin hil zen (LAS-009/004)

Lasarten jaio zen, Urretatarren etxean. Aita bertako txoferra zen eta ama hango ume-zaintzailea. Bertan ezagutu zuten elkar eta haien etxe ondoan jarri ziren bizitzen. Bost anai-arreba izan ziren, baina anaia bat "garrotillo"arekin (laringe-difteria) hil zen bi urterekin. Garai batean ume gehiago hiltzen zen.

254. Aita lantegian eta txofer lanean ibilia (LAS-009/007)

1934an Urretak jada ez zuela txoferrik behar eta aita Michelin lantegian hasi zen. Lehenengotako langilea izan zen. Gerra hasi zenean, Michelin itxi egin zuten eta beraiek Zarautzera joan ziren. Handik itzultzean, Brunet lantegian txoferra behar zutela eta han hasi zen lanean aita. Aurretik ere Brunet lantegian lan egina zen (Urretaren txofer moduan hasi aurretik).

255. 1936an Zarautzera; hango bizipenak (LAS-009/009)

Gerra hasi zenean lau urte zituen, baina orduko gauza asko gogoratzen ditu. Esaterako, aldamenean bizi zen harakinaren kamioian gauzak sartu eta Zarautzera nola joan ziren. Uztailean joan ziren eta bi-hiru hilabete egin zituzten han, irailean sartu baitziren nazionalak Zarautzen. Zarauzko oroitzapenak; hondartzara joaten ziren osabarekin. Behin urrutira Cervera barkua ikusi zuten Donostiara bonbak botatzen.

256. Aita gerrara eramateko beldurra; osabak gerratean hilak (LAS-009/010)

1936ko irailean sartu ziren nazionalak Zarautzen. Aitak 42 urte zituen ordurako, baina beldur zen gerrara eramango ote zuten. Azkenean ez zen hala izan. Gerra hasi aurretik amaren anaia bat zaurituta ikusi zuten. Gerora hil egin zuten osaba hura. Beste osaba, Martin Lekuona abadea, Galarretan fusilatu zuten. Zarauztik etxera itzuli zirenean etxea nola aurkitu zuten. Izebak Espainiako bandera txikiak ekarri zizkien, paparrean jartzeko.

257. Gerra sasoian etxetik alde eginda; Zarauztik etxera itzulera (LAS-009/013)

Gerra sasoian euren bizilagunak denbora luzez egon ziren etxetik alde eginda. Euren etxean ez zen inor sartu eurak Zarautzen egon ziren bitartean. Zarauztik itzultzerakoan, izugarrizko buelta eman behar izan zuten, Orion zubia leherrarazi zutelako.

258. Hamahiru urterekin Brunet lantegiko bulegora lanera (LAS-009/017)

Brunet lantegiko bulegoan lan egiten zuen osaba bat 45 urterekin hil zen, ebakuntza baten ondorioz. Orduan, aitak lantegikoei komentatu zien han lan egiteko moduko mutila zuela eta halaxe hasi zen Andoni, 13 urterekin. Bulegoan zer lan egiten zituen. Hasieran dena eskuz egiten zen, gerora, pixkanaka, hasi ziren makina edo gailu desberdinak.

259. Manuel Lasarte, osaba apaiza, izan zuen maisu (LAS-009/018)

Osaba izan zuen maisu: Manuel Lekuona apaiza. Gerra denboran Gasteizko seminarioan zegoen maisu eta ihes egin zuen handik. Lasartera etorri eta Antonio Abaunz kapilauaren etxean egon zen ezkutatuta lau urtez.

Euskaltzaindiko lehendakari izan zen eta hainbat liburu idatzi zituen. Oso gizon iaioa zen, polifazetikoa, eta harekin elkarrizketak oso interesgarriak izaten ziren.

260. Ez zuen seminariora joan nahi izan (LAS-009/019)

Manuel Peña Lasarteko seminarista hil zenean bera meza-laguntzaile moduan ibiltzen zen. Egun hartan Antonio Abaunzen etxera joateko eskatu zioten (Manuel Lekuona osaba han egon zen ezkutatuta). Abade mordoa aurkitu zituen hara joan zenean, eta seminariora joan behar zela esan zioten. Berak ez zuen nahi eta halaxe esan zion osabari.

261. Lasarteko ikastolaren sorreran ibilia (LAS-009/022)

Lasarten gutxi egiten zen euskaraz. Ezkondu aurretik lehenengo saiakera egin zuten Lasarten ikastola sortzeko, baina ez zen ondo atera. Handik bi-hiru urtera bai. Bera ikastolaren sorreran ibili zen, nahiz eta euskaraz ondo jakin ez. Ez omen da gehiegi ahalegindu, agian komertzial lanagatik kanpoan asko ibiltzea tokatu zaiolako.

262. Lekuonatarrak, euskal kulturan pertsona esanguratsuak (LAS-009/025)

Manuel Lekuona bere amaren anaia zen. Beste anaia baten seme-alabak aipatzen ditu, horietako asko euskal kulturan pertsona esanguratsuak izanak. Juan Mari lehengusuak doktoretza Erroman egin zuen; oso jakintsua zen eta bertsolaritzan (olerkigintzan) apartekoa. Andoni Aiako Altzola auzora desterratu zuten eta Parisera joatea erabaki zuen, soziologia ikastera. Han moja izandako batekin ezkondu zen. Juliani antzeko zerbait gertatu zitzaion: `Ez dok Amairu´ taldearekin kantari ibili eta gero, apaiz izateari utzi eta moja izandako batekin ezkondu baitzen.

263. "Tejolote" hirukotea osatu zuen Mercero lehengusuekin (LAS-009/026)

Familiatik datorkie ahots ona eta kantatzeko zaletasuna. Parisen ere abestu zuen 1956an. Gerora abeslari hirukotea osatu zuen Antonio eta Ignacio Maria Mercero lehengusuekin: "Trío Tejolote". "Tejolote"ren esanahia. Orduan hirukoteak eta taldeak modan zeuden. Beraiek berritasun bat ekarri zuten: abestiak eszenaratzea. Asko ez, baina han eta hemen aritu ziren; esaterako, Muruzabalen, Michelin lantegiak zuen kolonian.

264. Gaztetatik koruan kantuan (LAS-009/027)

Aitak koruan abesten zuen eta bera ere tiple moduan hasi zen, ahotsa moldatu zitzaionetik aurrera. Aitak bazuen solfeoa ikasteko liburu bat eta oinarrizko solfeoa ikasi zuen handik. Elizako koruan hasten ziren. Mercero (osaba) zen hango arduraduna. Ezkondu ostean denbora luzez ez zen joan korura, lan-kontuengatik kanpoan ibili zelako, baina gerora berriz hasi zen.

265. Garai batean abesten zuten euskarazko gabon-kanta (LAS-009/028)

Euskarazko kanta batzuk ere abesten zituzten. "Tejolote" hirukotean Ipar Euskal Herritik ekarritako liburu batetik ateratako kanta bat abesten zuten eta baita gabon-kanta bat ere. Santa Brigidaren komentura joaten ziren entseatzera; ilunpetan kantatzen hasi eta mojek argiak pizten zituzten. Euskarazko gabon-kanta horren zati bat abesten du.

266. "Centro Republicano"an haragia jan zuten Ostiral Santuan (LAS-010/006)

Bera umea zenean, euren etxeko lehenengo pisuan "Centro Republicano"a zegoen. Gogoan du Ostiral Santu batean festa antolatu zutela bertan eta, bijilia egin ordez, haragia jan zuten. Izugarrizko iskanbila sortu zen. Gerra hasi zenean handik alde egin zuten.

267. "Bar Lirio" eta kaleko pasadizoa (LAS-010/008)

Lasarte zeharo zaharra zela dio. Gaur egungo Okendo plaza inguruan "Bar Lirio" jarri zuten. Ingurua nolakoa zen. Kalean zegoen pasadizotik Hipodromoko kalera ateratzen zen. Etxe atzeetan ukuiluak.

268. Largoenea etxe ingurua nolakoa zen (LAS-010/009)

Largoenea etxearen atzealdean baratzea zegoen. Inguruan zeuden etxeak norenak ziren; bata Galardi idazkariarena eta bestea Azurzarena. Etxea bota egin zuten eta ez zieten utzi berriz eraikitzen. Antxonea baserria. Inguruan dena belazeak ziren.

269. Geltoki kale ingurua nolakoa zen (LAS-010/010)

Geltoki kale ingurua nolakoa zen. Baratzeak zeuden. Herrian bertan ukuilua zuten batzuk aipatzen ditu; simaurra ateratzen zutenean, usaina herri osoan zabaltzen zen. Intxaustitarrek ere baserria zuten. Trena haraino iristen zen.

270. Oriako Brunet lantegira joan-etorria oinez (LAS-010/012)

Hamahiru urterekin Oriako Brunet lantegian hasi zen lanean. Jornala amari entregatzen zion. Oinez egiten zuen lantegira joan-etorria, trenbidetik. Tranbia eta merkantzia-trena pasatzen ziren Lasartetik. Kotxe gutxi zen garai hartan.

271. Brunet oihal-lantegian lanean (LAS-010/014)

Brunet oihal-lantegian kotoiarekin lan egiten zuten. Fardo handiak ekartzen zituzten eta, makinaren laguntzaz, hura mehetzen joaten ziren.

272. Brunet oihal-lantegiaren antolaketa (LAS-010/016)

Brunet oihal-lantegiak bost solairu zituen. Solairu bakoitzean zer egiten zen. Bosgarren pisuan haria ateratzen zen eta han egoten ziren beraiek. Umeak ziren artean eta jostatzen ibiltzen ziren.

273. Mutil gazteak eta emakumezkoak Brunet lantegian (LAS-010/020)

Brunet lantegian lan egiten zueneko argazki zahar bat erakusten du. Bost mutiko zebiltzan, solairuetan lan egiten zuten bi eta beraiek hiru: Goizuetako bat, Andoaingo Larburu eta bera. Gazteak ziren artean eta, momenturen bat libre zeukatenean, jostatzen ibiltzen ziren. Gainontzeko langileak emakumezkoak ziren.

274. Oriako herritar gehienak Bruneten lanean; nafarren etorrera (LAS-010/021)

Oriako herritar gehienek Brunet lantegian lan egiten zuten. Gehienak euskaldunak zirela dio, kalekoak. Gerra sasoian nafarrak (Huizi herria aipatzen

du) joan ziren Brunet lantegira lanera eta Orian jarri ziren bizitzen. Bizitza pobrea zeramaten.

275. Atotxan dantza egin zuen Jose Antonio Agirreren aurrean (LAS-010/025)

Oso umetan hasi zen dantza-taldean. Atotxan bilkura handi bat egin zen eta han dantza egin zuten, Jose Antonio Agirreren aurrean. "El chocolatero" esaten zioten, txokolate-fabrika zuelako. Gaseosa eman zieten ordainetan. Dantza-talde asko bildu ziren. Zelai osoa bete zen.

276. Gerra aurreko Lasarteko dantza-taldea (LAS-010/027)

Lasarten dantza-taldea zeukaten gerra aurrean. Batzoki azpian entseatzen zuten. Batzokia non zegoen. Astean bi-hiru aldiz entseatzen zuten. Mutilak bakarrik. Zer dantza egiten zituzten. Zuriz janzten ziren, gerrikoa eta txapelarekin.

277. Herritarren arteko pikeak; maiatzaren 1a (LAS-010/034)

Hernanira futbola ikustera oinez joaten ziren, gorbata jantzita. Ez ziren asko joango eta ez zen pikerik izaten. Maiatzaren 1ean Oriakoekin bai sortzen zen iskanbila. Manifestazioan joaten ziren Lasartera eta hangoak zain egoten ziren.

278. Lasarteko San Pedro jaietan inguruko musika-taldeak (LAS-010/036)

Lasarten bi etxeren artean egiten zuten dantza. Zubietara ere joaten ziren festetan. Hango abadeak ez zuen ematen baimenik dantza loturako. Lasarteko San Pedro jaietan musika egoten zen. Herriko "Los Urreta" taldearekin gaupasa egiten zuten. Hurrengo egunean lanera joan behar. "La orquesta Beotibar" ere etortzen zen Tolosatik. Orduko parrandetan gaur egun baino merkeago ibiltzen ziren.

279. Hamabi urterekin Galarditarren dendara lanera (LAS-011/003)

Hamabi urterekin Galarditarren janari-dendan hasi zen lanean. Beraiek dendaren gainean bizi ziren, bigarren solairuan, eta Galarditarrak aurreko etxean. Dendako lanetan eta etxekoetan jardun behar izaten zuen, goizetik gauera. Errazionamendu garaian jende asko joaten zen eta neka-neka eginda bukatzen zuen. Etxean pozik, diru pixka bat irabazten zuelako.

280. Jaietan tabernako sukaldea jaso eta dantzara (LAS-011/004)

Igandeetan Galarditarren amak zuen tabernan bazkaltzen zuen. Bi familia elkartzen ziren. Sukalde guztia jaso eta seiak aldera dantzara. Gaur egun udaletxea dagoen tokian izaten zen musika. Bederatziak aldera, afaltzera joan behar, gero sukaldea jasotzeko. Astea hastean, berriz lanera. Etxekoandreari jostera joateko baimena eskatu zion eta halaxe hasi zen. Sorbaldakoak josten ikasi zuen.

281. Galarditarren dendatik Guca lantegira eta gero Michelin-era (LAS-011/005)

Michelin lantegian lan egiteko apuntatuta zegoen, baina ez zioten deitzen. Bere nagusiak (Galarditarrak) gustura zeuden berarekin, baina bera aspertuta zegoen, lan asko egin behar izaten zuelako. Igandeetan ere goizeko seietako mezara joan eta, mantelina kentzeko betarik gabe, denda ireki behar. Ezagun bati paderak egiten zituzten Guca lantegian apuntatzeko esan zion eta halaxe hasi zen. Amari Luzuriagatarren lantegiko bulegoak garbitzen ere laguntzen zion. Guca-n hasi eta urtebete ingurura, Michelin-etik deitu zioten eta bertan hasi zen.

282. Emakumeek ezin lanik egin ezkondu eta gero (LAS-011/006)

Bera Michelin lantegian hasi zen sasoian, emakumeei ezkondu eta gero lanean jarraitzeko debekua jarri zien gobernuak. Hori dela eta, denbora gutxi egin zuen han.

283. Ura kentzen zutenean, kalera joan behar bila (LAS-011/009)

Garai batean etxeetan euli asko egoten zen eta gomazko tirak edukitzen zituzten zintzilik, haiek harrapatzeko. Lasarteko etxean bazuten ura, baina batzuetan kendu egiten zuten eta kalera joan behar ur bila. Arropak eskuz garbitzen ziren. Lehenengo garbigailua.

284. Zorua nola garbitzen zuen (LAS-011/014)

Neskame egon zenean, zorua nola garbitzen zuen: lehenbizi alanbre bat pasatu, gero argizaria eman eta gero zepiloarekin atera. Paretak zuritzeko lanik ez du egin izan. Euren etxera Txikierdin bizi zen gizon bat joaten zen, urtean behin, paretak zuritzera.

285. Bi etxerentzat komun bakarra (LAS-011/015)

Lasarteko etxea oso txikia zen. Bi logelak eta sukaldea nolakoak ziren. Komuna aldameneko etxekoekin elkarbanatzen zuten. Hori dela eta, umeak sukaldeko harraskan garbitu behar izaten zituen, balde batean ura ipinita. Aldamenekoak ez ziren asko egoten etxean.

286. Aieten izebaren etxean egon eta gero, berriz Lasartera (LAS-011/016)

Etxea bota egin behar zutela eta beste etxe batera joan ziren alokairuan. Handik Aietera joatea erabaki zuten, izebaren etxera. Senarra Aietekoa zen eta gurasoek taberna zeukaten bertan. Handik egunero joaten zen motoan senarra, Michelin lantegira, goizeko seietarako. Orduan, berriz Lasartera itzuli ziren. Ez zuten telefonorik etxean, baina etxejabea behean bizi zen eta hark bere etxeko telefonoa uzten zion. Trukean mesede ugari egiten zizkion: maindireak garbitu eta lixatu, sagarrak erre...

287. Garai bateko Lasarte: jende gutxi eta baratze ugari (LAS-011/018)

Lasarten denek ezagutzen zuten elkar garai batean. Michelin-era bidean baratze ugari zegoen, asko kaleko jendearenak. Berak baserriko lagun bat zuen eta batzuetan, astia zuenean, hari esnea partitzen laguntzera joaten zen.

288. Udaran zaldi lasterketak ikustera (LAS-011/020)

Bere lagun bat Lasarteko kale-baserri batekoa zen. Trena haraino sartzen zen. Hipodromoa. Zaldi lasterketak udaran. Bera hipodromora nola sartzen zen. Jende asko joaten zen kanpotik. Tren berezia egoten zen.

289. Baserritarrak azokara; dendara joaten ziren saltzaileak (LAS-011/021)

Baserritarrek azokara joateko tranbia edo autobusa hartzen zuten. Baziren zaldi-karroarekin Donostiara joaten zirenak ere. Beraiei dendara etortzen zitzaizkien saltzaileak. Fruta saltzailea Andoaindik etortzen zen. Etxekoandrea Donostiara joaten zen enkarguak egitera eta bere esku uzten zuen denda.

290. Ongi pasatu nahi eta alde guztietatik mugak (LAS-011/024)

Garai batean mugak jartzen zizkioten alde guztietatik. San Pedro jaietan anaia zaharrenak esaten zion mutilekin ez dantzarik egiteko. Gainera, goiz joan behar izaten ziren etxera. Umetan parrokiara joaten zen antzerkia egitera. Behin ezpainak margotuta etxera joan eta aitak errieta egin zion.

291. Senarra dantzan ezagutu zuen (LAS-011/025)

Igande arratsaldeetan orain udaletxea dagoen eraikinaren azpian dantza egiten zuten. Han ezagutu zuen senarra. Mutilak ez zekienez ondo dantzan, beste puntara alde egin zuten, baina atzetik jarraitu zien. Senarrak 24 urte betetzen zituen egunean ezkondu ziren. Normalean mutilek ematen zuten lehen urratsa.

292. Dendako diru-kontuak ondo zaintzen zituen (LAS-011/028)

Guardia zibilen kuartela zegoen Lasarten. Behin guardia zibil berri bat etorri zen eta dendara joaten hasi zitzaien. Garai hartan erosketak apuntatu egiten ziren, gero denak batera ordaintzeko. Berari ez zitzaion inporta behar, baina dendako diru-kontuak ondo zaintzen zituen. Oso zuzena izan zen beti.

293. Aita gaixorik; ama Brunet lantegira lanera (LAS-011/029)

Aitak ez zuen lanik egiten, beti gaixorik ezagutu zuen, eta gazterik hil zen. Amak Oriako Brunet lantegian lan egiten zuen. Oinez joaten zen. Lantegira goizez edo arratsaldez joaten zen, eta egunaren beste zatian frantsesen etxeetara joaten zen. Izeba moja bat bizi izan zen beraiekin eta hark hartu zuen etxearen eta umeen ardura.

294. Gerra garaiko oroitzapenak: zaurituak, Franco, hegazkinak... (LAS-011/033)

Gerra zibileko kontuak ondo gogoratzen omen ditu. Euren aldameneko etxean eskola zegoen. Bera hara joan zen umetan. Gerra sasoian zaurituak eramaten zituzten bertara. Orduko bizipenak: eskua jaso behar eskolan, Francoren etorrerak... Tiroketak eta bonbak zirenean, behera jaisten ziren. Bost urte eta erdi zituen orduan. Gauza asko ikusten zituzten, baina isilik egon behar.

295. Gosete sasoian arrautza frijitua amaitzeko penaz (LAS-011/034)

Gerraostean gosea pasa zuten. Arrautza frijitua jaten bazuen noizbait, bukatzeko penaz egoten zen, ez zekielako noiz izango zuen berriz halako aukerarik. Ogi beltza. Baserrietako jendea hobeto egon zen. Amaren jaiotetxetik (Azpeititik) bidaltzen zizkieten zenbait barazki. Bolada baten "auxilio social"en jaten zuen. Ez zegoen dirurik. Gose sasoian edozer gauza zen ona.

296. Umetako lanak; irakaslearen etxera bazkaltzera (LAS-011/036)

Eskolara joan baino lehen enkarguak egiten zituen. Hamabietan irteten zenean, gauza bera. Behin irakasle batek bere etxera gonbidatu zuen bazkaltzera. Arroza zegoen eta zeinen gustura jan zuen!

297. Maiatzeko loreetan zuriz janzten ziren nesken inbidiatan (LAS-011/044)

Maiatzeko loreak ospatzen zirenean, neska batzuk soineko zuriekin eta koroiekin jartzen zituzten, jaunartzean moduan. Beti neska berdinak izaten ziren aukeratuak eta bera inbidiatan egoten zen. Bere jaunartzeko soinekoa zuria zen, baina eroria. Sandaliak, berriz, zapatariari eraman zizkioten konpontzeko. "Ahal zen bezala eta kontentu".

298. Ostiral Santuko prozesioa Lasarten (LAS-011/045)

Lasarte asko hazi da. Aste Santuan, ostiralean, prozesioa egiten zen herri osoan zehar. Ibilbidea esaten du. Loreak eramaten zituzten. Zer santu ateratzen ziren. Donostiara joan eta hango Ama Birjina ikusitakoan sortzen zitzaizkion burutazioak.

299. Donostiara urtean behin; Pasaiara izeba bisitatzera (LAS-011/046)

Donostiara gutxi joaten ziren, urtean behin edo. Hain handia iruditzen zitzaion, etxera joateko zain egoten zela. Urtean pare bat aldiz Pasaian zegoen izeba moja bisitatzera joaten ziren.

300. Euskara ahaztu ez arren, gaztelaniarako joera gailendu (LAS-011/049)

Aitak ez zuen tutik ulertzen erdaraz. Berak garai batean hobeto egiten zuen euskaraz, baina gaztelaniaz egin beharrak ohitura-aldaketa ekarri zion. Dendan edo lagunartean, dena gaztelaniaz egiten zuen. Eta baita senarrarekin ere. Biak euskaldunak izan arren, ohitura horixe hartu zuten.

301. Oriako Bitoriaenea baserrikoa (LAS-012/002)

Oriako Bitoriaenea baserrian jaio zen Xebastian, garai hartan Urnietari zegozkion lurretan. Goiko Etxe bezala ezaguna da baserria. Bi kilometro eta erdiko tartea zegoen Lasartetik Oriara.

302. Aita Zumarragatik Oriara (LAS-012/004)

Aita bost urterekin joan zen Oriara Zumarragatik, 1892an. Xebastianen aitonak anaia zuen Ameriketan, eta han egindako diruarekin okindegia jarri zuen Orian. Hori zela eta, Xebastianen aitonak Lasartera joatea erabaki zuen, eta bertan baserria erostea.

303. 1848: Bruneten sorrera (LAS-012/005)

1848an Brunet oihal-fabrika ireki zuten Orian. 600 langiletik gora izan zituen. Langileentzat etxeak eraiki zituen Brunetek.

304. Garai bateko Oria (LAS-012/006)

Oria 4 baserri egotetik etxe mordoa egotera pasa zen Bruneten etorreraren ondorioz. Nahiko autonomoa izan da Oria. Lasarte-Oria udalerria sortu aurretik, Oriako hildakoak Urnietako kanposantura eramaten zituzten, Urnietaren parte baitzen hau. Zortzi gizonen artean eramaten zuten hilotza. Oriatarrak, ordea, Lasartera joaten ziren elizara.

305. Donostian esnea saltzen (LAS-012/008)

Ama hernaniarra zuen, baserritarra. Bitoriaenea baserriko esnea Donostian saltzen zuten, etxez etxe. Tranbian joaten ziren Donostiara.

306. Lehengusuak baserrira bizitzera (LAS-012/009)

Osaba Pasaiara ezkondu zen, baina alargun gelditu eta Xebastianen gurasoen baserrira joan zen haren seme-alabekin. Hori zela eta, Xebastian eta haren bi anai-arrebak eta lehengusuak elkarrekin bizi izan ziren. Lehengusuak anai-arrebak balira bezala hezi zituzten.

307. Osabaren okindegian laguntzen zuen (LAS-012/011)

Baserritik ateratzen zuten bizimodua. Lehengusua zerrerian ere aritu zen. Osabaren okindegian laguntzen zuten umetan. Ogia nola egiten zuten.

308. Soldadutza egin eta Michelinera (LAS-012/012)

Soldadutza egin eta Michelinen hasten zen gazte mordoa, tartean, Xebastian. Emakumeen kasuan, ezkondu ondoren fabrikatik alde egiten zuten. Emakume alargunak, aldiz, onartu egiten zituzten gero.

309. Donostian esnea saltzen (LAS-012/014)

14 urterekin eskola utzi eta Donostian esne-saltzaile hasi zen Xebastian. Etxe jakinetara joaten ziren beti. Guriditarrak. Taberna batzuetan ere banatzen zuten.

310. Oria eta Lasarte, bi mundu (LAS-012/015)

Baserri gutxi batzuek osatzen zuten Oria, baina Brunet ehun-fabrikak ingurua erosi eta asko aldatu zen ingurua. Kanpoko jende asko joan zen bertara bizitzera, Nafarroa aldetik batzuk. Bizimodua Orian egiten zuten gehienek. Lasartek kategoria gehiago omen zuen. Langile giroa gailentzen zen Orian, eta ideologikoki ere aldea sumatzen zen Lasarte eta Oriaren artean.

311. Orian serenoa bakarrik gelditu zenekoa (LAS-012/017)

Kanpokoa zen eskolako maisua, eta euskaraz egiteagatik zigortu egiten zituen ikasleak. Giro erdalduna gailendu zen gerra garaian, izan ere, 600 lagunetatik serenoa bakarrik gelditu zen Orian, denek alde egin baitzuten. Argiak piztuta izaten zituen gauez. Orian gorri armatu mordoa omen zegoen, Eibarko kuarteletik armak lapurtu omen zituzten.

312. Aita ez zen gerrara joan (LAS-012/019)

Xebastianek zazpi urte zituela ama hil zitzaion. Aita ez zen sekula frontera joan, beharbada ordaindu egin zuen gerrara ez joateagatik. Jende askok ihes egin zuen.

313. Auzolan ugari Orian (LAS-012/020)

Oriatarren artean oso harreman ona zuten, asko laguntzen zioten elkarri.

314. Ama bularreko minbiziaz hil (LAS-012/021)

Bularreko minbizia zuela eta, Xebastianek 7 urte zituela hil zen haren ama. Belar batzuk erabiltzen zituen sendatzeko, oliotan nahastu eta bularrean ipintzen zituen. Ohikoa zen sendabelarrak erabiltzea.

315. Medikua, Urnietatik (LAS-012/022)

Urnietatik joaten zen medikua, zaldiz joaten zen etxez etxe. Don Benito zuen izena. Ondoren Don Pablo Mutiozabal medikuarenera joaten ziren, Lasartera.

316. Oriako eskola (LAS-012/024)

Talokale etxean bertan zegoen Oriako eskola. Mutilak bakarrik joaten ziren bertara. 7 urterekin hasi eta 13 urterekin utzi zuen eskola. Eskola partikularrak ematen zituen Señora Pilarrek. Maisua zuten mutilek, eta maistra neskek. Erdalduna zen maisua, eta espainiako bandera jarrita Cara al Sol abestu behar izaten zuten.

317. Etxean erdaraz egiten hasi (LAS-012/026)

Burgosko izeba zela eta, etxeko hizkuntza gaztelania izatera pasa zen. Aitarekin eta amarekin, ordea, euskaraz egiten zuten beti.

318. Eskolara joateko gogoz beti (LAS-012/028)

Oso prestakuntza onarekin irteten ziren eskolatik. Xebastian beti egoten zen eskolara joateko gogoz. Lanean hastea gogorra izan zen.

319. Eskolatik atera, eta korrika lanera (LAS-012/030)

Umetan mutilak alde batetik eta neskak bestetik ibiltzen ziren. Kaniketan aritzen ziren asko, pelotan, makiletan...

320. Baserriko lanak (LAS-012/032)

13 urterekin eskola utzi eta baserrian hasi zen lanean, etxean bertan. Artoa eta babarruna egiten zuten batik bat. Urnietako errotara joaten ziren astoan. Artoa irin bilakatzean, errotakoek zati bat gordetzen zuten eurentzat, emandako zerbitzuagatik. Abereak ere bazituzten, normalean saltzeko.

321. Abereei "beroa kendu" (LAS-012/034)

Abereak hiltzeko eta saltzeko baimena albaitariak eman behar izaten zion baserritarrari. Xebastian aritu izan zen batera eta bestera tratulari moduan. Hildako animaliari "beroa kentzea. Animaliak hil bezain pronto pisua 4-5 kilo jaisten zen ordu batzuen buruan.

322. Kilometro asko oinez (LAS-012/036)

Ohitura handia zuten batetik bestera ibiltzeko, baina beti oinez. Gomazko zapatak erabiltzen zituzten eta askotan konpondu behar izaten zituzten. Errementariarengana ere hamaika aldiz joaten zen Xebastian. Orian jatekoa saltzen bazen ere, baserritarrek behar zituzten zerbitzuak Lasarten zeuden.

323. Esneari ura bota, gehiago saltzeko (LAS-012/037)

Donostian esne-saltzaile moduan ibiltzen ziren batzuek esneari ura botatzen omen zioten, gehiago saltzeko. Langile batzuk egoten ziren ori gerta ez zedin neurriak hartzen, eta baserritarren esnea aztertzen zuten urik ez zuela bermatzeko. Tranpa eginez gero, isuna.

324. Baserritarren elkartea (LAS-012/039)

Baserritarren arteko elkarte bat zegoen, honi esker, baserritarren bati behiren bat gaixotuta hilez gero, denen artean banatzen zuten haragia.

325. Soldadutzatik Michelinera (LAS-012/041)

Soldadutza egin eta segituan hasi zen Michelinen lanean, haren anaiak bezalaxe. Emakume mordoa aritzen zen Michelinen, batez ere esku-lanak egiten. Xebastian lantegietako sarreretara joaten zen geraziak eta udareak saltzera.

326. Michelinen kubiertak kargatzen (LAS-012/043)

Behatza galdu zuen "echafuegos" bat zehertu zehenean. Michelinen autoen kubiertak kargatzen egiten zuen lan, Espainiako hainbat tokitara bidaltzen baitziren hauek. Hiru urte eman zituen lanpostu hartan, Michelingo biltegi batean egon zen gero 20 urtez.

327. Kirol eta kultur elkarteko presidente (LAS-012/044)

50 urte bete zituenean, Michelingo Kultura eta Kirol elkarteako presidente izan zen Xebastian. Hamar urtez egon zen bertan, itxi zen arte.

328. 100 eguneko greba Michelinen (LAS-012/045)

Michelinek haren futbol taldea zuen. 100 eguneko greba egon zen Michelinen, soldata igotzeko eskatzen zuten besteak beste. Oso giro txarra geratu zen Michelingo langileen artean. Drogak ere astindu zuen Lasarteko giroa.

329. Michelingo Aurreikuspen Kuxa (LAS-012/046)

Izen ona zuen Xebastianek Michelinen, eta langileek eurek sortutako Aurreikuspen Kutxaren sorreran parte hartu zuen, eta aholkulari postua eman zioten. Kooperatiba bat ere sortu zen langileentzat.

330. Gurasoen elkarteko idazkari (LAS-012/048)

Gurasoen elkarte katolikoko kide izan zen Xebastian, eta bertako idazkari izendatu zuten. Buruntzazpi elkarte gastronomikoko lehendakari izan zen.

331. Ttakun Kultur Elkartea (LAS-012/050)

Ttakun Kultur Elkartean parte hartu zuen, baita zuzendaritzako kide izan ere.

332. Michelinen sartu zenean 2500 langile (LAS-012/052)

Michelinen lanean hasi zenean 2500 bat langile ziren, baina handituz joan zen urtez urte, handitu egin baitzen enpresa, eta langileei formakuntza ematen ere aritu zen Xebastian.

333. Michelinen lan baldintza onak (LAS-012/053)

Lan baldintza onak eskaintzen zituen Michelinek. Iradokizunak egiteko aukera izaten zuten langileek, eta kasu egiten zitzaien langileek proposatutakoei.

334. Michelingo antolaketa eta kubierten ekoizpena (LAS-012/055)

Biltegi nagusi bat zegoen. Petroleoa, olioa, sufrea eta kortxoa ziren material nagusiak. Kubiertak nola egiten zituzten.

335. Michelingo langileen ordutegia (LAS-012/056)

Goizeko seietan sartzen ziren langileak lanera, zortziak aldera gosaria hartzen zuten. Bi geldialdi motz egiten zituzten, bata hamarretan eta bestea hamabietan. Ordu bietan bukatzen zen jarduna.

336. Greba eginez gero, langilea ez zen berriro onartzen (LAS-012/057)

Grebak ohikoak izan ziren garai batean, soldata hobeak aldarrikatzeko batik bat. Beste lantegietara (Bianchi) joandako asko damututa itzuli ziren Michelinera, baina kasu gehienetan greba egin izanagatik ez zen berriro onartzen.

337. Lasarteko industria nagusia (LAS-012/059)

(Michelinez gain) Luzuriaga, Aplicaciones Tecnicas del Caucho, Baretxe...

338. Lasarteko langile mugimendua (LAS-012/061)

LAB, USO, ELA, CCOO.. aipatzen ditu.

339. Lasarte-Oria udalerriaren sorrera (LAS-012/063)

Lasarte Donostiaren parte izango zelako zurrumurrua zabaldu zen, eta Oria independientea izateko grina ere sortu zen. Bost udaletan zegoen Lasarte banatuta: Andoain, Hernani, Urnieta, Donostia eta Usurbil.

340. Etxearen egitura (LAS-014/005)

Etxearen egitura. Hiru logelatan antolatuta zegoen. Dutxarik ez zuten hasiera batean, ezta urik ere. Ura izan baino lehen, iturrira joaten ziren ur bila.

341. Etxean ura izatea, luxua (LAS-014/006)

Komentu ondoan garbitoki handi bat zegoen (Ganbo) eta bertan garbitzen zuten arropa. Emakumeen lana izan ohi zen hori.

342. Amonak xaboia egiten zuen (LAS-014/008)

Arropa garbitzeko xaboia egiten zuen amonak. Eulaliaren etxean, ordea, erosi egiten zen.

343. Guraso biak industriako langile (LAS-014/010)

Aitak Brunet lantegian egiten zuen lan, Orian. Amak, ordea, Michelinen. Baserrian uzten zuten Eulalia, ezin baitzuten zaindu.

344. Haurtzaroa Larrekoetxe baserrian (LAS-014/012)

Handia zen baserria oso. Baratzetik bizi ziren. Eulalia hango umeekin eta lehengusuekin jolasten aritzen han, kaniketan, tortolosekin, txorro-morro...

345. Amonak janaria ematen zien behar zutenei (LAS-014/014)

Baratzetik bizi ziren Larrekoetxe baserrian. Hiru baratze zituzten, eurentzat janaria ekoizteko eta baita tratua saltzeko ere. Eulaliak gogoan du jende asko joaten zela baserrira eskera, eta amonak janaria ematen ziela.

346. Adarra jo, heriotzaz abisua emateko (LAS-014/016)

Herriko norbait hiltzen zenean, ohitura zuen aitonak adarra jotzeko, abisua emateko. Ondoren, haurrak inguruko etxeetara joaten ziren hildakoen berri ematera. Etxera joaten ziren gorputza ikustera, eta jatekoa eta edatekoa ematen zitzaien.

347. Hildakoak elizan sartzea (LAS-014/018)

Garai batean hildakoa elizan sartu eta lurperatzen zen. Hildakoaren izena jartzen zuen ondoren elizak.

348. Musika herriko plazan (LAS-014/020)

Orain baino politagoa omen zen Lasarteko plaza. Musika egoten zen plazan, goian, eta behean dantzan aritzen ziren, bidean. Mercerotarrak ziren musikariak.

349. Aita dantzari fina (LAS-014/022)

Eulaliak oso gustuko du dantza egitea. Azken musika pieza aitarekin dantzatzen zuen beti. Neska-mutilak dantzan aritzen ziren, baita dantza lotuan ere. Apaiza haserretu egiten zen.

350. Apaizaren sermoiak (LAS-014/024)

Askotan joan behar izaten zuten konfesatzera. Apaizak oso sermoi gogorrak ematen zituen. Dena zen bekatua.

351. Ama Donostian esnea banatzen (LAS-014/026)

Aitonak elizaren ondoko etxea erosi zuen. Beheko aldean Eulaliaren amak sagardotegia zuen. Hara joan baino lehen, Donostian esnea banatzen aritzen zen ama.

352. Ama Michelingo langile (LAS-014/028)

Ama etxe azpian zuen sagardotegiaz arduratzen zen, baita esnea saltzeaz ere. Ondoren, Michelin lantegian hasi zen lanean, ezkondu ondoren. Kubiertak egiten zituen bertan.

353. Garai bateko Lasarte (LAS-014/029)

Plaza oso polita zuten Lasarten. Herriko dendak.

354. Lasarteko "traperia" (LAS-014/030)

"Traperia" deitzen zitzaion "ultramarino" denda bati, dendako aitona trapu bila ibiltzen zelako, ondoren saltzeko.

355. Serenoa, barkillo saltzailea, arrain-saltzaileak... (LAS-014/032)

Lasarteko Serenoa. Giltza guztiak zituen hark, oihuka deitu eta korrika joaten zen bertara. Festetan barkilloa saltzera etortzen ziren. Oriotik eta Zarauztik joaten ziren Lasartera arrain-saltzaileak, kantuan.

356. Aita pilotari ezaguna (LAS-014/033)

Gaur egun udaletxea dena, eskola zen garai batean, eskola nazionala. Ondoan frontoia zegoen. Pilotaria zuen aita. Oso guapoa omen zen. Neskak gutxi ibiltzen ziren pilotan, baina bera aitarekin aritzen zen.

357. Aitak pilotak egiten zituen; Atano III.arekin bi garaipen (LAS-014/034)

Aitak pilotak egiten zituen. Hernanitik gizon bat etortzen zitzaion, pilotak nola egiten zituen ikastera. Bolaria ere bazen aita. Aitak irabazitako kopa asko dauzkate etxean. Pilotan ere bi kopa irabazi zituen Atano III.arekin batera.

358. Inguruetako umeak Lasarteko eskolan (LAS-014/036)

Ume dezente elkartzen ziren eskolan; Errekaldetik, Usurbildik eta inguruko baserrietatik ere joaten ziren. Maistra, Maria Angeles, euskalduna zen, baina gaztelaniaz egin behar izaten zuten, euskara galarazita zegoelako.

359. Matrailekoa jaso zuen umetan, euskaraz aritzeagatik (LAS-014/037)

Artean umea zela, emakume batek matraileko bat eman zion kalean, euskaraz ari zelako. Nagusitutakoan emakumeari gogorarazi zion umetan egin ziona. Kalean euskaraz hitz egitea galarazita zegoen, baina etxean euskaraz egiten zuten eta nahi gabe ateratzen zitzaien.

360. Eskolarako zaletasun gutxi (LAS-014/038)

Eskolan, lezioa ikasten ez bazuten, zigortu egiten zituzten. Ahizpak erraz ikasten zuen, baina berari kostatu egiten zitzaion. Gauza gutxi ikasi zuten eskolan. 14 urtera arte ibili zen.

361. Lasarteko jostunak; arropa eta oinetakoak (LAS-014/040)

Lasarten zeuden jostunak. Soinekoekin ibiltzen zen, orduan emakumeek ez zuten galtzarik janzten eta. Euria egiten zuenean, abarkekin egiten zuten baserrirako bidea eta zapatak lepotik zintzilik eramaten zituzten.

362. Michelin-era goizean goiz (LAS-014/041)

Ama goizez joaten zen Michelin lantegira. Emakumezkoek eta gizonezkoek lan egiten zuten han. Lan desberdinak izaten zituzten, kubiertaren (ibilgailuaren) arabera. Lan-baldintzak gogorrak ziren. Batzuetan goizeko lauretan joan behar. Orduan, aitak laguntzen zion Eulaliari, Lasarte guztian argi bakarra zegoen eta. Farolaria ere bakarra.

363. Emakume eta gizonen lana Michelin lantegian (LAS-014/042)

Bizikletentzat kubiertak egiten zituen Michelin lantegian. Bi lagun aritzen ziren. Kubierta handiagoak gizonezkoek egiten zituzten, pieza pisutsuak erabili behar izaten ziren eta. Gero, egiaztatzaile bat ere egoten zen, lana ondo egin zela gainbegiratzeko. Txirrindularientzako kubiertak izaten ziren garestienak, eskuz egin behar izaten ziren eta. 12 urte egin zituen Michelin-en. Makinak ez ziren asko aldatu bera han egon zen denboran.

364. Michelin lantegiko jangela eta lan-baldintzak (LAS-014/043)

Michelin lantegian jangela zeukaten. Lantegira sarrera-irteerak markatu egin behar izaten zituzten. Ordu laurden bat izaten zuten prestatzeko, baina euren lanean atzeratzen baziren, ordu laurden hori gal zezaketen. Hasieran goizeko lauretan sartzen ziren eta gerora bostetan. Jangelan gosaltzen zuten, gosaria etxetik eramanda. Emakumeak eta gizonak aparte egoten ziren.

365. Michelin lantegiaren kooperatiba (LAS-014/044)

Michelin lantegitik aparte, Brunet-en ere lan egiten zuten emakumeek. Langile asko zituen Michelin-ek. Kooperatiba ere bazuen, baina behin bakarrik joan zen Eulalia, ikusmiran.

366. Aitonak mendia saldu zuenekoa (LAS-015/005)

Bai ama eta bai aita Urnietakoak ziren. Aitona Amasakoa zuen. Haren baserri aldeko mendia saldu zuen aitonak, eta izugarrizko dirutza jaso zuen trukean. Zoritxarrez, aitonaren dirua haren semeen artean banatu zen, eta Micaelaren amona, emakumea zenez, dirurik gabe geditu zen.

367. 9 urterekin umezurtz gelditu zen (LAS-015/007)

Hamar senidetan gazteena da Micaela, hogei urteko aldea du zaharrenarekin. Gazte hil ziren bere anai-arreba batzuk. Micaelak hiru urte zituela hil zen haren aita. Ama 53 urterekin hil zen. Ondorioz, 9 urte zituela, umezurtz gelditu zen Micaela.

368. Ama Tifusaz gaixotu zen (LAS-015/009)

Aita adinagatik hil zen, ama ordea, Tifusak jota. Micaelaren ahizpa Tifusaz gaixotu eta ama hura zaintzera joan zenean, kutsatu, eta hil egin zen Micaelak 9 urte zituela.

369. Ama egunero Donostiara joaten zen (LAS-015/011)

Baserritik bide luzea zegoen Urnietara, hiru ordu laurden gutxi gorabehera. Lasarte udalerria ez zenez, lurzoru hori Urnietari zegokion, gaur egun, ordea, Lasarte-Oriari. Ama egunero joaten zen Donostiara saltzera. Hori zela eta, ondo bizi zirelako fama zuten auzoan, gozokiak eta arropa berriak izaten zituztelako.

370. Ahizpa Burutzako tiroketak harrapatu zuen (LAS-015/013)

Baratzetik bizi zen familia. Baratze haundiak zituzten, eta tratua saltzera joaten zen Micaelaren ahizpa Donostiara. Gogoan du ahizpak kartzelako presoak elizara joaten ikusten zituela, eta asterik aste presoak desagertu egiten ziren. Beste batean, Buruntza aldean tiroketa bat hasi, eta osabaren etxean gelditu behar izan zuen ahizpak.

371. Ahizpak soldaduari izen faltsua eman (LAS-015/015)

Errusiara ihes egin behar zutelako zurrumurrua zabaldu zen. Ganadua lapurtu ere egin zieten. Soldadu batek Micaelaren ahizpari izena galdetu, hark gezurra esan, eta "Isabel Eztabilondo" zelakoan eskutitza idatzi zion.

372. Koltxoiak leihoetan, tiroez babesteko (LAS-015/016)

Micaela txikia zela, tiroketak ohikoak izaten ziren. Googoan du gurasoek leihoetan koltxoiak jartzen zituztela, balak gelditu eta inor zauritu ez zedin. Aita Micaelak 3 urte zituela hil zen.

373. Donostiarrak baserrira joaten ziren euskara ikastera (LAS-015/018)

Kategoria handiko hiria zen Donostia. Baserrira Donostiako jendea joaten zen euskaraz ikastera, eta Micaela eta anai-arrebei erdaraz ikasteko baliagarria zitzaien.

374. Donostian zakarra idiekin biltzen zuten (LAS-015/020)

Ama, aita eta ahizpak maiz joaten ziren Donostiara tratua eta esnea saltzera. Etxez etxe ibiltzen ziren. Gogoan du Donostian zaborra idiekin jasotzen zutela.

375. Cara al Sol eta Sacamantecas (LAS-015/022)

Urnietako eskolara joaten zen eskolara, eta 'Cara al Sol' abesten zuten. Maistrak Francisca zuen izena. Hogei bat ume egoten ziren eskolan, baina neskak eta mutilak bananduta. Egun batean, eskolako kide batek Sacamantecas ikusi zuela kontatu zuen, eta bakoitzari etxera laguntzen zion ordutik.

376. Eskolan dena erdaraz (LAS-015/023)

Maria Dolores eta Francisca izan zituen maistratzat Usurbilgo eskolan. Dena erdaraz egiten zutenez zenbait ikaslek gaizki pasa zuten hizkuntza aldaketarekin. Micaelari ez zitzaion hain zaila egin, baserrian erdaldunak egoten baitziren euskara ikasteko, eta erdara txikitatik entzun baitzuen horri esker.

377. Francoren aurkakoa izateagatik hileta ukatu (LAS-015/025)

Inguruan bazen harakin familia bat. Gerra garaian Francoren aldekoek haien aita hil, eta errepublikarra zenez ez zioten hiletarik egin. Urteetara haien ama hil zenean, senarrari moduan, hileta ukatu zioten.

378. Lasarteko hipodromoan jende dotorea (LAS-015/028)

Anai-arreba guztiak Urnietako eskola berera joan ziren. Gero anaia Michelingo sorreran murgildu zen. Micaela Garibai kalera joaten zen josten ikastera. Igandetan jostuna zaldi-lasterketak ikustera joaten zen Lasartera. Jende dotorea egoten zen bertan.

379. Auto-lasterketak eta Crossa (LAS-015/029)

Hipodromoaz gain, auto-lasterketak ere egoten ziren Lasarten. Izugarrizko ilara omen zegoen beti. Orain baino jende gehiago biltzen zen Crossa ikusteko.

380. Oztaran auzoa eta Lasarte (LAS-015/031)

Oriarekin mugan dago Oztaran auzoa. Lasartera jaisten ziren baserritik, ez zuten Urnietara joateko ohiturarik.

381. Kaniketan eta soka-saltoan (LAS-015/032)

Umetakko jolasak: kanikak, soka saltoa, tabak...

382. Margarita loreak hartu nahi ez, Margarita zirelako (LAS-015/034)

Micaelak gogoan du Margaritek (karlistek) zuten garrantzia gizartean. Hainbestekoa, non, ez zuten Margarita lorerik hartu nahi izaten, Margarita izanagatik.

383. Hilotza etxean edukitzen zen (LAS-015/036)

Aita hilkutxan nola eraman zuten gogoan du Micaelak. Lehengusuak aita berriro bueltatuko ez zela esan eta etxean ama negarrez topatu zuen. Hilotza etxean utzi eta bisitariei jaten eta edaten ematen zitzaien.

384. "Gazte denbora guztia beltzez bizi izan naiz" (LAS-015/038)

Dolua adierazteko beltzez janzten ziren, normalean. Micaelak aita eta ama galdu zituenez, baita senide mordoa, beltzez pasa zuen gazte denbora.

385. Urnietan dantza egiterik ez, Lasarten bai (LAS-015/040)

Dantza egitea debekaturik zegoen Urnietan, gainera, arropa luzez jantzi behar zuten emakumeek. Lasarten, ordea, dantzan aritzea onartua zegoen, eta bertara joaten ziren Micaela eta lagunak.

386. Garai bateko Lasarte-Oria (LAS-015/041)

Denak ezagunak ziren Lasarten, oso gertuko tratua zen toki guztietan. Oso txikia zen herria, baina herritarren artean banaketa modu bat zegoen baserritarrene ta kaletarren artean.

387. Pobrea izateagatik burla (LAS-015/043)

Casa Devantera joaten ziren jostera. Bertako jabeek burla egiten zioten Micaelari, pobrea zelako.

388. Euskalduna al zen Lasarte? (LAS-015/045)

Micaelaren auzoa (baserritar auzoa) euskalduna zen, baina hortik Lasarterantz jaitsi eta giroa erdalduntzen hasten zen. Guraso euskaldun elebakarrak izan, eta seme-alabak erdaldun elebakarrak izatea maiz gertatu den kasua da herrian.

389. Erdaraz ia jakin gabe, jo eta ke erdaraz (LAS-015/047)

Donostiako Urbieta kalean Francesa dendara joaten ziren, eta han erdaraz egiten zuten. Jabeak bertan euskaraz egiteko esaten zien, erdaraz gaizki egiten zutelako. Urnieta euskaldunagoa zen Lasarte baino.

390. 26 urterekin lehenengo labadora (LAS-015/049)

Betidanik ezagutu du ura eta argia etxean, baina labadorarik eta dutxarik ez. 26 urterekin ezkondu eta senarrak labadora egin zion, garbitu bai baino uretan eragiten ez zuena, hori eskuz egin behar izaten zuten. Labadora izan aurretik, errekan garbitzen zuten arropa.

391. Ganadua, barazkiak eta sagardoa oinarri (LAS-015/051)

Ganadua esnetarako zuten, baita saltzeko ere. Barazki asko ekoizten zuten.Sagardoa egiten zuten etxeko sagarrarekin, sagardotegia baitzuten.

392. Gerra hasi zen eguna (LAS-015/053)

Gogoan du Micaelak gerra hasi zen egunean bertan gurasoak eta anai-arrebak arropa sagardo upeletan gordetzen hasi zirela, Errusiara eramango zituztelako zurrumurrua zabaldu baitzen. Jendeak ihes egin zuen, eta janari dendetako poduktuak hartzen zituzten askok, hutsik gelditu baitziren dendak.

393. Frankistak begiz jota zeuden herrian (LAS-015/057)

Denek zekiten zein ziren Francoren aldekoak, eta ekontuz ibiltzen ziren haiei ezer ez esateko, txibatoak zirelakoan. Gauza jakina izan ohi zen familia bakoitzaren ideologia politikoa.

394. Batzokiko bandera egin zuen (LAS-015/059)

Lagun batek eta Micaelak egin zuten batzokiko bandera, josun onak baitziren.

395. Euskaraz hitz egitea debekatuta (LAS-015/061)

Euskaraz hitz egitea debekaturik zegoen kalean, eta mota askotako zigorrak jasaten zituzten.

396. Urnietatik elizara Lasartera (LAS-015/063)

Kongregaziora Urnietara joaten ziren, elizara, ordea, Lasartera. Festetara ere Lasarterantz jotzen zuten. Oriako eliza. Oriako okinaren hileta (Kerejeta).

397. Tolosako euskara famatuena (LAS-015/066)

Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako euskara oso antzekoa zen. Elgoibarkoa oso berezia iruitzen zaio Micaelari. Orduan Tolosaldeko euskarak zuen famarik onena. Etxean beti hika egiten zuten.

398. Baserriari esker, goserik ez (LAS-015/068)

Gizonek etxetik kanpo lan egiten zuten. Emakumeek laboreak egiten jakitearen garrantzia. Gose handia zegoen orduan, etxetik aberatsenetan edo onenetan ere argaldu ziren. Familiako baserritarrei esker ez zuen goserik pasa.

399. Gosea: ez ogirik, ez oliorik (LAS-015/069)

Errazionamendua zela eta, janari bila Oriara eta Lasartera joan izan ohi zen Micaela. Egunero ogi bat ematen zion militar batek.

400. Hiru anaiak gerran ibilitakoak (LAS-015/071)

Anaia zaharrena Michelingo langilea zelako gerrara joateaz salbu gelditu zen. Beste bi anaiak, ordea, 18 urte bete eta gerrara joan ziren. Haietako bat oso gaixorik itzuli zen gerratik

401. Michelin, Brunet eta Rezola (LAS-015/075)

Tela-fabrika zen Brunet, eta hiru ahizpa han aritu ziren lanean. Michelin, Brunet eta Rezola ziren Lasarte inguruko fabrikarik indartsuenak.

402. Tabernetan emakumerik ez (LAS-015/077)

Gizonak tabernan egotea ohikoa zen, baina emakumerik ez zen tabernetan sartzen, gaizki ikusirik zegoen.

403. Emakumea eta elizaren indarra (LAS-015/079)

Elizara Lasartera jaisten ziren. Kongregazioaren eta dotrinaren garrantzia. Micaelaren hiru anai gerrara joan ziren, eta bueltakoan elizara joateari utzi zioten. Konfesatzera joan beharra. Nobioarekin utzi gero, fama txarra.

404. Erraza zen ligatzea (LAS-015/081)

Mutilak neskak baietz esateko zain egoten ziren. Neska mutilengana joatea gaizki ikusirik zegoen.

405. Senarra dantzan ezagutu zuen (LAS-015/083)

Dantzan ezagutu zuen Micaelak senarra. Etxera lagundu zion hark baina Micaelak bide erdian zeudela bueltan bidali zuen. Azkenean, baiezkoa eman eta zinemara joan ziren.

406. Ezkondutakoan, lana utzi behar (LAS-015/085)

Emakumeek lana utzi behar izaten zuten behin ezkonduta. Lanean hasi baino lehen firmaarazten zieten baldintza zen hau. Gizonen soldata altuagoa izan ohi zen.

407. Oriak komunista fama (LAS-015/087)

Oriakoen artean oso harreman estua zuten. Orian langile mugimendu handia zegoen, eta komunista fama zuten. Lasarte eta Oriaren arteko ika-mikak.

408. Lasarte-Oriaren sorrera (LAS-015/089)

Lasarte bost udalerritan banatuta egotea ez zen erosoa herritarrentzat. Micaelaren Baserria Urnietako zatiari zegokion.

409. Galtzak lehen aldiz (LAS-015/091)

Senarrak galtzak janzteko animatzen zuen Micaelak, baina berandu xamar hasi zen Micaela. Emakume askok galtzak erabiltzea kritikatu zuten, baina gero erabiltzen hasi.

410. Ikastola sortzeko diru-bilketa (LAS-015/093)

Micaelak ikastola sortzeko diru-bilketa egin zuen baserriz baserri.

411. Toursen jaiotako lasartearra (LAS-016/002)

Gerraren eraginez gurasoak Frantziara joan ziren ihesi. Horretarako, hara iritsi baino lehen, Bizkaia aldera joan ziren. Ama abiatu zen Frantziara lehenengo.

412. Aita atxilotu eta ama Frantziara (LAS-016/004)

Bizkaia aldera joan ziren guraso biak ihes egiteko asmoz. Aita atxilotu eta Biarritzera eraman zuten. Amak, ordea, ihes egitea lortu zuen, hasiera batean Bretainiara, Toursera ondoren. Bertan jaio zen Rafael.

413. Aita gerran besamotz (LAS-016/005)

Aita gerran besamotza gelditu zen, begia ere galdu zuen. Mirandan preso egon zen hiru hilabetez. Madrilera eraman zuten gero trenez. Erbestetik Lasartera itzulitakoan ez zion inork lanik ematen, desgaitasunagatik eta haren ideia politikoengatik. Osaba pelotariak kontaktu onak zituen eta hari esker irten zen kartzelatik.

414. Eskolara bidean Sacamantecasen beldur (LAS-016/011)

Lau urterekin eskolara joaten hasi zen Rafael, Lasartera. Kilometro bat zegoen eskolatik baserrira, eta Sacamantecasen beldur ibiltzen zen bidean. Gizon bat bazen Errekalden ilea mozten aritzen zena, erraminta kutxarekin, hura Sakamantecas zelakoan belar metan sartu eta han egon zen gurasoak siestatik esnatu ziren arte.

415. 4 urterekin eskolan hasi (LAS-016/013)

Eskolan dena erdaraz egiten zuten, baina baserritarren artean euskaraz egiten zuten. Eskola txikian bukatu eta nazionaletara joaten hasi zenean, eskolan sartu bezain laster 'Cara al Sol' abesten zuten. Maistra nafarra zen. Nazionaletan neskak eta mutilak banatu zituzten.

416. Umetan jolasak asmatu behar (LAS-016/014)

Umetako jolasak. Trapuz egindako baloiak, "al hinque", kaniketan...

417. Kalean ez zen euskararik egiten (LAS-016/015)

Umetan lagunekin euskaraz egiten zuen. Ezberdintasun handia zegoen kalearen eta auzoen artean, kalean ez baitzen euskararik entzuten.

418. Aitona borroka librean aritzen zen (LAS-016/018)

8 urterekin ama hil zitzaion aitari. Aitona borroka librean sartu zen Ameriketan. Kuban ere egon zen, eta haren aurkariak euskaraz erantzun zionean zur eta lur gelditu zen.

419. Tourseko oroitzapenak (LAS-016/020)

Hiru urterekin Toursetik alde egin zuen Rafaelek, baina gogoan du haren adin antzekoa zuen beste mutiko bat zela. Hizkuntzaren mugak erbestean.

420. Elbarri izanagatik, otartekoa jaso (LAS-016/021)

Senide bat bazuten Frantzian, eta harengana joan ziren hasieran, baina jende gehiegi zegoela eta, Biarritzera joa ziren, ama neskame. Toursera joan ziren gero, errentan. Rafaelen amak bularreko esnea galdu zuen han pasatako goseagatik. Aitari elbarria izateagatik ematen zioten otartekoa amak jaten zuen.

421. Toursetik Hego Euskal Herrira (LAS-016/022)

Toursetik Donibane lohitzunera joan zen familia, eta aitak abal bat lortu zuen, Hego Euskal Herrira itzultzeko.

422. Frantzian hainbat euskaldun (LAS-016/024)

Frantziara ihesi joan zen jende mordoa. Familia bizi zen herrian Oiartzun eta Lezo aldeko euskadunak ere bazeuden. Gau osoa pasa zuten ihes egiteko itsasontzian sartu nahian. Gerran osaba hil zitzaion, Rafael izenekoa, haren omenez jarri zioten izena.

423. Amonak begiz jota zuen (LAS-016/026)

Amonak ez zuen Rafael gustuko, haren osaba Rafaelen izena baitzuen berak. Mezetara joan eta traperiatik pasa zen behin amonarekin, alpargatak probatzera. Alpargata berriak zituela eta etxera poz-pozik iritsi, eta alpargatak lehengusuari eman zizkion amonak.

424. Lau katu ziren herrian (LAS-016/029)

Lasarte nondik nora zen lehen. Oria eta Lasarte batuta 1200 bat biztanle ziren. Komentuak terreno asko zituen, hara joaten zirenek dotea eman behar baitzuten.

425. Ezohiko Jaunartzea (LAS-016/031)

Jaunartze txikia 7 urterekin egiten zen, eta handia 12rekin. Rafaelek, ordea, igande arrunt batean egin zuen, beste 8 lagunekin batera.

426. Oria eta Lasarte, arrunt desberdinak (LAS-016/033)

Oso desberdinak ziren Oria eta Lasarte. Bakoitza bere aldetik joaten zen, bi herri balira bezala. Pikea zegoen bien artean. Lasarte euskaldunagoa zen Oria baino, Orian langile asko baitzegoen. Komunista asko omen zegoen Orian, eta 'la Rusia pequeña' deitzen zitzaion

427. Larrekoetxetik Buenos Aires auzora (LAS-016/035)

Larrekoetxe baserrian denbora gutxi egin zuen Rafaelek, segituan Buenos Aires auzoko etxe batera joan ziren bizitzera, sukaldea erabiltzeko

aukerarekin. Gela bakarrean sartzen zen familia. Ondoren aitak etxea egin eta bertara joan ziren.

428. "Medikurik ez genuen ikusten!" (LAS-016/037)

Medikura oso larri egotean bakarrik joan ohi zen. Herriko medikua, Pablo Mutiozabal, Bar La Bodegan egoten zen, hor zuen bulegotxoa. Askotan garagardo hotza edatea gomendatzen zuen.

429. Errazionamenduko ogia (LAS-016/039)

Borobil formako ogia ematen zieten errazionamenduan, lodia eta gogorra. Bakoitzari bat ematen zioten. Ogi txuririk ez zuten ikusi ere egiten.

430. Kontrabandoa trenez (LAS-016/040)

Herritik pasatzen zen Nafarroatik zetorren trena. Bertan sartzen zuten gero estraperloan salduko zutena. Taloa jan ohi zuten estraperloan erosteko dirurik ez zutenek.

431. Hernaniko errota (LAS-016/041)

Taloa egiteko irina Hernaniko errotan xehatzen zuten.

432. Herriko dendak (LAS-016/043)

Lasarteko gozodendak, traperia, janari-dendak... Harategi bakarra zegoen.

433. Amonarekin mezara (LAS-016/045)

Igandero mezara joaten zen Rafael amonarekin. Sermoia ematean kikildu eta berriro bueltatuko ez zela esan zion amari.

434. Hileko lehen ostiralean, konfesatzera (LAS-016/047)

Konfesatu egin behar izaten zuten hileko lehenengo ostiralean, Michelingo eskolako maisuak aginduta.

435. Ama Michelingo langile (LAS-016/048)

43. urtean ama Michelinen lanean hasi zen. Gurpilei goma jartzen aritzen zen. Bizikleten tubularrak josten ere ibiltzen zen. Orokorrean ez zein lanpostuetan generoaren araberako bereizketarik egiten. Astakeria hutsa ziren lanpostu batzuk. Makinekin lan egiten hasi zirenekoa.

436. Ekoiztutako gurpil adina diru (LAS-016/049)

Zenbait lanpostutan (ekoizpenean) ekoiztutako produktuen araberako soldata ordaintzen zen, izan gizon edo izan emakume. Lan istripuak oso ohikoak ziren, baina prebetzio lan handia egiten zuten.

437. Michelinen hasieratik ordaintzen zitzaion Ogasunari (LAS-016/050)

Garai hartan oso enpresa gutxik ordaintzen zioten Ogasunari. Hori dela eta, soldatan murrizketa bat zuten Michelingo langileek, etorkizunean euren hoberako izan zen. Ordu extrak ere kotizatzen ziren.

438. Michelin eta 100 eguneko greba (LAS-016/051)

76. urtean Michelin enpresako langileek 100 eguneko greba egin zuten. Soldata igotzeko eta lan ordutegia hobetzeko eskatzen zuten, eta lortu egin zuten. Greba egiten zuten langileak, askotan, bota egiten zituzten.

439. Grebako parte-hartzaile (LAS-016/052)

Gasteizen zegoela harrapatu zuen grebak. Gasteizen martxoak 3ko gatazkak ez zuen txiripaz harrapatu, hiru eugn lehenago itzuli baitzen Lasartera. Grebara batu zen eta nagusiak enpresara itzultzen utzi zion. Perez Carrasco delakoa zen grebaren bultzatzaileetako bat.

440. Piketeak fabrikako atean (LAS-016/054)

Piketeak jartzen ziren fabrikako ateetan, inori sartzen ez uzteko. Batzuetan atea libre zegoela ikusi eta lantegian sartzea lortzen zuten, han lo egin eta hurrengo egunean lana egiteko. Diru asko galdu zen 100 eguneko greba hartan, ekoizpena erabat gelditu baitzen.

441. Lana egiteko soldadutzarik ez (LAS-016/055)

21 urterekin hasi zen Rafael Michelinen lanean. Aita besamotza zenez, aitaren ardura zuela justifikatu, lanean hasi, eta ez zen soldadutza egitera joan. Paperak egitea ez zen arraza izan, Frantzian jaio baitzen Rafael.

442. Aitak ezin lana topatu (LAS-016/057)

Aitak begi bat falta zuen, eta besamotza zen. Erbestetik itzulitakoan ez zuen lanik topatu. Etxe baten eraikuntzan lanean aritu zen, baina lan txiki batean. Haren desgaitasunak eta errepublikarra izateak lana aurkitzea zaildu zion. Gerrako desgaituen elkartea zegoen.

443. Franco herrira etortzean, jende mordoa martutenera (LAS-016/059)

Franco herrira joaten zenean, martuteneko kartzelan sartzen zituzten batzuk, bisitak irauten zuen bitartean.

444. Michelin militarizatuta (LAS-016/060)

Jende asko gerrara joan gabe gelditu zen, Michelin militarizatu egin zutelako. Industriak Lasarte salbatu du Rafaelentzat.

445. Herriko lantegirik garrantzitsuena: Michelin (LAS-016/061)

Michelin zen herriko lantegirik garrantzitsuena. Rafael bertan lanean hasi zenerako, 800 langile ziren. 3500 langile izatera heldu ziren ordea. Luzuriaga, Abrasivas.

446. Nondik etorri zen jendea Lasarteko industriara? (LAS-016/063)

Espainia osotik etorri zen jendea Lasarteko industriara lanera. Egunerokotasunean ere txirrindan Aia eta Zarautz aldetik etortzen ziren asko. Zenbaitek euskaraz ikasten zuten baina, orokorrean ez.

447. Euskara gutxi entzuten zen kalean (LAS-016/064)

Herrian, kalean, ez zen euskararik entzuten. Ez boom industrialaren aurretik, ez ondoren. Golfak, zaldi-lasterketek... jende erdaldun asko erakarrtzen zuten.

448. Lasarte-Oriaren sorrera (LAS-016/066)

Jende mordoa mugitu zen Lasarte-Oria udalerria sortzeko. Aurretik saiakerak egon ziren baina ez zuen emaitzarik eman. Donostia, Usurbil, Hernani, Urnieta eta Andoain ziren Lasarteko lurren jabe. Industria indartsua izatean ez zuten interesik udalerria sortu zedin. Ana Urtxuegia izan zen lehen alkatea, emakumea.

449. San Pedro eta Santa Ana (LAS-016/068)

Manuel 'Gure Etxekoak' Santa Ana parodia asmatu zuen. San Pedrotan gauza mordoa egoten zen, meza, herri kirolak, txirrinda-lasterketa, pilota partiduak, estropadak...

450. Sorgin dantza, Oriakoa (LAS-016/070)

Mutilak bakarrik ateratzen ziren. Orain, ordea, neskek ere parte-hartzen dute. Orduan emakumeak ez ziren tabernetara bakarrik sartzen.

451. Francoren kontrako propaganda (LAS-016/072)

Fabrikan esku-paperak botatzen zituzten, Francoren kontrakoak.

452. Ikastola elizaren bitartez sortu zen (LAS-016/074)

Ikastola elizaren bitartez sortu zen, Zuaznabartarrek bultzatuta. Lehenengo andereinoa etxe batean izan zen. Dozena bat ume joaten ziren hasieran.

453. Arrillaga baserria eta ganadua (LAS-017/003)

Ganadua bazuten baina ez asko, zazpi behi, idiak, astoak eta ardi gutxi. Inguruko baserrietan ez zuten ardirik izaten. Esne-behiak zituzten, baina gaur egun baino askoz ere esne gutxiago ematen zuten.

454. Santander aldera behiak erostera (LAS-017/004)

Diputazioak lagunduta, egun batzuk eskaintzen zitzaizkien baserritarrei Santander aldera joan eta behiak erosteko. Inaxioren aita behin baino gehiagotan joan zen. Denbora batera konturatu ziren behi guztiek gaitza zutela, garbiketa egin behar izan zuten eta ganadu asko hil.

455. Marmita buru gainean jarrita, Donostiara (LAS-017/006)

Ama Donostiara joaten zen egunero esnea eta tratua saltzera. Astoz herrira jaitsi eta autobusa hartzen zuen. Etxe jakinetan saltzen zuen esnea, eta San Martin plazan barazkiak.

456. Bi ogibide: fabrika eta baserria (LAS-017/007)

Baserriko esnea eta tratua saltzen zuten Donostian. Hala ere, bai Inaxio eta bai haren senideak fabrikako langile ere izan ziren. Inaxio bera 14 urterekin hasi zen fabrikan lanean. Anaia zaharrena Luzuriagan ibili zen lanean, militarizatuta zegoenez ez zen borrokara joan.

457. Oztaran auzoa, baserritarrena (LAS-017/008)

Oztaran auzoan zegoen Arrillaga baserria. Baserritar auzoa zen hura, eta Urnietari zegokion Lasarte-Oria udalerria sortu arte.

458. Auzolanean egin zen Urnietako bidea (LAS-017/009)

Baratzean ez ezik, herriko bideak ere auzolanean egiten zituzten, haien artean Urnietarako bidea. Andoaingo harrobitik ekartzen zuten harria.

459. Errotara artoa xehetzera (LAS-017/011)

Artoa oiloak elikatzeko eta taloa egiteko erabiltzen zuten. Urnietako errotara joaten ziren artoa xehetzera. Zenbait tokitako errotak itxi egin zituzten gerra garaian.

460. Errepublikarrek behiak lapurtu zituzten (LAS-017/013)

Inaxiok bizi ez badu ere, entzunda du 'gorriak' atzeraka hasi zirenean, jatekoa beharko zutelakoan baserrietatik behiak eraman zituzten.

461. Urnietaren parte zen baserria, baina Lasarterako joera (LAS-017/015)

Baserria Urnietako lurretan zegoen kokatuta, eta hortaz, paper kontuak egitera beti Urnietara joan behar izaten zuten. Hala ere, herrira jaisteko orduan, Lasartera jaisteko joera zuen familiak, bai Donostiara joateko eta baita elizara joateko ere. Belaunaldi gazteagokoek, ordea, elizarekin lotura Urnietan zuten.

462. Inguruko baserriak (LAS-017/016)

Arrillaga baserria Oztaran auzoan zegoen. Inguruko zenbait baserri aipatzen ditu Inaxiok (Buena Vista, Elkezabal, Telleri, Zaltzate...).

463. Baserritik Lasarte zegoen gertuago (LAS-017/017)

Arrillaga baserritik Lasarteko elizara ordu erdi zuen oinez, Urnieta 40 minutura.

464. Urnieta Lasarte baino euskaldunagoa (LAS-017/018)

Urnieta Lasarte baino euskaldunagoa zen. Lasarte zen inguruko erdaldunena. Golfak kanpoko jende mordoa erakartzen zuen, baita hipodromoak ere. 60ko hamarkadan industriara lanera jende mordoa joan zen Lasartera, eta izugarri handitu zen.

465. Auzoan euskaraz, kalean erdaraz (LAS-017/020)

Inguru bereko gazteen artean euskaraz egiten zuten, baina kaletarrek normalean erdaraz egiten zuten, nahiz eta guraso euskaldunak izan.

466. Euskara bai, gaztelania ere bai (LAS-017/021)

Etxean euskaraz egiten dute beti, baina errepresioagatik zein modagatik, gaztelania oso presente zegoen haien bizitzan.

467. Zubietan gerrateko zangak (LAS-017/025)

Urnieta gehiago zigortu zuten gerra garaian Lasarten baino. Bazen familia bat bereziki zigortu zutena, 'gorriak' zirelako. Bada talde bat gerra garaiko kontuak aztertzen ari dena, eta Zubietan zanga bat zegoela jakin dute haiei esker. Askotan joaten ziren hara ganaduarekin.

468. Oriako jende mordoa ihesi (LAS-017/026)

Oria asko zigortu zuten gerra garaian, errepublikarrak omen ziren eta gehienak. Ihes egin behar izan zuten askok eta pare bat familia bakarrik gelditu ziren.

469. Laborde fabrikako aprendiz (LAS-017/028)

Eskolan 7 urterekin hasi zen Inaxio. Ondoren, 9 urterekin, Andoaingo La Sallera joan zen, osaba bat hangoa baitzuen. 14 urterekin Laborde fabrikara joan zen aprendiz moduan. Makinak, zorrozteko erremintak eta tornuak ekoizten ziren.

470. Lasarte gaizki zegoen eskolaz (LAS-017/029)

Lasarten eskolan ibili zen tarte batez, baina oso gaizki zegoen eskolaz. Michelinek zuen eskola eliza atzean. Gela bat ere bazen beste eraikin batean, jende gutxi joaten zen bertara.

471. Eskola dena, erdaraz (LAS-017/031)

Eskola guztia erdaraz egin zuen Inaxiok, baina maisuaren arabera euskaraz egin zitekeen kasu zenbaitetan. La Sallen fabrikako lanerako bideratuta zegoen dena.

472. Emakumeak Laborde fabrikan (LAS-017/032)

Laborden emakume langileak ere bazeuden, bai bulegotan eta bai makinetan ere.

473. Laborden: lana eta eskola teorikoak (LAS-017/034)

Laborde fabrikan, hasiera batean, aprendiz gisa egon zen 14 urterekin. Eskola teorikoak ere izan zituzten, kimika, frantsesa eta marrazketa gogoratzen ditu Inaxiok. Don Rosendo Recondo apaiza joaten zen batzuetan erlijioa ematera.

474. Laborde fabrikatik soldadutzara (LAS-017/036)

14 urterekin Laborde fabrikan lanean hasi, eta 21-22 urterekin soldadutzara joan zen, Loiolara lehenengo, Guadalupera ondoren. Carrascal herrian ere egon zen, Nafarroan. Hiru hilabeteko baimenak lortutakoan, Laborden eta baserrian aritu zen lanean.

475. Nolakoa zen Lasarte? (LAS-017/038)

Garai bateko Lasarte; fabrikak, etxeak, Coco fabrika, teila fabrika, Zumaburu irla...

476. Baserritarrak ere Michelingo langile (LAS-017/039)

Lasarteko industria: Michelin, Luzuriaga, Oria... Michelin gerraostean asko handitu zen. Errezil eta Nafarroa inguruko jende mordoa joan zen Lasartera lanera, fabrikara eta baserrira.

477. Lasarteko taberna eta sagardotegi giroa (LAS-017/041)

Ostatu Berri, Gure Etxea... tabernak. Garizuma garaian basoka sagardoa saltzen zuten. Tokan jolasten zen garai hartan. Txotx egitea beranduago etorri da.

478. Sagardoa egiten zuten (LAS-017/042)

Oztaran auzoko baserri guztietan zeuden sagastiak. Inaxiok gogoan du sagarra bildu eta tolarea zuen baserri batera eramaten zela, ondoren sagardoa egin eta barriketan etxera eramateko. Sagar mota mordoa zegoen, biziak eta motelak nahastu egiten ziren. Merkaliña ez zuten onartzen sagar-erosleek.

479. Labordetik Michelinera (LAS-017/044)

Soldadutzatik bueltan Labordera itzuli zen lanera. Aukera eman zioten tornu hobe batean hasteko, eta bertara joan zen. Michelinen sartu zen ondoren, tailer berri batera, altzairuzko haria egitera.

480. Eraikuntza lanetan hasi (LAS-017/046)

Lau urtean aritu zen Inaxio Michelinen lanean. 65. urtean anaiak eraikuntzan zuen enpresan sartu zen burniarekin lan egitera, Intxausti-Otaegi enpresan. Michelinen ez zegoen guztiz gustora. Anaiarekin batera eraikuntzan hasi zen, anaia arotza baitzen. Egur asko erabiltzen zen garai batean eraikuntzan.

481. Eguneroko matxinadak (LAS-017/048)

Garai bat egon zen non ia egunero matxinadak eta grebak egon ziren Lasarten, jendea alde batetik korrika eta polizia atzetik.

482. Anaia lan-istripu batean galdu zuen (LAS-017/050)

Otaegi-Intxausti enpresa sortu zuen Inaxioren anaiak, eta bera ere bertan lanean sartu zen. Igeltsero talde bat zen, eta egur-lanean anaia aritzen zen batik bat. Anaia lan istripu batean zendu zen.

483. Etxe bat eraikitzeko prozesua (LAS-017/052)

Porlana Rezolatik ekartzen zuten, kamioiz mugitzen zuten hau. Hormigoia prestatzen zieten, eta gero lan-eremura eraman. Beheko lur sailaren araberako denbora behar izaten zen etxea eraikitzeko. Eraikinaren egitura egitea lan nekeza zen, soilairu bat 10 egunetan egiten zen martxa onean.

484. Etxearen egituran, pinu-egurra (LAS-017/054)

Pinu egurra erabiltzen zen garai batean egitura egiteko, gaur egun, ordea, burnia. Egurra Berrobi aldetik ekartzen zuten. Burnia Lasarten bertan erosten zuten.

485. Alturan lan egitera ohituta (LAS-017/055)

Etxearen egitura egiteko 10-11 pertsona aritzen ziren lanea, burniarekin batzuk, egurrarekin beste batzuk.

486. Lasarte auzolanean sortu zen (LAS-017/057)

Anaiak Lasarteko hilerriaren bueltan bilera batzuetan parte-hartu zuen, izan ere, Lasarteko hilerria Hernaniko lurretan dago. Saiakera bat baino gehiago egon zen Lasarte-Oria udalerria sor zedin. Ikastolako lurrak auzolanean egin ziren.

487. Ikastola sortzeko ideia, nondik? (LAS-017/058)

Ikastola nahia zabaldu zen herrian, nahiz eta euskara debekaturik zegoen orduan. Guraso talde bat bildu zen Patxi (Don Patricio) apaizarekin. Komentuan pare bat gela jarri zituzten, baita pare bat lokal ere.

488. Ikastolako andereinoak titulurik ez (LAS-017/059)

Hasiera batean, lehenenego-lehenengo maistrak ez zuen titulurik, eta irabazitako dirua ere gutxi zen. Gerora tituludunak sartu ziren.

489. Arotza beti ikasten (LAS-018/003)

Aita Urnietako Etxeberri baserrikoa zuen. Ama Lasartekoa bertakoa zuen. Arotza zen aita, batez ere gurdiak egiten zituen. Garin enpresan morroi ibili zen. Hamahiru urterekin hasi zen Iñaki arotz lanetan.

490. Ijitoak amari behatza sendatu (LAS-018/005)

Aita arotza zen, eta ama etxean egoten zen lanean baina tarteka laguntzen zion aitari. Laguntzera joan zen batean, behatza moztu eta Etxeberria zelako batek primeran sendatu zion. Istripuak gertatzen zirenean, Michelinera joaten ziren, han mediku praktikari bat baitzegoen.

491. Umetan egurra banatzen (LAS-018/006)

Aitaren tailerrera iritsitako egurra zerratu eta banatzen ibiltzen ziren Iñaki eta haren anaia umetan, komentu eta ikaztegietara joaten ziren. Frigorifica Guipuzcoanara joaten ziren askotan enbalajearekin laguntzera.

492. Fabrikatik atera eta tailerrera (LAS-018/007)

Aitaren tailerrean hiru aritzen ziren lanean, baina jende asko zegoen Michelinen 8 ordu lan egin eta gero, tailerrean laguntzera joaten zena.

493. Igandetan ere lanean (LAS-018/009)

Jendeak arotz zerbitzua behar zuenean, tailerrera joan eta aitari eskatzen zion zuzenean. Igandetan ere lanera joaten ziren batzuetan.

494. Arotz gisako lanak (LAS-018/011)

Teilatuak konpontzetik oinarria eta lurra lantzera.

495. Teilatuen zatiak eta izenak (LAS-018/013)

Tijera, zapata, gailurra...

496. Egurra Zubietako zerrategitik (LAS-018/014)

Pinua erabiltzen zuten kanpotik. Bestela Zubietako zerrategitik ekartzen zuten haritza. Añorgako transportista batzuek eramaten zieten egurra zerrategitik tailerrera. Lan kopurua jaisten zenean, aitaren behiak gobernatzen zituzten.

497. Egur bakoitza lan mota baterako (LAS-018/016)

Egin behar zuten lanaren araberako egurra erabiltzen zuten. Gurdietako gurpilak egiteko zumarra, akazia eta artea erabiltzen zituzten.

498. Arotzeria asko aldatu da (LAS-018/017)

Geihenbat lan aglomeratua eskatzen da gaur egun. Egurra lantzeko erabiltzen ziren tresnak: trontza, zerrotia, eskuila, unibertsala... Makinak garai bateko eskulana ordezkatu du.

499. Zer behar da arotz ona izateko? (LAS-018/018)

Esku ona, arreta jarri beharra, tenplea, ordu asko sartu beharra...

500. Arotzak asteko 7 egunetan lan (LAS-018/019)

Egun bateko lana izaten zenean, igandetan egin ohi zen. Hernaniko festetan parranda egin eta hurrengo egunean Legorretara joan behar izan zuen Iñakik, loari ezin eutsi ibili zen bidean.

501. Egurra eta gaitzak (LAS-018/021)

Egurra moztean laka utziz gero, pipia sartzea errazagoa da, ezpaletik sartzen baita errazago. Hezetasuna egur guztiek ez daramate ondo.

502. Aita tximiniak garbitzen aritua (LAS-018/023)

Garai batean etxean errazago erretzen ziren, oinarrian egurra zuten eta. Aita tximiniak garbitzen aritu zela gogoan du Iñakik. Askotan sua tximiniatik sartzen zen.

503. Inguruan haritza, lizarra eta zumarra (LAS-018/024)

Inguruan bazegoen basoa, eta bertatik hartzen zuten lanerako haritza, lizarra eta zumarra.

504. Hilkutxak pinuz egiten zituzten (LAS-018/026)

Hilkutxak egiten zituzten aitarekin, normalean pinuarekin egiten ziten. Ez ziren garestiak izaten. Garai batean ia dena egurrezkoa zen, eta altzari asko saltzen zen. Iñakik eta anaiak altzariak ere egiten zituzten,

505. Arotzak bezero fidela (LAS-018/028)

Lehen eta gaur bezeroa beti fidela izan da, eta arotzak bezeroen fideltasuna ondo zaindu behar zuen.

506. Teilatua bukatutakoan, ospatzera (LAS-018/029)

Erramua esaten zitziaon, teilatua bukatu, erramua jarri eta ospatzera joaten ziren langileka. Bezeroak berak prestatzen zuen afaria normalean.

507. Soldadutzan ere arotz lanetan (LAS-018/031)

Hamahiru urterekin hasi zen aitari arotz lanetan laguntzen, bost bat urte behar izan zituen ofizioa ondo ikasteko. Soldadutzan ere tailerrean aritu zen lanean, Zaragozan eta Kandantxun. Kandantxuko teleaulkiak egin zituzten. Bere taldeko arduraduna zen Iñaki.

508. Gutxitan joaten zen eskolara (LAS-018/033)

Gutxitan joaten zen eskolara Iñaki. Behin tailerrean hasita, eskola partikularretara joan zen.

509. Giro erdalduna Lasarten (LAS-018/035)

Etxean euskaraz egiten bazuten ere, Lasarteko giroa oso erdalduna zen. Apopiloak izaten zituzten etxean, orokorrean, kanpotarrak. Amona txerri-hilketan aritzen zen, eta Iñakiren aitari irakatsi zion.

510. "Habla en cristiano" (LAS-018/037)

Garai batean euskara galarazita zegoen, eta erdaraz egiteko agintzen zieten. Aurre egiteko beldur handiagoa zuten lehen orain baino.

511. Auzoaren arabera, euskararen egoera aldatzen da (LAS-018/039)

Zumaburu auzoan bizi zen garai batean Iñaki, eta 'España' deitzen zitzaion, oso erdalduna zelako. Oriak komunista fama zuen. Brunet fabrikak etxeak egin zituen bertan, eta nahiko etxe pobreak ziren.

512. Bruneteko langileen etxeak (LAS-018/040)

Oria langile auzoa bilakatu zen Brunet zabaldu zenean. Enpresak berak eraiki zituen langileentzat etxeak.

513. Kanpoko apopilo mordoa (LAS-018/042)

Burgostik, Santandertik, Arabatik... joaten zen jendea Lasartera bizitzera. Apopilo asko joaten ziren Tiburtzio tabernara.

514. Herriko biztanleria hirukoiztu da (LAS-018/044)

Bost mila biztanle ziren gutxi gorabehera, denek ezagutzen zuten elkar. Orain, ordea, hamazortzi mila biztanle dira Lasarten. Bost udaletxetan banatuta zegoen Lasarte, Usurbil, Donostia, Hernani, Urnieta eta Andoain.

515. Lasarte-Oria sortzeko ekimena (LAS-018/045)

Herria sortzeko batzorde bat eratu zen, eta firma bilketa eta hauteskunde bitartez lortu zen Lasarte-Oria herria izatea.

516. Golfean irabazten zuten bigarren soldata (LAS-018/047)

Michelin eta Luzuriaga ziren industria nagusia Lasarten. Bestetik, bigarren soldata ateratzen zuten askok golfean laguntzen. Aberatsen autoak aparkatzen ibiltzen ziren.

517. 'Soldado plantado' jolasa (LAS-018/049)

8-9 urterekin eliza atzean 'Soldado plantadora' ibiltzen ziren.

518. Greba gogorrak bizi zituen Lasartek (LAS-018/051)

Oso greba gogorrak izan ziren garai batean Michelinen. Bar La Bodega zenetik pasatzen ziren matxinatuak eta grisak. Biolentoak izan ziren grebak.

519. Ttakun Kultur Elkarteko kide (LAS-018/053)

Ttakun Kultur Elkartea indarra hartzen hasi zen herrian, eta bertako parte-hartzaile izan zen Iñaki. Euskararen alde lan egiteko borondate handia zuen eta. Txintxarri banatzen ibili zen baserriz baserri.

520. Ttakun kultur elkarteari esker euskara gehiago (LAS-018/055)

Herri mailan euskararen presentzia asko handitu da Takun Kultur elkarteari esker.

521. Lasartearra elkartearen sorrera (LAS-018/057)

Lasartearra kirol taldea zegoen lehenengo, eta hortik sortu zen Lasartearra elkarte gastronomikoa. Oraindik emakume bazkiderik ez dago elkartean.

522. Txikierditik Usurbil kalera (LAS-019/003)

Gurasoak Usurbilgo Astiasunberri baserrian bizi ziren, baina ez ziren familiarekin ondo konpondu, eta Usurbilgo kalera jaitsi ziren. Maritxu Txikierdin jaio zen, bost urte zituela Usurbil kalera joan zen bizitzera. Gurasoak eta lau senide bizi ziren bertan.

523. Etxe bakarrean hamabi senide eta gurasoak (LAS-019/006)

Hamabi senidetan zaharrena da Maritxu, baina ez zuten inongo arazorik etxean sartzeko. Usurbilgo kaleko etxea nolakoa zen.

524. Hogei urterekin ezkondu (LAS-019/007)

Hogei urterekin ezkondu zen Maritxu. Donostian zegoen orduan neskame bezala. Gizonaren baserrira ezkondu zen, etxebizitzarik ez baitzen Lasarten.

525. Opila abestearen truk (LAS-019/009)

Sagardotegia zuten baserri inguruan, eta Donostiatik jende mordoa joaten zen bertara. Maritxuk askotan abesten zien sagardotegira jaoten zirenei, trukean opila ematen zioten. Amonak erakutsitako abestia.

526. Amonak erakutsitako abestiak (LAS-019/011)

Amona kantuzalea zuen oso. Hark irakatsitako abestia.

527. Amonak Bilintxen bertsoak abesten zituen (LAS-019/013)

Maritxuren amona oso kantuzalea zen. Maritxu ezkondu eta senarrak abesti-liburu bat eman zion. Hau irakurri eta konturatu zen Bilintxen bertsoak zirela amonak kantatzen zituenak.

528. Eguberriko kantak (LAS-019/015)

Amak oso gustuko zituen Eguberriko kantak. Haietako bat abesten du Maritxuk pasarte honetan.

529. Gerra garaian Usurbil euskalduna (LAS-019/017)

Umeta jolasean aritzen zireneko kantak gaztelaniaz ziren, euskara galarazita baitzen. Hala ere, Usurbilen euskaraz egiten jarraitu zuten. Etxean ere beti euskaraz egiten zuten.

530. Aitak baserritarrentzat egiten zuen lan (LAS-019/019)

Familia Txikierditik Usurbil kalera jaistean, aita baserriz baserri ibili zen lana topatu nahian. Etxean eskulanak egiten zituen baserritarrei laguntzeko, aulkiak konpontzen, baserriko tresnak konpontzen... Ordainetan janaria ematen zioten.

531. Auto batek anaia harrapatu zuen (LAS-019/021)

Bi senide oso umetan hil ziren. Bata hiru urte eta erdirekin hil zen, auto batek harrapatuta.

532. Aita Michelingo guarda (LAS-019/023)

Aita Michelingo guarda zen. Uniforme eta guzti joaten zen lanera. Behin langile batek burla egin, eta bertso batez erantzun zion, oso bertsozalea baitzen bera.

533. Aitari entzundako bertsoa (LAS-019/025)

Aitari entzundako bertsoa

534. Hamalau seniderentzat, janaririk bai? (LAS-019/027)

Amaren familia baserritarra zen, haiei esker izaten zuten janaria etxean askotan. Babarrunak, baba txikia, sagarrak...

535. Marmita hartu, eta ur bila (LAS-019/029)

Urik ez zuten etxean eta Maritxu askotan ur bila joaten zen. Ondoan bi baserri zituzten, eta haietatik ekartzen zuten esnea. Arropa ondoko errekan garbitzen zuten. Marmitarekin joaten zen askotan Maritxu mendira, ur bila.

536. Umeak zaintzen egoteagatik, ezin eskolara joan (LAS-019/030)

Umeak zaintzen egoten zen askotan Maritxu, seniderik zaharrena baita bera. Tarteka eskolara joaten zen. Behin eskolako moja joan zen haren etxera, piper asko egiten zuelako eskolan.

537. Eskola eta pospolinak oso gustuko zituen (LAS-019/032)

Eskolara asko joaterik ez zuen, ume asko baitziren etxean eta anai-arrebez arduratu behar baitzuen. Hala ere, dotrina etxean ikasten zuen. Pospolinak ikustera joaten zen dotrinatik irtetean.

538. "Eusko Gudariak" (LAS-019/034)

Poxpolinek hainbat abesti abesten zituzten, tartean "Eusko Gudariak"

539. Txikierdi auzotik Usurbil kalera (LAS-019/036)

Txikierdin bertan eskola zegoen, eta hara joaten zen hasieran. Ondoren, Usurbil kalera jaitsi eta moja eskolara joaten hasi zen, 6-7 urterekin.

540. San Estebanen euskarazko eskolak (LAS-019/038)

Gertrudis izeneko emakume batek ezkutuan euskaraz irakasten zuen, batik bat Dotrina. Usurbilgo San Estebanen ematen zituen eskola hauek.

541. Zakarretan takoizko zapatak aurkitu zituenekoa (LAS-019/040)

Txikierditik Usurbil kalera jaitsi zirenean, maistrak panpintxo bat oparitu zion Maritxuri. Zakarra bide bazterrean uzten zen garai batean, eta hara joaten zen Maritxu jostailu bila. Behin takoizko zapata batzuk aurkitu zituen.

542. Amak beti hika (LAS-019/041)

Amak seme-alaba guztiei hika egiten zien. Maritxuk, ordea, ahizpa gazteenari zuka egiten dio, ez zaio eta hika egitea ateratzen. Lagunekin ere beti hika egin izan du.

543. Elizan gizonak eta emakumeak bananduta (LAS-019/043)

Neska-mutilak ez ziren elkarrekin ibiltzen, beti neskak alde batetik eta mutilak bestetik, baita elizan ere.

544. Donostian neskame zebilela, nobiotan hasi (LAS-019/045)

Hogei urterekin ezagutu zuen Maritxuk gero senarra izango zena. Ezagutu bezain laster, Donostiara joan behar izan zuen Maritxuk arkitektu baten etxera, neskame moduan, Garibai kalera. Igandetako erromerian elkartzen ziren Hiru-Biden. Gainera, Donostiako datuak eman eta harekin elkartzen zen han.

545. Haurdun zegoela, Lasartera bizitzera (LAS-019/047)

Zazpi urtez nobiotan ibili eta ezkondu egin zen Maritxu, senarraren baserrira. Hirugarren umearen zain zegoela, Lasartera joan ziren bizitzera, Goienkalera.

546. Plantxan neskame zela ikasi zuen (LAS-019/048)

Uniforme eta guzti ibili zen Donostian neskame lanetan. Han ikasi zuen plantxa erabiltzen. Etxeko garbitasunaz arduratzen zen batez ere. Sukaldariarekin logela partekatzen zuen. Urtebete eman zuen han, gero ama gaixotu eta etxera itzuli zen.

547. "Hik ez dakan Tifus, hik dakan trip-huts!" (LAS-019/050)

Eskola 10 bat urterekin utzi, eta handik gutxira Usurbilgo mediku baten umeak zaintzen ibili zen Donostian. Gaixotu egin zen han, tifus zuelakoan etxera itzuli zen. Jan eta jan hasi, eta gosea zela konturatu ziren.

548. Tifusarekin jende mordoa hil zen (LAS-019/052)

Neskame lanak fama txarra zuen, gose handia pasatzen zelako. Maritxu ere gaixotzen hasi zen, eta Tifusa zelakoan etxera joan zen. Jan ahala osatu zela ikustean, gosea besterik ez zela konturatu ziren. Hala ere, bizilagunak eta gertuko jende mordoa hil zen Tifusak jota.

549. Hamabi senidetik hamaika etxean jaioak (LAS-019/054)

Amaren izeba bat joaten zen etxera, erditzen laguntzera. Maindire batzuk hartuta joaten zen, medikuari laguntzera. Bat izan ezik, Maritxu eta anai-arreba guztiak etxean jaio ziren.

550. Arrizabalo, Michelingo langileen zaindari (LAS-019/057)

Michelingo langileak gaixotzen zirenean, Arrizabalo izeneko gizona aritzen zen haiek laguntzen. Erizainbat ere bazen langileen familiarekin egoteaz arduratzen zena.

551. Haurra jaio eta 'elizan sartzea' (LAS-019/059)

Erditu berri zen emakumea ez zen etxetik ateratzen umea jaio, bataioa egin eta 8 egunetara elizara joan arte. Horregatik, emakume asko buru gainean teilarekin ibiltzen ziren, oraindik elizan sartu ez zirelako.

552. Ezkondu eta lana utzi (LAS-019/061)

Ezkondu eta berehala umeak izatea zen ohikoena, umeak oso segidan jaiotzen ziren. Hori zela eta, ezkondu eta lana utzi behar izaten zuten emakume askok. Bakar batzuek lanean jarraitu zuten, baina gehienek lana utzi zuten.

553. Gerrako lehen eguna (LAS-019/063)

Maritxuk gogoan du nola aitaren lagun batzuk etxera etorri eta militarrak zetoztela kontatu zuten. Ihes egiteko esan zieten, baina amak etxean gelditzea erabaki zuen, haurdun baitzegoen bera. Jende mordoak egin zuen Bilbo aldera ihes gau hartan bertan.

554. EAJkoek egindako oparia (LAS-019/065)

Ez aita ez ama ez ziren politikan sartu. Hauteskundetan nori botoa eman erabakitzea zaila izaten zen, presio handia baitzegoen gizartean, Michelinen lanpostua lortzea horren araberakoa izan zitekeelako. EAJko kide batzuek saski bat oparitu zieten, janari eta arroparekin.

555. Auzo bakoitzak bere zinegotzia (LAS-021/002)

Zabaleta baerrian jaio zen Txomin, baita bere arreba ere. Baserritar auzoa zen Zabaleta, eta elkar ezagutzen zuten denek. Eskola urruti gelditzen zen auzotik. Hernaniri zegokion auzoa Lasarte-Oria sortu baino lehen.

556. Zabaleta baserriak ematen zion auzoari izena (LAS-021/004)

Zabaleta baserrikoa zen Txomin, eta baserriak berak ematen zion izena auzoari. Denborarekin, auzoa handitu eta handitu egin zen. Larrekoetxe bidea jarri zioten inguruari, Larrekoetxe baserriagatik.

557. Banketxeko eta baserriko lana uztartzea onena (LAS-021/006)

Zuaznabar, bizilaguna, Michelingo arduradunetako bat zen eta lana eskaini zion Txomini. Baserriarekin jarraitzeko asmotan ezetz esan zion. Aitak, ordea, soldata eta ordutegia baserrikoa baino hobea zela eta Banco San Sebastianen lana hartzera bultzatu zuen Txomin.

558. Kutxa banketxeko txofer (LAS-021/007)

Banco San Sebastianen lau urte egin eta Kutxako txofer lanetan aritzeko oposaketak gainditu zituen. 34 urtez aritu zen Kutxan, eta handik hartu zuen erretiroa.

559. Zabaleta auzoan etxebizitza mordoa (LAS-021/008)

Zabaleta auzoko lursailak erosi nahi zituzten etxeak eraikitzeko. Saldu ezean etxerik gabe gelditukо zela eta, bihotzeko bat izan zuen Txominek.

560. Baserritik kanpo lan egiteko erabakia (LAS-021/010)

Goizez lan egin eta arratsaldez eskolak jasotzera joaten zen, oposaketak gainditu ahal izateko. Lursailak alokatu egin zituen.

561. Dena auzolanean egiten zen (LAS-021/012)

Denek laguntzen zioten elkarri, lanean, bideak egiten, ezustekoetan...

562. Arratsaldez Donostiako eskolara (LAS-021/013)

Hernaniko lursailetan bizi zirenentzat aurreskola zegoen lehenik sei urteak arte. Ondoren Toledoko maisuarekin egoten ziren 14 urteak arte. Hala ere, 12 urterekin Donostiako eskola pribatu batera joan zen Txomin, Nuestra señora del Pilar izenekoa.

563. Don Eugenio Goyaren ikasle (LAS-021/014)

La Salle eskolako Don Eugenio Goyari buruzkoak. Asko ikasi zuen bertan, lan mundurako oso ongi prestatu zuten.

564. Eskola pribatua soldadutzaren pare (LAS-021/016)

Hernaniko eskolaz gain, La Sallen aritu en Txomin ikasten, arratsaldez. Han lan mundurako prestatzen zituzten mutikoak. Eskolatik atera eta baserriko lanak amaitzean egiten zituen etxerako lanak.

565. Autobus gidariek ezagutzen zuten (LAS-021/018)

Goizetan Donostiara joaten zen amarekin esnea saltzera. Arratsaldez La Sallera joaten zen ikastera, eta etxera itzultzeko autobusaren atzetik ibiltzen zen askotan. Oporrak Donostian.

566. Errota zuten baserrian (LAS-021/020)

Garai batean garia ereiten zuten baserrian bertan, eta ogia egiten zuten egunero. Errota ere etxean bertan zuten. Donostiara ikastera joatean konturatu zen Txomin Donostiako ogia eta etxekoa ez zirela berdinak.

567. Sidi Ifnin soldadu (LAS-021/021)

Soldadutza Afrikan egitea egokitu zitzaion Txomini, Sidi Ifnin hain zuzen.

568. Soldadutzan irakasle gisa (LAS-021/022)

Idazten eta irakurtzen ez zekitenei eskolak ematen jardun zuen Txominek soldadu zegoela, izan ere, Txominek aurretiaz formakuntza bazuen eta azterketa egin gabe izendatu zuten arduradun.

569. Etxean euskara, eskolan erdara (LAS-021/024)

Toki askotako jendea zegoen soldadu, baina euskaldunak batu eta euskaraz egiten zuten. Eskolan dena gaztelaniaz ikasi zuen Txominek eta hori abantaila bat ere izan da aurrera begira. Tratamenduen erabilera ere aldatu da.

570. Trenez Sevillara, eta handik Sidi Ifnira (LAS-021/025)

Sidi Ifnin ez zegoen egiteko ezer. Behin bero izugarria izan zuten, 45 gradu itzaletan. Haizea zela eta ezin izan zuten jan egun hartan, hondarra janarira itsasten baitzen. Aitortza bat egin zioten Txomini haren postua hain ondo betetzeagatik.

571. Euskara baserrietan zegoen (LAS-021/027)

Kaletar gehienak euskaldunak baziren ere, erdaraz hitz egiten zuten, eta euskaraz egiten zuenari 'casero' deitzen zitzaion.

572. Maisuak etengabe 'Espainia' ahotan (LAS-021/029)

Txominek ez du ezagutu euskaraz egiteagatik zigorra gasotzea, baina bai haren aitak. Oso eskuindarra zen haien maisua, Toledokoa. Hiru aldiz ezkondu zen eta errekreoan eta egurdian eskulanak egiten zituen, haiekin dirua ateratzeko.

573. Neskamea amaren modukoa (LAS-021/032)

Baserritik bizi zen familia. Neskamea zuten etxean, etxeko gauzekin eta umeekin laguntzeko. Familiako beste baten moduan bizi zen bertan.

574. Baserrien administrazioa emakumearena (LAS-021/034)

Goizean goiz ikuiluko lanak egiten zituzten. Ondoren, soroko lanez arduratzen ziren belarrak ondu, metak egin... Esnea Donostia saltzen zen. Ganadua saltzen zuten.

575. Etxean egiten zuten sagardoa (LAS-021/036)

Kanpora saltzen zuten sagarra eta sagardoa. Sagarra nahasten zuten sagardoa egiteko, eta egindako sagardoaren zati bat etxerako gordetzen zuten.

576. Sagardotegiei sagarra saltzen zieten (LAS-021/037)

Sagardoa familian egiten zuten, baina sagardotegi handiak zituztenei sagarra saltzen zieten. Egurrezko upelak eta nola prestatu. Xixarra eta pitarra.

577. Sagardoa argindarrik gabe (LAS-021/038)

Eskuz egiten zuten dena, tresnak ere desberdinak ziren orduan, argindarrik ez baitzuten. Auzolanean beti. Abere-hiltzea.

578. Urtero su berria (LAS-021/039)

Urtean behin umeak bidaltzen zituzten soroa bedeinkatzeko apaizaren zain. Ateetan elorriaz egindako gurutzeak jartzen ziren. Su berria eta ur bedeinkatua urtero aldatzen zen.

579. Ura putzutik ateratzen zuten (LAS-021/040)

Txomin jaio zenean ez zegoen ur depositorik herrian, lur azpitik hartzen zuten, putzuetatik.

580. Bakuan eskuz egiten ziren eragiketak (LAS-021/042)

Fotokopiagailurik ez zegoen Txomin bankuan lanean hasi zenean. Diru mugimendu guztiak eskuz idazten ziren liburuxketan.

581. Hiru aldiz bahitu zuten bankuko dirua kentzeko (LAS-021/043)

Kutxako bulegoen artean ez zegoen ia komunikaziorik, eta Txominek dirua batetik bestera eramaten zuen, bulego nagusitik sukurtsaletara. Ziztu bizian eramaten zuten dirua, segurtasunik ez baitzegoen. Hiru aldiz bahitu zuten Txomin bankuko dirua kentzeko. Katalunian harrapatu zituzten lapurrak.

582. Bankuan izandako lehenengo ordenagailua (LAS-021/045)

Txomin bankuan lanean hasi zenena fotokopiagailurik ere ez zegoen. Denborarekin, eskuz egiten zen lan guztia ordenagailuz egiten hasi ziren.

583. Kanpotarrek tomate gordina jaten zuten (LAS-021/047)

Lasartera jende asko joan zen industriara lan egtera. Horrez gain, obretan ere egiten zuten lan. Tomate gordina jaten lehenengoak izan ziren, Txominen harridurarako. Michelin, Orbegozo, Abrasivas eta Luzuriagako langile ziren gehienak.

584. Jornalen dirua eramaten zuen bankutik fabriketara (LAS-021/049)

3500 langile izatera iritsi zen Michelin. Frantzia aldetik etorri zen, beste greba batzuen ondorioz. Lasarten 100 eguneko greba egon zen. Eskuz ordaintzen ziren jornalak, eta Txominek eramaten zuen dirua fabrikara.

585. Jornala gutun-azaletan (LAS-021/050)

Gutun-azaletan kobratzen zuen Txominek soldata, nominarik ez zuten.

586. Lanean, lapurren beldur (LAS-021/052)

Dirua batetik-bestera eramatearen ardurapean, lapurren beldur bizi zen Txomin. Ezkutuan joaten ziren batetik bestera, dirua ezkutatuta.

587. Ertzaintza eskolta moduan (LAS-021/054)

Prosegur greban jarri zen eta segurtasun zerbitzurik gabe gelditu ziren. Ertzaintza jarri zen eskolta gisa.

588. Guardia Zibilak bankuko dirua lapurtzeko proposamena (LAS-021/056)

Eskolta moduan Guardia Zibila izan zuten batean, muga pasa eta diru guztia denen artean banatzeko proposamena egin zioten Txomini. Handik aurrera eskoltei ez zitzaien inongo informaziorik ematen. Langileen eta poliziaren arteko liskarrak greba egunetan.

589. Federico Galardirenean bizi ziren (LAS-022/005)

Federico Galardi zen etxearen jabea, eta Mertxe eta haren familia bertan bizi ziren, errentan. Ama Aiakoa zuen, aita Albizturtik oso goiz etorritakoa. 'Etxetxo' deitzen zioten aitari, haren baserriaren izenez.

590. 'La tienda de la Malen' (LAS-022/007)

Malen zuen aitaren arreba zaharrena, eta denda bat zeukan hark, Mertxe eta familia bizi ziren eraikinaren azpian. Malen ere eraikin berean bizi zen. Ultramarinos bat zen denda, eta ospe handia zuen herrian.

591. Sei buru, nola kabitzen zineten? (LAS-022/008)

4 anai-arrebak eta gurasoak bizi ziren etxean. Etxearen antolaketa.

592. Familia Michelingo langile (LAS-022/009)

Bordatzen ikastera joan zen Mertxe. Ondoren, Aplicaciones Tecnicas del Caucho (ATC) fabrikan hasi zen. Aitak Michelinen egiten zuen lan, gauez. Bi anaiek eta arrebak ere Michelinen egin zuten lan.

593. Zein zen Lasarteko langile-giroa? (LAS-022/011)

Oso giro onean gogoratzen du lan-giroa Mertxek. Laguntza handia eskeintzen zioten langileek elkarri,

594. Michelingo eskola (LAS-022/013)

Elizaren atzean Michelinek eskola jarri zuen eta bertara jaoten zen Mertxe. 7-14 urte bitartean egon zen han. Dena abesten ikasten zuten, erdaraz.

595. "Euskara baserritarren kontua zen" (LAS-022/014)

Lasarten oso giro erdalduna zegoen, baserritar giroan eta etxean bakarrik hitz egiten zen euskaraz. Gurasoek euskaraz egiten zieten seme-alabei, baina seme-alabek erdaraz gurasoei.

596. Neska euskaldunak 'caseras' (LAS-022/016)

Mertxek gogoan du ez zela inon euskararik entzuten, ez elizan ez inon. Euskaraz egiten zutenak 'caseras' ziren.

597. Goikalekoak, erdigunekoak eta geltokikoak (LAS-022/017)

Panpinekin ez zen jolasten Mertxe, batez ere kiroletan aritzea gustatzen zaitzaion. Neska-mutilak elkarrekin jolasten ziren elizaren atzean. Gazteak hiru taldetan banatzen ziren: goikalekoak, erdigunekoak eta geltoki ingurukoak.

598. Lasarte 5 udalen esku zegoen (LAS-022/019)

Erdigunea Hernaniri zegokion, Goikale Urnietari... Usurbil, Andoain eta Donostiako lurrak ere bazeuden.

599. Denek ezagutzen zuten elkar (LAS-022/021)

Irratian bertan esaen zuten herriko zeinen urtebetetzea zen. Denek ezagutzen zuten elkar. Bizikleta bat zuten denentzat, Zubietakoak meza entzutera etortzean kentzen baitzieten.

600. Ahizpa meningitisaz hil (LAS-022/023)

Ahizpa zaharrago bat izan zuten gurasoek lehenengo, Mertxe. Bost urte zituela, tamales, meningitisaz gaixotu eta hil zen. Haren omenez du izena Mertxek.

601. Elizaren garrantzia (LAS-022/025)

Oso garrantzitsua zen orduan eliza eta erlijioa. Goizeko seietako mezara joaten ziren gurasoak, aita, lanetik itzulitakoan. Gurasoei lekua hartzera joaten ziren mezara.

602. Luistarren zinema (LAS-022/027)

Estazio kale inguruko etxe abtean Luistarrek zinema jartzen zuten, normalean, bakeradak.

603. Igandetako arropa (LAS-022/028)

Igandetarako arropa berezia zuten. Behin koxkortutakoan, galtzerdiak jartzen zituzten soinekoaren azpitik. Eguraldia asko aldatu da.

604. Hilotzaren gorputza ikustera (LAS-022/031)

Meningitisa gaixotasun ohikoa izan zen. Kutsakorra zen, eta hilotza ikusi zutenak eskolatik bota zituzten egun batean. Kaleko etxeetan ere izaten zuten hilotza etxean, jendea doluminak ematera juateko.

605. Lasarteko hiltegia (LAS-022/032)

Askotan hiltegira joaten ziren errekara hondakinak nola botatzen zituzten ikustera.

606. Aberatsen artean hipodromora (LAS-022/034)

Mertxe txikia zela, hipodromoan sartzen zen lagunekin, zaldi-lasterketak ikustera. Jendea oso dotore jantzita joaten zen bertara, eta espektakulu hutsa zen haiei begira egotea lasartearrentzat. Zarauztik joaten zen jende asko. Señoriten eta txakurren lehiaketak ere baziren.

607. Anaiak caddie lanetan (LAS-022/036)

Aberats asko joaten ziren Lasarteko golf zelaira. Mertxeren bi anaiak joaten ziren caddie moduan lan egitera, soldatatik kanpo txanpon batzuk irabazteko.

608. Bordatzen ikastera estaziora (LAS-022/038)

Neska asko joaten ziren bordatzen ikastera. Oso garrantzitsua zen josten eta bordatzen jakitea, gero ezkontzarako apaingarriak egiteko. Zinta-karrerak.

609. Neska-mutilak erdaraz (LAS-022/040)

Bai neskek eta bai mutilek erdaraz hitz egiten zuten haien artean. Guraso zenbaitek egiten zuten euskaraz, eta baserritarrek ere bai, baina baserritik kalera jaistean, erdaraz.

610. San Pedroak Lasarten (LAS-022/042)

Euskal dantza, aizkolariak, harri-jasotzaileak, berbenak... 12etarako etxera joaten ziren normalean. Okendo plazan lasarten dantza egoten zen. Mutilek dantza egiteagatik ordaindu egin behar izaten zuten.

611. Emakumeak tabernetan sartzen al ziren? (LAS-022/044)

Neskak tabernetan sartzea asko kostatu da herrian. Festetan, adibidez, dantza gaueko 12etarako bukatzen zen, eta tabernara joan ordez, baratzetan lapurtzera joaten ziren entretenimendu gisa.

612. Nobio asko izatea, oso gaizki ikusirik (LAS-022/046)

Neskek askatasun gutxiago zuten mutilek baino. Gordeka ibili behar izaten zuten muxu emateko.

613. Ez zen politikaz hitz egiten (LAS-022/048)

Mertxe gerraostean jaio bazen ere, bazuen osaba bat preso egondakoa. Ez zen haren inguruan hitz egiten, ezta gerraz ere, 'tabu' bat zen.

614. Ama jan gabe gelditzen zen semeek jan zezaten (LAS-022/050)

Mertxek ez du goserik pasa, baina haren bi anaiek bai. Ama jan gabe gelditzen zen anaiari emateko. Babarrunak jaten zituzten egunero, baina igandetan garbantzuak.

615. Etxera bakarrik itzultzeko beldurrik ez (LAS-022/052)

Neskak goizago joaten ziren etxera gauetan mutilak baino, baina beldurrik ez zuten izaten etxerako bueltan. Beste lasaitasun bat zegoen orduan.

616. ATCko langile (LAS-022/053)

Hamasei urterekin ATCn hasi zen, eta hango langile izan zen 14 urtez. Hasiera batean goma mozten hasi zen, ondoren bulegoetan. Maketa bat egin zuen eskuz, hura nagusiak ikusi eta bulegora pasa zuen.

617. ATCn goma mozten (LAS-022/055)

Eskuz egiteko lana zen goma moztekoa. Zati guztiak pisatu egiten zituzten gero. Emakumeak ziren normalean lan hau egiten zutenak. Bi errelebo zituzten.

618. 200 baino langile gehiago ATCn (LAS-022/057)

Langile mordoak egiten zuen ATCn lan. San Alberto egunean (kimikarien eguna) enpresak bazkaria ordaintzen zien langileei. Erreleboka egiten zuten lan goma mozten. Bi errelebo ziren, 4 neska guztira. Zenbait gizonek gauez ere egiten zuten lan.

619. Soldaten igoera eskatzeko greba (LAS-022/058)

Grebak normalean soldata igotzeko eta konbenioa zehazteko egiten zen. Askotan greba egin eta aspertuta egoten ziren zer egin jakin gabe. CCOO eta UGT ziren sindikatu nagusiak

620. Hilerokoa 'tabu' (LAS-022/060)

Ez zen gaiaz hitz egiten hasiera batean, mutilekin gutxiago. Enpresako erizainarengana joaten ziren hilerokoa jaitsi eta zer jarri ez zutenean. Toaila moduko batzuk erabiltzen ziren.

621. Saki-baloiko jokalari I (LAS-022/062)

Enpresek euren arteko futbol lehiaketak antolatu zituzten, ATCk barne. Horrela, Mertxe saski-bakoi taldean sartu zen beste hainbat neskekin batera. Eskola nazionalean bertan egiten zuten entrenamendua.

622. Saki-baloiko jokalari II (LAS-022/063)

ATC enpresa ordezkatzen zuen saski-baloi taldeak. Entrenatzaile eta guzti zuten, bekokerra zena. Gipuzkoako txapeldunak izatera iritsi ziren.

623. Botoi tailer mordoa Lasarten (LAS-022/065)

Mertxek gogoan du txikia zenean botoi tailer mordoa zegoela Lasarten. Lantegien aldetik, Michelin, Luzuriaga eta Abrasivas.

624. Zer da euskara zuretzat? (LAS-022/067)

Erdaraz egiteko ohitura alde batera utzi eta euskarari eutsi dio Mertxek berriro. Oso garrantzitsua da orain euskara beretzat.

625. Baserriak asko lagundu zien gerra denboran (LAS-023/003)

Guraso biak baserritarrak izateak asko lagundu zien gerra ondorenean, sagarrak eta etxeko gaiak jan zitzaketen eta. Kaletarrek gose handia pasa zuten.

626. 15 urteak arte baserrian (LAS-023/005)

Txiki-txikitatik baserrian denbora asko pasa zuen Juantxok. Bertan egon zen 15 urte bete zituen arte.

627. Gerraostean gogoan du (LAS-023/007)

Gerraostea gogoan du, batez ere eskolako lehenengo eguna. Eskolaurrea bukatu eta eskola nazionaletara joan zen Juantxo. Maisuak falangistak ziren eta 'Cara al Sol' abestera behartzen zituzten.

628. Kalea erabat erdaldunduta (LAS-023/008)

Lasarteko kalea oso erdalduna zen, ez zuten euskararekiko harreman afektiborik. Lasarte liberalagoa izan da inguruko herriekin alderatuta.

629. Lasarte liberalagoa (LAS-023/010)

Hipodromoa Lehenengo Mundu Gerraren ondoren eraiki zen. Aberats asko erakarri zituen honek Lasartera. Auto-lasterketak ere egiten ziren. Europarekin hartu-emanak izan zituen herriak bi hauei esker, eta liberalagoa izan da.

630. Herrian 'caddie' mordoa (LAS-023/012)

Kanpoko jende asko joaten zen herrira Hipodromoaren eta Golf zelaiaren aitzakiarekin. Mutiko asko caddie lanetan aritzen ziren txanpon batzuk irabazteko. Liberalagoa egin zuen horrek herria, eta hortaz, erdaldunagoa.

631. Politikoki esnatzea (LAS-023/014)

20 bat urte bete zituenean Juantxo mundu sozio-politikoan sartu zen. 68-80 bitartean oso aktiboa izan zen arlo horretan. Mendizale elkarte bat berpiztu eta ikastolaren sorreran parte-hartu zuen.

632. Lasarteko ikastolaren sortzaile (LAS-023/016)

Mendizale elkarte bat sortu zen eta hor bildu ziren gurasoak izan ziren ondoren sortuko zen ikastolaren bultzatzaile, tartean, Juantxo. Liskarrak ekarri zituen honek herrira, ideologia politiko ezberdinen artean.

633. Astelehenero Caceresetik autobusa (LAS-023/017)

Lasarte-Oria udalerriaren (eta udaletxearen) aldeko borrokan sartu zen Juantxo. Umea zela, 40ko hamarkadan, 1500 biztanle zituen, baina 50-60. hamarkadan asko handitu zen. Caceresko jende mordoa etorri zen.

634. Lasarte-Oriaren sorrera auzolanean (LAS-023/019)

Errepublika garaian Lasarte herria sortzeko saiakera bat egon zen, baina arrakastarik gabe. Juantxo herrigintzan hasi eta astero biltzen ziren udaletxearen oinarriak zehazteko. Inongo dirurik gabe, dena debalde egin zuten. Franco hil eta alderdiak sortzen hasi zirenean, Juantxo mugimendutik irten zen.

635. Andereino falta izugarria (LAS-023/021)

Ikastolaren sorrerarako bilerak Urretxun egiten zituzten. Lehenengo andereinoak gipuzkoarrak ziren. Dozena erdi bat andereino zegoen orduan, denak gipuzkoarrak. Joxe Lasari esker, La Salleko eskolak 'magisterio eclesiastiko' ematea lortu zuten.

636. Seminarioko ikasleak maisu (LAS-023/023)

Joxe Lasari esker seminarioko ikasleak ikastoletako maisu lanetan jartzen hasi ziren, magisteritza ikasketak oso urriak baitziren orduan. Joxe Lasa bera lehenengo maisua izan zen Elgoibarren.

637. Eskola nazionaletan euskara sartzen (LAS-023/024)

Ikastolen mugimendua eta sorrera garaten ari zela, euskara ikastolara muga ez zedin, eskola nazionaletan ere euskara sartzen hasi ziren. Hezkuntzako delegazioarekin bideratu zuten hori. Gurasko asko horren alde jarri ziren.

638. Sunbillara maistra bila (LAS-023/026)

Sunbillako parrokoa sozialki famatua zen, eta harengana jo zuten ikastolarako andereino bila. Hark magisteritza ikasitako emakumeen kontaktua eman zien, baina oso atzerakoiak ziren eta ez ezer egitea erabaki zuten.

639. Lasarteko lehenengo ikastola: pisu batean (LAS-023/028)

Etxe karratu bat bazen lasarteko irteera ondoan. Hango pisu batean ireki zuten lehenengo ikastola, Recondotarren laguntzaz. Mendizabal andereinoa hasi zen bertan, Elbira Zipitriarekin ikasitakoa.

640. Ikastolarako pisua debalde (LAS-023/029)

Lasarteko ikastolarako etxe bat aukeratu zuten, pisu batean jarriko zuten. Luzuriaga Pasaiako fabrikara joandako familia baten etxea erabili zuten. Luzuriagatar batekin eta banketxeekin elkartu eta pisua debalde lortu zuten.

641. Ikastolan 40 ume (LAS-023/031)

Arantxa Mendizabal izan zen lehenengo andereinoa. 40 ume izan zituzten lehenengo urtean. Akademikoki ikastolaren balioa zalantzan jarri zuten batzuek.

642. Ikastolaren sorrera PNVk bereganatu (LAS-023/033)

Santa Barbara mendi taldea izan zen ikastolaren sorrera bultzatu zuena. Taldeko kide batzuk EAJn sartu eta ikastolaren mugimendua haien esku gelditu zen.

643. Ikastolak jende asko bereganatu zuen (LAS-023/035)

Arantxa Mendizabalek berak sortzen zuen materiala gero ikasleekin erabiltzeko. Lehenengo ikasturtetik beretik jendea bereganatu zuen.

644. Ikastolako irakasleentzat etxea (LAS-023/037)

Oso neska gutxi zeuden maistra lanetan aritzeko. 'Laguntzaile' lanpostua sortu zuten aurreskolarako. Etxe bat eskaini zitzaien ikastolako irakasleei.

645. Aizarnako bi neska ikastolako langile lanetan (LAS-023/039)

Atxaga apaizak Aizarnako bi nesken kontaktua pasa zien, ikastolan lagun zezaten. Joxean Artzerekin batera joan zen Donibane Lohitzunera, haiek ezagutzera.

646. Lasarteko ikastolan Zipitriaren metodologia (LAS-023/041)

Gogoan du Juantxok behin ikuskaria joan zela ikastolara. Arantxa Mendizabalek oso ospe ona lortu zuen denbora guxian. Elbira Zipitriaren metodologia erabiltzen zuen.

647. Lasarte-Oria izena, nondik? (LAS-023/045)

Gehienbat Lasarteko jendeak osatzen zuen Lasarte-Oria, baina Oria auzoa alde batera ez uzteagatik biak batzea pentsatu zuten.

648. Paperak egiteko sufritu egiten zuten batzuek (LAS-023/047)

Lasarte 5 udaletan banatuta egotean, paperak egiteko, administrazioarekin kontaktua izateko... zailtasun handiak izaten zituzten.

649. Herria sortzearen alde debalde lanean (LAS-023/049)

Auzolanean egin zuten guztia, abokatuek eta arkitektuek debalde egiten zuten lan.

650. Brunetek langileei egindako etxeak (LAS-023/050)

Brunet enpresak Orian fabrika jarri eta langileentzat etxeak eraiki zituen.

651. Lasarten Michelinek eta Luzuriagak agintzen zuten (LAS-023/052)

Lasarte industrializatuta zegoen oso, baina industria nagusiak Michelin eta Luzuriaga ziren. Michelin Lasarte eta Usuribilen artean zegoen.

652. Baserritar asko industrian lanean (LAS-023/053)

Baserritar asko industrian lanean hasi zen, baina baserriko lana utzi gabe. Gaizki ikusirik egon dira baserritarrak, lantegian greba zenean baserrian lan egiten zutelako. Michelinek sekula ez zuen amore ematen greben aurrean.

653. Lasarten lur-jabeek agintzen zuten (LAS-023/055)

Tejada izeneko lur-jabea zen Lasarten nagusi. Komentuak ez zuen indar handirik herrian. Lasartek ez du alde zaharrik.

654. Soldata baxuak Orian (LAS-023/057)

Oriatarrek euren izaera oso errotuta zuten, lasartearrengandik bereiztuta zeuden. Oso soldata baxuak ziren han. Errepublka garaian denak gorriak ziren han, eta nazionalista bakarra. Lasartek kategoria gehiago zuen. Belaunaldi batetik aurrera Lasarteko industrian hasi ziren lanean, eta hustu egin zen auzoa. Beranduago kanpotarrak joan ziren bertara.

655. Euskaldunak ez ziren kanpotarrekin nahasten (LAS-023/059)

Bi munduren talka gertatu zen lasartearren eta kanpotik lanera etorritakoen artean, ez ziren nahasten.

656. Kaleko jende asko baserritik jaitsitakoa (LAS-023/061)

Kaletarren eta baserritarren artean ez zegoen alde handirik, izan ere, baserritar asko kalera jaitsi ziren. Diru gehiago zuten familiak ere bazeuden, erdi burgesak, tartean Mercero eta Galardi.

657. Gerraosteko gosea (LAS-023/063)

Juantxok gogoan du gerraosteko gosea. Babarruna jaten zen batez ere, eta baserriko fruituak. Hala ere, baserrietan jende asko bizi zen eta ez zen denentzat iristen.

658. Olioak astebeteko jornala balio zuen (LAS-023/065)

Gogoan du ogia mamiaren erdian fermetatzen zela eta mikatz mikatza zegoela. Komentuan kontrabajandoa egiten zen. Olioa gogorra saltzen zen.

659. Kontrabandoa herriko komentuan (LAS-023/067)

Gaztañaga delako batek monjen komentua erabiltzen zuen gerraostean kontrabandorako.

660. Bi osaba gerran hilak (LAS-023/070)

Amaren anaia eta aitaren anaia biak hil zituzten soldadu zeudela. Ezjakintasun handia zegoen gizartean, baita soldaduen artean ere.

661. Saretxoko harriaren historia (LAS-023/072)

Guardia Zibilek artzainari ardiak lapurtu eta artzaina hil zuteneko istorioa.

662. Ikasle izatetik irakasteaz bizitzera (LAS-024/004)

Zazpi urterekin eskolan hasi zen, baina lehenagotik zekien Maria Luisak irakurtzen, izebak irakatsita. Maistrak ez zekien euskaraz. 10 urterekin esnea banatzera joaten zen Donostiara. 14 urterekin josten ikastera joan zen. Irakasle titulua atera eta akademia ireki zuen.

663. Goiegi erretegia (LAS-024/005)

Josten ikasteko akademia ireki zuen Maria Luisak. Urte batzuetara amak merendero modukoa ireki zuen Goiegin bertan, ondoren Goiegi erretegia izango zena.

664. Goiegi Hernanin zegoen kokatuta (LAS-024/006)

Lasarte-Oria udalerria sortu baino lehen, Hernaniri zegokion lurzoruan zegoen Goiegi kokatuta. Lasarteko alkatea askotan joaten zen erretegira bazkaltzera, eta herrira jaisteko bidea konpontzeko eskatzen zioten beti.

665. Goiegi erretegi arrakastatsua (LAS-024/007)

Erretegi arrakastatsua zen Goiegi. Donostiako langile mordoa gerturatzen zen bertara bazkaltzera. Amari betidanik lagundu zion sukaldean. 17 urte eman zituen erretegian lanean. Erretegia baino lehen sagardotegia zuten aitona-amonek.

666. Aita gaixotuta hil zen (LAS-024/008)

Ama oso gazte alargundu zen, aitak 50 urte zituela. Gaixotuta hil zen bera. Maria Luisak 20 urte zituen, seniderik txikienak 8.

667. Ikasketak eskolan eta kalean (LAS-024/010)

Eskolara ahal zuenean joaten zen, 14 urteak arte goizez eta ahal zenean arratsaldez joaten zen. Esnea saltzera joaten zen Donostiara, eta asko ikasi zuen lan hartan. Baserriko lanetan laguntzeko apopilo egoten zen beti baten bat.

668. Alaba zaharrena izanagatik, umezain (LAS-024/012)

Alaba zaharrena da Maria Luisa, eta anai-arrebak zaintzea egokitu zaio. Umetako lanak.

669. Donostian ibiltzeko arazorik ez (LAS-024/014)

Esnea Donostian banatzen zuenez, arazorik gabe ibiltzen zen han Maria Luisa, bakar-bakarrik gainera. Behin ahizpa trolebusak harrapatu eta hura bisitatzera ere bakarrik joan zen.

670. Bakarrik esnea saltzen (LAS-024/016)

Besoak nekatzen zitzaizkion marmita eramatean, eta amak karro txiki bat erosi zion. Gero, denborarekin, saskia buruan eramaten zuen. Etxez etxe ibiltzen zen banatzen. Hartzaileek egin zizkioten opariak bere Jaunartzean.

671. Donostiako bezeroen opariak (LAS-024/017)

Donostiako bezeroek propina eta oparitxoak egiten zizkioten. Behin beroki bat oparitu zioten.

672. 7 urteko ahizpa trolebusak harrapatu zuen (LAS-024/018)

Ahizpak 7 urte zituela, trolebusak harrapatu eta hanka galdu zuen. Ez zuen konortea galdu, eta kobradoreari ea sacamantecas zen galdetu zion, beldurrez.

673. Ahizparentzat odola emateko deialdia (LAS-024/020)

Deialdi bat egin zuten ahizparentzat odola lortzeko. Bizitza normala egin zuen gero ahizpak. Ahizparena ez zen istripu bakarra izan herrian.

674. Donostian etxe batzuetan bi igogailu (LAS-024/022)

Esnea saltzen aritzen zenean, Donostiako hainbat etxek igogailua zuten. Batzuetan, gainera, bi igogailu egoten ziren, zerbitzarientzat eta han bizi zirenentzat.

675. Kale nagusia eta geltokia mugarri (LAS-024/023)

Lasarten kale nagusia eta geltokia ziren mugarri, oso txikia zen. 17 urte zituenean hasi zen herria handitzen.

676. Goiegik bere ur depositoa (LAS-024/024)

Lasarteko jauntxo bati esker ura jarri zuten Goiegin bertan, deposito pribatua eraikiz.

677. Labaderoan arropa garbitzen (LAS-024/025)

Arropa labaderoan garbitzen zuten. Goiegikoak ez zirenek debekaturik zuten arropa bertan garbitzea.

678. Lan guztiak emakumeenak (LAS-024/026)

Arropa garbitzea emakumeen lana izaten zen. Lan gehiena emakumeak egiten zuen.

679. Aita Michelingo langile (LAS-024/028)

Produkzioan egiten zuen lan aitak, eta arropa arruntarekin joaten zen bertara. Michelinen arropa garbitzeaz arduratzen zen emakume bat zen, Nicolasa.

680. Michelingo lehenengo emakumea (LAS-024/029)

Emakume askok egiten zuten lan Michelinen. Lehenengo emakumea Irungoa zen.

681. Lasartearrak industriako langile (LAS-024/030)

Beti zegoen familian baten bat industriako (edo Michelingo) langilea zena. Gainera, garai batean, Michelnek departamentu gehiago zituen. Botoigile asko zegoen.

682. Golfean dirua ateratzen zuten askok (LAS-024/031)

Senarrak caddie moduan egiten zuen lan, eta alabaren Jaunartzea horrela ordaindu zuten.

683. Luzuriagakoa lan txarragoa (LAS-024/033)

Maria Luisaren senarrak Abrasivasen eta Michelinen egiten zuen lan. Luzuriagan, esaten zutenez, lana gogorragoa zen. Lan-istripuak.

684. Goiegi erre zenekoa (LAS-024/034)

Urria zen, haizea bortitz zebilen eta sua hartu zuen baserriak. Ahizpa deika eta deika zuen, leihoa zabaldu eta sutea ikusi zuen Maria Luisak. Umea jaitsi eta gero berriro sartu zen ezkontza baterako josi zuen soinekoaren bila. Herriko kanpaiak jo zituzten abisua emateko.

685. Josten ikastera Donostiako akademiara (LAS-024/036)

Etxean eta izebarenean ikasi zuen sukaldean. Donostiako akademia batean ikasi zuen, gero irakasle titulua atera zuen.

686. Irakasleak laguntzaile gisa nahi zuen (LAS-024/038)

Josten ikasten zuen akademiako irakasleak haren laguntzailea izateko proposatu zion, baina horretarako nobioa utzi behar zuela, horrela Parisera joango zirela biak. Maria Luisak ezetz esan zion, eta bere akademia ireki zuen gero.

687. Josteko akademia sortzeko ideia (LAS-024/040)

Aita hil zenean, diru gehiago irabaztera aldera ahizpa fabrikan lanean hasi zen. Maria Luisari asko gustatzen zitzaion jostea, eta akademia zabaltzea erabaki zuen. Harrera ona izan zuen herrian.

688. Ikuilua jantoki bilakatu zuten (LAS-024/042)

Goiegi erre zitzaienean, kaleko etxe batean hasi zen irakasten. 2. alaba jaio zenean lana utzi zuen. Aita bizirik zen bitartean sagardotegia izaten zen, sagardo denboraldian. Amak merendero gisako zerbait ireki zuen bertan, eta han laguntzen zioten ahizpek. Denborarekin ikuilua jantoki bihurtu eta erretegia jaio zen.

689. Jaunartzearen ospakizunean, butanoa izorratu (LAS-024/044)

Butanoa gaizki jarri eta erretegia su iturririk gabe gelditu zen, Jaunartze bat ospatu behar zuten egunean. Maria Luisak eman zien gonbidatuei arazoaren berri, eta segituan konpondu zuten. Garai batean konfiantza gehiago zuten.

690. Sasoeta Haundi baserria (LAS-026/002)

Recondo, Otaegi eta Zuaznabartarrak bizi ziren baserri hartan. Erre egin omen zen baserria. Ixabelen amona ezkondu zen bertara. Ama Andoaingo baserritarra zen.

691. Aitona gurditik erori eta hil (LAS-026/003)

Baserrian familiako dezente bizi ziren. Gurdia kargatzen ari zela, aitona erori eta bizkarrezurra hautsi zuen. Donostiatik etorri zen autoan mediku espezialista.

692. Arrautza eta baratxuri zopa gosaltzeko (LAS-026/005)

Morroi bat baino gehiago izan zuten baserrian, batzuek fabrikako lana baserriko lanarekin uztartzen zuten. Amari etxeko lanetan laguntzeko neskame bat ere bazuten. Gosaltzeko baratxuri zopa jaten zuten.

693. Eskolara joan aurretik, harategira (LAS-026/007)

Behiak jaitsi baino lehen kafa egiten zuten gosaltzeko. Amak esnea Donostiara eramaten zuen, eta eskolara joan baino lehenago harategira joaten zen Ixabel. Zopa, babarruna eta haragia jaten zuten. Amak Donostiatik ekartzen zuen arraina.

694. Arrain-saltzaileak Lasarten (LAS-026/008)

Arraina buruan joaten ziren Lasartera arrain-saltzaileak. "Antxoa antxoe, mas grandes que el tiburon!" oihuka. Joxepa zen Lasarteko arrantzalea, bikarioaren etxeko leihoan egoten zen bera.

695. Ama saskia buruan (LAS-026/009)

Ixabelen amak ere eramaten zuen burutia. Marmitak eta txerrijana buru gainean eramaten zuen. Autobusa hartzean, kobradoreak laguntzen zion amari saskia buru gainean jartzen.

696. Esne-hartzaileek arropa opari (LAS-026/010)

Ixabelen amak esne-hartzaileak zituen, eta etxez etxe banatzen zuen. Sobratutakoa San Martinen saltzen zuen, tratuarekin batera. Esne-hartzaileek arropa oparitzen zioten Ixabeli.

697. Zaborrik ez zuten sortzen (LAS-026/011)

Txerrijana deitzen zitzaion hondakin organikoari. Oiloentzako, txakurrentzako eta ganaduarentzako zen txerrijana bereizten zuten.

698. Hezur-muina jaten zuten (LAS-026/013)

Ogiaz lagunduta jaten zuten hezur-muina. Gaur egun txarra dela esaten badute ere, garai hartan, gerraostean, jatekorik ez zen soberan. Amonak arto-ogia egiten zuen.

699. Estraperloa trenean (LAS-026/014)

Trena baserri ondotik pasatzen zen, eta Ixabelek nola jakin ez arren, morroia eta aita agertzen ziren handik ogi-irinarekin.

700. Amak umea galdu (LAS-026/016)

'Maria partera' zen emagina, amari ume guztiekin lagundu ziona. Gogoan du behin emagina etxera joan izana, enema eskuan. Ama ohean zegoen. Ixabelek ez zuen ezer galdetu, eta beranduago konturatu da ziurrenik amak haurra galdu zuela.

701. Ez zen sexuaz hitz egiten (LAS-026/017)

Lehengusuak eta anaiak esan zioten umeak nondik datozen. Umeak Paristik zetozela esaten zen.

702. Baserritik bizi ziren (LAS-026/019)

Baserritik bizi zen familia. Baratzeko lan asko egiten zuten, eta tratua handia zenean, familiakoei ematen zieten, baita Nogues dendan saldu ere.

703. Tabakoa saltzen zioten Tabakalerari (LAS-026/020)

Garirik ez zuten baratzean, baina bai tabakoa. Hau bildu eta lehortzean, paketeak egin eta Donostiako Tabakalerari saltzen zioten.

704. Aita eta osaba txalapartariak (LAS-026/022)

Ixabelen aita eta haren anaia txalapartariak ziren. Toki batetik bestera abisua emateko erabiltzen zuten txalaparta batik bat, sagar-biltzea bukatu zutela komunikatzeko.

705. Irratia erosi zutenekoa (LAS-026/023)

Telefonorik ez zuten hasieran, oso jende gutxik zuen. Lehenengo irratia erosi zutenekoa gogoan du Ixabelek, aita haserretu egin baitzen, dena gaztelaniaz zelako.

706. Etxetik kanpora, dena erdaraz (LAS-026/024)

Ixabel eta haren bi anaiek dena erdaraz egiten zutela eta, aita asko haserretzen zen.

707. "Diego Valor el piloto del futuro" (LAS-026/026)

Irratia erosi eta Diego Valorren teleisala entzuten zuten egunero. Behin aita harrapatu zuten ate atzean entzuten.

708. Umetako lanak, denetatik pixka bat (LAS-026/028)

Enkarguez eta etxearen garbiketaz arduratzen zen Ixabel umea zenean.

709. Zer gogoratzen duzu gerraz? (LAS-026/030)

Etxean Oriakoek ihes egin zutela esaten zuten. Batzuk sakabanatu egin ziren, despistatzeko. Gurasoak, adibidez, Antiguora joan ziren bizitzera, euren bila joango ziren beldur. Aitak batzuk belar-meten azpian gordetzen zirela esaten zuen

710. Aita Zeruko Argiako idazle (LAS-026/031)

Aitak Zeruko Argian idazten zuen, eta paperak labean gordetzen zituen, ezkutatuta.

711. Osaba hil zuten (LAS-026/032)

Amaren anaia hil egin zuten gerra denboran, Bar Ihintza zuen, eta Bar España jartzera behartu zuten.

712. Aita apaizarekin haserretzen zen (LAS-026/033)

Oso gutxi hitz egiten zen politikaz etxean. Herriko apaiza etxera joaten zen astero-astero, eta aitarekin haserretzen zen. Aita, haserre, elizara joan gabe egoten zen pare bat astez.

713. Sagardoa Guardia Zibilenzat (LAS-026/034)

Guardia Zibilei sagardoa eramaten zien Ixabelek euria egiten zuenean.

714. Aita apostolua eta bertsozalea (LAS-026/035)

Aita oso bertsozalea zen, eta gurutze-bide bat idatzi zuen bertsotan. Oso sinestuna zen familia. Aita apostolua zen eta hilkutxak eramaten zituen hiletetan.

715. Konfesatu beharra (LAS-026/037)

Askotan joan behar izaten zuten konfesatzera, eta asko sufritzen zuten hori ez baitzekiten zein bekatu aitortu. Gurasoei kasurik ez egitea, zentimoren bat lapurtzea... izan ohi zen aitortutako bekatua.

716. 10 zentimoko erregaliza (LAS-026/039)

Drogerira joan eta erregaliza erosten zuen, eta amak ordainduko zuela agindu.

717. Erregaliza eta txufa (LAS-026/041)

Erregaliza eta txufa jaten zuten gaztetan.

718. Lasarte zinema (LAS-026/043)

Tolosatik gozoak saltzera joaten zen langile bat Lasarteko zinemara. Lakarra zen zinemaren jabea, oriatarra. Piraten pelikulak jartzen zituzten.

719. Sozializazioa Lasarten egiten zuten (LAS-026/045)

20 bat urterekin hasi zen Ixabel Donostiara joaten. Bestela, Lasarten egoten ziren, musika egoten baitzen igandetan. Jolasak.

720. Izeba telefonista (LAS-026/047)

Telefonica Españolan egiten zuen lan, Donostian. Han lan egin aurretik, herriko telefono zentralitan egiten zuen lan.

721. Franco zaldi-lasterketak ikustera (LAS-026/049)

Francok haren etxe berezia zuen Lasarteko Hipodromoan. Jende aberats mordoa joaten zen.

722. Luzuriagako bulegoko emakume bakarra (LAS-026/051)

Luzuriagako langile izan zen, bulegoan. 15 urterekin hasi zen bertan lanean. Emakume langile bakarra zen bulegoan.

723. Luzuriagako elkarrizketa (LAS-026/052)

Asteko jornala kobratzen zen Luzuriagan, sobrean. Hasiera batean, anaia sartu nahi zuten Luzuriagan, baina emakume bat behar zutenez, Ixabel sartu zen.

724. Lehenengo soldataren oroitzapena (LAS-026/054)

Praktiketan aritu zen Ixabel Luzuriagan hiru hilabetez, eta ondoren soldatapean hasi zen lanean.

725. Lan gehiago egin, eta soldata baxuagoa (LAS-026/056)

Luzuriagako grebak ezagutu zituen Ixabelek. Emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen zuten.

726. Osaba lan-istripuz hil (LAS-026/058)

Burdingintzan aritzen zirenez, gogorra zen egin beharreko lana. Osabak lan istripua izan zuen, txatarra labera botatakoan bonbak eztanda egin baitzuen.

727. Venezuelan misiolari (LAS-026/060)

Misiones Diocesanasekin batera Venezuelara joan ziren Ixabel eta senarra. Senarrak Michelinen egiten zuen lan, eta lanpostua gorde zioten.

728. Venezuelako lanak (LAS-026/062)

Senarra eta Ixabel lehen seglarrak ziren, eta Valles del Tuyko beharrak zein ziren identifikatzeaz arduratzen ziren. Euskal Etxekoen laguntzaz egin zuten lana.

729. Ikastola(ra)ko abenturak (LAS-028/002)

Ikastolara joateko bidea abentura handia izaten zen. Realeko jokalariak ikusten zituzten bertatik bertara entrenatzen. Ikastola menditik gertu zegoen eta naturan ibiltzen ziren. Gabonetan eta kurtso bukaeran jaialdia egiten zuten eta aurkezle aritzen zen. Anekdota bat kontatzen du. Ikastolan egunkari bat ateratzen zuten; elkarrizketak egiten zituzten.

730. Etxeko giroa: liburuak eta musika-tresnak (LAS-028/003)

Etxean istorioak entzutea eta kontatzea ohikoa zen. Liburuak eta musika-tresnak izaten zituzten etxean. Berak, musikarako dohainik ez, eta idatzi egiten du. Musika eta literaturaren arteko aldea azaltzen du.

731. Gaztetako diskoak eta lehenengo CDa (LAS-028/004)

Donostiako Xaribari musika-dendan diskoak erosten zituzten lagunek. Kanta bat entzun eta berriz entzutea edo lortzea ez zen klik batekin egiten. Zaila izan arren, xarma handia zeukala dio. Itoizena zen oparitu zioten lehenengo CDa.

732. Istorioak kontatzeko zaletasuna txikitatik (LAS-028/005)

Istorioak kontatzeko zaletasuna izan zuen lehenbizi. Txikitan bakeroak gustatzen zitzaizkion eta haiekin sortzen zituen istorioak.

733. Mariasun Landa, fisikoki ezagutu zuen lehen idazlea (LAS-028/007)

Etxean amak eta aitak istorioak kontatzen zizkieten. Istorioetan bariazioak egiten zituztenean, egonezina sortzen zitzaion. Mariasun Landa aurrez aurre ezagutu zuen lehenengo idazlea izan zen. "Txan fantasma" irakurtzen zuen. Idazleak existitzen zirela konturatu zen.

734. Amari eta aitari ikasiak (LAS-028/008)

Ama irakaslea zen eta ahalegina egiten zuen seme-alabekin ere. Aita aurrezki kutxako langilea izan zen. Idazle bokazioa zeukan; beti idatzi izan du. Biengandik jaso du.

735. Umetan egindako ipuinak (LAS-028/009)

Umetan lagunei edo senideei oparitzeko ipuinak egiten zituen, azalean marrazkia eginda. Nerabezaroan, lehiaketatxoetara bere lanak bidaltzen zituen. Ipurbeltzen bere ipuin bat argitaratu zuten, izenik gabe.

736. Idazlana besteei irakurri zienekoa (LAS-028/010)

Hamalau urterekin Lasartetik Donostiara joan zen bizitzera. Oso aldaketa handia izan zen beretzat. Iritsi eta berehala, gazteleraz idazlan bat egiteko eskatu zioten. Ordukoa kontatzen du.

737. Idazlanak ahozgora irakurtzearen funtzio soziala (LAS-028/011)

Lehiaketak irabazten zituztenean, gelaz gela eramaten zituzten beren lanak irakur zitzaten. Gaizki pasatzen zuen baina abantaila izateko modua topatu zuen. Anekdota kontatzen du.

738. Lehen erreferenteak (LAS-028/012)

Euskaraz Mariasun Landa eta Bernardo Atxaga izan ziren lehenengo erreferenteak. Arantxa Urretabizkaiaren "Saturno" gogoan dauka. Haur literatura askorik ez zuen irakurtzen umetan, helduentzakoa baino.

739. Absurdoarekiko lilura (LAS-028/013)

Eugene Ionescoren absurdoaren teatroak liluratu zuen, "Emakume abeslari burusoila" obrarekin. Absurdotik idazteko izan duen joerari buruzko azalpena ematen du.

740. Pertsonek berezkoa dute istorioak kontatzea (LAS-028/014)

Pertsonek kontatzea berezkoa eta beharrezkoa dugula azaltzen du. Errealitatea bera ezin dela kontatu esaten du. Adibidea jartzen du.

741. Literatura zer den (LAS-028/015)

Beretzat literatura zer den azaltzeko metafora bat erabiltzen du. Idazlearen ofizioak ez dauka ez hasierarik ez bukaerarik ezta mugarik ere.

742. Idazlearen lana, adi egotea (LAS-028/016)

Egunez egun bilatzen du txinparta bat, istorioa idazten lagunduko diona. Bere esanetan, idazle baten lanaren zati garrantzitsuenetako bat adi egotea da.

743. Benetan, dena idatzita zegoen (LAS-028/018)

Urteekin gurasoei eta greziarrei arrazoia ematen bukatzen duzu. Aristotelesek gaur egun kontatzen zen dena kontatu zuela dio. Egiptoko faraoi baten eskribauak idatzi zuena kontatzen du.

744. Literatura, etorkizunaren eta iraganaren zubi (LAS-028/019)

Literaturak bi norakoak ditu: etorkizunekoa kontatzen du eta ondoren, iraganekoa gogorarazten. Segundo bakarraren kontaketa orri askotan luzatu daiteke edo elipsiaren bitartez, urte askoren kontakizuna ez egitea lortu daiteke.

745. Euskal idazle klasikoak ezagutzeko pribilegioa (LAS-028/020)

Euskal literatura anomalia bat dela dio; euskal klasikoen idazleak bizirik egotea ez dela munduan ia inongo hizkuntzatan gertatzen. Pribilegio moduan bizi du; bide urratzaile izateko aukera ematen du. Andu Lertxundik erabilitako metafora bat azaltzen du.

746. "Egunero hasten delako" eta "Ehun metro" nobelei buruz (LAS-028/022)

"Egunero hasten delako" nobela institutu garaian irakurri zuen, eta duela gutxi berrirakurri egin du. Txunditu egin zuen. Hori baino lehen, "Ehun metro" irakurri zuen, hamahiru urterekin. Ez zuen dena ulertu baina ez zen drama bat izan; ez ulertzeak barrua mugitzea ekar dezake.

747. Zehaztasunarekin obsesionatuta (LAS-028/023)

Literatura erraza, arina eta azalekoa ez dira gauza bera. Idazkera erraza lortzea zaila da. Bere obsesioa zehaztasuna da. Urteekin hobetzen saiatzen da. Buruan daukana idazten duena baino hobea izaten dela dio.

748. Ideia bat edukita, noiz hasi idazten? (LAS-028/024)

Ideia bat daukanean, arazoa izaten da noiz hasi idazten; goizegi hasiz gero, istorioa erortzeko arriskua egoten da; beranduegi eginez gero, istorioa buruan bukatuta baldin badago, idazteko motibazioa galtzen du.

749. Idazlearen lanaren parte da ezer ez egitea ere (LAS-028/025)

Batzuetan inspirazioa edo olatua harrapatu eta harritzen duten gauzak idazten ditu. Idazlearen ofizioan, batzuetan agorraldiak izaten dira eta irakurtzeko garaia izaten dela dio. Idazlearen lanaren baitakoa da ezer ez egitea. Idazle baten lanetan ezinezkoa da idazlearen beraren izatea ez agertzea.

750. Idazlea ezin da bere baitatik atera (LAS-028/026)

Bere liburu zaharrak berrirakurtzeak beldurra ematen dio, sentsazioa izaten duelako ideia edo gauza berri hori dagoeneko idatzita daukala. Narratzaile orojakilea asmatu zenean, helburua idazlearen izatetik aparte dagoen narratzailea sortzea izan zen, baina ariketa hori ez dela posible azaltzen du.

751. "Zergatik Panpox"i buruz (LAS-028/028)

Arantxa Urretabizkaiaren "Zergatik Panpox" uda batean irakurri zuela gogoan du. Ikaragarria iruditu zitzaion. Ipuin luze baten modukoa dela dio, eta izenburua oso ona. Ahozkotasunak, etenek, elipsiek... narratzailearen irmotasuna hausten dute. Zinemaren erreferentziak ematen ditu azalpenerako.

752. Idazlea barruak arakatzen (LAS-028/029)

Sentimenduei buruz idaztea abentura bat dela dio. Pentsamendua aldatu egiten da denborarekin eta barruak arakatzea apasionantea iruditzen zaio. Idazleak soziologo eta antropologo lanak egiten dituela azaltzen du.

753. Etorkizunaz gutxi idazten da (LAS-028/030)

Euskal literaturan etorkizunaz gutxi hitz egin dela uste du. Gai hori agertzen ari den sentsazioa du.

754. "Leturiaren egunkari ezkutua" nobelaren existentzialismoa (LAS-028/032)

"Leturiaren egunkari ezkutua" liburuak existentzialismoaren berri eman zion. Txilardegiren iragazkitik irakurri ditu existentzialismoaren idazle nagusiak. Idazleentzat oso deserosoa da mundu guztia idazten aritzea, eragin egiten du ofizioan.

755. "Haur besoetakoa" nobelaz (LAS-028/033)

"Haur besoetakoa" nobela "Lolita"rekin erkatzeak kalte egin diola uste du. Kontatzen du Navokof idazleak bere nobela, "Lolita", irakurleek gaizki interpretatu izanaren atsekabea zeukala. Hitzaurre on bat behar duen liburua dela dio. Miranderen poesiaren zaleagoa da.

756. "Elsa Scheelen" eta "Egunero hasten delako",europar kutsuko nobela modernoak (LAS-028/034)

"Elsa Scheelen" eta "Egunero hasten delako" liburuak literatura modernoa ziren. Garaiko kezketan oso txertatuak dauden protagonista kultuak dituzte. Kutsu oso europarra dute.

757. Literaturak emakumeei emandako tratu txarraz (LAS-028/035)

"Elsa Scheelen" eta "Egunero hasten delako" liburuetan protagonistak emakumeak dira eta oso bukaera tragikoa dute. Literaturak, oro har, emakumeei eman dien tratu txarraz hitz egiten du.

758. Joxean Artzeren performatibitatea (LAS-028/036)

Gabriel Arestiren "Harri eta herri" eta Joxean Artzeren "Isturitzetik Tolosan barru" zoragarriak direla dio; azken hau, performatibitatearen aldarria dela. Pott bandak irakurraldiak egiten zituelako hasi zen bera irakurraldiak egiten. Joxean Artzek hitzekin eta estetikarekin daukan ikuspuntu jolastia ordainezina dela uste du. Azken urteetan literatura intelektualizatu egin dela iruditzen zaio.

759. Aresti, Oskorriren bidez (LAS-028/037)

Aresti Oskorriren bidez ezagutu zuen, eta gainera kanta umoretsuenetatik abiatuta. Oskorrik abesten dituen himnoak aspaldikoak zirela uste zuen. Arestik tradizio bat asmatu zuen, jendarteak behar zuen momentuan. Arestiren lana ere performatiboa izan da.

760. Euskarazko literatur lanak: ugaritasunean galtzeko arriskua (LAS-028/038)

Garai hartan lan gutxi kaleratzen ziren eta irakurleek denak irakurtzen zituzten. Gaur egun, arriskua dago ugaritasunean lan garrantzitsuak bide bazterrean galtzeko eta imajinario popularrean ez txertatzeko.

761. Abangoardia artistikoa eta euskara batera (LAS-028/039)

Gerra ostean, abangoardia artistikoarekin lotzen zen euskara eta jende asko horregatik gerturatu zen euskarara. Gaur egun hori aldatu egin da.

762. Euskal sortzaileek sortzen duten ekosistema (LAS-028/041)

Antzerkiak egiten zituzten eskolan eta gauzak egiteko modu bat zegoen, 60. hamarkadatik zetorrena. Sarrionandiak esan bezala, literatura txikiek proiektu kolektibo kuttunak sortzen dituztela dio, idazleek zein bestelako sortzaileek elkarrekin ekosistema bat sortzen dutela azaltzen du.

763. Idazleen eta beste sortzaileen arteko harreman emankorra (LAS-028/042)

Elkarlanean eta enkarguei esker, bere kabuz iritsiko ez litzatekeen lekuetara iritsi da. Ez da amesten zuen idazle hegemoniko hura izatera heldu; zorionez, dio. Besteekiko harremanak obsesioak arindu eta hainbat irrika erlatibizatu dizkio. Horrek, euskal gizartearekin eta bere eskalarekin zerikusia daukala dio.

764. Urruzuno bidaia, belaunaldi batentzat gakoa (LAS-028/044)

Urruzuno bidaia bere belaunaldikoentzat oso garrantzitsua izan zen. Ordukoa kontatzen du. Lehiaketek dituzten arriskuez ohartarazten du. Betirako lagunak egin zituen orduan.

765. Lubaki bandaren aldizkaria eta grabaketa (LAS-028/045)

Lubaki banda, elkarrengandik urruti bizi ziren hamalau lagunek osatzen zuten. Kideak aipatzen ditu. "Susa" aldizkaria oinordetzan jaso zuten eta hainbat ale argitaratu zituzten. Altxerrin (Donostian) grabaketa bat egin zuten eta zinten kopiak eskuz egin zituzten.

766. Lubaki bandaren irakurraldiak (LAS-028/046)

Joxerra Gartzia zen Euskal Idazleen elkarteko zuzendaria; harrera ona egin zien. Aldizkariaz eta maketaz aparte, irakurraldiak egin zituzten, eta oso ongi pasatzeaz gain, asko ikasi zutela dio. Hainbat kide aipatzen ditu. Azken emanaldia kontatzen du, Xabier Lete eta Lurdes Iriondo ikusle izan zituztena.

767. "Henry Bengoa inventarium" miresten zuten (LAS-028/047)

Lubaki banda Pott bandaren klona zela dio. "Henry Bengoa inventarium" miretsi egiten zuten, zuzenean ikusi ez zuten arren. Irakurraldia zelakoa zen kontatzen du.

768. "Etiopia"k ildo bat markatu zien (LAS-028/048)

"Etiopia" oso liburu jostaria eta hipermodernoa zen. Gauza asko ez zituzten ulertzen, agorrezina zen. Ildo bat markatu zien.

769. "Susa" aldizkaria (LAS-028/049)

Gorka Arresek horizontea zabaldu zien. Susako aldizkari guztiak eskura izan zituzten. Argiarekin batera zegoen orduan Susa.

770. Lubaki banda eta "Susa" aldizkaria (LAS-028/050)

"Susa" aldizkarian, hiru ale atera zituzten. Lubaki banda izena zergatik aukeratu zuten azaltzen du. Lehenengo manifestua kaleratu zuten. Lehenengo alearen berri ematen du.

771. Lubaki banda eta "Susa" aldizkaria II (LAS-028/051)

"Susa" aldizkariko beraien bigarren eta hirugarren aleez hitz egiten du.

772. Zuzenbidea unibertsitatean (LAS-029/001)

Unibertsitatetik pasatu behar zuela sentitu zuen, eta zuzenbidea aukeratu. Lehenbailehen gainditu eta alde egin nahi izan zuen. Zuzenbidea baino beste aukera batzuk nahiago zituen baina desanimatu egin zuten.

773. "Kea behe-lainopean bezala", lehen liburua (LAS-029/002)

Xabier Aldaik argitaratu zuen lehenengo poemarioa, "Bala zeru urdina" eta bigarrena berea izan zen, "Kea behe-lainopean bezala". Lehenengo liburua berezia izaten da.

774. Bere belaunaldiko idazleak eta aurrekoak (LAS-029/003)

Liburua argitaratzea nahiko erraza izan zen. Zainduta sentitu ziren orduko idazle gazteak. Aurreko belaunaldikoak kazetariak dira, idazleak izateaz gain. Bere adinekoen artean, kazetarien kupoa bete xamarrik zegoenez, aukera izan zuten arlo literarioan zentratzeko. Pako Aristi aipatzen du.

775. Euskarazko klasikoak eta itzulitakoak (LAS-029/004)

Andu Lertxundiren lanak aipatzen ditu. "Otto Pette" klasiko bat dela dio; hizkuntz-tradizio bat asmatu zuela iruditzen zaio. Klasikorik ez dagoenez euskal literaturan, asmatu egin dute. Euskal literaturaren abantailetako bat dela azaltzen du. Itzulpengintzaren garrantziaz hitz egiten du.

776. Bernardo Atxagaren "Ziutateaz" lanari buruz (LAS-029/005)

Bernardo Atxagaren "Ziutateaz" lanari buruz hitz egiten du. Liburu iluna iruditzen zaio, eta Atxagak gero erabili ez duen idazkera darabilela azaltzen du. Atxagaren belaunaldikoek hiztegi literario propioa sortu zutela azaltzen du.

777. Bernardo Atxagaren "Obabakoak" lanak liluratuta (LAS-029/007)

"Obabakoak" liburuak zabalkunde globala izan zuen. Fenomeno bat suposatu zuen. Liburu horrek errepikatu ezinezko lilura eragin zion. Euskara azterketarako laburpena egin zuen eta lizeoko kideek baliatu zuten. Anekdota kontatzen du.

778. Benardo Atxagaren "Obabakoak" berrirakurtzen (LAS-029/008)

"Obabakoak" berrirakurri izan duenean, orokorrean, oharkabean pasa zitzaizkionak ari zaizkio gehiago gustatzen. Liburu biribila dela dio. "Soinujolearen semea" liburuko pertsonai bati buruz hitz egiten du, Bilboko japoniarraz.

779. Joseba Sarrionandiaren mitoa (LAS-029/009)

Joseba Sarrionandia mito bat izan da; gizarteak bazeukan epika eta mito premia. "Hau da nire ondasun guztia" liburuarekin bere ahotsa entzun zuten lehenengo aldiz eta harrituta geratu ziren.

780. Sarrionandiaren "Narrazioak" lanaz (LAS-029/010)

Sarrionandiaren "Narrazioak" ipuin-liburua oso literarioa zen. Ipuin ortodoxoak ziren baina euskaraz inork egin ez zituen gauzak egiten zituzten Sarrionandiaren belaunaldikoek.

781. Itxaro Bordarekin deskubritutakoak (LAS-029/011)

Itxaro Bordaren "Bestaldean" irakurri zuenean, ordura arte irakurri gabeko zerbait iruditu zitzaion. Miranderekin batera, "Hertzainak"ekin lotzen du. Iparraldekoek ahoz gora irakurtzeko modu propioa dutela azaltzen du.

782. Ahoz gora irakurtzean zertaz ohartzen zaren (LAS-029/012)

Ahoz gora irakurtzeak koma baten garrantziaz, pausarenaz, idatzi duzunak zentzua duen, hunkitzen zaituen... konturatzen laguntzen du. Norbere arnasaren muga ezagutzeko ere balio du.

783. "Radiografiak" eta "Bizkarrean tatuaturiko mapak" liburuei buruz (LAS-029/013)

Hiru urtean hiru liburu kaleratu zituen, hiru argitaletxe desberdinetan. 1993an "Goizean behin" irratiko magazinean kolaboratzen hasi zen astero. Ordukoa kontatzen du. "Radiobiografiak" liburuak irratiko kolaborazio haiek biltzen zituen, geroago "Bizkarrean tatuaturiko mapak" bezala. Patrikako bi formatu kaleratu ziren orduan.

784. Tintinen komikiak (LAS-029/014)

Oso Tintin-zalea izan zen. Asko gozatzen zuen. Bi bertute ditu bere ustez: bigarren mailako pertsonaje karismatikoak eta protagonista neutro bat. Komiki asko irakurtzen zituen.

785. "Beluna jazz" nobelan eragin zuten lanak (LAS-029/015)

Julio Cortazar izan zen gehien eragin zion gaztelerazko idazlea. Oso idazkera jostaria eta librea zeukala azaltzen du. "Álguien voló sobre el nido del cuco" filmak, jazzak eta "El invierno en Lisboa" nobelak eragina izan zuten bere lehen nobelan.

786. "Beluna jazz" Estatu Batuetan girotua (LAS-029/016)

"Beluna jazz" nobela Estatu Batuetan girotu zuen, Gaztetxotan ikusitako ikus-entzunezkoetatik jasotakoarekin. Boxeoa zergatik txertatu zuen azaltzen du.

787. Boxeoaren bortxa eta estetika (LAS-029/018)

Boxeoak bortxa dauka, atzeraka eragin dezakeena, baina aldi berean, badauka estetika bat zineman, eta hori gustatzen zaio. Giro oso gogor batean hazitakoentzat, boxeoa lehian aritzeko eta mundura ateratzeko bidea izaten zen. Arau askoko kirola da.

788. Zinemagintzaren erdigunean ez dago hitza (LAS-029/019)

Zinemari eta musikari erreferentzia asko egin izan dizkio. Filmazio bat ikusteak zinemagintzan aritzeko gogoa kendu zion; hitza ez dago zentroan.

789. "Pasaia blues" nobelaz; giroa (LAS-029/020)

"Pasaia blues" nobela interpelaziotik sortu zela dio. Euskal gatazka eta bertako giroa landu zituen; New Yorken idatzi zuen. Nobelaren girotze bereziaz hitz egiten du.

790. "Pasaia blues nobelaz; istorio korapilotsua (LAS-029/021)

"Pasaia blues" nobelatik gustuko duenaz hitz egiten du. Istorio korapilotsua da; irakurlea momenturen batean galtzea ederra dela dio, gero berriz bidea topatzen badu.

791. Ipuina versus nobela (LAS-029/023)

Ipuina bere genero kuttuna da; dena labur egitera behartzen du idazlea. Azaltzen du nobela zergatik kontsumitzen den ipuina baino gehiago.

792. Ipuina versus nobela II (LAS-029/024)

Nobela bat idazteak fisikoki lan handia eskatzen du; obsesiboagoa da, ingeniari batenaren antzekoa. Ipuinean, berriz, intentsitatea handiagoa da.

793. Ipuina zer den (LAS-029/025)

Ipuina zer den esplikatzeko, amonak kontatzen zion gerra garaiko pasarte bat kontatzen du; eta kontakizun horrek sortzen dizkion galderak.

794. Gezur txikiek istorioak borobildu ditzakete (LAS-029/026)

"Piano gainean gosaltzen" liburuan auto-fikzioa egin zuen, hori zer zen jakin gabe. New Yorketik Egunkarirako astero idazten zuen zutabe bat. Konturatu zen, gezur txiki batekin istorio borobilagoak sortu zitzakeela.

795. Istorioan moldaketak: norbere alde ala istorioaren alde (LAS-029/027)

Norberari buruzko kontuak idazterakoan, batzuetan norbere alde doazen moldaketak egiten dira. Baina beste batzuetan, istorioaren alde egiten dira aldaketak, narrazioaren plazerarengatik.

796. Benetako gertakizunak fikzionatzeko zailtasunak (LAS-029/028)

Naturaltasun osoz onartzen da urrutiko pertsona bati buruzko fikzioa, baina gertuko pertsonei buruzkoa denean, askatasun gutxiago ematen zaio idazleari. Adibidea ematen du, lekukotzekiko fidagarritasuna zalantzazkoa dela azaltzeko. Nobelari mesede egingo lioketen gauzez fidatu izan da.

797. Idazlearen lanabesak, susmoa, espekulazioa eta intuizioa (LAS-029/029)

Idazlearentzat espekulazioa, susmoa, intuizioa dira benetako lanabesak. Epaile edo kazetarienak beste batzuk dira. Hogeita hamar elkarrizketa egin zituen "Fakirraren ahotsa" nobela idazteko, baina berriz egingo balu, nobelista baten funtzioa zein den hasieratik hobeto azalduko liekeela dio.

798. Gertaera erreala fikziora eramateko askatasunaz (LAS-029/030)

Gertaera erreal bat fikziora eramateko askatasuna zenbat denboraren ondoren eskuratu daitekeen gogoeta egiten du.

799. Bukaera zoriontsuak ala tragikoak (LAS-029/031)

Istorioak zoriontsu bukatzen saiatzen da eta horretarako moduak topatzen ditu, baina beti ezin da. Irakurleak "bizitza batzuetan horrela ere bada" esatea bilatzen du.

800. Aholkuak idazle hasiberrientzat (LAS-029/033)

Hutsetik ez da ezer sortzen; sortzaileak lapurrak edo kleptomanoa direla dio. Idazleek besteen lan pusketak hartu eta eraldatu egiten dituzte. Musika entzun, zinema ikusi, liburuak irakurri, denborari bere lana egin dezan utzi, adi egon...

801. Ipuin onaren gakoak (LAS-029/034)

Martxan dagoen istorioa izan behar du, irakurlea engranajean berehala sarrarazten duena. Idazlea denok garela, baina idazlearen ofizioa berridazketa dela azaltzen du.

802. Hezurren azpian gordetakoa kontatzea (LAS-029/035)

Ipuinaren egitura ohikoa, hasiera-korapiloa-bukaera, abiapuntu moduan ondo dagoela dio baina hori egin ondoren, jarraitu egin behar dela dio, beharbada emaitza hobea lortu daitekeelako. Hezurren azpian gordetakoa kontatu behar dela azaltzen du.

803. Landaberri ikastolan, literaturarekin lehen lotura (LAS-030/002)

Landaberri ikastolan ikasitakoa da. Literaturarekin lehenengo lotura hantxe izan zuen eta irakasle oso onak izan zituela dio. Hainbat aipatzen ditu.

804. Liburuak etxean (LAS-030/003)

Batxilergoa euskaraz egin nahi zuenez, Donostiako Santo Tomas lizeora joan zen. Andres Otermin aipatzen du. Etxean liburuak asko baloratzen zituzten. Azkueren hiztegi hirukoitza erosi zion aitak.

805. Filologiako irakasleak (LAS-030/004)

Nerabezaroan asko irakurtzen zuen. Amak bonbilla kentzen zion. Orduan irakurri zituenak aipatzen ditu. Euskal filologia ikasten hasi zen Donostian. Juan Mari Lekuonaren oroitzapen atsegina dauka. Txuma Lasagabaster bere mentore izan da.

806. Filologiako azken bi urteak, Gasteizen (LAS-030/005)

Nerabezaroan hainbat literatur sari irabazi zituen. Literatura aztertzen plazera sentitzen zuen. Gasteizen egin zituen beste bi urte euskal filologia egiten. Irakasleak aipatzen ditu. Klaseetara kale egiten zuten irakurtzeko. Gaur egun irakasle da EHUn.

807. Gerra aurreko literaturaren egoera (LAS-030/007)

Gerra aurreko euskal literaturaren egoera azaltzen du. Alfabetatu gutxi, babesik ez liburuak argitaratzeko, isilkako irakurketa gutxi, idazle profesionalik ez... Helburuei erantzuten zien literatura zen ordukoa.

808. Antzerkiaren eta poesiaren indarra XX. mende hasieran (LAS-030/008)

70. hamarkada arte, euskal antzerkia zen zaletasun handiena zeukana; euskaldun onaren irudia emateko edo mezu abertzaleak zabaltzeko erabiltzen zen. Poesiak bertsolaritzatik edaten zuen XX.mende hasieran; Lizardik, Orixek, Lauaxetak... modernotasuna plasmatu zuten haien lanetan.

809. Poesia modernoa irakurleei nola helarazi (LAS-030/010)

XX.mende hasierako euskal poetek poesia modernoa irakurtzen zuten, gazteleraz zein frantsesez, eta hori euskarara ekartzen saiatu ziren. Loraldia gertatu zen euskal literaturan, baina nola iritsi irakurleengana? Hautatutako euskara arazoa izan zen, euskara trinkoa eta Aranari jarraitzen ziona zelako.

810. Ohiturazko prosa nagusi (LAS-030/011)

XX.mendearen erdialdera arte, ohiturazko prosarekin jarraitzen zuten, gehien bat. Hainbat salbuespen azaltzen ditu.

811. Kultura zentsuratuta (LAS-030/012)

Sistema literarioa oso prekarioa zen. Hegoaldean, euskal kulturak jazarpen izugarria jasan zuen. Zentsura malgutu zenean, euskara landuan zegoenak erabat zentsuratuta jarraitu zuen.

812. Azkueren "Ardi galdua" lana (LAS-030/013)

Euskara estandarraren falta zegoen. Azkueren 1918ko "Ardi galdua" aipatzen du; ingelesaren alde kokatzen da, euskaldunek haien artean euskaraz egin behar dutela dio. Kolpe militarrak dena lehertzen du.

813. Irakurzaletasuna zabaltzea, egunkarien helburu (LAS-030/015)

Egunkarien eta aldizkarien sorrera, eleberriarekin oso lotuta dago; irakurzaletasunaren ohitura garatzen dutelako. Irakurtzea elitearena izan da. Frantziar iraultzak frantses hizkuntza goratu, inposatu eta zabaldu zuen.

814. Gerra ostean, kultura erbestean propaganda politiko moduan (LAS-030/016)

Iparraldean, euskarazko aldizkariak eskuinarekin eta apaizekin lotzen ziren. Hegoaldean, euskal idazleak jazarri egiten zituzten. Torrealdairen lana aipatzen du; gerra osteko lehenengo urteetako egoera azaltzen du. Orduko Jaurlaritzak kultura baliatzen du propaganda politikorako.

815. 50.hamarkadatik aurrera, Jakin eta Anaitasuna, eta lehen autore modernoak (LAS-030/017)

50.hamarkadatik aurrera, Jakin eta Anaitasuna aldizkariak sortzen dira, eta modernizatzen hasten da euskal literatura. Txillardegiren "Leturiaren egunkari ezkutua" lana aipatzen du. Mirande eta Gabriel Aresti, Oteiza, Koldo Mitxelena...

816. Literatura modernoaren ezaugarriak (LAS-030/018)

Literaturaren modernotasunaz eztabaida handiak egon dira. Modernitatearen ezaugarriak: urbanotasuna, hiriak, ni-aren adierazpidea, idazkera forma berriak...

817. Lehen euskal nobela modernoa (LAS-030/019)

Txillardegirena da lehenengo euskal nobela modernoa. Haren ezaugarriak azaltzen ditu. Saizarbitoriaren "Egunero hasten delako" ere modernoa dela azaltzen du.

818. Jon Miranderen "Haur Besoetakoa" lanaz (LAS-030/020)

Jon Miranderen "Haur besoetakoa" elizak zentsuratu zuen. Edukiz modernoa da. Nobelaren ezaugarriak aipatzen ditu.

819. Txillardegiren hasierako nobelak (LAS-030/022)

Txillardegiren "Peru Leartzako" eta "Elsa Scheelen", "Leturiaren egunkari ezkutua" lanaren itzalpean geratu dira. Txillardegi irakasle izan zuen; oso irakurle ona eta apasionatua zela dio.

820. 60ko hamarkada, konpromiso garaia (LAS-030/023)

60ko hamarkada konpromisoaren garaia izan zen, gauzak astindu zituztenen garaia; kantagintza, herrigintza, kulturgintza... nazio eraikuntza berria sortu zen. Txikitatik ezagutu zituen frontoietako kontzertuak. Oso garai gatazkatsua zen. Literaturak konektatu zuen garaiko irakurleekin.

821. Lur argitaletxea mugarri (LAS-030/024)

Lur argitaletxearen hasiera azaltzen du; itzulpenak, zuzenketak, promozioa, datu-basea harpidedunekin... Garaiko Europako literaturarekin bat egin zuten. Argitaletxeko kideek prentsan idazten zuten. Talde dinamika sortu zuten.

822. Arantxa Urretabizkaiaren "Zergatik Panpox?" lanaz (LAS-030/025)

Arantxa Urretabizkaiak eta Amaia Lasak poesia egin zuten lehenbizi. "Zergatik Panpox?" nobela perfektua dela dio. Haren ezaugarriak azaltzen ditu.

823. 70. hamarkada bueltako eleberri soziala eta Hego Amerikako joerak (LAS-030/026)

Gereño, Amuriza, Andu Lertxundi, Irigoien, Mikel Zarate... Eleberri soziala batetik; Hego Amerikako joera zuena bestetik. 70. hamarkadaren bueltakoak izan ziren.

824. Ramon Saizarbitoriaren "Ehun metro" eta "Ene Jesus" lanez (LAS-030/027)

Saizarbitoriaren "Ehun metro" eta "Ene Jesus"; adierazkortasunaren ezinaren krisia irudikatzen du.

825. Literatura esperimentala (LAS-030/028)

Koldo Izagirreren "Zergatik bai" lana, literatura esperimentala da. Ezaugarriak aipatzen ditu. Atxagaren "Ziutateaz" nobelak oso giro beltza erakusten du.

Patri Urkizuren "Sekulorun sekulotan" lana, punturik gabe idatzitako nobela da. Atxagaren "Etiopia" lana poesia liburu bikaina izan zela dio.

826. Literatur aldizkariak plataforma gisa (LAS-030/029)

Aldizkariek sozializazio plataforma moduan funtzionatu zuten: Susa, Maiatz, Oh Euzkadi, Pott... Idazle gazteak trebatzen dira eta kritika egiteko modu bat daukate dagoeneko. Unibertsitatean trebatutakoak agertzen dira garai hartan.

827. Euskal literatur kritika (LAS-030/030)

Euskal literatur kritikak 70.hamarkadan iraultza bizitzen du, Txuma Lasagabasterrek eta Jean Haritxelharrek. Euskal literaturaren harreran eragina izan zuen horrek.

828. Aresti, Mitxelena eta Oteiza gako (LAS-030/032)

Gabriel Aresti, Koldo Mitxelena eta Oteiza 60. hamarkadan gako izan zirela azaltzen du.

829. Gabriel Arestiri buruz eta "Harri eta herri" lanaz (LAS-030/033)

Gabriel Aresti ez zuen ezagutzerik izan. Bere karismaz, eskuzabaltasunaz, aktibismoaz, bere ideologiagatik ordaindu beharreko bakardadeaz eta modernitateaz hitz egiten dute idazleek. "Harri eta herri" lanarekin poesia sozialaren inpaktua, mezua... "best seller" bat izan zela dio.

830. Euskal idazleak eta elebitasuna (LAS-030/034)

Euskal literaturako hainbat kanonetan, idazleek eurek egin zituzten lan beraren euskarazko eta erdarazko edizioak. Ahalegina dago irakurle gehiagorengana iristeko. Deigarria egiten zaio euskal idazleek elebitasuna nola bizi izan duten. "Harri eta herri" elebitan argitaratu zen.

831. Joxean Artzeren "Isturitzetik Tolosan barru" lanaz (LAS-030/036)

Artzeren bilakaera ezagutu zuten. "Isturitzetik Tolosan barru" lanaren ezaugarriak azaltzen ditu. Txalapartarekin joaten zen beraien ikastolara. Ikastolan horiek denak irakurri zituzten. Zumeta joaten zitzaien ikastolara.

832. Poesia sozializatzeko kantak eta ikuskizunak (LAS-030/038)

Diziplinartekotasuna puri-purian zegoen 60.hamarkadan. Poesia sozializatzea, irakurlearengana iristeko modua topatu zuten kantagintzarekin. "Henry Bengoa Inventarium" lanarekin ere poesia espektakulura eraman zuten. Artzeren ikuskizunek eragiten zioten inpaktua azaltzen du. Mugekin jolasten zuten garai hartan.

833. Poesiak eta musikak elkar elikatzen dutenean (LAS-030/040)

Poemak bertsionatuta daude kantuetan. Abeslarien begiradatik jasotzen ditugu poemak. Poesiak eta musikak, batak bestea elikatu izan dute. "Nueva Etiopia" jartzen du adibidetzat.

834. Sortzaileak elkarrizketa etengabean (LAS-030/041)

Laboaren "Lekeitioak", horrorea ezin esan ahal izatea da; Harkaitz Canoren "Twist" aipatzen du modu berean. Literatur lanak irakurketarekin egindako elkarrizketak direla azaltzen du. Sortzaile orok elkar elikatzen dute.

835. Literaturaren autonomiaren garaia (LAS-030/043)

Literatur aldizkariak taldeak dira. "Panpina ustela" garaiko ortodoxia kulturalaren kontra eta modu berriak planteatuz egin zuten. Literaturaren autonomiaren garaia izan zen. "Pott" aldizkaria eta "Oh! Euzkadi" aztertzen ditu.

836. Pott banda eta literaturara ekarritako iraultza (LAS-030/045)

"Pott banda"ko kideak aipatzen ditu. Errotik irauli zuen ipuingintzaren orduko panorama; literatura egiteko beste modu bat ekarri zuen. "Narrazioak" eta "Obabakoak" lanek markatu egin zuten. 80. hamarkada ipuingintzarena eta 90. hamarkada nobelarena izan zirela esan ohi da.

837. 80. hamarkadako ipuin-bilduma bikainak (LAS-030/046)

80. hamarkadan, ipuin liburu bikainak kaleratu zirela dio. Mujika Iraolaren "Azukrea belazeetan", Andu Lertxundiren "Goiko kale"eta ipuingintza...

838. Atxagaren eta Sarrionandiaren bilakaera (LAS-030/047)

"Pott"ek erreferentzia berriak ekarri zituen. Kideek urte gutxian bilakaera izugarria izan zutela azaltzen du. Atxagaren eta Sarrionandiaren bilakaerak kontatzen ditu.

839. Idazleak talde dinamiketan (LAS-030/048)

Taldea oso garrantzitsua zen. Maiatz aldizkaria eta Susa aipatzen ditu. Literatur aldizkarien funtzioaz hitz egiten du, taldearen dinamika bultzatzen zutelako. Aldizkariek literatur kritikari leku egin zioten.

840. Andu Lertxundiren hasierako lanak (LAS-030/050)

Andu Lertxundiren lanak aipatzen ditu. "Aise eman zenidan eskua" eta "Goiko kale". "Hamaseigarrenean, aidanez" lanaren ezaugarriak azaltzen ditu. Zinemara oso ondo eraman zutela uste du.

841. Andu Lertxundiren "Aise eman zenidan eskua" eta "Goiko kale" (LAS-030/051)

Andu Lertxundiren "Aise eman zenidan eskua" eta "Goiko kale" azaltzen ditu. "Ajea du Urturik" aztertu izan du.

842. Inazio Mujika Iraolaren "Azukrea belazeetan" nobelaz (LAS-030/052)

Inazio Mujika Iraolaren "Azukrea belazeetan" lanari buruzko azalpena ematen du.

843. Joan Mari Irigoienen lanez (LAS-030/055)

Joan Mari Irigoienen "Oilarraren promesa" taldean aztertu zuten. "Poliedroaren hostoak" biziki maite zuten, bere esperimentazio formalarengatik. "Babilonia" serie horretatik lortuena iruditu izan zaio. "Udazkenaren balkoitik", benetan txukuna iruditu zitzaion.

844. Joxe Austin Arrietaren "Abuztuaren 15eko bazkalondoa" lanaz (LAS-030/057)

Joxe Austin Arrietaren "Abuztuaren 15eko bazkalondoa" nobelaren ezaugarriak aipatzen ditu.

845. Hasier Etxeberriaren "Mugetan" nobelaz (LAS-030/059)

Hasier Etxeberriaren "Mugetan" nobelaren ezaugarriak aipatzen ditu.

846. Joxe Mari Iturralderen "Dudular" lanaz (LAS-030/060)

Joxe Mari Iturralderen "Dudular" ipuin bilduma aipatzen du.

847. Mariasun Landaren "Txan fantasma" eta beste (LAS-030/061)

Mariasun Landaren literatura azaltzen du. "Txan fantasma" iraultza izan zen.

848. Haur literatura katalanera eta galegora itzulita (LAS-030/062)

Haur literatura hasten da euskal esparrutik ateratzen; itzultzen dute katalanera eta galegora. Irigoien, Urretabizkaia eta Lertxundiren lanak itzuli zituzten.

849. "Obabakoak" lanaren eztanda; itzulpenaren garrantzia (LAS-030/064)

"Obabakoak" eztanda izan zen; sariaren ostean argitaratutako Espainiako kritikek erakutsi zuten euskal literatura ez zutela ezagutzen. Euskal sistema literarioa oso ahula zen; 80etan merkatua sendotu egin zen. Itzulpenak ematen du idaztetik bizitzeko bidea.

850. Itzulpenaren abantailak eta ajeak eztabaidagai (LAS-030/065)

Itzulpenari lotutako elkarrizketa eta eztabaida interesgarriak sortu ziren. Saizarbitoriaren "Aberriaren alde eta kontra" aipatzen du eztabaida horien artean. Autoitzulpena aipatzen du.

851. Mintegi, Arkotxa eta Irastorza (LAS-030/067)

Laura Mintegiren "Bai... baina ez" nobela aipatzen du. Poesian Arkotxa, Tere Irastorza... aipatzen ditu.

852. Emakume idazleak ikusezin (LAS-030/069)

Linda White-k tesia egin zuen 1996an; euskal literaturako obra pila bat aztertu ondoren, harrigarria iruditu zitzaion euskal idazleen artean emakumeak apenas egotea. Ikertu ondoren, konturatu zen askoz gehiago zeudela.

853. Bizenta Mogel, lehenengo emakume idazlea (LAS-030/070)

Bizenta Mogel lehenengo emakume idazlea izan zen. Osabaren itzalagatik ez da ezaguna izan. Bizentarengan hainbat faktorek ahalbide zuten idaztea.

854. Emakume idazle eta abertzaleak (LAS-030/071)

XX.hamarkadaren hasieran eta erbestean, badaude idazten duten emakumeak. Aldizkarietan inizialekin sinatzen zutenen artean, emakumeak egon daitezke; ikertu gabe daude asko. Abertzaletasunaren inguruan hainbat idazle egon ziren: Julene Azpeitia, Tene Mujika, Utarsus, Mayi Ariztia... Lurdes Iriondo ere aipatzen du, geroagokoa.

855. Emakume abertzale idazleak; Katarina Eleizegi (LAS-030/073)

Pello Esnalek 30. hamarkadako emakume idazleei buruzko lana egin zuen Bidegileak bildumarako. Harkaitz Canok Katarina Eleizegik antzerkiari egindako ekarpenaz idatzi du. Hainbat izendatzen ditu berriz.

856. Emakume idazleen lana, ezarritako rolek baldintzatuta (LAS-030/074)

Emakume Abertzale Batzakoek aukera izan zuten elkartzeko, baina rol jakin batzuen gainean. Nerea Arestik aztertu du gaia. Haur literatura kontsideratu izan da hezkuntzarekin lotuago, eta horregatik onartu izan dira emakumeen lanak gehiago.

857. Emakume idazleen ekarpena (LAS-030/075)

Lurdes Iriondoren antzezlanak, Mayi Ariztiaren ipuinak, Amaia Lasaren poemak... 70. hamarkadan kokatzen dira. Genero ikuspuntutik gehiago ikertu beharra dago. Ikertu diren hainbat gai aipatzen ditu. Miner, Meabe, Mintegi... aipatzen ditu.

858. Emakume idazleak ikusarazteko moduak (LAS-030/076)

80. hamarkadaren inguruan idazten zuten emakumeak aipatzen ditu. Kolektibitatearen garrantzia azpimarratzen du, baita monografikoena eta antologiena ere.

859. Arantxa Urretabizkaiaren lanetan, irakurgaien eragina (LAS-030/078)

Emakume idazleen identitateaz hitz egiten du. Arantxa Urretabizkaiak bere irakurgaien eragina izan zuela azaltzen du.

860. Euskal literatur kritika misoginoa (LAS-030/079)

Euskal literatur kritikan emakumezkoen testu batzuek izandako harrera pixka bat basatia izan zela dio, misoginoa; Arantxa Urretabizkaiaren "Saturno" lanari egindakoa, 1987koa, esaterako.

861. Emakume idazleen lana agerikoago, azken mendean (LAS-030/080)

Emakume idazleen lana ez zen bereziki hazi 2000. urtean, baina lotura dauka haien lanak saritu eta errekonozitzearekin.

862. Emakume idazleen hainbat lan funtsezko (LAS-030/081)

Miren Agur Meaberen "azalaren kodea" liburu funtsezkoa dela dio, Landaren "kokodriloa ohe azpian", Arantxa Iturberen ipuingintza, Karmele Jaio, Oñederra, Eider Rodriguez...

863. Errekonozimendua kanpotik datorrenean; "Koaderno gorria" eta "Bihotz handiegia" (LAS-030/082)

Arantxa Urretabizkaiaren "Koaderno gorria" lanak 1998an jasotako kritikak ez dira beste munduko kritika onak, baina hizkuntza askotara itzuli da. Batzuetan errekonozimendua kanpotik lortzen da. Eider Rodriguezen "Bihotz handiegia" lanak ere oihartzuna izan du.

864. Uxue Alberdiren eta Gabiñe Ubedaren hainbat lanez (LAS-030/083)

Uxue Alberdiren "Aulki jokoa" oso ondo idatzita dagoela dio; Garbiñe Ubedaren "Hobe ixilik" aipatzen du. Uxue Alberdiren "Jenisjoplin" oso gauza berria dela dio.

865. Emakume idazleen belaunaldi berria (LAS-030/084)

Garazi Goiaren "Txartel bat deserrira" asko gustatu zitzaion. Gazteen artean oso belaunaldi sendoa dagoela dio.

866. Etzabaida sexistak emakumeen lanen inguruan (LAS-030/086)

Sarriugarteren lanari buruz sortutako eztabaida, autobiografikoa den ala ez, morbosoa izan dela dio. Oñederraren eleberriarekin gauza bera gertatu zen. Mintegiren "Sisifo maiteminez" aipatzen du. Eztabaida hori gaitzesgarria eta sexista dela dio.

867. Emakumeen literatura eta intimitatea eztabaidagai (LAS-030/089)

Miren Agurren "Kristalezko begia" lanean kritikatu zen gehiegizko esposizioa. Derrigorrez emakumeen literatura intimitatetik elikatu behar delako usteaz hitz egiten du.

868. Irati Elorrietaren "Neguko argiak" lanaz (LAS-030/091)

Irati Elorrietaren "Neguko argiak" lanari buruz hitz egiten du.

869. Karmele Jaioren lanaz (LAS-030/093)

Karmele Jaio ipuingile moduan asko gustatzen zaio, eta nobelagintzan ere sendoa dela uste du.

870. Ipuin antologiak (LAS-030/094)

60. hamarkadatik gaur arteko ipuingintzaren antologia batean, Eider Rodriguezen "Bihotz handiegia" sartu egin beharko litzateke. Emakumezkoek idatzitako ipuinen antologiak argitaratu izan dira; Gemma Lasartek apailatutakoa, esaterako.

871. Eusko Langileen Alkartasuna (LAS-031/002)

Eusko Langileen Alkartasunari (ELA) buruz. Kideak. Emakumeak politikan.

872. Sozialistak eta Komunistak Lasarten (LAS-031/003)

Sozialistak "Braulionekoan" zuten egoitza. Komunistak. Internazionala abesten zuten. Manifestazioak.

873. Gudarien buruak (LAS-031/004)

Gudari izandako batzuen izenak: Antonio Arozena, Miguel Urreta diputatua... Felix Alonso ontzigileari buruz. Denbora luzez ezkutuan egon diren koadro batzuei buruz hitz egiten du.

874. Pistolak mendian probatzen (LAS-031/006)

Garai batean borrokaren buru zirenek, dirua jartzen zuten armak lortzeko. Pistolak probatzera joaten ziren mendira. Oriako pertsona batzuk.

875. Gerrako presoak nesken eskolan (LAS-031/007)

Gerra hasi zenean 12 urte zituen. Oriako asko Lasartera joan ziren. Nesken eskola kontzentrazio-esparru bezala erabili zen. Gauetan tiroak entzuten ziren.

876. Don Lorezon Azpiazu, Asteasuko abadea (LAS-031/008)

Gerraostean apaizek egindako lana. Asteasuko apaizak, Don Lorenzo Azpiazuk, gerrako presoak laguntzen zituen.

877. Gerran, Orian oso familia gutxi geratu ziren (LAS-031/009)

Orian oso familia gutxi geratu ziren gerra garaian. Umetan, ihes egindako familiek utzi zituzten txalupetan jolasean eta arrantzan ibiltzen ziren. Zer harrapatzen zuten.

878. Antxoanekoa etxea; bertako familia (LAS-031/012)

"Antxoanekua" non zegoen. Bertako familiari buruz.

879. Oriamendi kanta eta bestelakoak (LAS-031/013)

Karlistak. Oriamendi kanta. Oriako musika-banda. Orian abesten ziren kantu batzuk.

880. Mojak Lasarten (LAS-031/017)

Neska asko moja sartzen ziren. Valladolid-en bi urtez lanean egon zen, Michelinen zegoenean. Mojak parean zeuden; batzuk euskaldunak ziren.

881. Jaunartze eguna gogoratzen (LAS-031/018)

Jaunartzea egin zuenekoa. Lau lagunek elkarrekin egin zuten jaunartzea. Familiako asko bildu ziren bazkaltzeko.

882. Egun berezietako menua (LAS-031/019)

Jaunatzea denek egiten zuten elkarrekin, neskek eta mutilek. Egun berezietako menua: oilo-zopa, garbantzuak, oilaskoa eta arroz-esnea. Budina ere egiten zen. Edateko, sagardoa eta ardoa.

883. Txanpaina hil-zorian zeudenentzat gordetzen zen (LAS-031/020)

Garai batean, txanpaina hil-zorian zeudenentzat gordetzen zen.

884. Medikua, albaitaria...; txertoak (LAS-031/021)

Garai batean Lasarten zeuden medikuak; albaitaria. Txertoak.

885. Eskolako kontuak; gaiztakeriak (LAS-031/022)

Urtero eskolara Hernaniko alkatea joaten zen eta ikasitakoari buruz galdetzen zieten ikasleei. Garbi-garbi joaten ziren egun hortan. Gaiztakeriak.

886. Ganbo iturria eta teila-lantegia (LAS-031/023)

Lasarteko geltoki ingurua nolakoa zen. Teila-lantegia. Ganbo iturria, izenaren jatorria.

887. Kanala eta errekaren saltoa; argindarra (LAS-031/024)

Zumaburu presa. Kanala. Errekak salto egiten zuen eta argindarra ematen zuen herrian.

888. Lasarteko koko-lantegia (LAS-031/025)

Lasarteko koko-lantegiari buruz

889. `Kristo´ eta Zatain-etxeberriko itsuaren pasadizoa (LAS-037/002)

Zatain-etxeberri baserrian itsu bat bizi zen. Behin arto-soinua entzun omen zuen. Norbait lapurretan zebilela konturatuta, ondo hezita zuen txakurra bidali zuen. Bera atzetik joan eta lapur hori harrapatu zuen. "Ez haz hemendik libratuko Kristo bera izanda ere", eta, kasualitatez, `Kristo´ esaten zioten gizona omen zan. Isilik egotearren ogerlekoren bat agindu zion, baina ez zion ematen eta azkenean itsuak kontatu egin zuen lapurretarena.

890. Migel Zuaznabarren inguruko kontuak (LAS-037/004)

Aita, Migel Zuaznabar, Gipuzkoako euskal nekazarien zuzendaritzako kide izan zen eta gerra aurretik hilean behin artikulu bat idazten zuen. Gerra ostean Arantzazu aldizkarian idazten zuen. Gerra sasoian, etxea miatzera joan zirenean, bertso-zaharren bilduma ezkutatu egin zuen izebak. Artzek ikusi zuen bilduma beraien etxean txalaparta jotzen ibili zenean eta hark Xabier Leteri esan. Handik jaso zituen zenbait bertso zahar.

891. Lasarteko `Motza´ bertsolaria (LAS-037/005)

Lasarteko `Motza´ bertsolariaren inguruko kontuak. Bat-batekoan ez zen hain abila. Bertso asko zekizkien buruz eta egindako egiturak erabiltzen zituen. Bukaera ona ematen zion beti bertsoari. Bertso-jarrietan, askotan beste batzuen bertso-jarriei kontra egiteko bertsoak jartzen zituen.

892. San Pedroetako bertso-saioa Lasarten (LAS-037/010)

Garai batean ez zen mikrofonorik eta ahots ona behar bertsotarako. Aitari entzun izan dio garai batean San Pedroetan bertso saioak nola egiten ziren Lasarten: eliza aurrean kupela jartzen zen eta haren gainean aulki batean eserita bertsolari bat eta bestea pareko etxeko leihotik. Lasarteko bertsolariak.

893. Lasartetik Oiarbide eta Etxaide bertsolariak txapelketara (LAS-037/013)

Lasartetik Etxaide eta Oiarbide bertsolariak joan ziren bertsolari txapelketara, baina izatez ez ziren Lasartekoak.

894. `Motza´ren eta Urnietako Alkainen arteko erronka (LAS-037/016)

`Motza´ bertsolaria alturaz txikia baina pisutsua omen zen. Indartsua eta pultsulari ona zen. Behin Urnietako Berretsuetako Alkainek erronka bota zuen, bere adinekorik bazen hari jokatuko ziola eta `Motza´k onartu. Eleuterio Arozena, Josebaren aitona eta beste zenbait joan ziren apustura. Alkainek apustua ez jokatzearren, berriketa erabili zuen esanaz `Motza´ ez zela bere adinekoa. Orduan `Motzak´ hura ez zela Berretsuetakoa "berritsuetakoa" baizik esan zion.

895. Antonio Arozenaren inguruko kontuak (LAS-037/017)

Eleuterio Arozena Antonio Arozena Gomendio idazlearen aita zen. Haren inguruko kontuak. Iledun untxiak ekarri omen zituen; haiek orraztu eta ilea kentzen zieten, angora egiteko.

896. Garai bateko Lasarte (LAS-038/007)

Mapa militar bat oinarri hartuta, garai bateko Lasarte nolakoa zen gogoratzen dute. Zumaburu ingurua garai batean nolakoa zen: eliza, geltokia, trenbidea, kobentua, ehun-fabrika... Ia dena soroa eta belardia zen.

897. "Labadero" edo garbitokiak (LAS-038/009)

Oriako toponimia jasotzen. "Labaderoak" (garbitokiak) non zeuden eta nolakoak ziren. Lau askako "labaderoa". "Labaderoa" toponimoa.

898. Oriako iturriak (LAS-038/011)

Oriako iturriak non zeuden.

899. Arrantzu toponimoa; errekak; mugak (LAS-038/013)

Oriako toponimia jasotzen. Arrantzu, Andoain aldera. Iturria eta garbitokia Andoain eta Urnieta arteko mugan. Errekak. Buruntzako tontorra.

900. Arrainak ibaian; azken igaraba (LAS-038/017)

Garai batean ibaia garbi jaisten zen eta arrainak izaten zien: aingirak, barboak... Izokina ere sartzen zen garai batean. Nasak. `Kaskabeltza´k zepoak jartzen zituen; hark harrapatu omen zuen azken igaraba.

901. Brunet lantegia eta inguruak I (LAS-038/024)

Oriako toponimia jasotzen. Brunet lantegia eta inguruak nolakoak ziren. Presa, kanala. Errioa. Kanala fabrika erdiraino sartzen zen. Jauregia.

902. Brunet lantegia eta inguruak II (LAS-038/026)

Oriako toponimia jasotzen. Brunet lantegia eta inguruak nolakoak ziren. Tintoreria. Errioak lehen bihurgune gehiago zuen eta zuzendu egin zuten gero.

903. Brunet lantegia eta inguruak III (LAS-038/028)

Oriako toponimia jasotzen. Brunet lantegia eta inguruak nolakoak ziren. Kable bat egoten zen generoa batetik bestera pasatzeko.

904. Garai bateko jaiotzak eta ume-hazteak (LAS-049/002)

Emagina. Lehen senarrak ez ziren begira egoten. Amak urtebetean hiru ume izan zituen: bera eta bikiak. Bikietako bat hil egin zen pixka bat koskortu eta gero.

905. Ama Urnietako Aierdikoa (LAS-049/004)

Zaltzate baserrian jaioa. Ama Urnietako Aierdi baserrikoa. Non dagoen baserria. Jentilek egina omen.

906. Aitona karlistekin gerran ibilia (LAS-049/007)

Amaren aita Urnietako Aierdikoa zen, Klaudio. Amona ez du gogoan, gazterik hil zen eta. Aitona luze bizi izan zen. Karlistekin gerran ibilia zen eta galoiren bat ere bazuen. Karlistak zuriak eta liberalak beltzak.

907. Santa Kruz apaizaren inguruko kontuak (LAS-049/009)

Aitona karlistekin gerran ibilia. Santa Kruz apaizaren inguruko kontuak. Urnieta inguruko baserri batean gertatua.

908. Botoa, nagusiak esandakoari (LAS-049/010)

Hauteskundeak zirenean, etxekoak nagusiarengana (baserriaren jabearengana) joaten ziren. Hark nahi zuenaren kontrara emanez gero botoa, hurrengo urtean kalera. Beraien nagusia pertsona ona ei zen.

909. Baserriaren errenta (LAS-049/013)

Zaltzate baserrian errenta zenbat ordaintzen zuten. Behin etxeko nagusia etorri eta patata ederra zutela ikusi zuenean, errenta jaso zien. Diruaz gain, oiloak eta kapoiak ere ematen zitzaizkion nagusiari eta baita etxean jasotako gaien zati bat ere. Tolosako Olarra zen nagusia.

910. Aitonaren inguruko kontuak (LAS-049/016)

Amaren aldeko amonaren oroimenik ez du. Aitonarena bai, adin handiarekin hil zen eta. Baratxuria hartu biderako eta Urnietako bentara joaten zen ardoa edatera.

911. Eskaleak baserrira (LAS-049/023)

Eskaleak etortzen zirenean, zerbaiti su emango ote zioten beldur izaten ziren eta pospolorik ez pizteko baldintza jartzen zieten. Amak denei ematen zien. Garai batean asko ibiltzen ziren. Amak bazekien pixka bat gaztelaniaz eta moldatzen zen erdaldunekin.

912. Eskolara Urnietara; jaunartzeak (LAS-049/024)

12 urterekin hasi zen eskolara, Urnietara. Dotrina amak erakutsi zion, dena buruz. Jaunartze handia eta txikia. Etxeraino bi joan-etorri ez egiteko, apaizak eguerdietan bere etxean geratzea eskaini zion. Potajea etxetik eramaten zuen.

913. Mutikotan xaboi fabrikarako kokoak lapurtzen zituzten (LAS-056/001)

Xaboi-fabrika. Kokoa ekartzen zuten bagoietan. Errotara eramaten zen olioa ateratzeko. Beraiek kokoak lapurtzen zituzten, jateko.

914. Garai batean familia handiak eta diru-sarrera txikiak (LAS-056/004)

Garai batean familia handiak eta diru-sarrera txikiak. Aitak hiru pezeta irabazten zituen; Donostiaraino joan behar lanera eta, gainera, apopilo egon behar. "Txanpona zegon lekun, han ibili behar izaten gendun, etxera zerbait ekartzeko". Lasarteri bizia ematen zioten ekintzak: hipodromoa, golfa, erromeriak... Beraiek golf-ean aberatsei poltsa eramateagatik hiru pezeta irabazten zituzten udaran. Diru harekin sei librako ogia etxera. Hamaika lagun bizi ziren etxean, lehengusua ere han hazi zen eta.

915. Amaren dendak ez zuen askorik ematen (LAS-056/005)

Etxean asko lagundu behar izaten zuten umetatik. Denda zuen amak, baina ez zuen askorik ematen, inork ez zuelako izaten dirurik. Dendan hurrengoan ordaintzeko uzten ziren gauzak askotan. Funtzio anitzekoa zen. Ama bizia zen.

916. Denek egiten zuten ahalegina etxera zerbait ekartzeko (LAS-056/007)

Jesukristok apostoluei banatu zien moduan, beraien etxean ere zegoen ogia banatu egiten zen. Denek egiten zuten ahalegina etxera zerbait ekartzeko. Lasarten zortea zuten, Donostiako espektakuluak hara ere iristen zirelako.

917. Kontzejuko maisua, gogorra (LAS-056/009)

Kontzejuko eskolan ibili zen, herrian bertan. Maisua, gogorra; makila erabiltzen zuen ordena jartzeko. Haren lehenengo lana egunkaria irakurtzea izaten zen.

918. Mercerotarrekin harremana (LAS-056/011)

Eskolako laguna izan zuen Juanito Mercero gazterik hil zen. Saturnino Mercerok abarketentzako telak egiten zituen lantegia zuen, Gorostegirekin batera. Juanitoren gurasoek denda zuten (gaur egun Gure Etxea taberna

dagoen lekuan) eta beraien denda parean zegoen. Harreman handia zuten bi familiek.

919. Aitona Artzain Onaren katedralean lanean (LAS-056/013)

Ama oriotarra zen. Aitonak Donostiako Artzain Onaren katedrala egiten lan egiten zuen eta bere fardelarekin astea pasatzera joaten zen. Obrako enkargatuak alaba zeukala jakin zuen eta bere umeak zaintzera joatea proposatu zion. Halaxe joan zen ama. Gero handik Lasartera.

920. Lasarteko `Indianesa´ (LAS-056/015)

Lasarteko `Indianesa´. Kanpotik etorria izan behar zen, baina inork ez zekien zehazki nondik. Ostatua jarri zuen Lasarten, Tximistaenean; kanpoko jendea edukitzen zuen apopilo, zaldi zaleak eta.

921. `Indianesa´ren etxea eta ingurua (LAS-056/017)

`Indianesa´ Tximistaenean bizi zen, baina gero Ormazabal dendariaren ondoan hartu zuen etxea. Etxea non zegoen. Olatxoenea. Uzkudunen errota ere inguru horretan zegoen.

922. Mundu gerraren eragina Lasarten; aldaketak Frantziatik (LAS-056/018)

Mundu gerren eragina Lasarten. Frantziatik etortzen ziren aldaketak, hangoak hona etortzen zirelako gerra sasoian. Garai hartan ireki zen hipodromoa. Jende inportantea etortzen zen eta bertako etxeetan hartzen zuten ostatu. Beraien etxean bizkonde bat egoten zen.

923. Tximistaeneko hilketa (LAS-056/021)

Tximistaenea bi solairuko etxea zen eta gero beste puska bat egin zioten. `Indianesa´ etorri zenerako etxea egina zegoen eta ostatua jarri zuen bertan. Emakumea falta zela eta ez zioten garrantzirik eman hasieran, baina bere zakurrek hilda aurkitu zuten. Itxuraz, bere maitaleak hil eta sotoan ezkutatu zuen.

924. Muñagorri etxea; Muñagorritarren sagardoa (LAS-056/031)

Muñagorri etxeak bi bizitza zeuzkan. Ondoko etxeak: Asteasu eta Tximistarreta. Muñagorritarrek sagardoa egiten zuten. Usurbilen baserria zuten eta hango maizterra joaten zen Lasartera sagardoa egitera.

925. Etxea erosteko laguntza eske (LAS-056/034)

Muñagorri etxea erosteko ahalegin guztiak egin zituen. 30.000 pezeta bakarrik zituen eta etxea ia 300.000 pezeta ordaindu behar. Laguntza eske ibili zen. Azkenean dendarako gauzak ekartzen zizkien batek utzi zion dirua, berarekin konfiantza zuen eta. Dirua besterik gabe utzi nahi zion, baina, Juanen eskariz, idatzizko tratua egin zuten.

926. Ama asto-karroarekin joaten zen Donostiara (LAS-060/002)

Amak esaten zion esne-marmitan ekarri zuela umetan Donostiatik. Asto-karroarekin joaten zen ama Donostiara, esnea partitzera. Añorgarako enkargu

guztiak ekartzen zituen bueltan. Lasarten Sasuetako Maria Andresek egiten zituen enkargu horiek.

927. Lagunik handiena Gonagorrikoa (LAS-060/006)

Gaztetako lagunak. Lagunik handiena Gonagorrikoa zuen. Non dagoen etxea. "Gure aitak amari..." kanta errezitatzen du.

928. Gaztetako aisialdia (LAS-060/007)

Gaztetan erromeriara nora joaten ziren: Azkortera, San Estebanera... Batzuetan Astigarraga aldera ere bai sagardotegira, bola-jokora.

929. Astigarragara sagardotegira (LAS-060/009)

Tartean behin Astigarragara joaten ziren, sagardotegira Hango sagardoak zuen famarik onena. Hernaniraino oinez eta handik tranbian. Bola-jokoan irabaziz gero, meriendatxoa. Tokan ere aritzen ziren. Ez da dantzaria izan.

930. Oinetako ziztrinak (LAS-060/010)

Mundua petrala dagoela eta ez dela konponduko dio. Gaztetan abarketa zahar batzuk besterik ez zituzten izaten. Batzuetan, gainera, oinetakoak anaiarekin elkarbanatu behar.

931. Larunbat iluntzeetan lagunekin tertulia; tabernak (LAS-060/011)

Larunbat iluntzeetan lagunak Lasarten elkartzen ziren kafe bat hartu eta tertulia pixka bat egiteko. Orduko tabernak. Ama eta arreba haserre, haiek garbitu behar izaten zituzten beraien "kuxidadeak" eta. Astelehenean zazpietarako lanera; oinez, goiz jaikita.

932. San Estebanetan errezoa egiten ari zena nola zirikatzen zuten (LAS-060/013)

Garai bateko festak. San Estebanetan aldare ondoko zulo baten sartzen zen burua eta errezatu, buruko minik ez izateko. Batzuetan han zegoenari atzetik joan eta kilimak egiten zizkioten.

933. San Pedroetan beti trumoiko euria (LAS-060/014)

San Pedro jaietan Hernanitik etortzen zen musika. Batzuek dantza egiten zuten eta beraiek begira. San Pedroetan urtero trumoiko euria.

934. Traperoa baserriz baserri hezurrak biltzen (LAS-060/016)

Garai batean traperoa ganaduaren hezurrak biltzen ibiltzen zen baserriz baserri zaldia eta karroarekin. Haiekin labanen kirtenak egiten zituztela esaten zuten. "Katillano jendia" gasogeno poteak bizkarrean hartuta; barkillo-saltzailea. Jendeak egiten zizkien gaiztakeriak.

935. Lantegiak Orian eta Añorgan; medikua eta apaiza Lasarten (LAS-060/018)

Lasartek eta Oriak bien artean 1900 biztanle zituzten. Lasarteko jendea Oriara eta Añorgara joaten zen lanera. Han lantegiak zeuden, baina apaiza eta medikua Lasarten.

936. Jendea Lasartera, aireplanoak ikustera; tranbia, zaldi-karroak (LAS-060/019)

Gaur egun Michelingo tximinia dagoen inguruan, Zapategi baserriaren lurretan, aerodromoa egon zen. Igande arratsaldeetan jende asko ibiltzen zen Lasarten, inguruetatik jendea etortzen zelako aireplanoak ikustera. Berak zortzi urte zituenean jarri zuten tranbia. Aurretik zaldi-karroak ibiltzen ziren Tolosatik Donostiara. Lasarten abereak aldatzen zituzten.

937. Mutikoak golf zelaira lanera (LAS-060/022)

Lasarten mutikoek dirua erabiltzen zuten, golf zelaira etortzen ziren aberatsei poltsa eramatearren dirua irabazten zuten eta.

938. Eskolara eguraldi txarra zenean bakarrik (LAS-060/024)

Bizimodu aldaketa: "ordun jaio orduko lanea eta gaur "iya aitondu ta lana zer dan ez dakila". Eguraldi txarra zenean bakarrik joaten zen eskolara, eguraldi onarekin baserrian lanean geratu behar izaten zen eta. Ez zuten jolaserako denborarik izaten.

939. Garai batean sagardotegiak non-nahi (LAS-060/028)

Garai batean non-nahi zeuden sagardotegiak. Baserri gehienetan egiten zen sagardoa. Lartzabaleta izan zen ezagunenetakoa. Orian ere bodega handia zegoen, dena pintatutako kupelez betea.

940. Bertso-paperak; bertsolariak; `Txirrita´ Lasarten (LAS-060/030)

Ferietan bertso-paperak saltzen ziren eta gazteek bertso zaharrak kantatzen ikasten zuten. Sagardotegira joandakoan, ahots ona izanez gero, kantatu igual. Beste batzuek bertsotarako balio izaten zuten. Basaundiko bi anaia aritzen ziren bertsotan. Bertsolari onak festatan. `Txirrita´k Lasarterako joera zuen.

941. Ama hil zenean, haren ahizparekin ezkondu zen aita (LAS-060/037)

Aita Zubietakoa zuen eta ama Igeldokoa. Lehengusuak ziren. Bosgarren umeak hilabete zuela, ama hil egin zen eta aita haren ahizparekin ezkondu zen gero. Harekin beste bost ume izan zituen. Amaren inguruko oroitzapenak.

942. Bistak ez zion lagundu ikasketetan (LAS-060/039)

Zubietan ibili zen lehenbizi eskolan, maisuarekin, eta, ondoren, Usurbilen, mojetan. Ikasteko gogo handia zuen, baina bistak ez zion lagundu. Lagunekin ezkutaketan jolasean zebilela, petrilarekin betondoan kolpea hartu zuen. Lasarteko estankora eraman eta likido bat bota zioten. Ordutik bista huts egiten hasi omen zitzaion.

943. Iluntzerako etxera, apaizaren eta gurasoen beldur (LAS-060/042)

Gaztetan inguruko herrietako festetara joaten ziren. Dantzan egin eta iluntzerako etxera. Bizimodua asko aldatu da. Mezatan apaizak mehatxu egiten zuen "norbaitek erretiro txarra egin bazuen" eta etxean ere antzera. Elizan apaizaren beldur eta etxean gurasoen beldur. Festetan pilota partidak,

bola-jokoa... Ez zegoen irratirik edo telebistarik eta bezperan kanpaiak hasten zirenean poza ematen zuten.

944. Portugaleten neskame; udan Donostiara (LAS-060/044)

Portugaleten egon zen neskame. Algortako festetan norian ibili zen eta etxekoandreak oparitutako lepokoa galdu zuen. Areeta aldera ere asko joaten ziren, libre zutenean. Udaran Donostian egoten ziren, hango nagusien gurasoen etxean.

945. Errebotea Zubietan (LAS-060/046)

Zubietan errebotean aritzen ziren pilotariak. Iparraldetik joaten ziren eta baita Villabonatik ere. Daniel Aizpurua zen ezagunena. Zubietako beste pilotari batzuk. Oriokoak ere joaten ziren errebotean jokatzera, Usurbilgo Iraola medikuaren senideak.

946. Maiatzeko loreak: funtzioa elizan, aingeru jantzita (LAS-060/047)

Maiatzeko loreak. Funtzioa egiten zen Zubietako elizan eta Lasartetik ere jendea joaten zen hura ikustera. Zubieta elizaz Usurbilgoa zen eta ezinikusiagatik Zubietako apaiza beste leku batera bidali zuten. Orduko liskarrak. Arsuagatarren familiako emakumeek janzten zituzten beraiek aingeruz, Kaleberri elkartean. Aldarean, loreak eskuetan zituztela, "Goazen guztiok birjinarengana" abesten zuten.

947. Sasoiko jende guztia hipodromora lanera (LAS-060/051)

Lasarteko teila-fabrika. Orian Brunet. Inguruetan ez zegoen beste lantegirik. Sasoiko jende guztia hipodromora lanera.

948. Kotxe-lasterketan Lasarten (LAS-060/053)

Kotxe-lasterketak egoten zirenean, jende asko etortzen zen eta hipodromoa ere kotxez beteta egoten zen nahiz eta garai hartan artean kotxe gutxi egon. Izugarrizko marrua ateratzen zuten kotxeek.

949. Etxean urik ez eta Oriako garbitokira (LAS-060/055)

40 urte dira orain bizi diren etxeak egin zirela. Egin eta urtebetera joan ziren etxe berrira. Otsaila zen eta hilabete osoan jela eta elurra egin zuen. Urarekin arazoak izan zituzten hasieran, ur-hodiak lehertu egin ziren eta. Aurretik, Zubietan, ez zuten urik. Oriako garbitokira joaten zen arropa garbitzera. Brunet lantegiak egina zen. Garbitoki ederra, dozena erdi harrirekin.

950. Avilatik Lasartera hamaika hilabeterekin (LAS-062/001)

Jazinto Martin Garcia, 1912an Avilako La Villa de Mombeltrán herrian jaioa. Hamabi senidetan gazteena. Aita etorri zen lehenbizi lanera eta geroago famillia osoa, berak hamaika hilabete zituela. Non bizi izan ziren.

951. Etxean gaztelaniaz, baina kalean euskaraz (LAS-062/002)

Etxean gaztelania jaso zuen, baina kalean dena euskaraz. Jendeak ez zekiela gaztelaniaz dio. Eskolan ere baserritarrek euskaraz, ez zekiten gaztelaniaz. Bere gurasoek ez zuten ikasi euskaraz. Emaztea azpeitiarra; harekin ere beti euskaraz. Lagunekin, batzuekin gaztelaniaz eta beste batzuekin euskaraz. Neskei dantza eskatzera joaten zirenean, euskaraz.

952. Umetako jolasak (LAS-062/004)

Umetan eliza parean jolasten zuten, kotxerik ez zen pasatzen eta. Sokarekin, zibarekin, marruketan, korrika...

953. Eskolan gaztelaniaz; maisuak (LAS-062/005)

Umetan lagunartean ikasi zuen euskaraz. Baserritarrak beldurrez bezala joaten ziren eskolara. Eskolan non ibili zen. Eskolan gaztelaniaz. Maisua, gizon handi bat, Mujika; bertakoa zen, baina gaztelaniaz egiten zuen. Gero maisu katalana: Jose Tornés. Libururik ez zuten; katoia eta arbel zahar bat.

954. Gerraostean euskaraz egitearren isuna (LAS-062/006)

Euskaraz hitz egitearren zigorrak jartzearena gerraostean etorri zen. "Háblame en cristiano". Bere emaztearen amari isuna jarri zioten euskaraz egitearren Ordiziako feriara joanda.

955. Dotrina: apaizek jo egiten zuten (LAS-062/007)

Apaizekin ikasten zuten dotrina. Apaizek jo egiten zuten garai hartan. Lagun bati eta biei zer egin zieten neskekin dantza egitearren. Dotrina euskaraz eta gaztelaniaz.

956. Garai bateko maisu-maistrak (LAS-062/008)

Maria Pilar Zubia maistra. Neskak joaten ziren harengana. Bera ez zen harekin ibili. Eskolan gutxi ibili zen. Garai hartako maisu-maistrak.

957. Gerraosteko debekuaren eragina euskaran (LAS-062/009)

Gerraostean ez zuten uzten euskaraz egiten. Gaur egun ikastolatik irteten direnak gaztelaniaz entzuten dituela dio eta baita esnea saltzera etortzen den baserritarra ere.

958. Inguruetako lantegiak; kanpoko jendea lanera (LAS-062/012)

Inguruetako lantegiak: Oriako fabrika, koko-fabrika, teila-lantegia, pintza-fabrika, Klaudio `Kojua´ abarketagilea, Mercerotarren lantegia... Geltoki inguruan soroak ziren; baserriak. Gerraostean hasi zen kanpotik jendea etortzen. Aurretik, beraiek Lasartera joan eta geroago Valladolidetik etorri ziren batzuk. Jende gehiena baserritarra zen. Golfean aberatsei poltsa eramatearren irabazten zen dirua.

959. "Aceros Lasarte" lantegia 1929an sortua (LAS-062/014)

Lasarteko lantegi handien sorrera. Luzuriaga lantegia "Aceros Lasarte" bezala sortu zen 1929an. Mutikotako lana, bi pezetaren truke. Gaztainadiak ziren asko aurretik.

960. Bandoa gaztelaniaz; aguazilak euskaraz (LAS-062/017)

Bandoa gaztelaniaz; `Olloki´ danborrarekin. Aguazila bere laguna zen; beti euskaraz egiten zuen.

961. Soldadutzako kontuak (LAS-062/018)

Soldadutzako kontuak. Afrikan egon zen hilabete luzez, Asturiasko iraultza tokatu zelako parean eta batzuk hara eraman zituztelako. Ez zuen euskaldunik topatu. Soldadutza "txorakeriya" iruditzen zaio, nahiz eta berak ondo pasatu zuen.

962. Garai bateko garraioak Lasarten (LAS-062/022)

Lasartetik pasatzen ziren trenak. Plazaolako trena. Malda ezin igota ibiltzen zen. Ke asko botatzen zuen. Tranbia eta buztina ekartzen zuten bagonetak. Pilotan non aritzen ziren. Orduan kotxerik ez zen pasatzen. Autobusak gerraostean. Nolakoak ziren; zestoak gainean eramaten ziren. Zaldi-kotxeak, zaldi lasterketetara etortzen ziren Donostiatik.

963. Garai bateko Lasarte-Oriako dendak (LAS-062/023)

Garai bateko Lasarte-Oriako dendak. Dendariak denak euskaldunak. Botikarik ez zegoen herrian eta Usurbilera edo Antiguora joan behar izaten zuten. Joxepa Txintxurretaren arrandegia. Gizonezkoen ile-apaindegiak. Harategia.

964. Garbitokia egin aurretik arropa errioan garbitzen zen (LAS-062/025)

Hiltegia beti ezagutu du. Iturria. Goizeko bostetan jaiki eta uretara. Jendea ilaran egoten zen zain. Garbitokia. Aurretik Zumaburura; emakumeek arropa errioan garbitzen zuten garai batean. Lejia, añila.

965. Lasarteko aerodromoak (LAS-062/026)

Hipodromoa egin zenean, bera txikia zen artean. Garai batean (gerra aurretik) bi aerodromo egon ziren Lasarten. Zapategi baserriaren ondoan egon zen aerodromo bat. Behin hegazkin batek ia baserria jo omen zuen.

966. Golf zelaia Mundu Gerraren eraginez sortua (LAS-062/028)

Aerodromoan kanpoko jendea ibiltzen zen. Biplanoak. Golf zelaia I. Mundu Gerraren eraginez sortu zen. Garai horretan egin ziren kasinoak eta halakoak. Jende aberatsa joaten zen golfean jokatzera, baina berak ere ikasi zuen eta "señoritoekin" ibiltzen omen zen. Mutikotan golf-era, dirua irabaztera.

967. Garai baten mezak latinez; aldaketak elizan (LAS-062/030)

Mezak garai batean latinez izaten ziren. Gerora hasi ziren euskaraz eta gaztelaniaz. Bera beti euskarazkora. Bezperetara joatea derrigorra. Brigiden

komentura joaten zen bera askotan. Prozesioa ere egiten zen bertan. Elizan gauzak nola aldatu diren.

968. Garai bateko medikuak Lasarten (LAS-062/031)

Medikua etxeetara joaten zen. Izaga medikua. Don Jose Olano, komentuko medikua. Albaitaria Usurbildik etortzen zen. Don Josek bazekien euskaraz. Don Lucio medikua ere euskalduna zen.

969. Euskal festak; Paulino Uzkudun Lasarten golfean (LAS-062/034)

Euskal festak gerra aurretik, hipodromoan eta golfean. Gogoan du Paulino Uzkudunek Europako txapelketa irabazi zuen urtean izan zela Euskal Festa bat, Uzkudun golfera etorri zelako jokatzera. Bera harekin aritu zen.

970. Festa eta dantzaldi guztietara (LAS-062/038)

Herri guztietara joaten ziren festetara, oinez. Dantzaldiak, Txominenean, Ergobian; "Campos elíseos" Astigarragan eta beste hainbat. Zubietan ez zuten dantza egiten uzten. "Goardak" egoten ziren zaintzen eta bikoteak banatzen zituzten.

971. Gasolindegi ondoko etxean jaioa (LAS-066/009)

Lasarten bi-hiru etxetan bizi izan ziren. Gasolindegi ondoko etxe batean jaio zen. Gerora Michelin lantegiaren ondoan bizi izan ziren. Lau anai-arreba ziren, bi mutil eta bi neska.

972. Lehengo Lasarte; geltokia, hipodromoa, komentua (LAS-066/010)

Lasarteko eskola nazionaletan ibili zen. Han ikasi zuen gaztelaniaz, etxean eta kalean dena euskaraz egiten zuten eta. Lasarte nolakoa zen. Geltokia. Zaldi lasterketetarako etortzen zen trena. Hipodromoa. Joaten ziren batzuetan, baina ordainduta sekula ere ez; dirudunak joaten ziren. Neska koskorretan enkarguak egiten zituzten. Mojen komentua. Denda gutxi zegoen. "La trapería".

973. Baratzea zuten Michelin ondoan; gurasoak diru faltan (LAS-066/012)

Karga eramateko, gurdiak erabiltzen ziren. Michelin lantegia orduan txikiagoa zen eta alde batean baratzeak zituzten, etxe ondoan. Aita eta ama biak aritzen ziren baratzean. Aita arotza zen. Amak ere lan egiten zuen, baina beti dirurik gabe ibiltzen ziren.

974. Amak besteen arropak garbitzen lan egiten zuen (LAS-066/013)

Amak besteen arropak garbitzen lan egiten zuen. Eskuak beti erreta izaten zituen lixibarekin. Orduan ez zen eskularrurik. Pepiri ere tokatzen zitzaion lan egitea, ahizpetan zaharrena zen eta; arropa garbitzen umetatik laguntzen zioten amari. Garbitokia. Arropa nola garbitzen zuten. Antonio Merceroren etxera, amari laguntzera. Apaizaren arropa ere garbitzen zuten.

975. Zigorrak jaso arren, eskolara joatea nahiago garbitokira baino (LAS-066/014)

Eskolan gaztelaniaz egin behar. Euskaraz egiteagatik jartzen zizkieten zigorrak. Maistrak. `Cara al sol´ abestu beharra. Hala ere, nahiago izaten zuen eskolara joan, garbitokira arropa garbitzera baino. Antonio Merceroren etxean irakurtzeko grina piztu zitzaion eta hango liburuak irakurtzen zituen. Papertxo bat jartzen zion liburuari, hurrengoan non jarraitu jakiteko.

976. Antonio Merceroren familia; Michelin lantegia (LAS-066/015)

Antonio Mercero seme bakarra zen. Ama alarguna zen eta Michelin lantegiko bulegoan lan egiten zuen. Izebak, berriz, kooperatiban. Michelinen lan egiteko, 18 urte eta "errekomendazioa" behar izaten ziren. Bere aitak lortu zuen bertan lanean hastea eta gero bera ere hasi zen, 18 urte bete zituenean.

977. Michelin lantegiko lana eta lan-baldintzak (LAS-066/016)

Aitak Michelin lantegian lan egiten zuen gurpil-azalak egiten eta berak ere han lan egin zuen gero. Bakoitzak zer lan egiten zuen. Emakume askok lan egiten zuten bertan. Ondo ordaintzen zuten. Bi txanda egoten ziren lanerako, goizeko 5etatik 13:00ra edo arratsaldez ordu bietatik 10etara.

978. Ezkondu zenean, lantegia utzi behar (LAS-066/021)

Aitak lan egiten zuen Michelin lantegian; bera hasi zen gero eta ondoren ahizpa. Anaiek Luzuriaga altzairu lantegian lan egiten zuten. Garai baten esaten zen hobe zela neskame joatea lantegira baino. Ezkondu zenean, lantegia utzi behar izan zuen, derrigortuta, emakumea zelako. Nagusiak, emakume frantses batek, horren inguruan zer esan zion.

979. Neskak ezin bakarrik sartu dantzara (LAS-066/024)

Igeldora joaten ziren dantzara, baina emakumeak ezin ziren bakarrik sartu eta norbaiti eskatu behar bikote gisa sartzeko. Orduan dena zen bekatu, baita senargaiari musu ematea ere.

980. Errepidean egiten zuten dantza Lasarten (LAS-066/026)

Lasarten musika egoten zen. Errepidea moztu egiten zuten eta errepidean egiten zuten dantza. Gramola. Festetan musika talderen bat.

981. Baserritarrekin harremana; txerri-jana (LAS-066/028)

Esnea egunero ekartzen zien baserritarrak etxeraino. Harremana zuten haiekin, aita arotza zelako eta zenbait lan egitera joaten zelako. Jatekoaren truk. Txerrientzako jana jasotzen zuten gero. Bizilagun batek txerria hazten zuen eta hark ere jasotzen zuen txerri-jana etxez etxe.

982. Aita ez zuen ezagutu, gerratik itzuli zenean (LAS-066/031)

Gerra sasoiko kontuak. Michelin lantegi ondoan bizi ziren eta, kalera joateko, eskutik helduta eramaten zituen amak, beldurrez. Aitak lau urte pasa zituen kanpoan eta, itzuli zenean, ez zuen ezagutzen. Hildakoak eta fusilatuak izan ziren. Antiguoko osaba bat gerra sasoian hil zuten.

983. Josten ikasten eta janari-dendan lanean (LAS-066/036)

Nogués sastrearekin ibili zen josten ikasten, Lasarten bertan, eliza ondoan. Aldamenean arrebaren janari-denda zegoen eta saltzaile moduan lan egin zuen bertan. Hango lana gehiago gustatzen zitzaion. Gizonentzako arropa egiten zuen sastreak eta galtzak egiten ikasi zuten harekin.

984. Umetan baztertuta, pobreak zirelako (LAS-066/039)

Umetan zer jolas egiten zituzten. Txingoka nola aritzen ziren. Beste umeek baztertu egiten zituzten, pobreak zirelako.

985. Gose handia pasa zuten (LAS-066/044)

Gose handia pasa zuten gerraostean. Estraperloan ekartzen ziren hainbat gai, baina dirua behar haiek erosteko. Amak ekarritako ogi gogorra urarekin biguntzen zuten. Errazionamenduko txartelarekin joaten zen jateko bila, baina askotan jada gastatuta zegoela esaten zioten eta, azkenean, gurasoak joaten ziren.

986. Trena Donostiara eta tranbia Tolosara (LAS-066/045)

Baporezko trena, ikatzarekin zebilena, Donostiatik etortzen zen eta Lasarteko hipodromoraino joaten zen. Tranbia ere egon zen, Tolosaraino joaten zena, eta geroago trolebusak. Beraiek ez ziren inora joaten; aita bai.

987. Lantegian esan ziotena kanpoko gizonarekin ezkontzera zihoalako (LAS-066/052)

Berak beti euskaraz egin izan du. Gizona erdalduna zen eta gogoan du nola esan zioten Michelin lantegian lanean zebilela, "¿con ese churriano te vas a casar?".

988. Seme-alabei euskaraz (LAS-066/054)

Berari ez zioten inoiz esan, baina entzun izan zuen noizbait "háblame en cristiano" espresioa, euskaraz hitz egitearren. Seme-alabei euskaraz egin izan die.

989. Arraina saltzen I (LAS-066/060)

Eliza atzealdean zegoen arrandegian lan egin zuen. Etxeetara joaten zen arraina eskaintzera. Zer arrain egoten zen orduan: legatza, bisigua, txitxarroa...

990. Arraina saltzen II (LAS-066/062)

Arrandegirako enkarguak buruan hartzen zituen. Gero arrandegian arraina zesto zabal batzuetan prestatu eta etxeetara eraman. Era askotako lanak egin izan ditu.

991. Seme gazteena ikastolara (LAS-066/065)

Alaben sasoian ez zegoen euskarazko eskolarik, baina semea ikastolara bidali zuen, euskaraz ikas zezaten nahi zuelako. Ikastola sortzeko laguntzen ibili zen.

992. Mailegua eskatu zuten, ikastolari emateko (LAS-066/067)

Ikastola martxan jartzeko 3000 pezeta jarri zituzten. Diru asko zen garai hartan eta mailegua eskatu zuten horretarako. 1966a zen. Ez du gogoan zenbat ume hasi ziren lehenengo urtean.

993. Seme-alabei hika, neskei egitea itsusia zela esaten zen arren (LAS-066/068)

Amak hika egiten zien. Berak ere hala egin izan die seme-alabei, neskei hika egitea itsusia edo zakarra zela esaten zen arren.

994. Euskararekiko sentimedua (LAS-066/072)

Euskara garrantzitsua da berarentzat: "Euskaraz jaio, euskaraz bizi eta euskaraz hil".

995. Amak Bar Centraleko mantelak garbitzen zituen (LAS-066/077)

Bar Central. Jangela zuten eta amak garbitzen zituen hango mantelak eta arropa, bertan zuten garbitoki batean. Amak eskuak erreta izaten zituen. Behin Donostiara bidali zuen Pepi, ahizparengana, zerbaiten bila; atzandel batzuk eman zizkioten.

996. Umetan, aldaketa: Usurbiletik Lasartera (LAS-067/002)

Usurbilen jaio zen, baina berak 7-8 urte zituela Lasartera joan ziren bizitzera. Sei anai-arreba; hiru gazteenak Lasarten jaioak. Usurbilen dena zen euskaraz, baina Lasarten erdaldun gehiago zegoen.

997. Michelineko langileen umeentzako eskolan ibilia (LAS-067/003)

Usurbilen ibili zen eskolan umetan. Gero Lasarten udaletxe zaharraren azpian ibili zen, Eskola Nazionalean. Neskak eta mutilak aparte. Dena gaztelaniaz. Irakaslea: señorita Maria. Geroago, Michelin lantegiak bertako langileen umeentzat jarri zuen eskolara. Behean neskak eta goian mutilak.

998. Amak, laugarren umea jaiotzean, Michelineko lana utzi zuen (LAS-067/004)

Ama Asteasun jaioa zen, baina umetan Lasartera etorritakoa. Eliza ondoko "Astiasu" baserrian bizi izan ziren. Aita Usurbilgoa zen. Gurasoek biek Michelin lantegian lan egin zuten. Amak lana utzi zuen Lasartera bizitzera joan eta laugarren umea jaio zenean. Berak 14 urte zituenean, bikiak jaio ziren eta amari lagundu behar izan zion haiek zaintzen.

999. 17 urterekin Bartzelonara neskame (LAS-067/006)

Izeba bat Bartzelonan zegoen neskame. Udara baten, berak 17 urte zituela, hiru hilabeterako hara lanera joatea proposatu zioten. Zazpi urte egin zituen. Etxe batean zerbitzatu zuen. Senar-emazteak eta emaztearen ama bizi ziren. Gonbidatu asko izaten zituzten, eta beti dotore jantzita. Zer lan egiten zituzten. Astean egun bat jai, paseatzera joateko.

1.000. Lasarten Usurbilen baino gaztelania gehiago (LAS-067/010)

Umetan etxean euskaraz egiten zuten, baina gaztelania entzuten zen gehiago kalean. Usurbildik Lasartera aldea nabaritu zuen: gaztelania gehiago Lasarten.

1.001. Garai bateko Lasarte (LAS-067/011)

Lasarte nola aldatu den. Komentua, hiltegia, garbitokia, iturria, zerrategia... Askoz txikiagoa zen lehen.

1.002. Umetako Lasarte: golfa, tranbia, hipodromoa... (LAS-067/012)

Umetan kalean egiten zuten bizimodua. Eliza ondoko plazatxoan jolasten zuten. Etxerako enkarguak ematen zizkien amak. Etxe inguruan zeuden dendak. "Traperia". Tranbia pasatzen zen etxe ondotik. Golf-a. Mutikoek poltsak eramaten zizkieten hara etortzen zirenei. Hipodromoa. Jende dirudunaren janzkera ikustera joaten ziren.

1.003. Donostiara gutxitan (LAS-067/013)

Ez ziren asko irteten Lasartetik. Inoiz edo behin tranbia hartu eta amarekin Donostiara hondartzara. Orduan ez zegoen bainujantzirik. Amak gortina zaharrekin egiten zien arropa. Geroago aitarekin Oria aldera joaten ziren, bizikletari erantsitako karroarekin.

1.004. Umetan familiako baserrira (LAS-067/014)

Elizaren ondoan zegoen familiaren baserria. Beraiek ez ziren han bizi, baina joaten ziren laguntzera, txerria hiltzen zutenean, adibidez. Behiak, oilategiak. Eliza atzean aska. Asto-karroan sartuta joaten ziren Oria aldean zituzten lursailetara. Michelin inguruan baratzeak zeuden.

1.005. Umeen fardelak eta garbiketa kontuak (LAS-067/017)

Amari lagundu behar izaten zion umeak zaintzen. Orduan ez zegoen fardelik; jartzen ziren esku-zapia eta plastikoa gero eskuz garbitu behar. Garbigailua aurrerapen handia izan zen. Maindireak garbitzera edo arropa astintzera garbitokira; bestela etxean. Umeak balde handi baten bainatzen zituzten. Beraiek nola garbitzen ziren. Komuneko papera egoten zen, baina latza; "El elefante".

1.006. Ikatza eta egurra suarentzat; hondakinik ez (LAS-067/018)

Sukaldea nolakoa zen. Sua, ikatza eta egurrarekin. Laranja azalak sutara botatakoan, usain gozoa. Ikatza erosi egiten zuten. Egurra basotik ekartzen zen. Jateko hondarrak gorde egiten ziren txerrientzat eta gainontzekoa erre. Ez zen hondakinik sortzen, dena aprobetxatzen zen.

1.007. Umeentzat galtzerdiak eta arropa josten zituen (LAS-067/020)

Etxe guztietan egoten zen josteko makina. Oihal zati guztiak gordetzen ziren, gero arropak konpontzeko. Lagun batekin ibili zen josten ikasten. Eskolan ere esku-lanak egiten zituzten: puntua, "bainika"... Amak umeentzat galtzerdiak egiteko esaten zion. Kakorratzarekin ere umeentzat arropa egiten zuen.

1.008. Kanpotik etorritako jendea eta etxe berrien eraikuntza (LAS-067/021)

Michelin lantegia hazi ahala, kanpoko jendea etortzen hasi zen Lasartera, lanera. Gizonezkoak izaten ziren batez ere eta apopilo egoten ziren etxeetan. Lehenbiziko etxeak egiten hasi zirenean, jendea goizeko seietarako zain egoten zen, ilaran, etxe bat hartzeko.

1.009. Euskarari bultzada ikastolaren sorrerarekin (LAS-067/023)

Garai batean gaztelania asko egon zen Lasarten, baina gerora pixkanaka berriz indarra hartu zuen euskarak, batez ere ikastolaren sorrerarekin. Jendeak asko lagundu zuen. Berak senarra andaluziarra zuen eta gaztelaniaz egin behar etxean, baina umeei esaten zien aitari ere euskaraz egiteko.

1.010. Lasarteko dantzaldiak (LAS-067/024)

Lasarten musika egoten zen. Hasieran txistulariak. Geroago, kanpoko jendea etorri zenean, bestelako musikariak. Jendea etortzen zen dantzara. Gizonei kobratu egiten zieten, dantza egiteagatik. Lehenbizi elizara, bezperetara, hiruretan eta handik irtendakoan "filarmonika" ikustera. Neskak neskekin hasten ziren dantzan eta gero gerturatzen ziren mutilak.

1.011. Komedianteak etortzen ziren Lasartera (LAS-067/026)

Garai batean komedianteak etortzen ziren Lasartera. Aulkia hartu eta haiek ikustera joaten ziren gauean eliza ondora. Antzerki antzekoa izaten zen.

1.012. Ahizpa nesken lehenengo saskibaloi taldean (LAS-067/032)

Bere ahizpetako bat saskibaloian ibili zen. Lehenengo taldea izan zen. Orduan zapatilarik ere ez zegoen eta zapatekin jokatzen zuten. Bere sasoian ez zegoen aukerarik. Mutilek aukera gehiago izaten zuten.

1.013. Santa Ana parodia (LAS-067/034)

Santa Ana parodia. Beraiek bizi ziren karkabak historia bat omen zuen. Oraindik ere jarraitzen dute egiten.

1.014. Udalekuetara Orendainera, Michelin lantegiak antolatuta (LAS-067/036)

Estropadak egiten ziren ibaian; Michelin lantegiaren batela. Senarrak Michelinen lan egin zen erretiroa hartu arte. Udalekuetara ere joan izan ziren Michelin lantegiak antolatuta, gehienetan Orendainera. Neskentzako uniformea ere lantegiak emandakoa.

1.015. Michelin lantegian lan egin zuen, ezkondu arte (LAS-067/038)

Michelin lantegian hasi zen lanean. Orduan hasi ziren lantegian neskak hartzen. Binokularrak egiten zituen. Ezkondu zenean, lana utzi behar, nahiz eta gustura jarraituko lukeen. Orduan emakumeak horretara derrigortuta zeuden.

1.016. Lasartekoen eta Oriakoen arteko harremana (LAS-067/042)

Oria auzo bat zen, baina hazi egin zen eta Lasarterekin elkartuta Lasarte-Oria sortu zuten. Oriari "la pequeña rusia" deitzen zioten, jende askok lan egiten zuelako eta dirua zegoelako. Lasartekoen eta Oriakoen arteko harremana.

1.017. Etxeetara esnea eta txerri-muinak partitzen (LAS-067/043)

Aitonaren baserrira joaten ziren esne bila. Lehengusua eta biak etxeetara esnea partitzen ere ibiltzen ziren. Txerri-muinak ere bai, txerria hiltzen zenean. Zer izaten zen.

1.018. Gerraostean ogia etxean egiten zuten (LAS-067/046)

Gerra sasoian Usurbilen geratu ziren. Gerraosteko errazionamendua. Kartillarekin dendara, "traperia"ra. Ogi zuririk ez zen izaten, baina beraiek etxean egiten zuten. Usurbilen bizi zirenean, okindegi bat zuten azpian eta han ikasi zuen amak. Ama baserrira joaten zen laguntzera eta handik jatekoa ekartzen zuen. Babarruna egunero.

1.019. Lasarteko arrandegiak eta arrain-saltzaileak (LAS-067/048)

Bi arrandegi zeuden Lasarten. Antxoak ekarritakoan kaxa batean kanpoan jartzen zituen Fernando arrandegikoak. Kalean otarra hartuta arraina saltzen ibiltzen ziren bi emakume ezagutu zituen.

1.020. Ezkutuan erositako galtzetak (LAS-067/050)

Amari enkarguak egiten zizkionean, sos batzuk hartzen zituen berarentzat. Lagunak galtzetekin ("medias de cristal) ibiltzen ziren eta bera galtzerdiekin. Amari kendutako diruarekin galtzetak erosi zituen eta lagun baten etxean janzten zituen, ezkutuan, Irubidera erromeriara joateko.

1.021. Irubideko giroa ikustera; mutilek askatasun gehiago (LAS-067/052)

Irubidera joaten ziren erromeriara, baina ez dantzara, hango giroa ikustera baizik. Amari dirua kentzen zion, zerbait erosi ahal izateko. Bezperetara joan eta gero irteten ziren, arratsaldea pasa eta goiz etxera. Mutilek askatasun gehiago izaten zuten.

1.022. Disko jogailua eta irratia etxean (LAS-067/055)

Garai batean ez zegoen telefonorik. Irratia bai; nobelak entzuten zituzten. Gramola ere bazuten etxean eta diskoak entzuten zituzten.

1.023. Irratian dena gaztelaniaz (LAS-067/057)

Etxean musika edo irratia entzuten egoten ziren etxekoak. Irratian dena gaztelaniaz izaten zen.

1.024. Don Pablo medikua (LAS-067/060)

Don Pablo medikua. Hernanin bizi zen, baina behar zenean Lasartera joaten zen. Ama anaia bikiak izateko Donostiara joan zen. Bera etxean jaio zen. Orduan baziren jaiotzetan laguntzen ibiltzen ziren emaginak.

1.025. Ama sendabelar eta enplastu zalea (LAS-067/062)

Ama oso alaia zen; denek ezagutzen zuten Lasarten. Sendabelar zalea zen. Infusioak hartzen zituen. Enplastuak ere egiten zituen. Anaiari sinusitisa sendatu zion enplastuekin. Orduan ez zen hainbeste joaten medikuarengana.

1.026. Hilerokoa tabua; konpresarik ez (LAS-067/064)

Hilerokoaren inguruko kontuak tabua ziren. Amak ez zion ezer esan. Orduan konpresak baziren arren, ez zen egoten diru nahikoa erosteko eta esku-zapia jartzen zuten zintekin lotuta. Kuleroak ere ez ziren izaten gaur egunekoak bezain estuak.

1.027. Sexua tabua; eskutik heltzeko ere beldurrez (LAS-067/065)

Sexuaz hitz egitea tabua zen. Ezkondu aurretik dena zen bekatu. Senargaiarekin paseatzera joaten zen ostegunetan golf aldera; eskutik helduta zihoazenean, eskua askatzen zuten kotxeren bat zetorrenean, ezagunen bat izan zitekeelakoan. Amak ematen zion agindua. Ezkondutako lagunek ere ez zuten ematen sexuaren inguruko azalpen gehiegirik. Gero konfesatzera joan behar izaten zen. Elizkizun guztietara joan behar izaten zen orduan.

1.028. Bartzelonan neskame egon zeneko kontuak (LAS-067/069)

Amarekin ikasi zuen janaria prestatzen. Gero, Bartzelonan egon zenean, izebarekin ere bai, oso sukaldari ona zen eta. Hango nagusiari esaten ziona. Etxeko amonak zer lan ematen zizkion. Pena izan zuten berak alde egin zuenean, baina etxera itzultzeko gogoa zuen.

1.029. Umetatik mekanika ikasi arte pasatako eskolak (LAS-068/002)

Elbirita Leforestier irakaslearekin ibili zen umetan. Gero eliza atzean zegoen Michelingo eskolan: behean neskak eta goian mutilak. Gero Añorgan ibili zen, inguruetako lantegietako langileen semeentzako eskolan. Ondoren, mekanika-ikasketak egin zituen Hernanin. Ikasketak Donostian bukatu zituen, gau-eskoletan, egunez lan egiten zuelako. Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituen. Jubilatu ostean, lau urtez euskaltegian ibili zen.

1.030. Etxean euskara; eskolan eta kalean gaztelania (LAS-068/003)

Bera umea zenean, Lasarten gaztelania gehiago entzuten zen euskara baino. Etxean dena euskaraz egiten zuten. Eskolan dena gaztelaniaz. Frankismo sasoia izan arren, ez zuen izan `Cara al sol´ abestu beharrik. Michelingo eskola.

1.031. Garai bateko Lasarte (LAS-068/004)

Garai batean Lasarte askoz txikiagoa zen; gero hazi zen, kanpotik jende asko etorri zelako. Nolakoa zen Lasarte. Sastrea. Dendak. Baserriak. Kaleko jendeak ere baratzeak eta abereak izaten zituen. Michelin inguruan dena baratzeak ziren. Beraiek ere bazuten baratzea; etxerako gaiak hartzen zituzten.

1.032. Lasarte-Oriako lantegiak I (LAS-068/006)

Lasarteko lantegiak: Michelin, Luzuriaga, Abrasivas del Norte... Botoiak egiteko lantegi txikiak ere bazeuden.

1.033. Lasarte-Oriako lantegiak II (LAS-068/008)

Etxe batzuen baxuetan botoiak egiteko lantegi txikiak zeuden. Lasarteko beste lantegi batzuk: Guca, Moreno Luque... Arotzeriak.

1.034. Lasarteko ikatz-saltzailea; arrandegia, tabernak (LAS-068/009)

Eduardo Oiarbide aguazila ibiltzen zen ikatza saltzen. Fernando arrandegia. Ama eta emaztea buruan zestoa hartuta kalean ibiltzen ziren arraina saltzen. Tabernak: Gure Etxea, Larrañaga. Sagardo garaian irekitzen ziren sagardotegiak.

1.035. Mutikotako jolas eta bihurrikeriak (LAS-068/011)

Lagun-talde handia ibiltzen ziren umetan jolasean. Mutilek beraiek egindako trapuzko baloiarekin jolasten zuten futbolean. Neskak txingotan ibiltzen ziren. Txori-habia bila ere ibiltzen ziren. Gero etxera eraman eta kaiolan sartu. Perrexilarekin hil egiten ziren. Mutikotako bihurrikeriak.

1.036. Garai bateko garraioak Lasarten: tranbia, trena, autobusa... (LAS-068/012)

Tranbia zegoen garai batean Lasarten. Donostiara joateko erabiltzen zuten. Andoaingo harrobitik Añorgara harria eramaten zuten, porlana egiteko. Ikatzezko trenak. Bizikleta. Baserritarrak zaldi-karroarekin, saltzera. Autobus zahar batzuk ere baziren; zestoak gainean jarrita joaten ziren Donostiara.

1.037. Baserrietara fruta jatera eta esne bila (LAS-068/013)

Baserritarrekin zuten harremana. Gereziak, sagarrak edo mizpirak jatera joaten ziren. Askotan gordinak jan eta eztarritik pasa ezinda. Saltsate baserritik hartzen zuten esnea. Kalera jaisten ziren astoarekin, esnea partitzera. Barazkiak etxeko baratzetik jasotzen zituzten.

1.038. JOC (Juventud Obrera Católica) taldetik alderdi komunistara (LAS-068/016)

Oriak komunista fama zeukan, "La pequeña Rusia" deitzen zioten. Usabiagatarrak, Bikuña. 16 urte ingururekin, Hernanira ikastera joaten zen sasoian, JOC (Juventud Obrera Catolica) taldean sartu zen. Eliza giroko taldea izanda, askatasun gehixeago ematen zieten gazteei gauzak egiteko. 22 urte ingururekin alderdi komunistara pasa zen. Alderdi komunista, sozialista eta EAJ ziren alderdi bakarrak.

1.039. Alderdi komunistaren bilerak ezkutuan frankismo sasoian (LAS-068/017)

Frankismo sasoian ibili zen alderdi komunistan, artean hauteskunderik egiten ez zenean. Ezkutuan egiten zituzten bilerak eta guardia zibilak etortzen zirenean, korrika alde. Lantokietan zer bide hartu komentatzen zuten bileretan. Kontzentrazioetan edo Pazko egunean ikurrina jartzera. Manifestazioak. Polizia nazionalak, grisak.

1.040. Lasarte-Oriako lantegiak (LAS-068/019)

Garai batean hainbat greba egin ziren lantegietan eta berak ere parte hartu zuen. Michelingo greba handia kanpotik bizi izan zuen. Berak, Hernanin mekanika ikasketak egin ostean, Lasarteko Gaztañaga metalurgian lan egin zuen lana. Gero, Mitra lantegian. Lasarte-Oriako lantegi garrantzitsuenak.

1.041. Abarketak apurtu arte; abarketa-denda (LAS-068/021)

Garai batean abarketa-denda bat zegoen Lasarten, Kandido Suduperena. Oinetakoak apurtu arte erabiltzen zituzten eta etxean konpondu ere bai askotan. Txapela ez zuen erabiltzen gaztetan, gerora hasi zen. Aitak beti erabiltzen zuen.

1.042. Mutilek ordaindu egin behar, dantzan egiteko (LAS-068/023)

Gaztetan bileretan pasatzen omen zuen denbora asko, frankistei nola kontra egin pentsatzen. Igandeetan soinu-jotzailea egoten zen eta hara ere joaten ziren. Mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantza egiteko. Gaztetan lagunen artean euskaraz egiten zuten.

1.043. Lasarteko zinemak; "Radio Pirenaica" entzuten zuten (LAS-068/024)

Parrokiko zinemara joaten ziren gaztetan. Geroago Lakarra zinema jarri zuten eta askoz geroago Tedoso. Pelikulak. Etxean ez zuten disko-jogailurik, baina irratia bai. "Radio Pirenaica" entzuten zuten gauetan, ezkutuan. Musikarik ez zuten entzuten.

1.044. Antzerkia egiten zuten euskaraz (LAS-068/028)

Euskaraz ia ezer ez zegoen garai hartan. Egunkari guztiak gaztelaniaz ziren. Beraiek antzerkia egiten zuten euskaraz elizako geletan. Oso modu afizionatuan jarduten zuten; "sasi-kasta".

1.045. Santa Ana parodia (LAS-068/029)

Santa Ana parodia, Manuel "Gure-etxea"ren bultzadarekin. Epaiketa bat antzezten da eta erruduna gero sutan erretzen da.

1.046. Komedianteak, pregoilaria, serenoa, traperoak (LAS-068/030)

Garai batean komedianteak etortzen ziren Lasartera. Goizean kalean zehar iragartzen zuten gauez arituko zirela. Eliza atzean egiten zuten ikuskizuna. Jendea etxetik aulkiak hartuta joaten zen ikustera. Pregoilaria ere izaten zen. Serenoa; berak ezagutu zuen lehenengoa Joxe Peña. Gero Makazaga, enterratzailea izan zena gerora. Traperoak ere izaten ziren; etxerik etxe trapuak bildu eta platerak ematen zituzten ordainetan.

1.047. Hipodromora eta golfera sos batzuk lortzera (LAS-068/031)

Hipodromora joaten ziren zaldi-lasterketak zeudenean, hara joaten zirenei dirua eskatzera. Azkenengo lasterketa bukatu aurretik irteten zirenen apustuak jasotzen zituzten batzuetan. Golfean, berriz, makilak eramaten zituzten diru pixka baten truk.

1.048. Garbitokia eta iturria; dutxarik eta komuneko paperik ez (LAS-068/033)

Garbitokia eta iturria non zeuden. Etxean bazuten ura, baina ur bila iturrira joaten ziren. Dutxarik ez zuten eta harraskan garbitzen ziren nola-hala. Komuneko paperik ez zen eta periodikoa erabiltzen zuten. Sukaldean egurra eta ikatza izaten zituzten. Ura nola berotzen zen.

1.049. Egurra menditik; ikatz-sailtzaileak (LAS-068/035)

Zakua hartu eta mendira joaten ziren, sukalderako ezpal bila. Pentsuak saltzen zituen Etxarrik ekartzen zuen ikatza. Eduardo Oiarbidek ere saltzen zuen ikatza. Aguazila zen eta zestoak ere egiten zituen.

1.050. Zenbait sendabelar; nola erabiltzen zituzten (LAS-068/037)

Amak sendabelarrak erabiltzen zituen: berbena, pareta-belarra... Beraiek joaten ziren belarrak jasotzera. Berbenarekin enplastoak egiten ziren, katarroa sendatzeko. Pasmo-belarra zauriren bat edukiz gero hartzen zen infusioan, zauria ez gaiztotzeko. Pareta-belarra tentsioarentzat. Ukenduak ere egiten zituen amak. Pablo medikua.

1.051. Arantzazura ibilaldia gauez (LAS-068/040)

Frankismo sasoian kontra nola egin pentsatzen ibiltzen ziren beti. Urtean behin Oñatitik Arantzazura ibilaldia egiten zuten gauez eta bidean ikurrina jartzen zuten.

1.052. Ikastolaren sorreran ibilia (LAS-068/041)

Ikastolaren sorreran ibili zen. Luis Tapia lehengusua eta biak ibili ziren ikastola eraikitzeko lurra markatzen. Azpitarte apaizak bultzatu zuen ikastola. Elizaren babesean errazago egiten ziren gauzak.

1.053. Lasarte-Oriaren sorrera (LAS-068/043)

1986an Lasarte-Oria sortu zenean, bera tartean ibili zen negoziaketetan. Lursail gehiago nahi zituzten, baina ez zuten lortu. Urnietak eraman zuela zatirik handiena dio. Herritarrak aspertuta zeuden edozer gauza egiteko Urnietara edo Hernanira joan beharraz eta hortik etorri zen herria osatzeko asmoa. Asko kostatu arren, azkenean lortu zuten.

1.054. Euskararen alde gehiago egin beharra (LAS-068/046)

Ikastola sortzeak zer ekarri zuen Lasartera: euskara lantzea eta ondorengoek euskaraz ikasi ahal izatea. Seme-alabak ikastolan ibili ziren. Aurretik euskara etxeko hizkuntza zen soilik; kalean gaztelaniaz. Gaur egun oraindik kili-kolo ikusten du euskararen egoera Lasarten. Gehiago egin beharra dagoela uste du.

1.055. Gaztañaga eta Mitra lantegietan lan egin zuen (LAS-068/050)

Gaztañaga metalurgia lantegian lan egin zuen lehenbizi. Gero soldadutza egin ostean, Mitran lantegian. Kotxeentzako motorrak artezten zituzten. 70 langile inguru ibili ziren; denak gizonezkoak, bulegoko emakumeak izan ezik. Gaztañaga lantegian artezteko makinak egiten zituzten. Itxi egin zen gero.

1.056. Etxean Goierriko euskaran (LAS-068/055)

Bizkaia aldeko euskara ulertzeko zailagoa da. Goierrikoek bukaeran -e jartzen dute, baina ondo ulertzen da. Gurasoak zaldibiarrak zirenez, beraiek ere Goierriko euskara erabiltzen zuten etxean.

1.057. Apaizak konfesatzerakoan egiten zizkion galderak (LAS-068/057)

Emaztegaia neskame zegoen Donostian eta ez zuten denbora libre asko izaten. Neguan zinemara; eguraldi onarekin paseatzera. Musu ematea ere bekatu zen. Apaizak zer galdera egiten zizkion, konfesatzera joaten zenean. Emakumeak sarearen atzealdean egoten ziren konfesatzerakoan, baina gizonezkoak aurrez aurre.

1.058. Komunismoa eta kristautasuna bateragarriak (LAS-068/058)

Mezatara joaten zen. Luistarrak. Aste Santuetan predikadorea ekartzen zuten, sermoiak egitera. Komunista egin arren, mezatara joaten jarraitu zuen. Berarentzat kristautasunak eta benetako komunismoak oinarri bera dute: ondokoari laguntzea.

1.059. Gurasoek jarri zuten dirua ikastola egiteko lur-saila erosteko (LAS-068/061)

Ikastolako guraso elkartean egon zen. Hasieretan gela batean hasi zen ikastola nola-hala. Gurasoek dirua jarri eta lur-saila erosi ostean, ikastolaren eraikin berria egin zen. Eskulana ere askotan beraiek egiten zuten, gastuak murrizte aldera.

1.060. Usurbilgo Ibarrola baserria (LAS-069/002)

Usurbilgo Ibarrola baserrian jaio zen. Berriztuta dago baserria. Ibarrola baserriaren historia kontatzen du. Gerraostean, guraso, aiton-amona eta sei anai-arrrebez gain, lehengusuak ere bizi ziren baserrian.

1.061. Eskolan gaztelania jakin gabe hasi zen (LAS-069/003)

Eskolara oinez joaten ziren bazkaria eramanda. Oinetakoak aldatzeko eramaten zituzten, eguraldiaren arabera. Eskola eta dotrina gaztelaniaz ziren eta berak euskaraz bakarrik hitz egiten zuen. Andereño Maritxu.

1.062. Señorita Maritxu maistra (LAS-069/004)

Eskolako irakaslea Señorita Maritxu zen. Euskalduna eta abertzalea zenez, ulertzen zuen ikasleen egoera. Mutilen maisua, ordea, erdalduna zen eta zigor asko jartzen zituen.

1.063. Aitak ez zekien gaztelaniaz (LAS-069/005)

Aitak ez zekien gaztelaniaz eta udaletxera joaten zenean baserriko tramiteak egitera, ez zuen ezer ulertzen eta seme-alabek laguntzen zioten. Soldaduskara joaten zirenek gaztelania ikasten zuten, baina aita ez zen joan.

1.064. Usurbilen dena euskaraz; Lasarten, ez (LAS-069/006)

Usurbilen baserritar guztiak euskaldunak ziren eta Lasarten "las caseras de Usurbil" deitzen zieten. Lasarten modan zegoen gaztelaniaz hitz egitea eta euskaldunak zirenek ere egiten zuten. Bere lehengusuek ez zekiten euskaraz, nahiz eta haien amak gaztelaniaz ez jakin.

1.065. Lasarteren hazkundea (LAS-069/007)

Lasarte 1955 urte inguruan hasi zen hazten. Auzo ezberdinen sorrera. Inguruko herriak. Hernanik eta Urnietak antolatzen zituzten inguruko herriak.

1.066. Usurbilgo eliza Lasartekoa baino gogorragoa (LAS-069/008)

Nahiz eta baserria Usurbilen dagoen, igandetan Lasartera joaten ziren. Usurbil eta Lasarteren ezberdintasunak: elizaren indarra, debekuak... Usurbilen gaizki ikusia zegoen mutilekin dantzatzea.

1.067. Garai batean, laguntasun handiagoa zegoen (LAS-069/009)

Gerraostean, lehengusuak eta herriko haur batzuk baserrian jaten zuten, ez zegoelako janaririk. Auzolan handia zegoen lehen: elikagaiak banatu, suteak itzali, etxeak berreraiki...

1.068. Garai bateko eta gaur eguneko bizimodua (LAS-069/010)

Gaur egungo bizimodua, garai batekoa baino tristeagoa da. Bittori pozik bizi da daukanarekin.

1.069. Baserrien desagerpena (LAS-069/011)

Denborarekin, baserriko lanen eta funtzioen aldaketei buruzko kritika.

1.070. Gaur egungo kontuak, gerrak, goseak... (LAS-069/012)

Gaur egun, gizartea guztiz kontrolatuta dagoela uste du Bittorik. Familiako kontuak. Gerraosteko gosea. Gaur egun gerra egongo balitz, ez iitzake denentzat elikagairik izango.

1.071. Irina lortzeko kontrola; animaliak gauez eta ezkutuan hiltzen (LAS-069/013)

Garai batean, baserrian dena zuten: garia, artoa... Aiako okindegian lortzen zuten irina estraperloan. Guardia Zibila kontrolatzen egoten zen eta irina baserrira nola eramaten zuten kontatzen du. Baserrian animaliak ezkutuan hiltzen zituzten, zergak ez ordaintzeko

1.072. Baserriko lanen banaketa (LAS-069/014)

Baserrian egiten zituzten lanak: amona sukaldean, ama barazkiak saltzera, ahizpa batek denentzako arropak egiten zituen eta beste ahizpek eta Bittorik, ganadua zaindu, belarra batu, barazkiak jaso eta sartu...

1.073. Idiekin eta goldeekin lurra lantzen (LAS-069/015)

Lurra, idiekin eta goldeekin lantzen zuten. Ume zirela eta goldean zeudela gertatutako istorio bat kontatzen du.

1.074. Galtzak janzten lehenengo neska (LAS-069/016)

Umetatik galtzak janzten zituzten, basora joaten zirelako mendia garbitzera. Neskek eta emakumeek ez zituztelan galtzak janzten, baina berak bai. Bizikletan asko ibiltzen ziren.

1.075. Michelinen lanean: ordutegiak, lanegunak, aparteko orduak... (LAS-069/017)

Baserritik izeba baten etxera jaisten ziren, eta han zapatak aldatu, bizikleta hartu eta Michelinera joaten ziren lanera. Laneko ordegutegiak. Jaiegunak.

1.076. Michelingo irundegian denak emakumeak (LAS-069/018)

Bittorik Michelineko irundegian lan egiten zuen. Garai batean produkzio guztia egiten zen: hari mehetik hasi eta gurpil osora arte. Irundegian denak emakumeak ziren, ezkongabe eta ezkonduak. Destajuan lan egiten zuten eta denak oso finak eta langileak ziren.

1.077. Gerraosteko emakumeen eskubide faltak (LAS-069/019)

Gerraostean, lege bat atera zen emakumeak ezkontzerakoan lana utzi behar zuela zioena. Emakumeek gidatzeko baimena ateratzeko edo batxilera ikasteko zerbitzu soziala egin behar zuen.

1.078. "Gizonagoa" zen emaztea eta maitalea zituena (LAS-069/020)

Emaztea beti gizonaren menpe zegoen. Gizonak emazteaz gain maitale bat bazeukan, "gizonagoa" zen.

1.079. Michelin lantegiko lan-prozesuak eta lan-baldintzak (LAS-069/023)

Michelinen zazpi urtez egin zuen irundegian lan. Lan-prozesua, materialak, makinak eta lantegiaren zonalde ezberdinak azaltzen ditu. Michelingo lan-baldintzak onak ziren. Soldata ona zen, lantegiak erreztasunak ematen zituen.

1.080. Michelingo ehun eguneko greba (LAS-069/024)

Michelingo irundegian denak emakumeak eta euskaldunak ziren. Bittoriren senarra nagusietako bat zen eta lantegiaren 100 eguneko greban, baztertuak izan ziren herrian. Grebaren arrazoiak eta ondorioak.

1.081. Michelingo egun eguneko grebak herriko familiak banatu zituen (LAS-069/025)

Michelinen 5.000-6.000 langile izatera heldu zen. Greba luzeak giro txarra sortu zuen familia ezberdinen artean.

1.082. Lasartera dantza egitera (LAS-069/027)

Hamahiru urterekin, ahizpekin Lasartera joaten zen Bittori dantzara. Bera oso gaztea zen eta helduagoak ziren mutilekin dantza egiten zuen. Dantzaldiak nolakoak ziren azaltzen du. Mutilei pezeta bat kobratzen zitzaien dantza egiteagatik; neskei, ez.

1.083. Dantzaldira joateko, takoiak; ile-apaindegiak (LAS-069/028)

Dantzaldira joateko, takoizko zapatekin joaten zen. Ile-apaindegira Lasartera joaten ziren: Maritxu San Jose, Mertxe... Orrazkerak. Etxean ilea labe alboan lehortzen zuten.

1.084. Udan errekan garbitzen ziren, neguan terreinan (LAS-069/029)

Baserrian ez zuten dutxarik. Udan, errekan garbitzen ziren eta neguan terreinan. Terreinan ur beroa berotu eta bost lagun garbitzen ziren bertan, txandaka.

1.085. Komuna baserrian; dena berrerabiltzen zen (LAS-069/030)

Etxe batzuetan, komuna korridorean zegoen eta familia ezberdinek konpartitzen zuten. Baserrian eta izebaren etxean, komuna egurrezkoa zen eta etxetik kanpo egoten zen. Kakak ongarri bezala erabiltzen ziren.

1.086. Txerri-jana eta behientzat janaria (LAS-069/031)

Txerri-jana nondik lortzen zuten. Behientzat janaria nola prestatzen zuten. Garagardotegiak sortzen zituen hondakin organikoak erabiltzen zituzten ere.

1.087. Untxien hazitegia baserrian (LAS-069/032)

Egurraren txirbila erabiltzen zuten lurra garbitzeko. Aita hil zenean, Bittorik baserrira 200 untxi eraman zituen.

1.088. Neska-laguntzea (LAS-069/033)

Senarra dantzan ezagutu zuen. Neska-laguntzea zer zen. Inoiz ez du jasan inolako errespetu-faltarik edo erasorik.

1.089. Haurdun ezkontzea (LAS-069/034)

Birjina ezkondu zen. Erlijio aldetik bekatua zen eta gainera, haurdun geratzeko arrisku handia zegoen. Emakume ezkongabe batek haur bat izatea oso gaizki ikusia zegoen.

1.090. Aldare nagusian edo Ama Birjinaren aldarean ezkontzea (LAS-069/035)

Garai batean, ezberdintasuna zegoen aldare nagusian, Ama Birjinaren aldarean edo San Joseren aldarean ezkontzearekin.

1.091. Kategoria ezberdinetako hiletak (LAS-069/037)

Kategoria ezberdinetako hiletak egoten ziren, familiak pagatzen zuen diruaren arabera.

1.092. Emakumeek ez zuten denbora librerik (LAS-069/039)

Ezkontzako apaingarriak denbora librean eta gauetan egiten zituzten neskek. Mutilak tabernetan ibiltzen ziren. Bittorik ez du bere ama inoiz ikusi denbora libreaz gozatzen, jatetxe batetara joaten...

1.093. Atsolorra (LAS-069/040)

Haur bat jaiotzen zenean, atsolorra egiten zen, hau da, umea ikustera joan eta askaldu.

1.094. Garai batean gehiago abesten zen (LAS-069/041)

Irratitik entzuten zituzten kantak abesten zituzten, dena gaztelaniaz. Garai batean gehiago abesten zen. Mutilak nesken etxera jaoten ziren kantatzera. Gabonetako kantak.

1.095. Lasarten ez zegoen urik etxeetan (LAS-069/042)

Telebista izaten lehenetarikoak izan ziren. Oso auto gutxi zeuden Usurbilen. Garbigailua erosten ere lehenetarikoak. Garbitu bakarrik egiten zuen. Baserrian arropa nola garbitzen zuten. Usurbilen etxeetan ur-korrontea zuten baina Lasarten 1968 inguruan jarri zuten.

1.096. Telefonorik ez (LAS-069/043)

Telefonorik ez zutenez, igande batetik bestera gelditzen ziren lagunak. Telefonistak. Errekadistek ere mezuak eramaten zituzten alde batetik bestera. Gasteizko Michelin eraiki zenean, Bittori eta bere senarra Gasteizera joan behar izan ziren planoak eramatera ez zegoelako beste modurik.

1.097. Aitona enplasterua (LAS-069/045)

Usurbilgo medikua Don Justo zen. Zaldian joaten zen baserritik baserrira. Bittoriren aitona enplastero antzeko bat zen eta belarrekin osatzen ziren.

1.098. Zauri eta infekzioentzat ukendua (LAS-069/046)

Bittoriren gizonak iktus bat izan zuen eta etxera eraman zutenean, zauriz beteta zegoen. Bittorik egiten duen ukenduarekin, denak osatu zitzaizkion. Berbena, pasmo-belarra, argizaria... erabiltzen ditu. Aitonak erakutsi zion ukendua egiten.

1.099. Norbait hiltzean bazkaria egiten zuten (LAS-069/050)

Garai batean norbait hiltzen zenean, hildakoaren etxean errosarioa errezatzen zen eta ondoren, ardoa, intxaurrak eta gazta banatzen ziren. Bazkariak ere egiten ziren.

1.100. Herriko jaietan familiarteko bazkaria (LAS-069/051)

San Pedroetan hogei bat lagunentzat bazkaria prestatu izan du.

1.101. Txalapartariak (LAS-069/054)

Sasoetan beti jotzen zen txalaparta, baita galarazita zegoenean ere.

1.102. Komunikatzeko moduak: txalaparta, kanpaiak, maindireak... (LAS-069/056)

Txalapartaren jatorri posibleaz hitz egiten du Bittorik. Komunikatzeko tresna. Mutil-lagunarekin baserri kanpoko maindireen kokapenaren bidez komunikatzen zen.

1.103. Denbora eguzkiarengatik kalkulatzen; ilargiaren efektua (LAS-069/057)

Erlojurik ez zutenean, denbora eguzkiaren bitartez kalkulatzen zuten. Beharrak gauza asko erakusten ditu. Egurra ilbeheran mozten da.

1.104. Dolarea eta erlauntzak zituzten baserrian (LAS-069/058)

Dolarea zuten baserrian eta aita aritzen zen bertan. Erlauntzak zituzten baserrian. Nolakoak ziren. Barazkiak, loreak eta esnea saltzen zituzten.

1.105. Ehun litro esne banatzen zituen egunero (LAS-069/059)

Esnea banatzen zuten baserrian. Neguan, Bittoriren ahizpa batek banatzen zuen esnea eta udan lagundu egiten zion. Jende askok, esnearen ordainetan janaria edo arropak ematen zizkieten. Ezkondu eta gero ere esnea banatzen ibili ziren Bittori. Nola garraiatzen eta banatzen zuen esnea.

1.106. Kimikoak saltzen zuten esnearen kontrolatu egiten zuen (LAS-069/060)

Esne-banatzaileen artean kimiko bat pasatzen zen, esnearen kalitatea neurtzeko. Batzuetan, litro gehiago lortzeko esnea urarekin nahasten zen eta kontrolatu beharra zegoen.

1.107. Urtean bi txerri hiltzen zituzten eta banatu egiten zuten (LAS-069/061)

Urtean bi txerri hiltzen zituzten Ibarrola baserrian. Apaizari, medikuari eta albaitariari txerriaren zati bat ematen zieten, barazki batzuekin batera.

1.108. Norbaiten heriotzaz abisua ematen; hil-kanpaiak; su-kanpaiak (LAS-069/062)

Norbait hiltzen zenean, auzoz auzo ibiltzen ziren berria zabaltzen eta ordainetan jateko zerbait lortzen zuten. Kanpaiak jotzen ziren heriotzei buruz berri emateko, suteak abisatzeko...

1.109. Lasarteko ikastolaren sorrera; lehenengo andereñoa (LAS-069/063)

Usurbiletik Lasartera bizitzera joan zenean, 1964an, giroa oso erdalduna zen. Ikastola sortzeko beharra ikusi zuten eta bilerak egiten hasi ziren. Lasarteko ikastolaren sorreraz hitz egiten du. Andre Joakinaenea. Klandestinitatea. Ikuskaritzak.

1.110. Arantxa Mendizabal andereñoa (LAS-069/064)

Arantxa Mendizabal Lasarteko ikastolako lehenengo andereñoaz hitz egiten du. Bittoriren etxean bizi izan zen urte batzuez.

1.111. Ikastola klandestinoa elizaren menpe (LAS-069/065)

Lasarteko ikastola pixka bat garatu zenean, Usurbilgo haurrak ere bertara joaten hasi ziren. Dena isilpeka egiten zuten.

1.112. Goizetan eskolara eta arratsaldetan baserriko lanetan (LAS-070/002)

Zubietako Petritza txiki baserrian jaioak. Gurasoen jatorria. Umetako baserriko bizimodua: eskolara joaten ziren eta arratsaldean baserriko lanak egitera.

1.113. Eskolako kontuak (LAS-070/003)

Behiak zituzten baina esnea ez zuten saltzen. Artoa zuten eta taloa gosaltzen zuten. Eskola Zubietan bertan, elizaren ondoan. Maistra euskalduna eta maisua falangista. Cara al Sol kantatzen.

1.114. Jaunartzea egin eta lanera (LAS-070/004)

Hamaika urterekin dotrina ikastera Usurbilera. Jaunartze egunean nola joan ziren jantzita. Hamabost urterekin Abrasivas del Norten lanean hasi zen Joxe Antonio eta ondoren autobus-kobratzaile bezala aritu zen soldaduskara joan arte.

1.115. Garaiko Donostialdeko autobus-bidaien prezioak (LAS-070/005)

Donostialdeko autobus txartelek zenbat balio zuten. Bi autobus zeuden, bat Lasartetik ateratzen zen eta bestea Zubietatik.

1.116. Autobus-kobratzaile (LAS-070/006)

Baserritarrek marmitak, otarrak... nola eramaten zituzten autobusean. Kobratzeaz gain, gauzak ondo kokatzen laguntzen zuten,

1.117. Autobusaren erabiltzaileak (LAS-070/007)

Astean zehar baserritarrek erabiltzen zuten gehienbat autobusa. Baina gainerako herritarrek ere. Futbola zegoenean jendeak ez zuen errespetatzen autobusera igotzeko txanda.

1.118. Autobus gidaria karnetik gabe (LAS-070/008)

Soldata oso baxua zuten baina eskupekoak jasotzen zituzten otarrak igotzen eta jaisten laguntzean. Txoferrari ere eskupekoa. Joxe Antonio, kobratzaile izatetik gidari izatera pasatu zen hamazazpi urterekin. Bi asteaz kobratzaile eta beste astebetez mekaniko bezala.

1.119. Autobusak oso zaharrak ziren (LAS-070/009)

Autobusek ez zituzten keinukariak eta barruan ez zegoen izpilurik ere ez.

1.120. Ejerzitoko kamioarekin atera zuen gidabaimena (LAS-070/010)

Joxe Antoniok soldaduska Donostian egin zuen eta gidari bezala aritu zen. Kamioilari gidabaimena ateratzeko, komandanteak utzi zion kamioi bat.

1.121. Michelin-eko soldatak diru-zakoetan garraiatzen (LAS-070/011)

Asteburuak libre izateko, Michelin-en lanean hasi zen. 4000 langile zituen eta soldata guztiak ordaintzeko diru-zakuak garraiatzen zituen. Gabonetako otarra jasotzen du erretiratua egon arren.

1.122. Michelin-eko greba luzea (LAS-070/012)

Hiru hilabeteko Michelin-eko grebaz hitz egiten dute. Janaria nondik lortzen zuen jendeak. Grebaren arrazoiak. Comisiones Obreras.

1.123. Lambretta eta Vesparen estalkiak egiten (LAS-070/013)

Joxek Lambretta eta Vesparen estalkiekin lan egiten zuen Michelin-en. Lan-prozesua kontatzen du. Erroberen hariak beste leku batean egiten zituzten.

1.124. Mekaniko eta trailer-gidaria Michelin-en (LAS-070/014)

Emakumeak aritzen ziren erroberen harietan lanean. Joxe Antonio mekaniko lanetan aritu zen Michelin-en eta gerora trailerrarekin ibili zen.

1.125. Lasarte nolakoa zen (LAS-070/015)

Umeak zirenean, Lasarte nolakoa zen kontatzen dute: baserriak, fabrikak, komentua, zalditegia... Denda bat zegoen eta enkarguak egitera joaten ziren Zubietatik Lasartera.

1.126. Txerriaren gantza olio bezala erabiltzen zuten (LAS-070/016)

Txerria hiltzen zuten etxean eta gantza erabiltzen dute olioaren ordez. Arto-irina Hernanin trukatzen zuten.

1.127. Herriko festetan, menu berezia baserrian (LAS-070/017)

Herriko festetan jaten zutena: babarrunak edo txitxirioak, oilaskoa eta arroz-esnea. Behin amari kanela ahaztu zitzaion erostea eta Joxe Antonio aitaren bizikletarekin joan zen bila, erori eta bizikleta puskatu zen.

1.128. Eskolako zigorrak (LAS-070/018)

Joxe asko zigortu dute eskolan, ez zituelako etxeko-lanak egiten. Zigorrak nolakoak ziren. Eskola gaztelaniaz bazen ere, euskaraz azaltzen zituen gauzak maistrak. Ikasitako matematikak autobus-kobratzaile izateko lagungarri izan ziren.

1.129. Autobusetan lanean ikasi zuten gaztelaniaz (LAS-070/019)

Autobusean lanean ikasi zuten gazteleraz hobeto moldatzen. Herriko apaiza gogorra zen.

1.130. Apaizaren jipoiak (LAS-070/020)

Herriko apaiza oso gogorra zen eta jipoitu egiten zituen umeak. Istorio bat kontatzen du.

1.131. Familiako etxea Lasarten (LAS-070/021)

Zubietatik Lasartera bizitzera. Familiako etxea.

1.132. Musean ere gaztelaniaz egin beharra (LAS-070/022)

Lasartera bizitzera joan zirenean, euskara entzuten zen baina Zubietan askoz ere gehiago. Euskara debekatua. Euskaraz hitz egiteagatik guardia zibilak errieta

1.133. Garai batean, kanpotik zetozenek ez zuten euskaraz ikasten (LAS-070/023)

Lasartera kanpotik etorritako jende asko egon zen euskaraz ikasi ez zuena eta hasarretu egiten ziren bertakoek euskaraz hitz egiten bazuten. Joxe Antoniok Michelinen irratia euskaraz jarrita izateagatik bi lankideren artean izandako liskarra kontatzen du. Astelehenero kanpotik etorritako langile asko heltzen zen Lasartera, kartoizko maletarekin.

1.134. Euskara batua ulertzeko zailtasunak (LAS-070/025)

Ikastola sortu zenean, herrian euskara gehiago entzuten zen aurreko urteekin alderatuta. Gaur egun, euskara batuaz jende askok hitz egiten du eta askotan ez dute ulertzen.

1.135. Zaletasun handiena, trikitia jotzea (LAS-070/026)

Joxe Antonioren zaletasun handiena trikitia jotzea da. Nola ikasi zuen. Festetan, ezkontzetan eta bestelakoetan jo izan du. Erretiratu zenean trebatzen hasi zen berriz.

1.136. Iru-Biden dantzan (LAS-070/027)

Gaztetan dantzara Iru-Bidera joaten ziren. Igeldon bazegoen beste dantzaleku bat baina gorbata jantzita sartu behar zen. Iru-Biden ia denak euskaldunak. Bikote asko sortu ziren.

1.137. Iru-Biden ezagutu zuen emaztea (LAS-070/030)

Joxek emaztea Iru-Biden dantzan ezagutu zuen.

1.138. Umetan telefonorik ez (LAS-070/033)

Gaur egun telefono mugikorra gehiegi erabiltzen da. Umetan lagunen bila joaten ziren haien etxe edo baserrietara. Irratia entzuten zuten. Sukaldeko ekonomikan lehortzen ziren. Gainerako etxea beti hotz.

1.139. Baserriko komuna eta dutxa (LAS-070/035)

Baserriko komuna eta dutxa nolakoak ziren; dena ikuilura.

1.140. Baserrian ur-korronterik ez (LAS-070/037)

Baserrian ez zuten ur-korronterik eta errekan garbitzen zituzten arropak. Edateko ura errekatik hartzen zuten ere. Ura gutxi edaten zuten, sagardoa gehiago. Gaur egungo eta garaiko sagardotegiei buruz hitz egiten dute.

1.141. Oilarraren kontra ibiltzen ziren umetan (LAS-070/039)

Osabari behia jeizten ari zela egindako bihurrikeria; eskolako jolasak; oilarraren kontra txikitan

1.142. Txitoa nola jaiotzen den (LAS-070/040)

Txita nola jaiotzen den kontatzen du Joxe Antoniok.

1.143. Baserriak su hartu zuenean (LAS-071/002)

Zubietako Goiaran baserrikoa; Gurasoen jatorria. Familia Lertxundi baserritik Goiaranera nola aldatu zen. Baserria bitan banatuta zegoen eta behin batek su hartu zuen. Beraien baserriaren partea nola libratu zen.

1.144. Anaia gaztetan hil zen (LAS-071/003)

Anaietako bat 19 urterekin nola hil zen kontatzen du. Batistak berria nola jakin zuen.

1.145. Lasarteko eskola zaharrak (LAS-071/005)

Lasarten hasi zen eskolara joaten 5 urterekin. Eskola lekuz aldatu zuten. Kokapenak. "Txintxuaneko" alaba ze maistra. Eskola nazionaleta ere ibilia da. "Cara al Sol" kantatu behar zuten. Zubietatk oinez joaten zen eskolara, hasieran anai-arrebekin eta gero bakarrik.

1.146. Garai bateko Lasarte I (LAS-071/006)

Garai batean Lasarten zeuden denda eta negozioak aipatzen ditu, banan-banan.

1.147. Garai bateko Lasarte II; kanpotar gutxi (LAS-071/007)

Labaderoa non zegoen. Garai batean Lasarten zeuden kaleak, baserriak, etxeak, negozioak...Umea zenean, oraindik ez zen kanpotik etorritako inor Lasarten, gutxi batzuk izan ezik. Valladolid-etik etorritako gizon bat.

1.148. Garai batean, Lasarten dena euskaraz (LAS-071/008)

Umetan euskaraz aritzen ziren denak. Eskola nazionaletan ere euskaraz. Gerora ikasi zuen gaztelaniaz, Hernaniko lan-eskolan. Kanpotik jendea Lasartera lanera heltzen hasi zenean, baserritarrei barre egiten zieten gaztelaniaz hitz egiten ez zutelako.

1.149. Guca lantegian lanean (LAS-071/009)

Tornulari izateko ikasketak egin zituen. Guca lantegian lana nola eskaini zioten. Lehenengo eguna lantegian.

1.150. Soldaduska egitera Loiolara (LAS-071/010)

Soldaduskara joan behar zela esan zioten egun batetik bestera.

1.151. Guca lantegia: produktuak, lan-prozesua... (LAS-071/011)

Soldaduska egin eta gero Gucan lanean jarraitu zuen baina lantegiaren lekuan etxebizitzak egingo zirela entzuten zen herrian. Gucan egiten ziren produktuak: zartainak, palak... Prentsak.

1.152. Baldosa metalikoak, Guca lantegian eginak (LAS-071/012)

Guca lantegia, baldosa metalikoak egiten hasi zen eta beste lantegi handiei saltzen hasi ziren, adibidez Michelin-eri. Baldosa egiteko prozesua. Molde berriak nola egin.

1.153. Guka lantegitik Michelin-era (LAS-071/013)

Guca lantegiak hiru sekzio zituen: galdaketa, forja eta estanpazioa. Lasarteko lantegia itxi eta Hernanin kokatu ziren. Lana eskaini zioten Batistari, baina ezetz esan zuen, Michelinen mekaniko bezala lanean hasita zegoelako.

1.154. Michelin lantegiko makinak; lan-prozesua (LAS-071/014)

Michelin-en mekaniko bezala aritu zen lanean, gehienbat mantenimenduan. Makina-motak. Gurpilak zerotik egiten ziren, haritik hasita.

1.155. Gurpilen azalak nola egiten diren (LAS-071/015)

Michelinen lan egiten zuen sekzioa Gasteizera lekualdatu zenean, gurpil-azalak egiten hasi zen Batista.

1.156. Michelin lantegiko 100 eguneko grebaz (LAS-071/016)

Michelin lantegiko 100 eguneko grebaz. Garai gogorrak izan ziren.

1.157. Michelin: modernizazioa eta espezializazioa (LAS-071/017)

Michelinen lanean hasi zenean 3000 bat langile ziren. Belgikako lantegi bat itxi zenean, bertara joan ziren 18 lagun makina guztiak desmontatzera Lasarteko lantegira eramateko. Orduan, Michelin-a modernizatzen hasi zen. Laneko azken 10 urteak galdaran eman zituen eta lantegia motorren gurpiletan espezializatzen hasi zen. Gaur egun ia guztia teknologiaren bitartez egiten da.

1.158. Emaztea nola ezagutu zuen; dantza (LAS-071/019)

Emaztea izango zena nola ezagutu zuen kontatzen du. Jaietan ez, baina dantzaldietan mutilek ordaindu behar zuten eta neskek ez. Dantzak.

1.159. Dena bekatua; dena galarazita (LAS-071/021)

Zubietan lotuta dantza egitea bekatu zen eta banaka ("sueltoan") dantza egiten zuten. Zubietako apaiza elizako dorrera igotzen zen dantzaldia ikuskatzera eta guardia zibilak eramaten zituen Lasartetik. Dena galarazita zegoen eta dena bekatua zen.

1.160. Koartelera eraman zutenekoa (LAS-071/022)

Batista koartelera eraman zutenekoa. Lasarteko udaletxe azpian zegoen. Nortasun agiria kendu zioten eta nola berreskuratu zuen kontatzen du.

1.161. Kontrolpean bizi ziren (LAS-071/023)

Behin, Zubietako sagardotegian bertsoaldi bat antolatu zen, ehun bat lagunekin. Guardia zibila joan zen han nor zegoen ikustera.

1.162. Guardia zibilen kontrolak eta isunak; beldurra (LAS-071/024)

Guardia zibilaren kontrolak zeuden egunero Hernanitik Lasarterako bidean. Edozein txorakeriagatik gelditzen zituzten eta isunak jartzen zituzten. Guardia zibilarekin izandako istorio bat kontatzen du.

1.163. Gurdiarekin egun osoan (LAS-071/025)

Umetatik baserriko lanetan aritu da, behiekin eta gurdiekin gari bila.

1.164. Lasarten esnea banatzen eta txerri-jana biltzen (LAS-071/026)

Esnea banatzen ibili zen Lasarten. Marmitekin garraiatzen zuten esnea eta txantxillekin banatu. Esnea banatu eta gero, txerri-jana biltzen zuen herritik. Amak jezten zituen behiak normalean. Artzaiekin harreman estua zuten.

1.165. Txerria urtero hiltzen zuten (LAS-071/027)

Txerria urtero hiltzen zen eta banatu egiten zen. Apaizak beti lortzen zuen bere zatia.

1.166. Baserriko lanak: oiloak zaindu (LAS-071/028)

Batista izena zergatik jarri zioten. Baserriko oilo, oilanda eta oilarrak.

1.167. Amona, Hernaniko Galarreta baserrikoa (LAS-071/029)

Amona, Hernaniko Galarreta baserrikoa zen eta azkenengo urteetan Batistaren baserrian bizi izan zen, bertan hil zen arte. 1952an otsaila guztian zehar elurra egin zuen, egunero.

1.168. Heriotza: gorputz-bidea, gaubela, erramua, bazkaria... (LAS-071/030)

1952ko elurtean, hildakoak eramateko mendi-bidea ("gorputz-bidia") moztuta gelditu zen. Gorpua bizkarrean eramaten zuten. Heriotzen berri nola jakiten zuten. Gorpua etxeetan egoten zen eta gaubela egiten zitzaion. Amona hil zenean, gurasoek bazkaria banatu zuten. Gurasoen hiletan ordea, ez.

1.169. Baserrira ura nola heldu zen (LAS-071/031)

Michelinak ura behar zuenez, Udalarekin hitzarmen bat egin zuen menditik lortzeko. Mendia zulatu eta hoditeria batzuen bidez ura eraman zuren herrira. Hodi hoien ibilbidean zeuden baserriek orduan lortu zuten ura etxean izatea.

1.170. Argia karburuarekin lortzen zuten; eskuzko-farolak (LAS-071/032)

Txikierdin zentral elektriko bat zegoen baina oso potentzia gutxi zuen. Udan, errekek ur gutxi zutenez, argi gutxi zuten. Karburua erabiltzen zuten.

1.171. Radio Andorra (LAS-071/033)

Irratia etxean sartu zenean, apal berezi bat egin zioten. Irratian Francoren inguruko berriak ematen zituzten. Radio Andorra saiatzen ziren sintonizatzen

1.172. Garbitzeko harria baserri parean (LAS-071/035)

Baserri parean garbitzeko harria zegoen eta Lasartetik ere jendea joaten zen erropa garbitzera.

1.173. Lasarte eta Zubieta (LAS-071/036)

Zubieta, Donostia eta Usurbilen artean dago banatuta. Garai batean, Lasarte Urnieta eta Hernaniren baitan zegoen.

1.174. Angulak eta bisigua maiz jaten zituzten (LAS-071/039)

Sagardotegira asko joan da lagunekin eta lankideekin. Angulak eta bisigua maiz jaten zituzten.

1.175. Kale-saltzaileak: txurro-saltzailea, barkileroa, traperoak... (LAS-071/040)

Txurro-saltzailea igandero meza aurretik heltzen zen; barkileroa zaldi-karreretan; erroskila-saltzailea erromerietan; traperoak, zorroztaileak...

1.176. Perratzailea (LAS-071/041)

Perratokia eta perratzailea. Garai batean, animaliak kalean zehar ere egoten ziren.

1.177. Baserri guztiek zituzten behiak, txerriak eta untxiak (LAS-071/042)

Usurbilgo Bizkarre baserrian zezena zuten eta hara eramaten zituzten behiak. Baserri guztiek zituzten behiak, txerriak eta untxiak.

1.178. Lanean hasi arte, dirurik ez (LAS-071/043)

Garai batean, Lasarteko zinea non zegoen. Ez zuten dirurik joateko. Lanean hasi aurretik, ez zen tabernetara jaoten.

1.179. Egunero eskolara bi joan-etorri (LAS-071/044)

Egunero eskolara bi joan etorri egiten zituen. Inoiz ez zuen eskolara faltatu baserrian laguntzeagatik. Ez ziren baserritik bakarrik bizi. Goiko baserrikoak, baserriaz bakarrik bizi ziren.

1.180. Baserrian beti dago lana (LAS-071/045)

Baserrian inoiz ez zen lanik falta. Urteroko lanak kontatzen ditu. Txarrantxa kendu, goldatu, hazia sartu, belarra kendu, barazkiak atera... Dena apobetxatzen zuten: artolorea, gailorra, maizorria...

1.181. Egunero babarrunak bazkaltzeko (LAS-071/046)

Baserrian ez zuten sagardorik egiten. Sei soro izatera heldu ziren: babarrunak, erremolatxa, artoa... Babarruna egunero jaten zuten. Txerri-hezurrekin salda gazitzen zuen amak.

1.182. Osaba Meagan eraila (LAS-072/002)

Etxean ez zen gerrari buruz hitz egiten, Soldaduek osaba eraman zuten eta Meagan erail zuten. Osaba jeltzalea zen. Fraide batek gertatutakoari buruzko eskutitz bat idatzi zuen.

1.183. Lasarten zeuden eskolak (LAS-072/003)

Umeak zirenean, euskara etxean hitz egiten zuten. Eskolan debekatua zegoen euskaraz hitz egiteko. Lasarten zeuden eskola ezberdinak aipatzen ditu. Michelingo eskolak, fabrikaren eskola propioak. Sei urtera arte neska eta mutilak elkarrekin eta gero banatuta.

1.184. Etxean euskaraz, kalean gaztelaniaz (LAS-072/004)

Eskolak gaztelaniaz ziren. Etxean bakarrik hitz egiten zuten euskaraz, amak derrigortuta. Lagunek euskaraz jakin arren, eskolan gaztelaniaz egiten zutenez, gero ere horrela egiten zuten. Amak, ordea, bizilagunekin euskaraz egiten zuen.

1.185. Euskaraz hitz egitea debekatua (LAS-072/005)

Umetan Lasarten 1000 biztanle inguru zeuden. Michelin fabrika handitzen hasi zenean, herriak biztaleria asko irabazi zuen. Kalean ia denek gazteleraz.

1.186. Neskak etxeko lanetara eta mutilak ikasten jarraitzera (LAS-072/006)

Michelineko eskolan erabiltzen zuten entziklopedia gogoratzen du. Neska zenez eskolatik atera zuten familia zaintzeko. Mutilek ikasten jarraitzen zuten. Maria Luisak ikasten jarraitu nahi zuen.

1.187. Donostian joskintza ikasten (LAS-072/007)

Gaztetan josten ikastera joaten zen Donostira, Urbietako kaleko Subijanaren tailerrera. Ikasi zuenean, etxean josten zuen enkarguz. Akademian ikasi zuena kontatzen du. Denak ziren neskak.

1.188. Laneko ordutegia; larunbatetan lanera (LAS-072/008)

Zortzi orduko lanaldia egiten zuen jostun bezala Donostian. Ordutegia. Larunbatetan ere lan egiten zen. Laneko giroa.

1.189. Arropak neurrira egiten ziren (LAS-072/009)

Oihalak Bartzelonatik eta Frantziatik ekartzen zituzten. Irakaslea eta nagusia Mari Subijana zen. Garai batean arropak neurrira egiten ziren. Umeak zirela amak josten zien arropa eta jostun asko zeuden.

1.190. Garai bateko arropa-modak (LAS-072/011)

Lau urtez josten ikasi zuen eta gero, bere kontura jarri zen etxean. Denetarik josi du. Oihalak bezeroak ekartzen zituzten eta ideia asko moda aldizkarietatik lortzen zituen. Garaiko eta gaur egungo modaz hitz egiten du.

1.191. Modak nola aldatzen diren; galtzak (LAS-072/012)

Galtzak ez zaizkio gustatzen, baina batzuetan erabiltzen ditu. Galtzak modan jarri zirenean, batzuentzat aldaketa handia izan zen.

1.192. Lagunekin bidaiatzen ezkondu aurretik (LAS-072/013)

Gaztetan igandetan bermuta hartzera joaten ziren emakumeak. Ezkondu baino lehenago bidaiak ere egiten zituzten emakumeen artean.

1.193. Haurrak nondik zetozen galdetzea tabua zen (LAS-072/014)

Eskola 13 urterekin utzi zuen, anai-arrebak zaintzeko. Haurrak etxean jaiotzen ziren. Pablo Mutiozabal zen medikua. Haurrak nondik zetozen galdetzea tabua zen, nahiz eta berak bazekien.

1.194. Haurrentzako arropak, pixoihalak... dena eskuz (LAS-072/015)

Pixoihalak jartzen zizkieten haur jaioberriei, baina azkar ikasten zuten pixa edo kaka egin nahi zutenean eskatzen. Jaioberriaren sabelean oihal edo gerriko moduko bat jartzen zen. Haurrentzako arropa eskuz egiten zen etxean.

1.195. Michelineko fabrikaren eskola, gabonsaria... (LAS-072/017)

Michelin fabrikaren eskola, eliza atzean zegoen, bertako langileen seme-alabentzat. Gabonsaria urtero ematen zuten.

1.196. Lasarte pixkanaka hazi zen; kanpotarrak (LAS-072/018)

Lasarte nola aldatu eta hazi zen. Auzoak. Kanpotik jende asko lanera joaten zen Lasartera. Batzuk bakarrik etortzen ziren, beste batzuek familia zuten hemen...

1.197. Etxeko gela bakoitzean familia bat (LAS-072/019)

Kanpotik zetorren jende asko apopilo bezala zegoen bizitzen eta beste batzuetan familia ezberdinek etxea konpartitzen zuten, gela bakoitzean familia bat.

1.198. Familiaren jatorria (LAS-072/020)

Umetan etxean irratia zuten. Zer entzuten zuten. Etxean hamar pertsona bizi ziren.

1.199. Ura eta argindarra bai, baina dutxarik ez (LAS-072/021)

Ura eta argindarra zuten etxean. Arropa etxean garbitzen zuen amak eta gero harraskan xaboia jendu. Gerora garbigailua erosi zuten. Komuna zuten baina

dutxarik ez; nola dutxatzen ziren sukaldean. Ikatzarekin berotzen zuten ura. Sukaldea beti bero.

1.200. Berbena-belar enplastuak (LAS-072/022)

Amak berbena-belarrarekin enplastuak egiten zituen, zauriak sendatzeko. Kamamila edaten zuten. Usurbilgo mendietan biltzen zituen aitak belarrak. Enplastua nola egiten zuen amak.

1.201. Umetako jolasak (LAS-072/023)

Umetako jolasak: gordeketan, sokasaltoan, tabak, "txorro-morro"... Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten. Frontoiak aritzen ziren. Bizikleta bat zuten guztientzat.

1.202. Garaiko garraioak: autobusa, trena, tranbia... (LAS-072/024)

Michelin fabrika frantziar batzuek zabaldu zuten. Autoak zituzten. Garaiko autobusak eta trena. Tranbia zegoen Donostiatik Tolosara, baina bera oso ume zenean kendu zuten.

1.203. Lasarteko hipodromoa, golf-a... (LAS-072/025)

Lasarteko hipodromora oso gutxi joaten ziren. Golf-zelaian herriko umeek bolak biltzen zituzten, diru piskat lortzeko. "Kadi" deitzen zitzaien. Donostiako jendea joaten zen golfean jolastera.

1.204. Hasierako filmak zineman; NoDo-a (LAS-072/026)

13-14 urterekin zinera joaten ziren. Mota guztietako filmak ematen ziren. Erronboekin markatuta zeuden, adinaren arabera egokiak ziren edo ez azaltzeko. Filmen aurretik NoDo-a botatzen zuten, Francok egindako gauzekin: urtegiak zabaldu, azpiegituren obrak azaldu...

1.205. Eskolan "Cara al Sol" ikuskaritza egunetan bakarrik (LAS-072/027)

Michelineko eskolan urtean behin ikuskaritza pasatzen zen eta orduan "Cara al Sol" abesten zen, bestela ez. Maistra ez zen frankista.

1.206. Michelin futbol-taldea, dantzaldia... (LAS-072/029)

"El Michelin" fabrikako futbol-taldea zen. Jokalariak lantegiko langileak edo kanpotik ekarritakoak izaten ziren. Futbol-zelaia bertan zegoen eta partiduak ikustera joaten ziren. Dantzak plazan egiten ziren. Nagusiagotan Tolosara ere joaten ziren, Beotibarrera. Senarra nola ezagutu zuen. Autobusez edo oinez joaten ziren leku batetik bestera.

1.207. Kalez kaleko denda saltzaileak (LAS-072/030)

Garaiko zinearen prezioa. Etxean paga ematen zieten.

1.208. San Pedroak Lasarten (LAS-072/031)

Herriko festak nolakoak ziren: danborrada, dantza, karrerak...

1.209. Emakumeak tabernan bakarrik (LAS-072/032)

Berak 14-15 urte zituenerako jada neskak sartzen ziren tabernara bakarrik. Lasarten ez zegoen gaizki ikusia. Taberna batzuk aipatzen ditu: Tiburtzio, Ostatu eta Gure Etxea

1.210. Santa Anako parodia (LAS-072/033)

Santa Anako parodia zer den. Gure Etxea tabernako Manuel Sagardia izan zen sortzailea. Aktoreak.

1.211. "Komedianteak", zine txikia (LAS-072/034)

"Komedianteak" egoten ziren herrian. Eliza atzean egoten ziren eta zirku txiki bat bezalakoa zen. Animaliak ere izaten zituzten.

1.212. Michelin lantegia: ordutegiak, langile-kopurua... (LAS-072/035)

Michelin lantegiko lan-ordutegia. Aita mekaniko-laguntzailea zen eta izeba bizikleten gurpilen egiaztatzailea. Langile kopurua.

1.213. Egun berezietako menua (LAS-072/037)

Herriko jaietan ohitura zegoen familiakoak elkartzea. Donostiatik izeba bat joaten zen etxera. Egun berezietako menua: arraina saltsan eta haragia.

1.214. Michelineko etxeek baratzea zuten (LAS-072/038)

Michelin lantegiko lurretan baratzea zuten. Denetarik hazten zuten. Etxe bakoitzari lursail bat ematen zitzaion. Baratzean gurasoak ibiltzen ziren. Letxuga, tomateak, patatak, babarrunak, artoa... Babarrunak asko jaten ziren.

1.215. Errazionamendua; Michelineko ekonomatoa; gozotegia (LAS-072/039)

Arto-irina Villabonan zegoen errota batean lortzen zuten. Amak taloak egiten zituen. Errazionamenduko ogia. Michelinek ekonomatoa jarri zuen. Azukre eta olioaren eskasia zegoen. "El Rich" gozotegia.

1.216. Kalean, baratzea eta animalirik ez (LAS-072/041)

Garai batean baserri gehiago zeuden, baina kalean ez zen animalia asko ikusten. Astoak lotzeko lekuak zeuden. Zaldi-karrorik ez du ezagutu bere garaian.

1.217. "Tren Txikia", Donostiatik Iruñera (LAS-072/044)

Donostiatik Iruñera joaten zen baporezko trena, "Tren txikia", Lasartetik pasatzen zen. Berak 14 urte inguru zituela kendu zuten. Leitzara joaten ziren tren horretan senideak bisitatzera.

1.218. San Pedroko eliza; apaizak (LAS-072/045)

Lasarte udalerri bezala sortu aurretik, herria Hernani eta Urnietaren artean banatzen zen. San Pedroko elizara joaten ziren. Dotrina euskaraz egiteko aukera zegoen, baina gehienek gaztelaniaz egiten zuten. Don Jose eta Don Esteban apaizak.

1.219. Ikastolaren sorrera Lasarten (LAS-072/046)

Ikastola elizaren babesean sortu zen, "elizako eskola" bezala. Seme-alabek ikastolan ikasi dute. Gurasoen lana. Irakasleak. Ikastolaren kokapena hasierako urteetan.

1.220. Aiton-amonak, gurasoak... (LAS-073/002)

Garai bateko Lasarteko General Mola kalean jaio zen. Aita hernaniarra eta ama bilbotarra. Amaren aita Bilbotik Lasartera nola heldu zen. Maria Luisaren gurasoak nola ezagutu ziren.

1.221. Eliza atzean jolasean (LAS-073/003)

Bost anai-arrebetatik zaharrena da Maria Luisa. Haur guztiak eliza atzean elkartzen ziren jolasteko.

1.222. Garai bateko Lasarte (LAS-073/004)

Lasarte nolakoa zen kontatzen du: kaleak, etxeak, konbentua...

1.223. Udaletxe atzean ikuiluak zeuden (LAS-073/005)

Michelin dagoen lekuan dena baratzeak eta soroak ziren. Udaletxe atzean ikuiluak zeuden.

1.224. Kamioiak, trolebusa, trena... (LAS-073/006)

Herrian auto gutxi zeuden baina N-1 errepidea herritik pasatzen denez, kamioiak ibiltzen ziren batez ere. Baserritarrak "trolebusean" jeisten ziren herrira. Udan trena egoten zen, jendea zaldi-lasterketetara hurbiltzeko.

1.225. Lasarteko hipodromoa eta golf-zelaia (LAS-073/007)

Zaldi-lasterketak ikustera joaten ziren. Jockey batzuen izenak aipatzen ditu. Jendea oso dotore joaten zen. Golf-zelaia zegoen Lasarten. Mutil asko joaten ziren bolak bilatzera, diru piskat lortzeko.

1.226. Jende aberatsa golf-zelaira eta hipodromora, baina ez herrira (LAS-073/008)

Nahiz eta golf-era edo hipodromora jende aberatsa joaten zen, herrian ez zitzaien ikusten. Autoan heldu eta joaten ziren.

1.227. Umetako jolasak (LAS-073/009)

Umetan eliza atzean jolasten zuten. Jolas batzuk aipatzen ditu. "Tirrikiti-kadena" jolasa azaltzen du.

1.228. Eskola gaztelaniaz (LAS-073/010)

Etxeetan euskaraz hitz egiten zen baina kalean ez. Eskolan ere ez. Baserritarrek oso gaizki pasatzen zuten eta ergeltzat jotzen zituzten irakasleek.

1.229. Baserritarrek ez zekiten gaztelaniaz; isekak (LAS-073/011)

Baserriko ikasleek ez zekiten gaztelaniaz eta irakaslea hasarretu egiten zen. Baserritarrei isekak.

1.230. Aitona, EAJ-ko zinegotzia gerra aurretik (LAS-073/012)

Aitona, Lasarteko zinegotzi abertzalea izan zen. Batzokia non zegoen.

1.231. Aita gerrako gudari izan zen (LAS-073/013)

Etxean ez zuten euskaraz hitz egiten. Amak ez zekien euskaraz. Aita, gudaria izan zen Bizkaian. Aitaren anai-arrebak.

1.232. Osabak Gursen koro euskalduna sortu zuen (LAS-073/014)

Osaba bat Gursen egon zen eta bertan koro euskaldun bat sortu zuen. Ihesi ibili ostean, Txilen bukatu zuen. Beste osaba bat falangista zen eta gerran hil zen.

1.233. Gauetan presoak fusilatzen zituzten (LAS-073/015)

Gerra garaian, udaletxeko eskoletak espetxe bihurtu ziren. Igandetan presoak mezara eramaten zituzten. Gauetan presoen bila joaten ziren eta hurrengo igandean nor falta zen ikusten zuten.

1.234. Gerraosteko gosea, miseria, biriketako gaixotasunak... (LAS-073/016)

Falangistek herria hartu zuten eta botere handia lortu zuten. Gerrako galtzaileak zigortzen zituzten. Miseria eta gosea. Birikako gaixotasunak, tuberkulosia.Espetxean egondako jende asko gaixorik bueltatzen zen.

1.235. Lasarten Alemaniako naziak egon ziren (LAS-073/017)

Maria Luisaren aitonaren bila joan ziren gau batean. Villa Mirentxu etxean komandatzia zegoen. Alemaniako naziak Lasarten ibiltzen ziren.

1.236. Oria: "Errusia Txikia"; pikeak Lasarterekin (LAS-073/018)

Oria auzoa. Herriaren nortasuna, langile-borroka, klase-kontzientzia. Lasarten abertzaleak ziren eta Orian komunistak eta errepublikarrak.

1.237. Osaba Lasarteko maistraren alde deklaratzen (LAS-073/019)

Janaria lortzeko kupoiak etxean ikusi ditu. Lasarteko maistra zen Maria Etxaniz norbaitek salatu egin zuen eta bere osaba joan zen haren alde deklaratzera.

1.238. Franco herritik pasatzen zenean (LAS-073/020)

Franco herritik pasatzen zenean, gaurdia zibilak bizpahiru pertsona atxilotzen eta jipotzen zituen, badaezpada liskarrik ez sortzeko.

1.239. Industrializazioan, kanpotik etorritako jendearen inbasioa (LAS-073/021)

Industrializazioarekin kanpotarrak heldu zirenean hasi ziren entzuten kristianoz hitz egiteko eskaerak. Kanpotik horrenbeste langle eta familia heltzen hasi zirenean, inbasio bat izango balitz bezala bizi izan zuten herrian.

1.240. Euskara ikasteko motibazioa; euskara ikasteko metodoak (LAS-073/022)

Euskara ikasteko motibazioa nondik etorri zitzaion. Arantxa Mendizabal izan zen euskarako bere lehenengo irakaslea. Giro euskaldunean eta mutil lagun euskaldunarekin ikasi zuen euskaraz.

1.241. Gau-eskola Lasarten (LAS-073/023)

Arantxa Mendizabalek gau-eskolan ematen zituen Lasarten. Kokapena.

1.242. Goi-mailako ikasketak batez ere mutilek egiten zituzten (LAS-073/024)

Intxausti aroztegian lan egin du. Donostian mekanografia eta kontabilitatea ikasi zituen. Kontxu Uzkudun-ek akademia bat zuen Lasarten. Herrian zeuden eskolak.

1.243. Emakumeentzat zerbitzu soziala "Sección Femenina"-n (LAS-073/025)

"Sección Femenina"-ko maistrak zituzten, baina ez du sekzioko bulegorik gogoratzen Lasarten. Kotxeko karneta ateratzeko, zerbitzu soziala egin behar zuten Donostian. Otar ("canastilla") bat egin behar zuten, ume jaioberrien arroparekin.

1.244. Michelinen emakume asko lanean (LAS-073/026)

Michelinen jende askok lan egiten zuen. Ezkondutako emakumeek lan egiten zuten bertan ere.

1.245. Dantzatokian ligatzen (LAS-073/028)

Geltokiko kalean ospatzen ziren herriko jaiak. Plazan dantzatokia jartzen zuten eta bertara joaten ziren ligatzera. Hernanin mutilek ordaindu egin behar zuten dantza egiteko.

1.246. Zinema Lasarten eta Añorgan (LAS-073/029)

Lasarten zinema non zegoen. Añorgako zinemara ere joaten ziren. Zein pelikula ikusten zituzten. Helduentzako filmak. NODO-a.

1.247. Radio Paris entzuten zuten irratian (LAS-073/031)

Etxean Radio Paris irratsaio klandestinoa entzuten zuten. Aitonak egun osoan entzuten zuen. Euskarazko kantak ez ziren entzuten irratian, 60. hamarkadara arte.

1.248. Euskal Telebistaren lehenengo emanaldia (LAS-073/032)

Gabonetan, Euskal Telebista hasi zen momentua gogoratzen du. Telebista euskaraz entzutearen sentimendua.

1.249. Lasarteko ikastolaren sorrera (LAS-073/033)

Lasarteko ikastolaren sorreran parte-hartu zuen. Maria Luisaren senarra ibili zen ikastla sortzeko bilerak egiten, andereñoak bilatzen...

1.250. Bertso-saioak Lasarten (LAS-073/035)

Lasartera joandako bertsolariak: Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki, Mattin, Lasarte, Gorrotxategi, Amuriza... Saioak non izaten ziren.

1.251. Santa Ana parodia (LAS-073/036)

Santa Ana parodia non egiten zen. Zer da. Gaztelaniaz zen baina denborarekin euskaraz izatera pasatu da.

1.252. Lasarteko festak nolakoak ziren; estropadak (LAS-073/037)

Lasarteko festak nolakoak ziren. San Pedro jaietako egitaraua. Sokamuturra, dantzak, kalejirak... Santa Anako jaietan, parodia egiten zen. Estropadak antolatu izan dira. Inguruko herrietako jaiak.

1.253. Antzinako lanbideak: txurro-saltzailea, barkileroa, serenoa... (LAS-073/038)

Antzinako lanbideak: txurro-saltzailea, alpargatak egiten zituena, barkileroa. Serenoarekin lana zein zen.

1.254. Lasarteko medikuak eta praktikantea (LAS-073/039)

Lasarteko medikuak: Don Pablo Mutiozabal, Don Santiago Sarasola... Jose Manuel Idigoras, Michelinen zegoen praktikantea zen. Oso kaletarrak ziren Maria Luisaren etxean eta sendabelarrik ez zuten erabiltzen orduan.

1.255. Hiltegia, Ganbo eta labaderoa (LAS-073/040)

Hiltegia eta labaderoari buruz. Nolakoa zen. Emakumeen berriketa-gune bat izaten zen. Lanbide bezala arropa garbitzen zuten emakumean zeuden.

1.256. Garai bateko sukaldeak, komuna... (LAS-073/041)

Garai bateko sukaldekoak nolakoak ziren. Ekonomikak. Egurra eta ikatza erosi egiten zuten. Etxean komuna eta dutxa zuten. Ura-berotzeko sistema bat zuten.

1.257. Betidanik ezagutu du telefonoa, baina ez zen ohikoena (LAS-073/042)

Telefonoa beti ezagutu du etxean. Bizilagunek haien etxeko telefonoa erabiltzen zuten. Goiko bizilagunak telebista zuen.

1.258. Hozkailua izan aurretik, "freskera" (LAS-073/043)

Hozkailua izan aurretik, "freskera" zuten. Nolakoa eta non zegoen kokatuta kontatzen du. Izotza erosi egiten zen.

1.259. Dotrina, meza... dena gaztelaniaz (LAS-073/045)

Errogatibak egiten zituzten elizari buelta emanez, lehorteak zeudenean. Igandetako hamarretako meza euskaraz zen, baserritarrentzat bereziki. Don Esteban-ek ematen zien dotrina, gaztelaniaz.

1.260. Gaztelaniaz hitz egiteko joera: Donostiaren eragina, immigrazioa... (LAS-073/046)

Lasarte Donostiatik hain gertu egonda, garai batean gaztelaniaz hitz egiteko joera handia egon zen, moda edo prestigio kontuengatik. Gaur egun euskara gehiago entzuten da Lasarten.

1.261. Euskararen egoera Lasarten gaur egun (LAS-073/047)

Gaur egun Lasarten euskara gehiago entzuten da, baina umeen artean gaztelania asko entzuten du.

1.262. Haurdunaldia, hilerokoa, sexua... tabua ziren (LAS-073/049)

Bost anai-arrebak etxean jaio ziren. Emagina, Pepita, Donostiatik joaten zen. Haurdunaldiak tabu ziren. Hilerokoari buruz ez zen hitz egiten. Sexuari buruz ez zen hitz egiten eta gainera bekatua zen.

1.263. Konfesatzea derrigorrezkoa zen; dantza-lotua (LAS-073/050)

Garai batean egunero mezetara joan behar izaten zuten eta konfesatu egin behar ziren. Elizaren indarra handia zen. "Mariaren alabak" eta dantza lotua.

1.264. Emakumeek erretzea eta edatea oso gaizki ikusia (LAS-073/051)

Gazteak zirenean galtzak janzten hasi ziren baina ordura arte, beti gona. Emakumeak tabernetara satzea normalizatzen hasi zen bera gaztea zenean, baina erretzea eta alkohola edatea gaizki ikusia zegoen.

1.265. Bizimodua asko aldatu da (LAS-073/052)

Bizimodua asko aldatu da. Garai batean, konformidadea askoz ere handiagoa zen.

1.266. Garai batean ez zen zaborrik sortzen; dena berrerabiltzen eta konpontzen zen (LAS-073/053)

Zabor oso gutxi sortzen zen, txerri-janerako botatzen zelako, plastikorik ez zegoelako, kristalezko-ontziak berrerabili egiten zirelako, dena konpontzen zen...

1.267. Zapataria eta jostuna (LAS-073/054)

Oinetako guztiak konpontzen ziren. Ingelmo zen Lasarteko zapatarietako bat. Zapatetan ferra ipintzen zen, gehiago irauteko. Arropa berria jostunak egiten zuen. Domu Santu egunean berokia estreinatzen zuten eta San Pedrotan udarako arropa.

1.268. Ipuin-kontalaritzan nola hasi zen (LAS-080/004)

Arrasaten ingurugiro arloko ikasketak egin zituen. Han bizitzen eta lan egiten ari zela, 'Oihulari Klown' taldeak antolatutako ipuin-kontalaritza ikastaro bat egin zuen. Ordezkapen bat eginez hasi zen mundu horretan. Clown ikastaroa ere egin zuen eta 'Oihulari Klown' taldeko partaide izan zen pare bat urtez.

1.269. Hasiera, liburutegietan eta haurrentzat (LAS-080/005)

Gehienbat haurrentzat zuzendutako ipuin-kontalaritzan ibili izan da. Hego Euskal Herrian ez da ipuingintza helduentzako zerbait bezala ulertzen. Aldiz umeentzako ipuin-kontaketak garrantzia hartu du eta hazkunde bat egon da. Batez ere liburutegietan hasi zen.

1.270. Ipuinen mundura bidaiatzea (LAS-080/008)

Ipuinak irudimena lantzeko oso egokiak dira. Umeen bizitza oso estresagarria da eta ipuinak errealitate horretatik deskantsatzeko balio du. Bakoitzak bere buruan irudiak eraikitzen ditu. Dena posible den mundu bat zabaltzen da ipuinekin.

1.271. Ipuinari laguntzeko ilustrazioak bai ala ez? (LAS-080/009)

Kontalaria eta helburuaren araberako ilustrazioak eskaini behar direla uste du. Ipuinetako ilustrazioak ez dira nahikoa baloratzen. Beraien saioetan kontaketa, marrazkilaritza eta clown-a uztartzen dituzte.

1.272. Ipuinek haurrak nahiz helduak erakartzen dituzte (LAS-080/010)

Ipuinak bere baitan asko erakartzen ditu haurrak. Helduak ere kontakizunarekin harrapatuta geratzen dira.

1.273. "Erradikalak gara" umorezko bakarrizketa (LAS-080/011)

1998an hasi zen ipuin-kontalari moduan. Gaur egun helduentzako umorezko bakarrizketak egiten ditu batez ere. 2017tik geroztik, Ane Labaka bertsolariarekin batera, "Erradikalak gara" ikuskizuna eskaini izan dute, antzerkia eta bertsolaritza uztartuz.

1.274. Bakarrizketetan clown-ak ematen dion babesa (LAS-080/012)

Bakarrizketetan clown bezala agertzeak babesa eta distantzia ematen dio. Gauzak kontatzerakoan puztu ere egiten ditu. Esaten duen guztia defendatuko luke baina ez du pentsatzen duen guztia esaten. Ironia erabiltzen du.

1.275. "Errealitate fantastiko kritikoa" (LAS-080/014)

Mariasun Landaren estiloa "errealitate fantastiko kritikoa" dela irakurri zuen eta asko gustatu zitzaion definizio hori. Bere bakarrizketak ere halakoak direla uste du. Beti umorea egin izan du, ez daki draman ondo moldatuko litzatekeen.

1.276. "Erradikalak gara" eta feminismoa (LAS-080/015)

"Erradikalak gara" bakarrizketaren ondoren, feminismoari lotutako ekitaldietan parte hartzeko deitu izan diote. Ondarroako topaketa feminista bat izan zen mugarria. 'Oihulari Klown'-ekin Virginia Imazek dagoeneko lantzen zuen feminismoa. "Erradikalak gara"-n bertsolaritza eta feminismoa uztartu zituzten. Arrakasta handia izan zuen.

1.277. Bakarrizketa "feministak" egiten al ditu? (LAS-080/017)

Ikuspegi feministadun bakarrizketak egiten ditu. Horrek ez du esan nahi emakumeentzat bakarrik direnik. Hala izango balitz ere ez dio batere inporta.

1.278. Umorearen mugak (LAS-080/020)

Umoreak ez dauka zentralitaterik arte eszenikoen barruan, baina gero eta gehiago apreziatzen da. Umorearen mugak.

1.279. Sistema patriarkalaren eragina antzerkian (LAS-080/022)

Antzerki ikasketetan emakumezko gehiago egon arren, gero oholtza gainean bukatzen dutenak gizonezkoak gehiago dira. Sistema patriarkalak esplikatzen du hau. Subjektu unibertsala gizonezkoa da; emakumea, berriz, bigarren mailakoa.

1.280. Sistema patriarkalaren eragina emakumeengan (LAS-080/024)

Gauza asko gure izaeragatik gertatzen zaizkigula uste dugu baina atzetik sistema patriarkalaren eragina dago. "Magma mia" bakarrizketan honi buruz hitz egiten du.

1.281. Emakumearen tokia arte eszenikoetan (LAS-080/025)

Arte eszenikoetan oraindik ere genero rolak markatuta daude. Lanbide teknikoak gizonezkoenak dira; jantzitegia eta makillajea, aldiz, emakumeena. Hala ere, gauzak asko aldatu dira eta emakumezko zuzendari gehiago daude. Ardura postuak asko borrokatu behar dira oraindik ere. Emakumeei ez zaie onartzen erdipurdikoak izatea, gizonei bai.

1.282. Kanon estetikoen presioa (LAS-080/027)

Beatrizek bere lana arte eszenikoen periferian kokatzen du, beraz ez du bizi izan casting-etako presioa. Gainera clown munduan gorputzak kanonetatik zenbat eta urrunago egon, orduan eta komikoagoak dira. Baina hortik kanpo kanon estetikoak betetzearen presioak arazo handiak sortu ditzake. Emakumeen gehiengoak sufritzen du. "Iraultza menopausiatik etorriko da" Bearen ustez.

1.283. Amatasuna eta maitasun erromantikoa (LAS-080/028)

Lana eta familia uztartzea zailagoa da emakumeentzat. Amatasunari eta aitatasunari sistemak ez dizkio gauza berdinak eskatzen. Gizonengandik ez da ezer espero, aldiz emakumeei dena eskatzen zaie. Amatasunarekin eta maitasun erromantikoarekin iruzurra sartu digutela uste du. Familia eskema tradizionalek ez dute funtzionatzen, baina ez gara eskema berriak pentsatzera ausartzen.

1.284. Lana eta familia uztartzea (LAS-080/029)

Lana eta familia uztartzea zailagoa da emakumeentzat. Zaintza sare bat beharrezkoa da. Bere lanaren ziurgabetasuna.

1.285. Adinaren eragozpenak (LAS-080/030)

Adin batetik aurrera ez dira berdin epaitzen gizon eta emakumeen gorputzak. Sistema patriarkalak esaten du gizonezkoa subjektu unibertsala dela eta emakumea bigarren mailakoa. Desiragarritasuna. Bere bakarrizketak idatzi eta antzezten dituenez, ez du hau hainbeste bizi.

1.286. Gizarteak gehiago eskatzen die emakumeei (LAS-080/032)

Sistemak gizonezkoei sinestarazi die onenak direla eta beraz orokorrean autoestimu altuagoa dute emakumeek baino.

1.287. Emakumea plaza publikoan (LAS-080/033)

Kritikoak ez dira joaten bera mugitzen den periferiara. Hala ere, ez dago ziur zentralitatea gustatuko litzaiokeen, horrek ekarriko lukeenarekin. Sare sozialak eta politika dira adibide garbia: emakumeei egur gehiago ematen zaie.

1.288. Emakumeengandik espero dena (LAS-080/034)

Emakume batek zenbait gauza esan edo egitea itsusi ikusten da. Batzuetan jendea harritu egiten da bere emanaldia hain ona izatea ez zuelako espero. Gizonezko batzuen autoestimu altuak inbidia ematen dio.

1.289. Emakumezko bati lekua uzteko gizonezkoen zailtasuna (LAS-080/035)

Gizonezkoek zailtasunak dituzte emakumezko bati lekua uzterako garaian. Gizon askok ez dute sistema patriarkalaren zapalkuntza ikusten, beraien botere lekuan eroso daudelako. Irudimena falta da egiturak eraldatzeko eta binarismoak ez du laguntzen.

1.290. Leku arrakastatsuena lortzeko gizonen abilezia (LAS-080/039)

Emakume ipuin-kontalari gehiago egon arren, gizonen izenak gehiago ezagutzen ditugu. Sukaldaritzan berdin gertatzen da. Ipuin-kontalaritza gure gizartean ez da asko baloratzen. Pailazoen hirukote klasikoan emakumeak egon direnean pertsonaia serioaren rola egin dute ("aurpegi zuria" deiturikoa). "Tonto" papera gizonezkoek egiten dute, hori baita benetan pertsonaia arrakastatsua.

1.291. "Emakume kontuak" (LAS-080/041)

Bere lanari "feminista" etiketa ipintzen badiote, beste obra batzuei "patriarkala" etiketa ere berdin-berdin ipini beharko litzaiekeela uste du. Emakumeen gaiak bigarren mailakoak izan dira beti gizonentzat eta oholtza gainean ipintzeak ezinegon bat eragiten du. Gizon batzuek bere bakarrizketa eraso pertsonaltzat hartzen dute. Emakumeek betidanik jasan izan dugun bortizkeria, aldiz, ez dute ikusten. Feminismoa ez zaie gaizki iruditzen baina "pasa gabe".

1.292. Emakume izatea artista izatearen gainetik (LAS-080/043)

Emakume izatea artista izatearen gainetik jartzen da. Adibidez, Virginia Imazi ('Oihulari Klown') Emakundek "emakume artista" saria eman zion. Emakunde desagertu egin da. Antzerki "feminista" etiketa ipintzen bada, zergatik ez antzerki "patriarkala"?

1.293. "Emakume" hitza lanbidearen aurretik ipintzea (LAS-080/044)

Euskarak generoa markatzen ez duenez, lanbideak aipatzerakoan askotan estereotipoetan erortzen gara. Emakume izaera markatu beharra izaten da, baina horrek askotan beste konnotazio batzuk ekartzen ditu.

1.294. Emakumeen itxura (LAS-080/046)

Telebistako aurkezleen janzkera. Hortik kanpo ere emakumeen itxura baldintzatuta dago.

1.295. Emakumea eta umorea (LAS-080/047)

Emakumeak umore asko egin du, sufrimendu asko jasan duelako. Baina pribatuan, emakumeen artean, egin izan du. Publikoaren aurrean egitea gizonen eremua izan da. Bestalde, emakumeari seriotasuna eta zintzotasuna eskatu izan zaio betidanik. Emakume batek umorea egiteko feminitatearen rolarekin apurtu behar du. Alde guztietatik jasotzen ditugu mezu matxistak. Emakumeei beti maila altuena eskatzen zaie. Bearen ustez gizon bakarrizketatzaile oso txarrak daude baina aretoetan funtzionatzen ari dira; dauden emakumeak, berriz, oso onak dira eta asko borrokatu behar izan dutenak.

1.296. Umore arina gaizki ikusia emakumeengan (LAS-080/049)

Desberdin epaitzen da umorea emakume edo gizonengan. Berak pentsatzen dituen gauzak adierazteko erabiltzea aukeratu du, baina umore arina ere aukera bat da. Hori bai, emakume batek egiten duenean gaizki ikusten da.

1.297. Feminismoaren lorpenak (LAS-080/051)

Ez gara kontziente mugimendu feministaren lorpenez. Instituzioetan feminismoa atzeratuago doa. Gaur egun dauden kontzeptu batzuk orain dela ez asko pentsaezinak ziren. Hori mugimendu feministak lortu du. Kontrako mugimendua ere gogorragoa da eta diskurtsoa aldatu du. Feminismoa oso ondo ari da Bearen ustez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-24

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com